

REGLAMENTO (UE) 2018/848 DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO,	(EB) 2018/848 ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA
de 30 de mayo de 2018,	2018ko maiatzaren 30ekoa,
sobre producción ecológica y etiquetado de los productos ecológicos y por el que se deroga el Reglamento (CE) n.o 834/2007 del Consejo	ekoizpen ekologikoari eta produktu ekologikoen etiketatuari buruzkoa dena eta Kontseiluaren (EE) 834/2007 Erregelamendua indargabetzen duena
TEXTO CONSOLIDADO	TESTU KONTOLIDATUA
Modificado por:	Arau hauen bidez aldatua:
►M1 REGLAMENTO DELEGADO (UE) 2020/427 DE LA COMISIÓN DE 13 DE ENERO DE 2020 , DO L 87, P. 1, 23.3.2020.	►M1 (EB) 2020/427 ERREGELAMENDU ESKUORDETUA, BATZORDEARENA, 2020ko URTARRILAREN 13koa , AO L 87, 1. or., 2020-03-23
M2 REGLAMENTO DELEGADO (UE) 2021/269 DE LA COMISIÓN de 4 de diciembre de 2020 , DO L 60, p. 24, 22.2.2021	M2 (EB) 2021/269 ERREGELAMENDU ESKUORDETUA, BATZORDEARENA, 2020ko abenduaren 4koa , AO L 60, 24. or., 2021-02-22
►M3 REGLAMENTO (UE) 2020/1693 DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO de 11 de noviembre de 2020 , DO L 381, p. 1, 13.11.2020	►M3 (EB) 2020/1693 ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2020ko azaroaren 11koa , AO L 381, 1. or., 2020-11-13
►M4 REGLAMENTO DELEGADO (UE) 2020/1794 DE LA COMISIÓN de 16 de septiembre de 2020 , DO L 402, p. 23, 1.12.2020	►M4 (EB) 2020/1794 ERREGELAMENDU ESKUORDETUA, BATZORDEARENA, 2020ko irailaren 16koa , AO L 402, 23. or., 2020-12-01
►M5 REGLAMENTO DELEGADO (UE) 2021/642 DE LA COMISIÓN de 30 de octubre de 2020 , DO L 133, p. 1, 20.4.2021	►M5 (EB) 2021/642 ERREGELAMENDU ESKUORDETUA, BATZORDEARENA, 2020ko urriaren 30ekoa , AO L 133, 1. or., 2021-04-20
►M6 REGLAMENTO DELEGADO (UE) 2025/452 DE LA COMISIÓN de 19 de diciembre de 2024 , DO L 452, p. 1, 5.3.2025	►M6 Arau honen bidez aldatua: (EB) 2025/452 ERREGELAMENDU ESKUORDETUA, BATZORDEARENA, 2024ko abenduaren 19koa , AO L 452, 1. or., 2025-03-05
►M7 REGLAMENTO DELEGADO (UE) 2021/715 DE LA COMISIÓN de 20 de enero de 2021 , DO L 151, p. 1, 3.5.2021	►M7 (EB) 2021/715 ERREGELAMENDU ESKUORDETUA, BATZORDEARENA, 2021eko urtarrilaren 20koa , AO L 151, 1. or., 2021-05-03
►M8 REGLAMENTO DELEGADO (UE) 2021/716 DE LA COMISIÓN de 9 de febrero de 2021 , DO L 151, p. 5, 3.5.2021	►M8 (EB) 2021/716 ERREGELAMENDU ESKUORDETUA, BATZORDEARENA, 2021eko otsailaren 9koa , AO L 151, 5. or., 2021-05-03
M9 REGLAMENTO DELEGADO (UE) 2021/1006 DE LA COMISIÓN de 12 de abril de 2021 DO L 222, p. 3, 22.6.2021	M9 (EB) 2021/1006 ERREGELAMENDU ESKUORDETUA, BATZORDEARENA, 2021eko apirilaren 12koa , AO L 222, 3. or., 2021-06-22
►M10 REGLAMENTO DELEGADO (UE) 2021/1691 DE LA COMISIÓN de 12 de julio de 2021 , DO L 334, p. 1, 22.9.2021	►M10 (EB) 2021/1691 ERREGELAMENDU ESKUORDETUA, BATZORDEARENA, 2021eko uztailaren 12koa , AO L 334, 1. or., 2021-09-22
►M11 REGLAMENTO DELEGADO (UE) 2021/1697 DE LA COMISIÓN de 13 de julio de 2021 , DO L 336, p. 3, 23.9.2021	►M11 (EB) 2021/1697 ERREGELAMENDU ESKUORDETUA, BATZORDEARENA, 2021eko uztailaren 13koa , AO L 336, 3. or., 2021-09-23
►M12 REGLAMENTO DELEGADO (UE) 2022/474 DE LA COMISIÓN de 17 de enero de 2022 , DO L 98, p. 1, 25.3.2022	►M12 (EB) 2022/474 ERREGELAMENDU ESKUORDETUA, BATZORDEARENA, 2022ko urtarrilaren 17koa , AO L 98, 1. or., 2022-03-25
►M13 REGLAMENTO DELEGADO (UE) 2023/207 DE LA COMISIÓN de 24 de noviembre de 2022 , DO L 29, p. 6, 1.2.2023	►M13 (EB) 2023/207 ERREGELAMENDU ESKUORDETUA, BATZORDEARENA, 2022ko azaroaren 24koa , AO L 29, 6. or., 2023-02-01
►M14 REGLAMENTO DELEGADO (UE) 2024/2867 DE LA COMISIÓN de 2 de septiembre de 2024 , DO L 2867, p. 1, 11.11.2024	►M14 (EB) 2024/2867 ERREGELAMENDU ESKUORDETUA, BATZORDEARENA, 2024ko irailaren 2koa , AO L 2867, 1. or., 2024-11-11
►M15 REGLAMENTO DELEGADO (UE) 2025/405 DE LA COMISIÓN de 13 de diciembre de 2024 , DO L 405, p. 1, 26.2.2025	►M15 (EB) 2025/405 ERREGELAMENDU ESKUORDETUA, BATZORDEARENA, 2024ko abenduaren 13koa , AO L 405, 1. or., 2025-02-26
Rectificado por:	Zuzenketa hauen bidez zuzendua:
►C1 Rectificación., DO L 270, 29.10.2018, p. 37 ((UE) 2018/848)	►C1 Zuzenketa, 2018-10-29ko EBAO L 270, 37. or. [(EB) 2018/848]
►C2 Rectificación., DO L 305, 26.11.2019, p. 59 (2018/848)	►C2 Zuzenketa, 2019-11-26ko EBAO L 305, 59. or. (2018/848)
C3 Rectificación., DO L 439, 29.12.2020, p. 32 (2020/1794)	C3 Zuzenketa, 2020-12-29ko EBAO, L 439 32. or. (2020/1794)
►C4 Rectificación., DO L 007, 11.1.2021, p. 53 (2018/848)	►C4 Zuzenketa, 2021-01-11ko EBAO L 007 53. or. (2018/848)

►C5 Rectificación., DO L 204, 10.6.2021, p. 47 ((UE) 2018/848)	►C5 Zuzenketa, 2021-06-10eko EBAO L 204, 47. or. [(EB) 2018/848]
►C6 Rectificación., DO L 227, 1.9.2022, p. 138 (2018/848)	►C6 Zuzenketa, 2022-09-01eko EBAO L 227, 138. or. (2018/848)
►C7 Rectificación., DO L 321, 15.12.2022, p. 74 (2018/848)	►C7 Zuzenketa, 2022-12-15eko EBAO L 321, 74. or. (2018/848)
►C8 Rectificación., DO L 90732, 15.11.2024, p. 1 (2018/848)	►C8 Zuzenketa, 2024-11-15eko EBAO, L 90732, 1. or. (2018/848)
CAPÍTULO I	I. KAPITULUA
OBJETO, ÁMBITO DE APLICACIÓN Y DEFINICIONES	XEDEA, APLIKAZIO-EREMUA ETA DEFINIZIOAK
Artículo 1	1. artikulua
Objeto	Xedea
El presente Reglamento sienta los principios de la producción ecológica y establece las normas aplicables a dicha producción, a la certificación respectiva y al uso de indicaciones referidas a la producción ecológica en el etiquetado y la publicidad, así como a las normas sobre controles adicionales a los establecidos en el Reglamento (UE) 2017/625.	Erregelamendu honek ekoizpen ekologikoaren printzipioak finkatzen ditu, eta arauak ezartzen ditu ekoizpen mota horretarako, dagokion ziurtapenerako eta etiketatuan eta publizitatean ekoizpen ekologikoari buruz ematen diren argibideetarako; orobat, arauak ezartzen ditu (EB) 2017/625 Erregelamenduan zehaztutakoen gehigarri diren kontroletarako.
Artículo 2	2. artikulua
Ámbito de aplicación	Aplikazio-eremua
1.	1.
El presente Reglamento se aplica a los siguientes productos que tengan su origen en la agricultura, incluida la acuicultura y la apicultura, tal y como se enumeran en el anexo I del TFUE, y a los productos que tengan su origen en ellos, cuando dichos productos se produzcan, preparen, etiqueten, distribuyan o comercialicen, se importen a la Unión o se exporten de ella, o cuando estén destinados a cualquiera de lo anterior:	Erregelamendu hau aplikatzen zaie bai EBFTren I. eranskinetako zerrendaren arabera nekazaritzatik (akuikultura eta erlezaintza barne) sortutako produktuei, bai produktu horietatik eratorritakoei, baldin eta Batasunean ekoizten, prestatzen, etiketatzen, banatzen edo merkaturatzen badira, Batasunera inportatzen edo Batasunetik esportatzen badira edo aurreko ekintzetako edozeinetara bideratuta badaude. Hona produktuok:
a) productos agrícolas vivos o no transformados, incluidas las semillas y demás materiales de reproducción vegetal;	a) nekazaritza-produktu biziak edo eraldatu gabeak, haziak eta landare-ugalketako gainerako materialak barne;
b) productos agrícolas transformados destinados a la alimentación humana;	b) gizakien elikadurarako nekazaritza-produktu eraldatuak;
c) pienso.	c) pentsua.
El presente Reglamento se aplica también a determinados productos estrechamente vinculados a la agricultura, enumerados en el anexo I del presente Reglamento, cuando sean producidos, preparados, etiquetados, distribuidos, comercializados, importados a la Unión o exportados de esta, o vayan a serlo.	Erregelamendu hau nekazaritzarekin lotura estua daukaten produktu jakin batzuei ere aplikatzen zaie (erregelamendu honen I. eranskinean daude zerrendatuta), Batasunean ekoizten, prestatzen, etiketatzen, banatzen edo merkaturatzen badira, Batasunera inportatzen edo Batasunetik esportatzen badira, edo hala egingo bada.
2.	2.
El presente Reglamento se aplica a todo operador que, en cualquier etapa de la producción, preparación y distribución, desarrolle actividades relacionadas con los productos precisados en el apartado 1.	Erregelamendu hau 1. apartatuan zehaztutako produktuei lotuta edozein ekoizpen-, prestaketa- eta banaketa-etapatan jarduerak egiten dituzten operadore guztiei aplikatzen zaie.

3.	3.
El presente Reglamento no se aplica a las actividades de restauración colectiva realizadas por colectividades según se definen en el artículo 2, apartado 2, letra d), del Reglamento (UE) n.o 1169/2011 sin perjuicio de lo dispuesto en el presente apartado.	Erregelamendu hau ez zaie aplikatzen (EB) 1169/2011 Erregelamenduaren 2.2.d) artikuluan definitzen diren kolektibitateek egindako sukaldaritza kolektiboko jardueri, apartatu honetan xedatutakoa ezertan eragotzi gabe.
Los Estados miembros podrán aplicar normas nacionales o, en su defecto, normas privadas en materia de producción, etiquetado y control de los productos procedentes de actividades de restauración colectiva. No se utilizará el logotipo de producción ecológica de la Unión Europea en el etiquetado, la presentación o la publicidad de dichos productos ni con el fin de hacer publicidad del responsable de la restauración colectiva.	Estatu kideek sukaldaritza kolektiboko jardueretatik datozen produktuen ekoizpenari, etiketatuari eta kontrolari buruzko arau nazionalak edo, halakorik ezean, arau pribatuak aplikatu ahalko dituzte. Europar Batasunaren ekoizpen ekologikoaren logotipoa ez da erabiliko, ez produktu horien etiketatuan, ez aurkezpenean, ez publizitatean; orobat ez da erabiliko sukaldaritza kolektiboaren arduradunaren publizitatea egiteko.
4.	4.
Salvo que se disponga lo contrario, el presente Reglamento se aplica sin perjuicio de la legislación conexas de la Unión, en particular en los ámbitos de la seguridad de la cadena alimentaria, la salud y el bienestar de los animales, la fitosanidad y los materiales de reproducción vegetal.	Kontrakoa xedatu ezean, erregelamendu hau aplikatzeak ez ditu ezertan eragotziko harekin lotura duten Batasunaren legeak, bereziki eremu hauetan: elikakatea, animalien osasuna eta ongizatea, fitosanitatea eta landare-ugalketako materialak.
5.	5.
El presente Reglamento se aplica sin perjuicio de otras normas de la Unión específicas relativas a la comercialización de productos y, en particular, del Reglamento (UE) n.o 1308/2013 del Parlamento Europeo y del Consejo (1) y del Reglamento (UE) n.o 1169/2011.	Erregelamendu hau aplikatzeak ez ditu ezertan eragotziko produktuak merkaturatzeari buruz Batasunak ezarritako berariazko beste arau batzuk, bereziki, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 1308/2013 Erregelamendua (1) eta (EB) 1169/2011 Erregelamendua.
6.	6.
La Comisión estará facultada para adoptar actos delegados con arreglo al artículo 54, que modifiquen la lista de productos que figura en el anexo I añadiendo a la lista otros productos o modificando las entradas añadidas. Solamente podrán incluirse en dicha lista productos que estén estrechamente vinculados con los productos agrícolas.	Batzordeak ahalmena izango du 54. artikulua araberako egintza eskuordetuak onartzeko, I. eranskinean jasotako produktu-zerrenda aldatze aldera, bai zerrendari beste produktu batzuk gehituta, bai gehitutako sarrerak aldatuta. Nekazaritza-produktuekin lotura estua duten produktuak bakarrik sartu ahalko dira zerrenda horretan.
Artículo 3	3. artikulua
Definiciones	Definizioak
A los efectos del presente Reglamento, se entenderá por:	Erregelamendu honi dagokionez, definizio hauek hartuko dira kontuan:
1) «producción ecológica»: el uso, también durante el período de conversión a que se refiere el artículo 10, de métodos de producción que cumplan lo dispuesto en el presente Reglamento en todas las etapas de la producción, preparación y distribución;	1) «Ekoizpen ekologikoa»: Erregelamendu honetan xedatutakoa betetzen duten ekoizpen-metodoak erabiltzea ekoizpen-, prestaketa- eta banaketa-etapa guztietan —10. artikuluan zehaztutako bihurtze-aldian ere bai—.
2) «producto ecológico»: producto resultante de la producción ecológica, distinto de los productos obtenidos durante el período de conversión a que se refiere el artículo 10. Los productos de la caza y	2) «Produktu ekologikoa»: Ekoizpen ekologikotik datorren produktua, 10. artikuluan zehaztutako bihurtze-aldian lortutako produktua ez dena.

de la pesca de animales salvajes no se considerarán productos ecológicos;	Animalia basatien ehizatik eta arrantzatik datozen produktuak ez dira hartuko produktu ekologikotzat.
3) «materia prima agraria» : un producto agrario que no se ha sometido a ninguna operación de conservación o transformación;	3) «Nekazaritza-lehengaia»: Kontserbazio- edo eraldaketa-eragiketarik izan ez duen nekazaritza-produktua.
4) «medidas preventivas» : las medidas que deben tomar los operadores en cada etapa de la producción, preparación y distribución, para garantizar la conservación de la biodiversidad y la calidad del suelo, las medidas de prevención y control de plagas y enfermedades, y las medidas que deben tomar para evitar los efectos negativos en el medio ambiente y en la salud de los animales y de las plantas;	4) «Prebentzio-neurriak»: Operadoreek ekoizpen-, prestaketa- eta banaketa-etapa guztietan biodibertsitatea eta lurzorua ren kalitatea bermatzeko hartu behar dituzten neurriak; izurriak eta gaixotasunak prebenitzeko eta kontrolatzeko neurriak, eta ingurumenean eta animalien eta landareen osasunean efektu negatiboak saihesteko hartu behar dituzten neurriak.
5) «medidas de precaución» : las medidas que deben tomar los operadores en cada etapa de la producción, preparación y distribución a fin de evitar la contaminación con productos o sustancias que no están autorizados para su uso en la producción ecológica de conformidad con el presente Reglamento, y evitar que se mezclen productos ecológicos con productos no ecológicos;	5) «Zuhertasun-neurriak»: Operadoreek ekoizpen-, prestaketa- eta banaketa-etapa guztietan hartu behar dituzten neurriak; batetik, kutsatzerik gerta ez dadin erregelamendu honen arabera ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimenduta ez dauden produktuen edo substantzien bidez, eta, bestetik, produktu ekologikoak eta produktu ez-ekologikoak nahas ez daitezen.
6) «conversión» : transición de la producción no ecológica a la producción ecológica durante un período de tiempo determinado, en el cual se apliquen las disposiciones del presente Reglamento relativas a la producción ecológica;	6) «Bihurtzea»: Ekoizpen ez-ekologikotik ekoizpen ekologikorako trantsizioa egitea denbora-tarte jakin batean, zeinetan erregelamendu honetan ekoizpen ekologikoari buruz jasotako xedapenak aplikatzen baitira.
7) «producto en conversión» : un producto que se obtiene en el período de conversión mencionado en el artículo 10;	7) «Bihurtze-aldiko produktua»: 10. artikuluan aipatutako bihurtze-aldian ekoizten den produktua.
8) «explotación» : todas las unidades de producción que funcionan con una dirección única a efectos de la producción de productos agrícolas vivos o no transformados, incluidos los productos que tengan su origen en la acuicultura y la apicultura, mencionados en el artículo 2, apartado 1, letra a), o los productos enumerados en el anexo I distintos de los aceites esenciales y la levadura;	8) «Ustiatagia»: Zuzendaritza bakar baten pean diharduten ekoizpen-unitate guztiak, produktu jakin hauek ekoiztea helburu duten heinean: batetik, 2.1.a) artikuluan aipatutako nekazaritza-produktu biziak edo eraldatu gabeak —akuikulturatik eta erlezaintzatik datozen produktuak barne—, eta, bestetik, I. eranskinean zerrendatuta dauden produktuak, kanpoan utzita esentzia-olioak eta legamiak.
9) «unidad de producción» : todos los activos de una explotación, tales como locales de producción primaria, parcelas de terreno, pastizales, espacios al aire libre, alojamientos o partes de alojamientos para animales, colmenas, estanques de piscicultura, sistemas de contención y emplazamientos para algas o animales de la acuicultura, unidades de cría, concesiones ribereñas o del fondo marino, y locales de almacenamiento de las cosechas, de los productos de las cosechas, de los productos derivados de algas, de los productos de origen animal, de las materias primas y de cualquier otro insumo pertinente gestionado como se dispone en los puntos 10, 11 o 12;	9) «Ekoizpen-unitatea»: Ustiatagi bateko aktibo guztiak; adibidez, ekoizpen primarioko lokalak, lurzatiak, larreak, aire zabaleko espazioak, animalientzako ostatuak edo ostatu zatiak, erlauntzak, arrain-hazkuntzako urmaelak, algentzako edo akuikulturako animalientzako euste-sistemak eta kokalekuak, hazkuntza-unitateak, erriberako edo itsas hondoko emakidak eta sargaieen biltegiatze-lokalak (uztak, uztetako produktuak, algetatik eratorritako produktuak, animalia-jatorriko produktuak, lehengaiak eta bestelakoak biltegiatzeakoak), 10., 11. edo 12. puntuetan xedatutako moduan kudeatuak.
10) «unidad de producción ecológica» : unidad de producción, excluido el período de conversión a	10) «Ekoizpen ekologikoko unitatea»: Ekoizpen ekologikorako aplikagarriak diren betekizunen

que se refiere el artículo 10, gestionada de conformidad con los requisitos aplicables a la producción ecológica;	arabera kudeatutako ekoizpen-unitatea, kanpo utzita 10. artikuluan zehaztutako bihurtze-aldia.
11) «unidad de producción en conversión» : unidad de producción, durante el período de conversión a que se refiere el artículo 10, gestionada de conformidad con los requisitos aplicables a la producción ecológica; puede estar constituida por parcelas de terreno u otros activos para los que el período de conversión a que se refiere el artículo 10 empieza en momentos distintos;	11) «Bihurtze-aldiko ekoizpeneko unitatea»: 10. artikuluan zehaztutako bihurtze-aldian ekoizpen ekologikorako aplikagarriak diren betekizunen arabera kudeatutako ekoizpen-unitatea; 10. artikuluan zehaztutako bihurtze-aldia une desberdinetan hasten duten lurzatiez edo beste aktibo batzuez osatuta egon daiteke.
12) «unidad de producción no ecológica» : unidad de producción que no está gestionada de conformidad con los requisitos aplicables a la producción ecológica;	12) «Ekoizpen ez-ekologikoko unitatea»: Ekoizpen ekologikorako aplikagarriak diren betekizunen arabera kudeatuta ez dagoen ekoizpen-unitatea.
13) «operador» : la persona física o jurídica responsable de asegurar el cumplimiento del presente Reglamento en cada etapa de producción, preparación y distribución llevada a cabo bajo el control de dicha persona;	13) «Operadorea»: Pertsona fisiko edo juridikoa, bere kontrolpean egindako ekoizpen-, prestaketa- eta banaketa-etapa guztietan erregelamendu hau betetzen dela ziurtatzeaz arduratzen dena.
14) «agricultor» : una persona física o jurídica o un grupo de personas físicas o jurídicas, independientemente del régimen jurídico de este grupo y de sus miembros con arreglo a la legislación nacional, que ejerce una actividad agraria;	14) «Nekazaria»: Nekazaritza-jarduera batean diharduen pertsona fisiko edo juridikoa edo pertsona fisiko edo juridikoen taldea, edozein dela ere taldeak eta taldekideek legeria nazionalaren arabera duten araubide juridikoa.
15) «superficie agraria» : la superficie agraria tal como se define en el artículo 4, apartado 1, letra e), del Reglamento (UE) n.o 1307/2013;	15) «Nekazaritza-eremua»: Nekazaritza-eremua, (EB) 1307/2013 Erregelamenduaren 4.1 artikulua e) letrako definizioan zehazten den moduan.
16) «vegetales» : los vegetales tal como se definen en el artículo 3, punto 5, del Reglamento (CE) n.o 1107/2009;	16) «Landareak»: Landareak, (EE) 1107/2009 Erregelamenduaren 3.5 artikuluko definizioan zehazten diren moduan.
17) «materiales de reproducción vegetal» : las plantas y todas sus partes, incluidas las semillas, en cualquier fase de crecimiento, de las que puedan obtenerse plantas completas y que se destinen a tal fin;	17) «Landare-ugalketako materialak»: Landareak eta haien zati guztiak, haziak barne, edozein hazkunde-fasetan daudela ere, haietatik landare osoak lor badaitezke eta horretarako erabiltzen badira.
18) «material heterogéneo ecológico» :	18) «Material heterogeneo ekologikoa»:
un conjunto de plantas de un solo taxón botánico del rango más bajo conocido que:	Ezaguna den maila baxueneko taxon botaniko bakar bateko landareen multzoa, baldintza hauek betetzen dituen:
a) presenta características fenotípicas comunes;	a) ezaugarri fenotipiko erkideak dauzka;
b) se caracteriza por una diversidad genética y fenotípica elevada entre las unidades reproductoras individuales, de modo que ese conjunto de plantas está representado por el material en su conjunto y no por un número reducido de unidades;	b) ugaltze-unitate indibidualen arteko dibertsitate genetiko eta fenotipiko handia du bereizgarri; landare multzoa, hala, materialaren osotasunak ordezkatzen du, ez unitate kopuru txiki batek;
c) no es una variedad en el sentido del artículo 5, apartado 2, del Reglamento (CE) n.o 2100/94 del Consejo (2);	c) ez da barietate bat, Kontseiluaren (EE) 2100/94 Erregelamenduaren 5.2. artikulua arabera (2);
d) no es una mezcla de variedades; y	d) ez da barietate-nahaste bat; eta

e) se ha obtenido de conformidad con el presente Reglamento;	e) erregelamendu honekin bat etorritz ekoitzi da.
19) «variedad ecológica apropiada para la producción ecológica» :	19) «Ekoizpen ekologikorako barietate ekologiko egokia»:
variedad tal como se define en el artículo 5, apartado 2, del Reglamento (CE) n.o 2100/94 que:	Barietatea, (EE) 2100/94 Erregelamenduaren 5.2 artikuluko definizioan zehaztutako moduan, baldintza hauek betetzen dituen:
a) se caracteriza por una diversidad genética y fenotípica elevada entre las unidades reproductoras individuales; y	a) ugaltze-unitate indibidualen arteko dibertsitate genetiko eta fenotipiko handia du bereizgarri; eta
b) procede de las actividades de producción ecológica a que se refiere el anexo II, parte I, punto 1.8.4, del presente Reglamento;	b) erregelamendu honen II. eranskinaren I. zatiko 1.8.4 puntuan zehaztutako ekoizpen ekologikoko jardueretatik dator.
20) «planta madre» : una planta identificada de la que se toma material de reproducción vegetal para la reproducción de nuevas plantas;	20) «Landare ama»: Landare identifikatua, zeinetatik hartzen baita landare berriak sortzeko landare-ugalketako materiala.
21) «generación» : grupo de plantas que constituye una sola etapa en la filiación de las plantas;	21) «Belaunaldia»: Landareen filiazioan etapa bakar bat osatzen duen landare-taldea.
22) «producción vegetal» : la producción de productos agrícolas vegetales incluida la recolección de productos vegetales silvestres con fines comerciales;	22) «Landare-ekoizpena»: Nekazaritzako landare-produktuen ekoizpena, barnean hartuta basalandare-produktuak merkataritza-xedeetarako biltzea.
23) «productos vegetales» : los productos vegetales tal como se definen en el artículo 3, punto 6, del Reglamento (CE) n.o 1107/2009;	23) «Landare-produktuak»: Landare-produktuak, (EE) 1107/2009 Erregelamenduaren 3.6 artikuluko definizioan zehazten diren moduan.
24) «plaga» : una plaga tal como se define en el artículo 1, apartado 1, del Reglamento (UE) 2016/2031 del Parlamento Europeo y del Consejo (3);	24) «Izurria»: Izurria, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2016/2031 Erregelamenduaren 1.1 artikuluko definizioan zehazten den moduan (3).
25) «preparados biodinámicos» : las mezclas tradicionalmente utilizadas en la agricultura biodinámica;	25) «Prestakin biodinamikokoak»: Nekazaritza biodinamikoan tradizionalki erabilitako nahasteak.
26) «productos fitosanitarios» : los productos contemplados en el artículo 2 del Reglamento (CE) n.o 1107/2009;	26) «Produktu fitosanitarioak»: (EE) 1107/2009 Erregelamenduaren 2. artikuluan jasotako produktuak.
27) «producción animal» : la producción de animales terrestres domésticos o domesticados, incluidos los insectos;	27) «Animalia-ekoizpena»: Lehorreko animaliak — etxeakoak zein etxekotuak — ekoiztea, intsektuak ere barnean direla.
28) «porche» : la parte exterior suplementaria, cubierta y sin aislar de un edificio destinado a aves de corral que en su lado mayor suele estar equipada con cercas de alambre o tela metálica, se encuentra sometida a las condiciones climáticas exteriores, cuenta con iluminación natural y, en su caso, artificial, y dispone de suelo con cama;	28) «Portxea»: Eskortako hegaztientzako eraikin bateko kanpoko zati osagarria, estalia eta isolatu gabea, ezaugarri hauek dituen: alanbrezko edo oihal metalikozko hesia izaten du alde handiengan; kanpoko inguruabar klimatikoan menpe egoten da, argiztapen naturala edukitzen du —eta, hala badagokio, artifiziala— eta etzauntza duen zorua ere bai.
29) «pollitas» : los animales jóvenes de la especie Gallus gallus con menos de dieciocho semanas de vida;	29) «Oilandak»: <i>Gallus gallus</i> espezieko animalia gazteak, hemezortzi aste baino gutxiagokoak.

30) «gallinas ponedoras» : los animales de la especie Gallus gallus destinados a la producción de huevos para el consumo y con al menos dieciocho semanas de vida;	30) «Oilo erruleak»: <i>Gallus gallus</i> espezieko animaliak, gutxienez hemezortzi astekoak eta kontsumorako arrautzak ekoizteko erabiliak.
31) «superficie utilizable» : una superficie utilizable tal como se define en el artículo 2, apartado 2, letra d), de la Directiva 1999/74/CE del Consejo (4);	31) «Eremu erabilgarria»: Eremu erabilgarria, Kontseiluaren 1999/74/EE Zuzentarauaren 2.2 artikulua d) letrako definizioan zehazten den moduan (4).
32) «acuicultura» : la acuicultura tal como se define en el artículo 4, apartado 1, punto 25, del Reglamento (UE) n.o 1380/2013 del Parlamento Europeo y del Consejo (5);	32) «Akuikultura»: Akuikultura, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 1380/2013 Erregelamenduaren 4.1.25 artikuluko definizioan zehazten den moduan (5).
33) «productos de la acuicultura» : los productos de la acuicultura tal como se definen en el artículo 4, apartado 1, punto 34, del Reglamento (UE) n.o 1380/2013;	33) «Akuikulturako produktuak»: Akuikulturako produktuak, (EB) 1380/2013 Erregelamenduaren 4.1.34 artikuluko definizioan zehazten diren moduan.
34) «instalación acuícola con recirculación cerrada» : una instalación, en tierra o en un tanque, en la que se desarrolla la acuicultura en un entorno cerrado que implique la circulación repetida del agua y que dependa de una aportación de energía externa permanente para estabilizar el entorno de los animales de la acuicultura;	34) «Birzikulazio itxiko akuikultura-instalazioa»: Lurrean edo tanga batean ezarritako instalazioa, zeinetan akuikultura uraren zirkulazio errepikatua duen ingurune itxi batean egiten baita eta zeinak kanpo-energiaren ekarpen etengabea behar baitu akuikulturako animalien ingurunea egonkortzeko.
35) «energía de fuentes renovables» : las fuentes de energía renovables no fósiles, tales como la energía eólica, solar, geotérmica, del oleaje, mareomotriz e hidráulica, gases de vertedero, gases de plantas de depuración y biogás;	35) «Iturri berriztagarrietatik eratorritako energia»: Iturri berriztagarri ez-fosilak, hala nola haize-energia, eguzki-energia, energia geotermikoa, olatuen energia, marea-energia eta energia hidraulikoa, hondakindegiko gasak, araztegi-tako gasak eta biogasa.
36) «criadero» : un lugar de reproducción, eclosión y cría para las primeras etapas de la vida de los animales de la acuicultura, en particular peces y mariscos;	36) «Larba-haztegia»: Akuikulturako animalien bizitzako lehen etapetarako ugalketarako, eklosiorako eta hazkuntzarako lekua, batez ere arrain eta itsaskiena.
37) «viviero» : un lugar donde se aplica un sistema de producción de acuicultura intermedio entre el criadero y las fases de engorde final; la fase de vivero se completa en el primer tercio del ciclo de producción, excepto en el caso de las especies sometidas a un proceso de esmoltificación;	37) «Nursery-a»: Larba-haztegiko aldiaren eta amaierako gizenketako faseen arteko akuikultura-ekoizpeneko sistema bat aplikatzen den lekua; nursery-fasea ekoizpen-zikloaren lehen herenean osatzen da, salbu eta esmoltifikazio-prozesu batetik igarotzen diren espezieetan.
38) «contaminación del agua» : la contaminación tal como se define en el artículo 2, punto 33, de la Directiva 2000/60/CE y en el artículo 3, punto 8, de la Directiva 2008/56/CE del Parlamento Europeo y del Consejo (6), en las aguas en las que son aplicables cada una de dichas Directivas;	38) «Uraren kutsadura»: Kutsadura, 2000/60/EE Zuzentarauaren 2.33. artikuluko definizioan eta Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2008/56/EE Zuzentarauaren 3.8 artikuluko definizioan zehazten den moduan (6), zuzentarau horietako bakoitzean aplikagarriak diren uretan.
39) «policultivo» : la cría en acuicultura de dos o más especies que suelen ser de distintos niveles tróficos, en la misma unidad de cultivo;	39) «Polihazkuntza»: Hazkuntza-unitate berean bi espezie edo gehiago, eskuarki maila trofiko desberdinetakoak, haztea.
40) «ciclo de producción» : el período de vida de un animal de la acuicultura o de un alga desde la fase de vida más temprana (huevos fecundados en el caso de los animales de la acuicultura) hasta la recolección;	40) «Ekoizpen-zikloa»: Akuikulturarako animalia baten edo alga baten bizitzako aldia, fase goiztiarretik (arrautza ernalduetatik, akuikulturako animalien kasuan) bilketaraino doana.

41) «especies originarias locales» : las especies de la acuicultura que no son exóticas ni están localmente ausentes en el sentido del artículo 3, puntos 6 y 7, respectivamente, del Reglamento (CE) n.º 708/2007 del Consejo (7), así como las especies enumeradas en el anexo IV de dicho Reglamento;	41) «Tokiko espezieak»: Exotikoak ez diren eta tokian absente ez dauden espezieak — Kontseiluaren (EE) 708/2007 Erregelamenduaren 3. artikulua 6. eta 7. apartatuen arabera, hurrenez hurren (7)— baita erregelamendu horren IV. eranskinean zerrendatutako espezieak ere.
42) «tratamiento veterinario» : todo tipo de tratamiento curativo o preventivo de un brote de una enfermedad concreta;	42) «Albaitaritza-tratamendua»: Gaixotasun jakin baten agerraldi bat sendatzeko edo prebenitzeko tratamendu mota oro.
43) «medicamento veterinario» : un medicamento veterinario tal como se define en el artículo 1, punto 2, de la Directiva 2001/82/CE del Parlamento Europeo y del Consejo (8);	43) «Albaitaritza-medikamentua»: Albaitaritza-medikamentua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2001/82/EE Zuzentarauaren 1.2 artikuluko definizioan zehazten den moduan (8).
44) «preparación» : las operaciones de conservación o transformación de productos ecológicos o en conversión, o cualquier otra operación que se lleve a cabo en un producto sin transformar que no altere el producto inicial, incluidos el sacrificio, el despiece, la limpieza o el triturado, y el envasado, el etiquetado o las modificaciones del etiquetado relativas a la producción ecológica;	44) «Prestaketa»: Produktu ekologikoak edo bihurtze-aldiko produktuak kontserbatzeko edo eraldatzeko eragiketak, edo eraldatu gabeko produktu batean egiten den eta hasierako produktua aldatzen ez duen beste edozein eragiketa, hala nola hiltzea, zatitzea, garbitzea eta birrintzea, baita ontziratzea, etiketatzea edo ekoizpen ekologikoari dagozkion etiketatu-aldaketak egitea ere.
45) «alimento» : el alimento tal como se define en el artículo 2 del Reglamento (CE) n.º 178/2002 del Parlamento Europeo y del Consejo (9);	45) «Elikagaia»: Elikagaia, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EE) 178/2002 Erregelamenduaren 2. artikuluko definizioan zehazten den moduan (9).
46) «pienso» : el pienso tal como se define en el artículo 3, punto 4, del Reglamento (CE) n.º 178/2002;	46) «Pentsua»: Pentsua, (EE) 178/2002 Erregelamenduaren 3.4 artikuluko definizioan zehazten den moduan.
47) «materias primas para piensos» : las materias primas para piensos tal como se definen en el artículo 3, apartado 2, letra g), del Reglamento (CE) n.º 767/2009 del Parlamento Europeo y del Consejo (10);	47) «Pentsuetarako lehengaiak»: Pentsuetarako lehengaiak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EE) 767/2009 Erregelamenduaren 3.2 artikulua g) letrako definizioan zehazten diren moduan (10).
48) «comercialización» : la comercialización tal como se define en el artículo 3, punto 8, del Reglamento (CE) n.º 178/2002;	48) «Merkaturatzea»: Merkaturatzea, (EE) 178/2002 Erregelamenduaren 3.8. artikuluko definizioan zehazten den moduan.
49) «trazabilidad» : la posibilidad de encontrar y seguir el rastro, a través de todas las etapas de producción, preparación y distribución, de un alimento, un pienso o cualquier producto a que se refiere el artículo 2, apartado 1, o una sustancia destinados a ser incorporados en alimentos o piensos o en cualquier producto a que se refiere el artículo 2, apartado 1, o con probabilidad de serlo;	49) «Trazabilitatea»: Ekoizpen-, prestaketa- eta banaketa-etapa guztietan barrena produktuen aztarna aurkitzeko eta haien jarraipena egiteko posibilitatea, bai elikagaien, pentsuen edo 2.1 artikuluan zehaztutako edozein produkturen kasuan, bai elikagaietan, pentsuetan edo 2.1 artikuluko zehaztutako edozein produktutan gehitzekoak diren edo gehitu daitezkeen substantzien kasuan.
50) «etapa de producción, preparación y distribución» : cualquier etapa, desde la producción primaria de un producto ecológico hasta su almacenamiento, transformación, transporte, y venta o suministro al consumidor final y, cuando corresponda, las actividades de etiquetado,	50) «Ekoizpen-, prestaketa- eta banaketa-etapa»: Edozein etapa, produktu ekologiko baten ekoizpen primariotik hasi eta hura biltegiatu, eraldatu, garraiatu eta azken kontsumitzaileari saldu edo hornitu artekoa, barnean hartuta etiketatze-, publizitate-, inportazio-, esportazio- eta azpikontratazio-jarduerak, hala dagokienean.

publicidad, importación, exportación y subcontratación;	
51) «ingrediente» : un ingrediente tal como se define en el artículo 2, apartado 2, letra f), del Reglamento (UE) n.º 1169/2011 o, para productos distintos de los alimentos, cualquier sustancia o producto utilizado en la producción o preparación de productos, que sigue estando presente en el producto final, aunque sea en una forma modificada;	51) «Osagaia»: Osagaia, (EB) 1169/2011 Erregelamenduaren 2.2 artikularen f) letrako definizioan zehazten den moduan, edo, elikagaiak ez diren produktuen kasuan, produktuak ekoizteko edo prestatzeko erabiltzen den eta amaierako produktuan, aldatuta bada ere, presente egoten jarraitzen duen edozein substantzia edo produktu.
52) «etiquetado» : toda palabra, término, detalle, marca registrada, marca comercial, motivo ilustrado o símbolo relativos a un producto y colocados en cualquier envase, documento, prospecto, etiqueta, placa, anillo o collar, que acompañe o haga referencia a un producto;	52) «Etiketatu»: Produktu bati buruzko hitz, termino, xehetasun, marka erregistratu, merkataritzako marka, motibo irudizatu eta sinbolo guztiak, zeinak produktu batekin doazen edo produktuari erreferentzia egiten dioten bilgarri, dokumentu, eskuorri, etiketa, plaka, eraztun edo lepokoetan jarrita egoten baitira.
53) «publicidad» : toda presentación de productos al público, por cualquier medio distinto del etiquetado, que tiene como objetivo o probable efecto influir en las actitudes, las convicciones y el comportamiento con objeto de fomentar directa o indirectamente la venta de productos;	53) «Publizitatea»: Produktuak jendeari aurkeztea etiketatuaz bestelako edozein bideren bitartez, produktuen salmenta zuzenean edo zeharka sustatzeko jarrerei, sinesmenei eta portaerari eragiteko helburua edo efektua lortze aldera.
54) «autoridades competentes» : las autoridades competentes tal como se definen en el artículo 3, punto 3, del Reglamento (UE) 2017/625;	54) «Agintaritza eskudunak»: Agintaritza eskudunak, (EB) 2017/625 Erregelamenduaren 3.3 artikuluko definizioan zehazten diren moduan.
55) «autoridad de control» : una autoridad de control ecológico tal como se define en el artículo 3, punto 4, del Reglamento (UE) 2017/625, o una autoridad reconocida por la Comisión o por un tercer país reconocido por la Comisión, con el fin de llevar a cabo controles en terceros países con miras a la importación de productos ecológicos y en conversión en la Unión;	55) «Kontrol-agintaritza»: Kontrol ekologikoko agintaritza, (EB) 2017/625 Erregelamenduaren 3.4 artikuluko definizioan zehazten den moduan, edo Batzordeak —edo hark aintzatetsitako hirugarren herrialde batek— aintzatetsitako agintaritza, hirugarren herrialdeetan kontrolak egin ditzan produktu ekologikoak eta bihurtze-aldiko produktuak Batasunean inportatzeari begira.
56) «organismo de control» : un organismo delegado tal como se define en el artículo 3, punto 5, del Reglamento (UE) 2017/625 o un organismo reconocido por la Comisión, o por un tercer país reconocido por la Comisión, con el fin de llevar a cabo controles en terceros países con miras a la importación de productos ecológicos y en conversión en la Unión;	56) «Kontrol-organismoa»: Organismo eskuordetua, 2017/625 (EB) Erregelamenduaren 3.5 artikularen definizioan zehazten den moduan, edo Batzordeak —edo hark aintzatetsitako hirugarren herrialde batek— aintzatetsitako organismoa, hirugarren herrialdeetan kontrolak egin ditzan produktu ekologikoak eta bihurtze-aldiko produktuak Batasunean inportatzeari begira.
57) «incumplimiento» : el incumplimiento de las disposiciones del presente Reglamento o el incumplimiento de los actos delegados o de ejecución adoptados de conformidad con el presente Reglamento;	57) «Ez-betetzea»: Erregelamendu honen xedapenak ez betetzea edo erregelamendu honekin bat etorritik onartutako egingiza eskuordetuak edo betearazpen-egintzak ez betetzea.
58) «organismo modificado genéticamente» u «OMG» : un organismo modificado genéticamente tal como se define en el artículo 2, punto 2, de la Directiva 2001/18/CE del Parlamento Europeo y del Consejo (11), que no se haya obtenido mediante las técnicas de modificación genética enumeradas en el anexo I.B de dicha Directiva;	58) «Genetikoki eraldatutako organismoa» edo «GEOa»: Genetikoki eraldatutako organismoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2001/18/EE Zuzentarauaren 2.2 artikuluko definizioan zehazten den moduan (11), ez dena ekoizti zuzentarau horretako I.B eranskinean zerrendatutako gene-manipulazioko tekniken bidez.

59) «obtenido a partir de OMG» : derivado total o parcialmente de OMG pero sin contener o estar compuesto de OMG;	59) «GEOetatik eratorria»: GEOetatik guztiz edo partzialki datorren deribatua baina GEOrik ez daukana edo GEOz osatuta ez dagoena.
60) «productos obtenidos mediante OMG» : derivados en los que se ha utilizado OMG como último organismo vivo del proceso de producción, pero sin contener o estar compuestos de OMG ni haber sido obtenidos a partir de OMG;	60) «GEOen bidez ekoiztiko produktuak»: Ekoizpen-prozesuko azken organismo bizi gisa GEOren bat eduki duten deribatuak, nahiz eta ez egon GEOz osatuta, ez eratorri GEOetatik eta ez eduki GEOrik.
61) «aditivo alimentario» : un aditivo alimentario tal como se define en el artículo 3, apartado 2, letra a), del Reglamento (CE) n.o 1333/2008 del Parlamento Europeo y del Consejo (12);	61) «Elikagai-gehigarria»: Elikagai-gehigarria, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EE) 1333/2008 Erregelamenduaren 3.2 artikularen a) letrako definizioan zehazten den moduan (12).
62) «aditivo para alimentación animal» : un aditivo para alimentación animal tal como se define en el artículo 2, apartado 2, letra a), del Reglamento (CE) n.o 1831/2003 del Parlamento Europeo y del Consejo (13);	62) «Animalien elikadurarako gehigarria»: Animalien elikadurarako gehigarria, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EE) 1831/2003 Erregelamenduaren 2.2 artikularen a) letrako definizioan zehazten den moduan (13).
63) «nanomaterial artificial» : un nanomaterial artificial tal como se define en el artículo 3, apartado 2, letra f), del Reglamento (UE) 2015/2283 del Parlamento Europeo y del Consejo (14);	63) «Nanomaterial artifiziala»: Nanomaterial artifiziala, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2015/2283 Erregelamenduaren 3.2 artikularen f) letrako definizioan zehazten den moduan (14).
64) «equivalencia» : cumplir los mismos objetivos y principios mediante la aplicación de normas que garantizan el mismo nivel de aseguramiento de la conformidad;	64) «Baliokidetasuna»: Adostasunaren ziurtapen-maila bera bermatzen duten arauak aplikatuz helburu eta printzipio berak betetzea.
65) «coadyuvante tecnológico» : un coadyuvante tecnológico tal como se define en el artículo 3, apartado 2, letra b), del Reglamento (CE) n.o 1333/2008 para alimentos y en el artículo 2, apartado 2, letra h), del Reglamento (CE) n.o 1831/2003 para piensos;	65) «Laguntzaile teknologikoa»: Laguntzaile teknologikoa, (EE) 1333/2008 Erregelamenduaren 3.2 artikularen b) letrako definizioan zehazten den moduan, elikagaien kasuan, eta (EE) 1831/2003 Erregelamenduaren 2.2 artikularen h) letrako definizioan zehazten den moduan, pentsuen kasuan.
66) «enzima alimentaria» : una enzima alimentaria tal como se define en el artículo 3, apartado 2, letra a), del Reglamento (CE) n.o 1332/2008 del Parlamento Europeo y del Consejo (15);	66) «Elikagai-entzima»: Elikagai-entzima, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EE) 1332/2008 Erregelamenduaren 3.2 artikularen a) letrako definizioan zehazten den moduan (15).
67) «radiación ionizante» : una radiación ionizante tal como se define en el número 46 del artículo 4 de la Directiva 2013/59/Euratom del Consejo (16);	67) «Erradiazio ionizatzailea»: Erradiazio ionizatzailea, Kontseiluaren 2013/59/Euratom Zuzentarauaren 4.46 artikularen definizioan zehazten den moduan (16).
68) «alimento envasado» : un alimento envasado tal como se define en el artículo 2, apartado 2, letra e), del Reglamento (CE) n.o 1169/2011;	68) «Elikagai ontziratua»: Elikagai ontziratua, (EE) 1169/2011 Erregelamenduaren 2.2 artikularen e) letrako definizioan zehazten den moduan.
69) «gallinero» : un edificio fijo o móvil para albergar averíos, que tiene todas las superficies cubiertas por tejados e incluye un porche; el gallinero puede estar dividido a su vez en compartimentos separados, en donde cada uno de ellos alberga un único averío;	69) «Oilategia»: Etxeko hegaztiak hartzeko erabiltzen den eraikin finko edo mugikorra, gainazal guztiak teilatuz estalita dauzkana eta portxea daukana; oilategia konpartimentu bereizitan zatituta egon daiteke, bakoitzean etxeko hegazti-talde bakarra hartzeko.
70) «cultivo vinculado al suelo» : la producción en suelo vivo o en suelo que esté mezclado o	70) «Lurzoruari lotutako laborea»: Lurzoru bizian egiten den ekoizpena edo zorupeari eta arroka

fertilizado con materiales y productos que estén permitidos en la producción ecológica, en relación con el subsuelo y la roca madre;	amari dagokienez ekoizpen ekologikoan baimenduta dauden materialekin eta produktuekin nahasitako edo ongarritutako lurzoruan egiten dena.
71) «productos no transformados» : los productos no transformados tal como se definen en el artículo 2, apartado 1, letra n), del Reglamento (CE) n.o 852/2004 del Parlamento Europeo y del Consejo (17), independientemente de las operaciones de envasado o etiquetado;	71) «Eraldatu gabeko produktuak»: Eraldatu gabeko produktuak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EE) 852/2004 Erregelamenduaren 2.1 artikulua(n) letrako definizioan zehazten den moduan (17), aparte utzita ontziratze- eta etiketatze-eragiketak.
72) «productos transformados» : los productos transformados tal como se definen en el artículo 2, apartado 1, letra o), del Reglamento (CE) n.o 852/2004, independientemente de las operaciones de envasado o etiquetado;	72) «Produktu eraldatuak»: Produktu eraldatuak, (EE) 852/2004 Erregelamenduaren 2.1 artikulua(n) letrako definizioan zehazten den moduan, aparte utzita ontziratze- eta etiketatze-eragiketak.
73) «transformación» : la transformación tal como se define en el artículo 2, apartado 1, letra m), del Reglamento (CE) n.o 852/2004; se incluye el uso de las sustancias a que se refieren los artículos 24 y 25 del presente Reglamento, pero no se incluyen las operaciones de envasado o etiquetado;	73) «Eraldaketa»: Eraldaketa, (EE) 852/2004 Erregelamenduko 2.1 artikulua(n) letrako definizioan zehazten den moduan; barnean hartzen du erregelamendu honen 24. eta 25. artikuluetan zehaztutako substantzien erabilera, ez ordea ontziratze- eta etiketatze-eragiketak.
74) «integridad de los productos ecológicos o en conversión» :	74)«Produktu ekologikoen edo bihurtze-aldiko produktuen osotasuna»:
cuando el producto no presenta ningún incumplimiento que:	Produktuak ez edukitzea ez-betetzerik:
a) afecte, en cualquier etapa de la producción, preparación y distribución, a las características ecológicas o de conversión del producto; o	a) produktuaren ezaugarri ekologikoei edo bihurtze-ezaugarriari eragiten dienik ekoizpen-, prestaketa- eta banaketa-etapetako edozeinetan; edo
b) sea repetitivo o intencionado;	b) errepikakorra edo nahitakoa denik.
75) «recinto» : un lugar que incluye una parte en la que los animales se puedan proteger frente a condiciones climáticas adversas.	75) «Esparrua»: Eremu bat, gune bat duena animaliak inguruabar klimatiko kaltegarrietatik babesteko.
CAPÍTULO II	II. KAPITULUA
OBJETIVOS Y PRINCIPIOS DE LA PRODUCCIÓN ECOLÓGICA	EKOIZPEN EKOLOGIKOAREN HELBURUAK ETA PRINTZPIOAK
Artículo 4	4. artikulua
Objetivos	Helburuak
La producción ecológica perseguirá los siguientes objetivos generales:	Ekoizpen ekologikoak helburu orokor hauek izango ditu:
a) contribuir a la protección del medio ambiente y del clima,	a) Ingurumena eta klima babesten laguntzea.
b) mantener la fertilidad de los suelos a largo plazo,	b) Lurzoruen epe luzeko emankortasuna mantentzea.
c) contribuir a un alto grado de biodiversidad,	c) Biodibertsitate-maila handi baterako ekarpena egitea.
d) contribuir sustancialmente a un medio ambiente no tóxico,	d) Ingurumen ez-toxiko baterako funtsezko ekarpena egitea.
e) contribuir a las rigurosas normas de bienestar animal y, en particular, responder a las	e) Animalien ongizateari buruzko arau zorrotzak betetzeko ekarpena egitea eta, bereziki, animalia-

necesidades de comportamiento propias de cada especie de animales,	espezie bakoitzaren berezko portaera-beharrei erantzutea.
f) fomentar los circuitos cortos de distribución y las producciones locales en los territorios de la Unión,	f) Batasuneko lurraldeetan banaketa-zirkuitu laburrak eta tokiko ekoizpenak sustatzea.
g) fomentar el mantenimiento de las razas raras o autóctonas en peligro de extinción,	g) Galzorian dauden arraza arraro edo autoktonoak mantentzea sustatzea.
h) contribuir al desarrollo de la provisión de material genético vegetal adaptado a las necesidades y objetivos específicos de la agricultura ecológica,	h) Nekazaritza ekologikoaren berariazko behar eta helburuetara egokitutako landare-material genetikoaren hornidura garatzen laguntzea.
i) contribuir a un elevado nivel de biodiversidad, en particular mediante el uso de material genético vegetal diverso, como material heterogéneo ecológico y variedades ecológicas adecuadas para la producción ecológica,	i) Biodibertsitate-maila handi baterako ekarpena egitea, bereziki askotariko landare-material genetikoa erabiliz, hala nola material heterogeneo ekologikoa eta ekoizpen ekologikorako barietate ekologiko egokiak.
j) promover el desarrollo de actividades de mejora vegetal de plantas ecológicas a fin de contribuir a las perspectivas económicas ventajosas del sector ecológico.	j) Landare ekologikoen landare-hobekuntzarako jardueren garapena sustatzea, sektore ekologikoaren aukera ekonomiko abantailatsuetarako ekarpena egiteko.
Artículo 5	5. artikulua
Principios generales	Printzipio orokorrak
La producción ecológica es un sistema de gestión sostenible que se basa en los siguientes principios generales:	Ekoizpen ekologikoa kudeaketa jasangarriko sistema bat da, printzipio orokor hauetan oinarrituta dagoena:
a) respeto de los sistemas y los ciclos naturales y mantenimiento y mejora del estado del suelo, el agua y el aire, la salud de las plantas y los animales, y el equilibrio entre ellos;	a) Sistema eta ziklo naturalak errespetatzea eta lurzoruaren, uraren eta airearen egoera, landareen eta animalien osasuna eta haien arteko oreka mantentzea eta hobetzea.
b) conservación de elementos del paisaje natural como lugares que sean patrimonio natural;	b) Paisaia naturalaren elementuak —hala nola natura-ondare diren lekuak— kontserbatzea.
c) utilización responsable de la energía y de recursos naturales tales como el agua, el suelo, las materias orgánicas y el aire;	c) Energia eta natura-baliabideak —hala nola ura, lurzorua, materia organikoak eta airea— modu arduratsuan erabiltzea.
d) obtención de una amplia variedad de alimentos de buena calidad y otros productos agrícolas y de la acuicultura que respondan a la demanda de los consumidores de productos obtenidos mediante procesos que no dañen el medio ambiente, la salud humana, la salud y el bienestar de los animales ni la fitosanidad;	d) Kalitate oneko askotariko elikagaiak ekoiztea, baita nekazaritzako eta akuikulturako produktuak ere, kontsumitzaileen eskariari erantzuteko, betiere ekoizpen-prozesu horietan kalterik egin gabe ingurumenari, gizakien osasunari, animalien osasunari eta ongizateari eta fitoosasunari.
e) garantía de la integridad de la producción ecológica en cada etapa de la producción, preparación y distribución de los alimentos y piensos;	e) Elikagaien eta pentsuen ekoizpen-, prestaketa- eta banaketa-etapa guztietan ekoizpen ekologikoaren osotasuna bermatzea.
f) diseño y gestión adecuados de los procesos biológicos basados en sistemas ecológicos y que utilizan recursos naturales propios del sistema de gestión, mediante métodos que:	f) Prozesu biologikoak egokiro diseinatu eta kudeatzea, sistema ekologikoak oinarri hartuta eta kudeaketa-sistemaren berezko natura-baliabideak erabiliz, baldintza hauek betetzen dituzten metodoekin:
i) utilicen organismos vivos y métodos de producción mecánicos,	i) Organismo biziak eta ekoizpen-metodo mekanikoak erabiltzen dituzte.

ii) desarrollen cultivos vinculados al suelo y una producción ganadera vinculada al suelo o una acuicultura que respete el principio de la explotación sostenible de los recursos acuáticos,	ii) Lurzoruari lotutako laboreak eta lurzoruari lotutako abeltzaintza-ekoizpena garatzen dute, edo ur-baliabideen ustiapen jasagarriaren printzipioa errespetatzen duen akuikultura egiten dute.
iii) excluyan el uso de OMG, productos obtenidos a partir de OMG y productos obtenidos mediante OMG, salvo medicamentos veterinarios,	iii) Ez darabilte GEOrik, GEOetatik eratorritako produkturik edo GEOen bidez ekoiztutako produkturik, albaitaritza-medikamentuak izan ezik.
iv) estén basados en la evaluación de riesgos y en la aplicación de medidas de precaución y preventivas, si procede;	iv) Kasua bada, arriskuen ebaluazioan eta zuhurtasun- eta prebentzio-neurrien aplikazioan oinarritzen dira.
g) restricción del uso de medios externos; en caso de necesitarse medios externos o de no existir las prácticas y métodos adecuados de gestión mencionados en la letra f), los medios externos se limitarán a:	g) Kanpo-bitartekoen erabilera mugatzea. Kanpo-bitartekorik behar bada edo f) letran aipatutako praktikarik edo kudeaketa-metodo egokirik ez badago, kanpo-bitartekoak hauek bakarrik izango dira:
i) medios procedentes de la producción ecológica, y por lo que respecta al material de reproducción vegetal, se dará prioridad a las variedades seleccionadas por su capacidad de satisfacer las necesidades y objetivos específicos de la agricultura ecológica,	i) ekoizpen ekologikotik datozen bitartekoak (landare-ugalketako materialari dagokionez, nekazaritza ekologikoaren berariazko beharrak eta helburuak betetzeko gaitasunagatik hautatutako barietateak lehenetsiko dira);
ii) sustancias naturales o derivadas de sustancias naturales,	ii) substantzia naturalak edo substantzia naturalen deribatuak;
iii) fertilizantes minerales de baja solubilidad,	iii) disolbagarritasun txikiko ongarri mineralak.
h) adaptación del proceso de producción, en caso necesario y en el marco del presente Reglamento, para tener en cuenta la situación sanitaria, las diferencias regionales en materia de equilibrio ecológico, condiciones locales y climáticas, fases de desarrollo y prácticas pecuarias específicas;	h) Ekoizpen-prozesua egokitzea, beharrezkoa bada eta erregelamendu honen esparruan, kontuan har daitezen osasun-egoera, oreka ekologikoari, tokiko inguruabarrei eta klima-inguruabarrei dagozkien eskualdeko desberdintasunak, garapen-faseak eta abeltzaintza-praktika zehatzak.
i) exclusión, en la totalidad de la cadena de alimentos ecológicos, de la clonación de animales, de la cría de animales poliploides inducidos artificialmente y del empleo de radiación ionizante;	i) Elikagai ekologikoen katearen inongo fasetan ez erabiltzea animalien klonazioa, artifizialki indusitutako animalia poliploideen hazkuntza eta erradiazio ionizatzailea.
j) mantenimiento de un nivel elevado de bienestar animal que respete las necesidades propias de cada especie.	j) Animalien ongizate-maila altua mantentzea, espezie bakoitzaren berezko beharrak errespetatuta.
Artículo 6	6. artikulua
Principios específicos aplicables a las actividades agrarias y a la acuicultura	Nekazaritza-jardueretarako eta akuikulturarako aplikagarriak diren berariazko printzipioak
Respecto a las actividades agrarias y de acuicultura, la producción ecológica se basará, en particular, en los siguientes principios específicos:	Nekazaritza- eta akuikultura-jarduerai dagokienez, ekoizpen ekologikoak berariazko printzipio hauek hartuko ditu oinarri bereziki:
a) mantenimiento y mejora de la vida y la fertilidad natural del suelo, la estabilidad, la retención de agua y la biodiversidad del suelo, prevención de la pérdida de materia orgánica, la compactación y la erosión del suelo y lucha contra estos fenómenos, y nutrición de los vegetales con nutrientes que procedan principalmente del ecosistema edáfico;	a) Lurzoruaren bizitza eta emankortasun naturala; egonkortasuna; ura atxikitzea eta biodibertsitatea mantentzea eta hobetzea; lurzorua materia organikoaren galera, trinkotzea eta higadura prebenitzea eta fenomeno horien aurka egitea, eta landareak ekosistema edafikotik nagusiki datozen mantenuaiz elikatzea.
b) reducción al mínimo del uso de recursos no renovables y de medios externos;	b) Baliabide berriztaezinen eta kanpo-bitartekoen erabilera ahalik eta gehien murriztea.

c) reciclaje de residuos y subproductos de origen vegetal y animal como recursos para la producción vegetal y animal;	c) Landare- eta animalia-jatorriko hondakinak eta azpiproduktuak birziklatzea, landare- eta animalia-ekoizpenerako baliabide gisa.
d) mantenimiento de un buen estado fitosanitario mediante medidas preventivas, en particular la elección de especies, variedades o material heterogéneo adecuados que resistan a plagas y enfermedades, rotaciones apropiadas de cultivos, métodos mecánicos y físicos, y la protección de los enemigos naturales de las plagas;	d) Prebentzio-neurrien bidez egoera fitosanitario egokia mantentzea, batez ere izurriak eta gaixotasunak jasaten dituzten espezieak, barietateak edo material heterogeneoa hautatuz, laboreak behar bezala txandakatuz, metodo mekanikoak eta fisikoak erabiliz eta izurrien etsai naturalak babestuz.
e) uso de semillas y animales con un alto grado de diversidad genética, resistencia a las enfermedades y longevidad;	e) Dibertsitate genetiko handiko, gaixotasunekiko erresistentzia handiko eta bizitza luzeko haziak eta animaliak erabiltzea.
f) elección de variedades vegetales atendiendo a las particularidades de los sistemas específicos de producción ecológica y prestando especial atención a los resultados agronómicos, la resistencia a las enfermedades, la adaptación a condiciones climáticas y edafológicas locales diversas y el respeto de las limitaciones naturales a los cruces;	f) Landare-barietateak hautatzean ekoizpen ekologikoko berariazko sistemen berezitasunak kontuan hartzea eta arreta berezia jartzea emaitza agronomikoetan, gaixotasunekiko erresistentzian, tokiko askotariko inguruabar klimatiko eta edafologikoetarako egokitzapenean eta gurutzaketetarako muga naturalen errespetuan.
g) uso de materiales ecológicos de reproducción vegetal, tales como los compuestos de material heterogéneo ecológico y de variedades ecológicas adecuadas para la producción ecológica;	g) Landare-ugalketako material ekologikoak erabiltzea, hala nola material heterogeneo ekologikoz eta ekoizpen ekologikorako barietate ekologiko egokiz osatutakoak.
h) obtención de variedades ecológicas a través de la capacidad reproductora natural y prestando atención a las limitaciones naturales a los cruces;	h) Ugaltze-gaitasun naturalaren bidez eta gurutzaketetarako muga naturaletan arreta jarrita ekoiztea barietate ekologikoak.
i) sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 14 del Reglamento (CE) n.o 2100/94 y de la protección nacional de obtenciones vegetales establecida con arreglo a la legislación nacional de los Estados miembros, la posibilidad de que los agricultores utilicen material de reproducción vegetal extraído de su propia explotación con objeto de favorecer los recursos genéticos adaptados a las condiciones especiales de la producción ecológica;	i) (EE) 2100/94 Erregelamenduaren 14. artikuluan xedatutakoa eta estatu kideetako legeria nazionalaren arabera ezarritako landare-lorpenen babes nazionala ezertan eragotzi gabe, nekazariak beren ustiatetik ateratako landare-ugalketako materiala erabili ahal izatea ekoizpen ekologikoaren baldintza berezietara egokitutako baliabide genetikoak sustatzeko.
j) elección de las razas animales atendiendo a un alto grado de diversidad genética, la capacidad de los animales de adaptarse a las condiciones locales, su valor de cría, su longevidad, su vitalidad y su resistencia frente a enfermedades o problemas sanitarios;	j) Animalia-arrazak hautatzean kontuan hartzea dibertsitate genetikoko maila altua, animaliek tokiko inguruabarretara egokitzeko duten gaitasuna, haien hazkuntza-balioa, longebitatea, bizitasuna eta gaixotasunekiko edo osasun-arazoekiko erresistentzia.
k) producción ganadera adaptada al lugar y vinculada al suelo;	k) Abeltzaintza-ekoizpena tokira egokituta eta lurzoruari lotuta egotea.
l) aplicación de prácticas ganaderas que mejoren el sistema inmunitario y refuercen las defensas naturales contra las enfermedades, incluido ejercicio regular y acceso a zonas al aire libre y a zonas de pastos;	l) Immunitate-sistema hobetzen duten eta gaixotasunen aurkako defentsa naturalak indartzen dituzten abeltzaintza-praktikak aplikatzea, hala nola aldizka ariketa fisikoa egitea eta aire zabaleko zonetarako eta larre-zonetarako sarbidea izatea.
m) alimentación de los animales con pienso ecológico compuesto de ingredientes agrícolas procedentes de la producción ecológica y de sustancias no agrícolas naturales;	m) Animaliak elikatzeko, ekoizpen ekologikotik datozen nekazaritza-osagaiak eta nekazaritzakoak ez diren substantzia naturalez osatutako pentsu ekologikoak baliatzea.

n) obtención de los productos de la ganadería ecológica a partir de animales criados en explotaciones ecológicas durante toda su vida desde su nacimiento;	n) Jaiotzatik bizitza osoan zehar ustiategi ekologikoetan hazitako animalietatik abiatuta ekoiztea abeltzaintza ekologikoko produktuak.
o) mantenimiento del buen estado sanitario del medio acuático y de la calidad de los ecosistemas acuáticos y terrestres circundantes;	o) Ingurune urtarraren osasun-egoera egokia eta inguruko ekosistema urtarren eta lehortarren kalitatea mantentzea.
p) alimentación de los organismos acuáticos con piensos procedentes de pesquerías explotadas de manera sostenible de conformidad con el Reglamento (UE) n.º 1380/2013 o con piensos ecológicos compuestos de ingredientes agrarios procedentes de la producción ecológica, incluida la acuicultura ecológica, y de sustancias no agrícolas naturales;	p) (EB) 1380/2013 Erregelamenduaren arabera modu jasangarrian ustiatutako arrantzalekueetatik datozen pentsuekin edo ekoizpen ekologikotik (akuikultura ekologikoa barne) datozen nekazaritza-osagaiz eta nekazaritzatik ez datozen substantzia naturalez egindako pentsu ekologikoekin elikatzea organismo urtarrak.
q) prevención de riesgos que la producción ecológica pudiera causar en especies que tengan un interés de conservación.	q) Ekoizpen ekologikoak kontserbazio-intereseakoak diren espezieei ekar diezazkiekeen arriskuak prebenitzea.
Artículo 7	7. artikulua
Principios específicos aplicables a la transformación de alimentos ecológicos	Elikagai ekologikoen eraldaketarako aplikagarriak diren berariazko printzipioak
La producción de alimentos ecológicos transformados se basará, en particular, en los siguientes principios específicos:	Elikagai ekologiko eraldatuen ekoizpenak, zehazki, berariazko printzipio hauek izango ditu oinarri:
a) producción de alimentos ecológicos a partir de ingredientes agrarios ecológicos;	a) Elikagai ekologikoak nekazaritza-osagai ekologikoetatik abiatuta ekoiztea.
b) restricción del uso de aditivos alimentarios, de ingredientes no ecológicos que tengan funciones fundamentalmente técnicas y sensoriales, así como de micronutrientes y coadyuvantes tecnológicos, de manera que se utilicen en la menor medida posible y únicamente en casos de necesidad tecnológica esencial o con fines nutricionales concretos;	b) Elikagai-gehigarrien erabilera, nagusiki funtzio teknikoak eta sentzorialak dauzkaten osagai ez-ekologikoen erabilera eta mikromantenugaien eta laguntzaile teknologikoen erabilera murriztea, ahalik eta gutxien balia daitezen, funtsezko behar teknologikoa edo nutrizio-xede zehatzak daudenean bakarrik.
c) exclusión de sustancias y métodos de transformación que puedan inducir a error sobre la verdadera naturaleza del producto;	c) Produktuaren benetako izaerari buruzko akatsak eragin ditzaketen substantziak eta eraldaketa-metodoak baztertzea.
d) transformación escrupulosa de alimentos ecológicos, preferentemente utilizando métodos biológicos, mecánicos y físicos;	d) Elikagai ekologikoak modu arduratsuan eraldatzea, ahal bada metodo biologikoak, mekanikoak eta fisikoak erabiliz.
e) exclusión de los alimentos que contengan nanomateriales artificiales o estén compuestos de estos.	e) Nanomaterial artifizialak dauzkaten edo horrelako materialez osatuta dauden elikagaiak baztertzea.
Artículo 8	8. artikulua
Principios específicos aplicables a la transformación de piensos ecológicos	Pentsu ekologikoen eraldaketarako aplikagarriak diren berariazko printzipioak
La producción de piensos ecológicos transformados se basará, en particular, en los siguientes principios específicos:	Pentsu ekologiko eraldatuen ekoizpenak, zehazki, berariazko printzipio hauek izango ditu oinarri:
a) producción de piensos ecológicos a partir de materias primas para piensos ecológicas;	a) Pentsu ekologikoak pentsuetarako lehengai ekologikoetatik abiatuta ekoiztea.

b) restricción del uso de aditivos para alimentación animal, así como de coadyuvantes tecnológicos, de manera que se utilicen en la menor medida posible y únicamente en casos de necesidad tecnológica o zootécnica esencial o con fines nutricionales concretos;	b) Animalien elikadurarako gehigarrien erabilera eta laguntzaile teknologikoen erabilera murriztea, ahalik eta gutxien balia daitezen, funtsezko behar teknologiko edo zooteknikora edo nutrizio-xede zehatzetara mugatuta.
c) exclusión de sustancias y métodos de transformación que puedan inducir a error sobre la verdadera naturaleza del producto;	c) Produktuaren benetako izaerari buruzko akatsak eragin ditzaketen substantziak eta eraldaketa-metodoak baztertea.
d) transformación escrupulosa de piensos ecológicos, utilizando preferentemente métodos biológicos, mecánicos y físicos.	d) Pentsu ekologikoak modu arduratsuan eraldatzea, ahal bada metodo biologikoak, mekanikoak eta fisikoak erabiliz.
CAPÍTULO III	III. KAPITULUA
NORMAS DE PRODUCCIÓN	EKOIZPEN-ARAUAK
Artículo 9	9. artikulua
Normas generales de producción	Ekoizpen-arau orokorrak
1.	1.
Los operadores cumplirán las normas generales de producción establecidas en el presente artículo.	Operadoreek artikulua honetan ezarritako ekoizpen-arau orokorrak beteko dituzte.
2.	2.
La totalidad de la explotación se gestionará de acuerdo con los requisitos del presente Reglamento que se aplican a la producción ecológica.	Ustiategi osoa erregelamendu honek ekoizpen ekologikoari dagokionez ezartzen dituen betekizunekin bat etorritik kudeatuko da.
3.	3.
Para los fines y usos a que se refieren los artículos 24 y 25 y el anexo II, solamente podrán utilizarse los productos y sustancias autorizados de conformidad con dichas disposiciones en la producción ecológica, siempre que su utilización en la producción no ecológica también haya sido autorizada de conformidad con las disposiciones pertinentes de la normativa de la Unión y, cuando proceda, de conformidad con disposiciones nacionales basadas en la normativa de la Unión.	Erregelamenduaren 24. eta 25. artikuluetan eta II. eranskinean zehaztutako xede eta erabileretarako, xedapen horiekin bat etorritik baimendutako produktuak eta substantziak bakarrik erabili ahaliko dira ekoizpen ekologikoan, baldin eta ekoizpen ez-ekologikoan erabiltzea ere baimenduta bada. Batasunaren araudiko xedapen egokiekin bat etorritik eta, hala bada, dagokio, Batasunaren araudian oinarritutako xedapen nazionalekin bat etorritik.
Se permitirán los siguientes productos y sustancias a que se refiere el artículo 2, apartado 3, del Reglamento (CE) n.º 1107/2009 para su uso en la producción ecológica, siempre que estén autorizados de conformidad con dicho Reglamento:	(EE) 1107/2009 Erregelamenduaren 2.3 artikuluan zehaztutako produktu eta substantzia hauek baimenduko dira ekoizpen ekologikoan erabiltzeko, baldin eta erregelamendu horrekin bat etorritik baimenduta badaude:
a) protectores, sinergistas y coformulantes como componentes de los productos fitosanitarios;	a) babesgarriak, sinergistak eta koformulanteak, produktu fitosanitarioen osagai gisa;
b) adyuvantes para su mezcla con productos fitosanitarios.	b) produktu fitosanitarioekin nahasteko adjuwantak.
Se permitirá el uso en la producción ecológica de productos y sustancias para fines distintos de los comprendidos en el ámbito del presente Reglamento, siempre que su uso respete los principios establecidos en el capítulo II.	Ekoizpen ekologikoan produktuak eta substantziak erregelamendu honen eremuan sartutakoez bestelako xedeetarako erabiltzea baimenduko da, baldin eta haien erabilerak II. kapituluaren ezarritako printzipioak errespetatzen baditu.
4.	4.

Quedan prohibidas las radiaciones ionizantes para tratar alimentos o piensos ecológicos, y para tratar materias primas utilizadas en alimentos o piensos ecológicos.	Debekatuta dago erradiazio ionizatzaileak erabiltzea elikagai edo pentsu ekologikoak tratatzeko eta elikagai edo pentsu ekologikoetan erabilitako lehengaiak tratatzeko.
5.	5.
Queda prohibido el recurso a la clonación de animales y la cría de animales poliploides inducidos artificialmente.	Debekatuta dago animaliak klonatzea eta artifizialki induzitutako animalia poliploideak haztea.
6.	6.
Se adoptarán medidas preventivas y precautorias, cuando proceda, en cada etapa de producción, preparación y distribución.	Hala dagokionean, prebentzio- eta prekauzio-neurriak hartuko dira ekoizpen-, prestaketa- eta banaketa-etapa bakoitzean.
7.	7.
No obstante lo dispuesto en el apartado 2, una explotación se podrá escindir en unidades de producción ecológica, en conversión o no ecológica, separadas de manera clara y efectiva, siempre que para las unidades de producción no ecológica:	Artikuluaren 2. apartatuan xedatutakoa gorabehera, ustiategi bat modu argi eta eraginkorrean banatutako ekoizpen ekologikoko, bihurtze-aldiko ekoizpeneko eta ekoizpen ez-ekologikoko unitateetan zatitu ahalko da, baldin eta ekoizpen ez-ekologikoko unitateek baldintza hauek betetzen badituzte:
a) por lo que respecta a los animales, haya especies diferentes;	a) Animalien kasuan, espezie bat baino gehiago egotea.
b) por lo que respecta a los vegetales, haya distintas variedades que puedan diferenciarse fácilmente.	b) Landareen kasuan, erraz bereizteko moduko barietateak egotea.
Por lo que respecta a las algas y animales de acuicultura, podrán estar presentes las mismas especies, siempre que exista una separación clara y efectiva entre las instalaciones o unidades de producción.	Algei eta akuikulturako animaliei dagokienez, espezie berak egon ahalko dira, baldin eta ekoizpen-instalazio edo -unitateen artean banaketa argi eta eraginkorrik badago.
8.	8.
Como excepción a lo dispuesto en el apartado 7, letra b), en el caso de cultivos perennes, que requieran un período de cultivo de al menos tres años, podrán producirse diferentes variedades que no puedan diferenciarse fácilmente o las mismas variedades, siempre que la producción de que se trate esté incluida en un plan de conversión y que la conversión a la producción ecológica de la última parte de la superficie relacionada con dicha producción comience lo antes posible y concluya en un plazo máximo de cinco años.	Artikulu honen 7. apartatuko b) letran xedatutakoaren salbuespen gisa, gutxienez hiru urteko lantze-aldia behar duten labore iraunkorretan, erraz bereizi ezin diren zenbait barietate edo barietate berak ekoitzi ahalko dira, baldin eta kasuan kasuko ekoizpena bihurtze-plan batean sartuta badago eta ekoizpenarekin erlazionatutako eremuaren azken zatia ekoizpen ekologikora bihurtzeko prozesua ahalik eta lasterren hasten bada eta gehienez bost urteko epean amaitzen bada.
En estos casos:	Kasu horietan:
a) el agricultor notificará a la autoridad competente, o cuando proceda, a la autoridad de control u organismo de control, el inicio de la cosecha de cada uno de los productos considerados con una antelación de al menos 48 horas;	a) Nekazariak agintaritza eskudunari edo, hala dagokionean, kontrol-agintaritzari edo kontrol-organismoari jakinaraziko dio noiz hasiko den landutako produktu bakoitzaren uztza, gutxienez 48 ordu lehenago.
b) una vez terminada la cosecha, el agricultor informará a la autoridad competente o cuando proceda, a la autoridad de control u organismo de control, de las cantidades exactas cosechadas en	b) Behin uztza amaituta, nekazariak agintaritza eskudunari edo, hala dagokionean, kontrol-agintaritzari edo kontrol-organismoari jakinaraziko dio zer kopuru bildu diren zehazki unitateetan eta zer neurri hartu diren produktuak banatzeko.

las unidades en cuestión y las medidas tomadas para separar los productos;	
c) el plan de conversión y las medidas que se vayan a tomar para garantizar la separación clara y efectiva serán confirmados cada año por la autoridad competente o cuando proceda por la autoridad de control u organismo de control, tras el inicio del plan de conversión.	c) Bihurtze-plana eta banaketa argi eta eraginkorra bermatzeko hartuko diren neurriak urtero baieztatuko ditu agintaritzak eskudunak edo, hala dagokionean, kontrol-agintaritzak edo kontrol-organismoak, bihurtze-plana hasi ostean.
9.	9.
Los requisitos relativos a la diversidad de especies y de variedades establecidos en el apartado 7, letras a) y b), no se aplicarán a los centros educativos y de investigación, los viveros, los productores de semillas y las operaciones de reproducción.	Artikulu honen 7. apartatuko a) eta b) letretan espezieen eta barietateen dibertsitateari dagokionez ezarritako betekizunak ez zaizkie aplikatuko ez ikastetxeei, ez ikerketa-zentroei, ez mintegiei, ez hazi-ekoizleei, ez ugalketa-eragiketei.
10.	10.
Cuando, en los casos indicados en los apartados 7, 8 y 9, no todas las unidades de producción de una explotación estén gestionadas con arreglo a normas de producción ecológica, los operadores:	Artikuluaren 7., 8. eta 9. apartatuetan aipatutako kasuetan, ustategi bateko ekoizpen-unitate guztiak ez daudenean ekoizpen ekologikoko arauen arabera kudeatuta, honela jardungo dute operadoreek:
a) mantendrán los productos utilizados para las unidades de producción ecológica o en conversión separados de los utilizados en las unidades de producción no ecológica;	a) Banatuta edukiko dituzte ekoizpen ekologikoko edo bihurtze-aldiko ekoizpeneko unitateetarako erabilitako produktuak eta ekoizpen ez-ekologikoko unitateetan erabilitakoak.
b) mantendrán separados los productos procedentes de las unidades de producción ecológica, en conversión o no ecológica;	b) Banatuta edukiko dituzte ekoizpen ekologikoko unitateetatik datozen produktuak, bihurtze-aldiko ekoizpeneko unitateetatik datozenak eta ekoizpen ez-ekologikoko unitateetatik datozenak.
c) llevarán registros adecuados que demuestren la separación efectiva de las unidades de producción y de los productos.	c) Ekoizpen-unitateak eta produktuak modu eraginkorrean banatuta daudela frogatzen duten erregistro egokiak edukiko dituzte.
11.	11.
La Comisión estará facultada para adoptar actos delegados con arreglo al artículo 54 que modifiquen el apartado 7 del presente artículo añadiendo nuevas normas sobre la escisión de una explotación en unidades de producción ecológica, en conversión o no ecológica, en particular en relación con productos enumerados en el anexo I, o modificando dichas nuevas normas.	Batzordeak ahalmena edukiko du 54. artikulua araberako egintza eskuordetuak onartzeko, artikulu honetako 7. apartatua aldatze aldera, bai ustategi bat ekoizpen ekologikoko unitatetan, bihurtze-aldiko ekoizpeneko unitatetan eta ekoizpen ez-ekologikoko unitatetan zatitzeari buruzko arau berriak gehitzeko, bereziki I. eranskinean zerrendatutako produktuei dagokienez, bai arau berri horiek aldatzeko.
Artículo 10	10. artikulua
Conversión	Bihurtzea
1.	1.
Los agricultores y operadores que produzcan algas o animales de la acuicultura cumplirán un período de conversión. Durante todo ese período aplicarán todas las normas de producción ecológica establecidas en el presente Reglamento, en particular las normas aplicables en materia de	Nekazariek eta algak edo akuikulturako animaliak ekoizten dituzten operadoreek bihurtze-aldi bat beteko dute. Aldi horretan guztian, erregelamendu honetan ekoizpen ekologikorako ezarritako arau guztiak aplikatuko dituzte, bereziki artikulu honetan eta II. eranskinean bihurtze-prozesuari buruz ezarritako arau aplikagarriak.

conversión establecidas en el presente artículo y en el anexo II.	
2.	2.
El período de conversión empezará, como muy pronto, cuando el agricultor u operador que produzcan algas o animales de la acuicultura notifiquen su actividad a las autoridades competentes, de conformidad con el artículo 34, apartado 1, en el Estado miembro en el que se lleve a cabo la actividad y en el que la explotación del agricultor u operador esté sujeta al sistema de control.	Bihurtze-aldia, goizenez, une honetan hasiko da: nekazariak edo algak edo akuikulturako animaliak ekoizten dituen operadoreak bere jarduera jakinarazten dienean dagokion estatu kideko agintaritzak eskudunei —kontuan hartuta nekazariak edo operadoreak jarduera non egiten duen eta kontrol-sistema bete behar duen ustategia non dagoen kokatuta—, 34.1 artikuluekin bat etorritik.
3.	3.
No se podrá reconocer de manera retroactiva ningún período como parte del período de conversión, excepto cuando:	Ezingo da aldirik atzeraeraginez aintzatetsi bihurtze-aldiaren zati gisa, kasu hauetan izan ezik:
a) las parcelas del operador hayan sido objeto de medidas definidas en un programa ejecutado con arreglo al Reglamento (UE) n.º 1305/2013 con el fin de garantizar que no se han empleado en esas parcelas productos o sustancias distintos de los autorizados para su uso en la producción ecológica; o	a) operadorearen lurzatiei (EB) 1305/2013 Erregelamenduekin bat etorritik egikaritutako programa batean zehaztutako neurriak aplikatu zaizkienean, lurzati horietan ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimendutakoez bestelako produkturik edo substantziarik erabili ez dela bermatzeko; edo
b) el operador pueda demostrar que las parcelas eran espacios naturales o zonas agrícolas que, durante un período no inferior a tres años, no habían sido tratados con productos o sustancias no autorizados para su uso en la producción ecológica.	b) operadoreak frogatu dezakeenean lurzati horiek ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimenduta ez dauden produktuekin edo substantziekin hiru urtean gutxienez tratatu gabeko naturaguneak edo nekazaritza-zonak zirela.
4.	4.
Los productos obtenidos durante el período de conversión no se comercializarán como productos ecológicos o como productos en conversión.	Bihurtze-aldian ekoiztutako produktuak ez dira merkaturatutako produktu ekologiko gisa edo bihurtze-aldiko produktu gisa.
No obstante, los siguientes productos obtenidos durante el período de conversión y en cumplimiento de lo dispuesto en el apartado 1 pueden comercializarse como productos en conversión:	Hala ere, bihurtze-aldian eta 1. apartatuan xedatutakoa betez ekoiztutako produktu hauek bihurtze-aldiko produktu gisa merkaturatu daitezke:
a) materiales de reproducción vegetal, siempre que se haya observado un período de conversión de al menos 12 meses;	a) landare-ugalketako materialak, gutxienez 12 hilabeteko bihurtze-aldia bete bada;
b) alimentos de origen vegetal y piensos de origen vegetal, siempre que el producto de que se trate contenga únicamente un ingrediente de origen agrícola y se haya observado un período de conversión de al menos 12 meses antes de la cosecha.	b) landare-jatorriko elikagaiak eta landare-jatorriko pentsuak, kasuan kasuko produktuak nekazaritza-jatorriko osagai bakarra badauka eta uzta baino lehen gutxienez 12 hilabeteko bihurtze-aldia bete bada.
5.	5.
La Comisión estará facultada para adoptar actos delegados con arreglo al artículo 54 que modifiquen el punto 1.2.2 de la parte II del anexo II añadiendo normas de conversión para especies distintas de las reguladas en la parte II del anexo II	Batzordeak ahalmena edukiko du 54. artikuluen araberrako egintza eskuordetuak onartzeko, II. eranskinaren II. zatiko 1.2.2 puntua aldatze aldera, bai 2018ko ekainaren 17an II. eranskinaren II. zatian araututakoez bestelako espezieetarako

el 17 de junio de 2018, o modificando dichas nuevas normas.	bihurtze-arauak gehitzeko, bai arau berri horiek aldatzeko.
6.	6.
Si procede, la Comisión adoptará actos de ejecución que especifiquen los documentos que hayan de presentarse a efectos del reconocimiento retroactivo de un período previo de conformidad con el apartado 3 del presente artículo.	Hala badagokio, Batzordeak betearazpen-egintzak onartuko ditu artikuluko honetako 3. apartatuarekin bat etorritik lehenagoko adostasun-aldi bat atzeraeraginez aintzateste aldera zer dokumentu aurkeztu behar diren zehazteko.
Dichos actos de ejecución se adoptarán de conformidad con el procedimiento de examen a que se refiere el artículo 55, apartado 2.	Betearazpen-egintza horiek 55.2 artikuluan zehaztutako azterketa-prozedurari jarraituz onartuko dira.
Artículo 11	11. artikulua
Prohibición del uso de OMG	GEOak erabiltzeko debekua
1.	1.
En la producción ecológica no podrán utilizarse OMG, productos obtenidos a partir de OMG ni productos obtenidos mediante OMG en alimentos ni en piensos, ni como alimentos, piensos, coadyuvantes tecnológicos, productos fitosanitarios, fertilizantes, acondicionadores del suelo, materiales de reproducción vegetal, microorganismos o animales.	Ekoizpen ekologikoan, ezingo da erabili ez GEOrik, ez GEOetatik eratorritako produkturik, ez GEOen bidez ekoiztutako produkturik, hala elikagaietan edo pentsuetan, nola elikagai gisa, pentsu gisa, laguntzaile teknologiko gisa, produktu fitosanitario gisa, ongarri gisa, lurzorua egokitzaile gisa, landare-ugalketako material gisa, mikroorganismo gisa edo animalia gisa.
2.	2.
A efectos de la prohibición establecida en el apartado 1, en lo que respecta a los OMG y a los productos obtenidos a partir de OMG destinados a la producción de alimentos y piensos, los operadores podrán basarse en las etiquetas que lleve adheridas el producto o que lo acompañen con arreglo a la Directiva 2001/18/CE, el Reglamento (CE) n.º 1829/2003 del Parlamento Europeo y del Consejo (18) o el Reglamento (CE) n.º 1830/2003 del Parlamento Europeo y del Consejo (19), o en cualquier otro documento que se adjunte con arreglo a estos.	Artikulu honen 1. apartatuan ezarritako debekuaren ondorioetarako, elikagaiak eta pentsuak ekoiztera bideratutako GEOei eta GEOetatik eratorritako produktuei dagokienez, operadoreek dokumentu hauek hartu ahal izango dituzte oinarri: produktuak itsatsita dauzkan edo produktuarekin batera datozen etiketak —bat datozenak 2001/18/EE Zuzentarauarekin, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EE) 1829/2003 Erregelamenduarekin (18) edo Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1830/2003 (EE) Erregelamenduarekin (19)— edo xedapen horien arabera erabakien den beste edozein dokumentu.
3.	3.
Los operadores podrán inferir que no se ha utilizado ningún OMG ni productos obtenidos a partir de OMG en la producción de los alimentos y piensos que hayan adquirido, cuando tales productos no lleven adheridas etiquetas ni vayan acompañados de ellas, ni vayan acompañados de algún documento adjunto al producto con arreglo a los actos jurídicos mencionados en el apartado 2, a menos que hayan obtenido otra información que indique que el etiquetado de dichos productos no cumple los requisitos de los citados actos jurídicos.	Operadoreek ondorioztatu ahal dute erosi dituzten elikagaien eta pentsuen ekoizpenean ez dela ez GEOrik ez GEOetatik eratorritako produkturik erabili, baldin eta produktu horiek ez badaukate etiketarik itsatsita eta produktuarekin batera ez badator etiketarik, edo ez badute erantsita 2. apartatuan aipatutako egintza juridikoekin lotutako dokumenturik; alabaina, ezingo dute ondorio hori ateratu, bestelako informazioen bat eskuratu bada zeinetan adierazten baita produktu horien etiketatuak ez dituela betetzen aipatutako egintza juridikoetako betekizunak.
4.	4.
A efectos de la prohibición establecida en el apartado 1, en relación con los productos no incluidos en los apartados 2 y 3, los operadores	Artikulu honen 1. apartatuan ezarritako debekuaren ondorioetarako, 2. eta 3. apartatuetan jasota ez dauden produktuei dagokienez, hirugarrenei erositako

que utilicen productos no ecológicos adquiriéndolos a terceros exigirán al vendedor la confirmación de que dichos productos no han sido obtenidos a partir de OMG o mediante OMG.	produktu ez-ekologikoak erabiltzen dituzten operadoreek saltzaileari eskatuko diote berrets dezala produktu horiek GEOetatik eratorri ez direla eta GEOen bidez ekoitzi ez direla.
Artículo 12	12. artikulua
Normas de producción vegetal	Landare-ekoizpenerako arauak
1.	1.
Los operadores que se dediquen a la producción de vegetales o productos vegetales deberán cumplir, en particular, las normas detalladas que se establecen en el anexo II, parte I.	Landareak edo landare-produktuak ekoizten dituzten operadoreek, bereziki, II. eranskinaren I. zatian ezarritako arau xehatuak bete beharko dituzte.
2.	2.
La Comisión estará facultada para adoptar actos delegados con arreglo al artículo 54 que modifiquen:	Batzordeak ahalmena edukiko du 54. artikulua araberako egintza eskuordetuak onartzeko, atal hauek aldatze aldera:
a) los puntos 1.3 y 1.4 de la parte I del anexo II en lo que respecta a las excepciones;	a) II. eranskinaren I. zatiko 1.3 eta 1.4 puntuak, salbuespenei dagokienez;
b) el punto 1.8.5 de la parte I del anexo II en lo que respecta al uso de material de reproducción vegetal no ecológico y en conversión;	b) II. eranskinaren I. zatiko 1.8.5 puntua, landare-ugalketako material ez-ekologikoaren eta bihurtze-aldiko landare-ugalketako materialaren erabilerari dagokionez;
c) el punto 1.9.5 de la parte I del anexo II, añadiendo nuevas disposiciones relativas a acuerdos entre operadores de explotaciones agrarias, o modificando dichas nuevas disposiciones;	c) II. eranskinaren I. zatiko 1.9.5 puntua, nekazaritza-ustategien operadoreen arteko akordioei buruzko xedapen berriak gehituz edo xedapen berri horiek aldatuz;
d) el punto 1.10.1 de la parte I del anexo II, añadiendo nuevas medidas de gestión de plagas y malas hierbas, o modificando dichas nuevas medidas;	d) II. eranskinaren I. zatiko 1.10.1 puntua, izurrien eta belar txarren kudeaketarako neurri berriak gehituz edo neurri berri horiek aldatuz;
e) la parte I del anexo II, añadiendo nuevas normas detalladas y prácticas de cultivo para determinados vegetales y productos vegetales, incluidas normas para las semillas germinadas, o modificando dichas nuevas normas.	e) II. eranskinaren I. zatia, landare eta landare-produktu jakinetarako arau xehatu eta laborantza-praktika berriak gehituz, hazi erneetarako arauak barne, edo arau berri horiek aldatuz.
Artículo 13	13. artikulua
Disposiciones específicas para la comercialización de materiales de reproducción vegetal de material heterogéneo ecológico	Material heterogeneo ekologikoko landare-ugalketako materialak merkaturatzeko berariazko xedapenak
1.	1.
Los materiales de reproducción vegetal de material heterogéneo ecológico podrán comercializarse sin cumplir los requisitos de registro ni las categorías de certificación de materiales iniciales, de base y certificados, ni los requisitos concebidos para otras categorías, que figuran en las Directivas 66/401/CEE, 66/402/CEE, 68/193/CEE, 98/56/CE, 2002/53/CE, 2002/54/CE, 2002/55/CE, 2002/56/CE, 2002/57/CE, 2008/72/CE y 2008/90/CE, o en actos adoptados en virtud de dichas Directivas.	Material heterogeneo ekologikoko landare-ugalketako materialak merkaturatzeko aukera izango da nahiz eta ez bete ez erregistro-betekizunak, ez hasierako, oinarriko eta ziurtatutako materialen ziurtapen-kategoriak, ez beste kategoria batzuetarako xedatutako betekizunak —66/401/EEE, 66/402/EEE, 68/193/EEE, 98/56/EE, 2002/53/EE, 2002/54/EE, 2002/55/EE, 2002/56/EE, 2002/57/EE, 2008/72/EE eta 2008/90/EE zuzentarauetan edo zuzentarau horiekin bat etorritik onartutako egintzetan jasoak—.

2.	2.
Los materiales de reproducción vegetal de material heterogéneo ecológico a que se refiere el apartado 1 podrán comercializarse tras la notificación del material heterogéneo ecológico por parte del proveedor a los organismos oficiales competentes a que se refieren las Directivas 66/401/CEE, 66/402/CEE, 68/193/CEE, 98/56/CE, 2002/53/CE, 2002/54/CE, 2002/55/CE, 2002/56/CE, 2002/57/CE, 2008/72/CE y 2008/90/CE, realizada por medio de un expediente que contenga:	Artikulu honen 1. apartatuan zehaztutako material heterogeneo ekologikoko landare-ugalketako materialak merkaturatzeko aukera egongo da, hornitzaileak material heterogeneo ekologikoaren jakinarazpena egin ostean 66/401/EEE, 66/402/EEE, 68/193/EEE, 98/56/EE, 2002/53/EE, 2002/54/EB, 2002/55/EE, 2002/56/EE, 2002/57/EE, 2008/72/EE eta 2008/90/EE zuzentarauean zehaztutako organismo ofizial eskudunei. Jakinarazpena egiteko, datu hauek jasotzen dituen espedientea aurkeztu beharko du:
a) los datos de contacto del solicitante;	a) eskatzailearen harremanetarako datuak;
b) la especie y denominación del material heterogéneo ecológico;	b) material heterogeneo ekologikoaren espeziea eta izena;
c) la descripción de las principales características agronómicas y fenotípicas comunes a dicho conjunto de plantas, incluidos métodos de obtención, resultados de ensayos, si se dispone de ellos, relativos a esas características, país de producción y material parental utilizado;	c) landare multzo horren ezaugarri agronomiko eta fenotipiko erkide nagusien deskribapena, honako hauek barne: eskuratzeko metodoak, ezaugarri horiei buruzko saiakuntzen emaitzak —halakorik badago—, ekoizpen-herrialdea eta erabilitako guraso-materiala;
d) una declaración del solicitante sobre la veracidad de los elementos mencionados en las letras a), b) y c); y	d) eskatzaileak a), b) eta c) letretan aipatutako elementuaren egiazkotasunari buruz egindako adierazpena; eta
e) una muestra representativa.	e) lagin adierazgarri bat.
Dicha notificación deberá enviarse por correo certificado, o por cualquier otro medio de comunicación admitido por los órganos oficiales, con acuse de recibo.	Jakinarazpen hori posta ziurtatuz edo organo ofizialek onartutako beste edozein komunikabideren bitartez bidali beharko da, hartu-agiriarekin.
Tres meses después de la fecha que figura en el acuse de recibo, siempre que no se hubiera solicitado información adicional o que no se hubiera comunicado al proveedor una denegación formal por estar incompleto el expediente o por motivos de incumplimiento según la definición del artículo 3, punto 57, se considerará que el organismo oficial competente ha reconocido la notificación y su contenido.	Hartu-agirian jasota dagoen egunetik hiru hilabete igarotakoan, baldin eta informazio gehigarririk eskatu ez bada eta hornitzaileari ez bazaio uko formalik komunikatu espedientea osorik ez egoteagatik edo 3.57 artikuluko definizioaren arabera ez-betetzaren bat egoteagatik, ondorioztatuko da organismo ofizial eskudunak bai jakinarazpena bai haren edukia aintzatetsi dituela.
Tras el reconocimiento explícito o implícito de la notificación, el organismo oficial competente podrá proceder a la incorporación del material heterogéneo ecológico notificado a la lista correspondiente. Dicha incorporación a la lista será gratuita para el proveedor.	Jakinarazpenaren aintzatespen esplizitu edo inplizituaren ostean, organismo ofizial eskudunak dagokion zerrendan sartu ahalko du jakinarazitako material heterogeneo ekologikoa. Zerrendan sartzea doakoa izango da hornitzailearentzat.
La incorporación a una lista de un material heterogéneo ecológico se comunicará a las autoridades competentes de los demás Estados miembros y a la Comisión.	Material heterogeneo ekologiko bat zerrenda batean sartzen denean, gainerako estatu kideetako agintaritza eskudunei eta Batzordeari komunikatuko zaie.
Ese material heterogéneo ecológico cumplirá los requisitos establecidos en los actos delegados adoptados de conformidad con el apartado 3.	Material heterogeneo ekologiko horrek 3. apartatuarekin bat etorritik onartutako egintza eskuordetuetan ezarritako betekizunak betekiko ditu.
3.	3.

La Comisión estará facultada para adoptar actos delegados con arreglo al artículo 54 que completen el presente Reglamento mediante el establecimiento de las normas aplicables a la producción y comercialización de los materiales de reproducción vegetal de materiales heterogéneos ecológicos de géneros o especies particulares, en lo que respecta a:	Batzordeak ahalmena edukiko du 54. artikulua araberako egintza eskuordetuak onartzeko, erregelamendu hauosatze aldera, genero edo espezie jakinetako material heterogeneo ekologikoetako landare-ugalketako materialen ekoizpenari eta merkaturatzeari aplikatzeko arauak ezarri, honako alderdi hauei dagokienez:
a) la descripción del material heterogéneo ecológico, incluidos los métodos de obtención y producción pertinentes, así como el material parental utilizado;	a) material heterogeneo ekologikoaren deskribapena, egoki diren eskuratzeko eta ekoizpen-metodoak barne, baita erabilitako guraso-materiala ere;
b) los requisitos mínimos de calidad de los lotes de semillas, en particular la identidad, la pureza específica, el índice de germinación y la calidad sanitaria;	b) hazi sorten gutxieneko kalitate-betekizunak, bereziki identitatea, purutasun espezifikoak, erretze-indizea eta osasun-kalitatea;
c) etiquetado y envasado;	c) etiketatua eta ontziak;
d) información y muestras de producción que deberán conservar los operadores profesionales;	d) operadore profesionalak gorde beharko dituzten informazioa eta ekoizpen-laginak;
e) cuando proceda, mantenimiento del material heterogéneo ecológico.	e) bidezkoa denean, material heterogeneo ekologikoaren mantentze-lana.
Artículo 14	14. artikulua
Normas de producción ganadera	Abeltzaintza-ekoizpenerako arauak
1.	1.
Los operadores deberán, en particular, cumplir las normas detalladas de producción que se establecen en la parte II del anexo II, así como cualesquiera actos de ejecución indicados en el apartado 3 del presente artículo.	Operadoreek II. eranskinaren II. zatiko ekoizpen-arau xehatuak bete beharko dituzte bereziki, baita artikulua honen 3. apartatuan aipatutako betearazpen-egintza guztiak ere.
2.	2.
La Comisión estará facultada para adoptar actos delegados con arreglo al artículo 54 que modifiquen:	Batzordeak ahalmena edukiko du 54. artikulua araberako egintza eskuordetuak onartzeko, atal hauek aldatze aldera:
a) los puntos 1.3.4.2, 1.3.4.4.2 y 1.3.4.4.3 de la parte II del anexo II, reduciendo los porcentajes en lo que respecta al origen de los animales una vez que se haya determinado la suficiente disponibilidad de animales ecológicos en el mercado de la Unión;	a) II. eranskinaren II. zatiko 1.3.4.2, 1.3.4.4.2 eta 1.3.4.4.3 puntuak, animalien jatorriari dagokionez ehunekoak murrizteko, zehaztu denean Batasunaren merkatuan badaudela eskuragarri animalia ekologiko nahikoak;
b) el punto 1.6.6 de la parte II del anexo II en lo que respecta a los límites de nitrógeno orgánico vinculados a la densidad de población total;	b) II. eranskinaren II. zatiko 1.6.6 puntua, guztizko populazio-dentsitateari lotutako nitrogeno organikoko mugei dagokienez;
c) el punto 1.9.6.2, letra b), de la parte II del anexo II en lo que respecta a la alimentación de las colonias de abejas;	c) II. eranskinaren II. zatiko 1.9.6.2 puntuko b) letra, erle-kolonien elikadurari dagokionez;
d) el punto 1.9.6.3, letras b) y e), de la parte II del anexo II en lo que respecta a los tratamientos aceptables para la desinfección de los colmenares y a los métodos y tratamientos para combatir el Varroa destructor;	d) II. eranskinaren II. zatiko 1.9.6.3 puntuko b) eta e) letrak, erlauntzak desinfektatzeko tratamendu onargarriei dagokienez eta <i>Varroa destructor</i> akaroari aurre egiteko metodoei eta tratamenduei dagokienez;

e) la parte II del anexo II añadiendo normas detalladas de producción animal para especies distintas de las reguladas en dicha parte el 17 de junio de 2018, o modificando dichas nuevas normas, en lo que respecta a:	e) II. eranskinaren II. zatia, 2018ko ekainaren 17an zati horretan araututakoez bestelako espezieetarako animalia-ekoizpenerako arau xehatuak gehituz edo arau horiek aldatuz, honako hauei dagokienez:
i) excepciones en lo que respecta al origen de los animales;	i) animalien jatorriari buruzko salbuespenak;
ii) nutrición;	ii) nutrizioa;
iii) alojamiento y prácticas pecuarias;	iii) ostatua eta abeltzaintza-praktikak;
iv) atención sanitaria;	iv) osasun-arreta;
v) bienestar animal.	v) animalien ongizatea.
3.	3.
La Comisión, si procede, adoptará actos de ejecución, en lo que respecta a la parte II del anexo II, por los que se establezcan normas sobre:	Batzordeak, hala badagokio, betearazpen-egintzak onartuko ditu, II. eranskinaren II. zatiaz bezainbatean, honako hauei buruzko arauak ezartzeko:
a) el período mínimo que debe respetarse para la alimentación de los animales lactantes con leche materna, indicado en el punto 1.4.1, letra g);	a) animalia edoskitzaileak ama-esnez elikatzeko errespetatu behar den gutxieneko aldia, 1.4.1 puntuko g) letran aipatutakoa;
b) la densidad de población y la superficie mínima de las zonas cubiertas y al aire libre que deberán respetarse en el caso de especies específicas de animales con el fin de garantizar que se satisfacen las necesidades de desarrollo, fisiológicas y etológicas de los animales, de conformidad con los puntos 1.6.3, 1.6.4 y 1.7.2;	b) animalien garapen-beharrak, behar fisiologikoak eta behar etologikoak betetzen direla bermatze aldera animalia-espezie zehatzetarako errespetatu beharko diren populazio-dentsitatea eta zona estalien eta aire zabaleko zonen gutxieneko azalera, bat etorrita 1.6.3, 1.6.4 eta 1.7.2 puntuekin;
c) las características y requisitos técnicos de la superficie mínima de las zonas cubiertas y al aire libre;	c) zona estalien eta aire zabaleko zonen gutxieneko azaleraren ezaugarriak eta betekizun teknikoak;
d) las características y requisitos técnicos de los edificios y alojamientos para todas las especies de animales, excepto las abejas, con el fin de garantizar que se satisfacen las necesidades de desarrollo, fisiológicas y etológicas de los animales, de conformidad con el punto 1.7.2;	d) 1.7.2 puntuaren arabera animalien garapen-beharrak, behar fisiologikoak eta behar etologikoak betetzen direla bermatze aldera animalia-espezie guztientzako eraikinen eta ostatuen ezaugarriak eta betekizun teknikoak —erleentzako izan ezik—;
e) requisitos en materia de vegetación y características de las instalaciones protegidas y las zonas al aire libre.	e) landarediari buruzko betekizunak eta instalazio babestuen eta aire zabaleko zonen ezaugarriak.
Dichos actos de ejecución se adoptarán de conformidad con el procedimiento de examen a que se refiere el artículo 55, apartado 2.	Betearazpen-egintza horiek 55.2 artikuluan zehaztutako azterketa-prozedurari jarraituz onartuko dira.
Artículo 15	15. artikulua
Normas de producción de algas y animales de la acuicultura	Algen eta akuikulturako animalien ekoizpenerako arauak
1.	1.
Los operadores que produzcan algas y animales de la acuicultura deberán, en particular, cumplir las normas detalladas de producción que se establecen en la parte III del anexo II, así como cualesquiera actos de ejecución indicados en el apartado 3 del presente artículo.	Algak eta akuikulturako animaliak ekoizten dituzten operadoreek II. eranskinaren III. zatiko ekoizpen-arau xehatuak bete beharko dituzte bereziki, baita artikulua honen 3. apartatuan aipatutako betearazpen-egintza guztiak ere.
2.	2.

La Comisión estará facultada para adoptar actos delegados con arreglo al artículo 54 que modifiquen:	Batzordeak ahalmena edukiko du 54. artikulua araberako egintza eskuordetuak onartzeko, atal hauek aldatze aldera:
a) el punto 3.1.3.3 de la parte III del anexo II en lo que respecta a la alimentación de los animales de la acuicultura carnívoros;	a) II. eranskinaren III. zatiko 3.1.3.3 puntua, akuikulturako animalia haragijaleen elikadurari dagokionez;
b) el punto 3.1.3.4 de la parte III del anexo II añadiendo nuevas normas relativas sobre alimentación artificial para determinados animales de la acuicultura, o modificando dichas nuevas normas;	b) II. eranskinaren III. zatiko 3.1.3.4 puntua, akuikulturako animalia jakinetarako elikadura artifizialari buruzko arau berriak gehituz edo arau horiek aldatuz;
c) el punto 3.1.4.2 de la parte III del anexo II en lo que respecta a los tratamientos veterinarios de los animales de la acuicultura;	c) II. eranskinaren III. zatiko 3.1.4.2 puntua, akuikulturako animalien albaitaritza-tratamenduei dagokienez;
d) la parte III del anexo II añadiendo condiciones detalladas por especie para la gestión de las poblaciones reproductoras, la reproducción y la producción de juveniles, o modificando dichas nuevas condiciones detalladas.	d) II. eranskinaren III. zatia, ugaltze-populazioen kudeaketarako, ugalketarako eta organismo gazteen ekoizpenerako espezie bakoitzarentzako baldintza zehatzak gehituz edo baldintza zehatz berri horiek aldatuz.
3.	3.
La Comisión adoptará, cuando proceda, actos de ejecución que establezcan normas detalladas por especies o grupos de especies en materia de densidad de las poblaciones y de características específicas para los sistemas de producción y los sistemas de contención, con el fin de garantizar que se satisfagan las necesidades específicas de las especies.	Bidezkoa denean, populazioen dentsitateari buruzko eta ekoizpen-sistemen eta euste-sistemen berriazko ezaugarriei buruzko arau xehatuak —espeziearen edo espezie-taldearen araberakoak— ezartzen dituzten betearazpen-egintzak onartuko ditu Batzordeak, espezieen berriazko beharrak betetzen direla bermatzeko.
Dichos actos de ejecución se adoptarán de conformidad con el procedimiento de examen indicado en el artículo 55, apartado 2.	Betearazpen-egintza horiek 55.2 artikuluan aipatutako azterketa-prozedurari jarraituz onartuko dira.
4.	4.
A efectos del presente artículo y de la parte III del anexo II, se entiende por «densidad de población» el peso vivo de los animales de la acuicultura por metro cúbico de agua en cualquier momento durante la fase de engorde final y, en el caso de los peces planos y los camarones, el peso por metro cuadrado de superficie.	Artikulu honen eta II. eranskinaren III. zatiaren ondorioetarako, azken gizentze-fasearen edozein unetan akuikulturako animaliek metro kubiko ur bakoitzeko duten pisu biziari esaten zaio «populazio-dentsitate», eta arrain zapalen eta izkiren kasuan, berriz, gainazaleko metro karratu bakoitzeko pisuari.
Artículo 16	16. artikulua
Normas de producción de alimentos transformados	Elikagai eraldatuaren ekoizpenerako arauak
1.	1.
Los operadores que produzcan alimentos transformados deberán, en particular, cumplir las normas detalladas de producción que se establecen en la parte IV del anexo II y en cualesquiera actos de ejecución indicados en el apartado 3 del presente artículo.	Elikagai eraldatuak ekoizten dituzten operadoreek, bereziki, II. eranskinaren IV. zatian ezarritako ekoizpen-arau xehatuak bete beharko dituzte, baita artikulu honen 3. apartatuan aipatutako betearazpen-egintza guztiak ere.
2.	2.

La Comisión estará facultada para adoptar actos delegados con arreglo al artículo 54 que modifiquen:	Batzordeak ahalmena edukiko du 54. artikulua araberako egintza eskuordetuak onartzeko, atal hauek aldatze aldera:
a) el punto 1.4 de la parte IV del anexo II en lo que respecta a las medidas de precaución y preventivas que han de tomar los operadores;	a) II. eranskinaren IV. zatiko 1.4 puntua, operadoreek hartu behar dituzten zuhurtasun- eta prebentzio-neurriak dagokienez;
b) el punto 2.2.2 de la parte IV del anexo II en lo que respecta al tipo y la composición de los productos y sustancias permitidos para su uso en alimentos transformados, así como las condiciones en las que pueden utilizarse;	b) II. eranskinaren IV. zatiko 2.2.2 puntua, elikagai eraldatuak erabiltzeko baimenduta dauden produktu eta substantzia motei, haien osakerari eta erabili ahal izateko baldintzei dagokienez;
c) el punto 2.2.4 de la parte IV del anexo II en lo que respecta al cálculo del porcentaje de ingredientes agrícolas indicado en el artículo 30, apartado 5, letra a), inciso ii), y letra b), inciso i), incluidos los aditivos alimentarios autorizados en virtud del artículo 24 para su uso en la producción ecológica que se consideran ingredientes agrarios a efectos de dichos cálculos.	c) II. eranskinaren IV. zatiko 2.2.4 puntua, 30.5. artikuluko a) letraren ii) tartekian eta b) letraren i) tartekian aipatutako nekazaritza-osagaien ehunekoaren kalkulari dagokionez, barnean hartuta 24. artikulua araberako ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimenduta dauden elikagai-gehirriak, zeinak nekazaritza-osagaitzat jotzen baitira kalkulatu horiek egiteko.
Dichos actos delegados no incluirán la posibilidad de utilizar sustancias aromatizantes o preparados aromatizantes que no sean naturales, en el sentido del artículo 16, apartados 2, 3 y 4, del Reglamento (CE) n.º 1334/2008 del Parlamento Europeo y del Consejo (20), ni ecológicos.	Egintza eskuordetu horiek ez dute jasoko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EE) 1334/2008 Erregelamenduaren (20) 16. artikulua 2., 3. eta 4. apartatuekin bat etorritik ez diren aroma-substantziak edo aroma-prestakinek erabiltzeko aukerarik, ezta ekologikoak ez direnak erabiltzeko aukerarik ere.
3.	3.
La Comisión podrá adoptar actos de ejecución que establezcan las técnicas autorizadas en la transformación de productos alimenticios.	Elikadura-produktuen eraldaketan baimendutako teknikak ezartzen dituzten betearazpen-egintzak onartu ahal izango ditu Batzordeak.
Dichos actos de ejecución se adoptarán de conformidad con el procedimiento de examen a que se refiere el artículo 55, apartado 2.	Betearazpen-egintza horiek 55.2 artikuluan zehaztutako azterketa-prozedurari jarraituz onartuko dira.
Artículo 17	17. artikulua
Normas de producción de piensos transformados	Pentsu eraldatuak ekoizpenerako arauak
1.	1.
Los operadores que se dediquen a la producción de piensos transformados deberán cumplir, en particular, las normas detalladas de producción que se establecen en la parte V del anexo II y en cualesquiera actos de ejecución indicados en el apartado 3 del presente artículo.	Pentsu eraldatuak ekoizten dituzten operadoreek, bereziki, II. eranskinaren V. zatian ezarritako ekoizpen-arau xehatuak bete beharko dituzte, baita artikulua honen 3. apartatuan aipatutako betearazpen-egintza guztiak ere.
2.	2.
La Comisión estará facultada para adoptar actos delegados con arreglo al artículo 54 que modifiquen el punto 1.4 de la parte V del anexo II añadiendo nuevas medidas de precaución y preventivas que deben tomar los operadores, o modificando dichas nuevas medidas.	Batzordeak ahalmena edukiko du II. eranskinaren V. zatiko 1.4 puntua aldatzen duten egintza eskuordetuak onartzeko, 54. artikulua araberako, bai operadoreek hartu behar dituzten zuhurtasun- eta prebentzio-neurri berriak gehitzeko, bai neurri berri horiek aldatzeko.
3.	3.

La Comisión podrá adoptar actos de ejecución que establezcan las técnicas autorizadas para su uso en la transformación de piensos.	Pentsuen eraldaketan erabiltzeko baimendutako teknikak ezartzen dituzten betearazpen-egintzak onartu ahalko ditu Batzordeak.
Dichos actos de ejecución se adoptarán de conformidad con el procedimiento de examen indicado en el artículo 55, apartado 2.	Betearazpen-egintza horiek 55.2 artikuluan aipatutako azterketa-prozedurari jarraituz onartuko dira.
Artículo 18	18. artikulua
Normas de producción del vino	Ardoaren ekoizpenerako arauak
1.	1.
Los operadores que se dediquen a la producción de productos del sector vitivinícola deberán cumplir, en particular, las normas detalladas de producción establecidas en la parte VI del anexo II.	Mahastizaintza- eta ardogintza-sektoreko produktua ekoizten dituzten operadoreek II. eranskinaren VI. zatiko ekoizpen-arau xehatuak bete beharko dituzte bereziki.
2.	2.
La Comisión estará facultada para adoptar actos delegados con arreglo al artículo 54 que modifiquen:	Batzordeak ahalmena edukiko du 54. artikulua araberako egintza eskuordetuak onartzeko, atal hauek aldatze aldera:
a) el punto 3.2 de la parte VI del anexo II añadiendo prácticas, procesos y tratamientos enológicos nuevos que están prohibidos, o modificando dichos nuevos elementos;	a) II. eranskinaren VI. zatiko 3.2 puntua, debekatuta dauden praktika, prozesu eta tratamendu enologikoak gehituz edo elementu berri horiek aldatuz;
b) el punto 3.3. de la parte VI del anexo II.	b) II. eranskinaren VI. zatiko 3.3 puntua.
Artículo 19	19. artikulua
Normas de producción de levadura utilizada como alimento o pienso	Elikagai edo pentsu gisa erabiltako legamiaren ekoizpenerako arauak
1.	1.
Los operadores que se dediquen a la producción de levadura que vaya a utilizarse como alimento o pienso deberán cumplir, en particular, las normas detalladas de producción establecidas en la parte VII del anexo II.	Elikagai edo pentsu gisa erabiliko den legamiaren ekoizleek II. eranskinaren VII. zatiko ekoizpen-arau xehatuak bete beharko dituzte bereziki.
2.	2.
La Comisión estará facultada para adoptar actos delegados con arreglo al artículo 54 que modifiquen el punto 1.3 de la parte VII del anexo II añadiendo nuevas normas detalladas de producción de levadura, o modificando dichas nuevas normas.	Batzordeak ahalmena edukiko du 54. artikulua araberako egintza eskuordetuak onartzeko, II. eranskinaren VII. zatiko 1.3 puntua aldatze aldera, bai legamiaren ekoizpenerako arau xehatu berriak gehituta, bai arau berri horiek aldatuta.
Artículo 20	20. artikulua
Inexistencia de algunas normas de producción para determinadas especies de animales y especies de animales de la acuicultura	Animalia-espezie eta akuikulturako animalia-espezie jakin batzuen ekoizpenerako araurik ez egotea
En tanto no se adopten:	Honelako arau eta egintzak onartzen ez diren bitartean:
a) normas generales adicionales para otras especies de animales de cría distintas de las reguladas en el punto 1.9 de la parte II del anexo II, de conformidad con el artículo 14, apartado 2, letra e);	a) II. eranskinaren II. zatiko 1.9 puntuan araututakoez bestelako hazkuntza-animaien espezieetarako arau orokor gehigarriak, 14.2. artikulua e) letrarekin bat etorriz;

b) los actos de ejecución indicados en el artículo 14, apartado 3, para las especies de animales de cría; o	b) 14. 3 artikuluan aipatutako betearazpen-egintzak, hazkuntza-animaien espezieetarako; edo
c) los actos de ejecución indicados en el artículo 15, apartado 3, para las especies o grupos de especies de animales de la acuicultura,	c) 15.3 artikuluan aipatutako betearazpen-egintzak, akuikulturako animalia-espezieetarako,
los Estados miembros podrán aplicar normas detalladas de producción para especies o grupos de especies específicas de animales en lo referente a los elementos sobre los que habrán de versar las medidas a que se refieren las letras a), b y c), siempre que dichas normas nacionales sean acordes con el presente Reglamento, y siempre que no prohíban, restrinjan o impidan la comercialización de productos que hayan sido obtenidos fuera de su territorio y que cumplan el presente Reglamento.	estatu kideek animalien espezie edo espezie-talde zehatzen ekoizpenerako arau xehatuak aplikatu ahalko dituzte a), b) eta c) letretan zehaztutako neurrien bidez bete beharreko elementuei dagokienez, baldin eta arau nazional horiek bat badatoz erregelamendu honekin eta ez badute debekatzen, murrizten edo eragozten beren lurraldetik kanpo ekoitzi diren eta erregelamendu hau betetzen duten produktuak merkaturatzea.
Artículo 21	21. artikulua
Normas de producción para los productos no pertenecientes a las categorías de productos indicadas en los artículos 12 a 19	12. artikulutik 19. artikulura bitartean aipatutako produktu-kategoriakoak ez diren produktuetarako ekoizpen-arauak
1.	1.
La Comisión estará facultada para adoptar actos delegados con arreglo al artículo 54 que modifiquen el anexo II añadiendo normas detalladas de producción, así como normas relativas a la obligación de conversión respecto de los productos no pertenecientes a las categorías indicadas en los artículos 12 a 19, o modificando dichas nuevas normas.	Batzordeak ahalmena edukiko du 54. artikulua araberako egintza eskuordetuak onartzeko, II. eranskina aldatze aldera, bai 12. artikulutik 19. artikulura bitartean aipatutako kategorietakoak ez diren produktuetarako ekoizpen-arau xehatuak eta bihurtze-betebeharrari buruzko arauak emanda, bai arau berri horiek aldatuta.
Dichos actos delegados deberán fundarse en los objetivos y principios de producción ecológica establecidos en el capítulo II, y deberán cumplir las normas de producción generales establecidas en los artículos 9, 10 y 11, así como las normas detalladas de producción establecidas para productos similares en el anexo II. Establecerán requisitos relativos, en particular, a los tratamientos, prácticas e insumos permitidos o prohibidos, o períodos de conversión de los productos de que se trate:	Egintza eskuordetu horiek II. kapituluaren ekoizpen ekologikorako ezarritako helburuak eta printzipioak hartu beharko dituzte oinarri, eta 9., 10. eta 11. artikuluetan ezarritako ekoizpen-arau orokorrak bete beharko dituzte, baita II. eranskinean antzeko produktuetarako ezarritako ekoizpen-arau xehatuak ere. Bereziki, kasuan kasuko produktuetarako baimenduta edo debekatuta dauden tratamenduei, praktikei eta sargaiei buruzko edo produktu horien bihurtze-aldiei buruzko betekizunak ezarriko dituzte.
2.	2.
A falta de las normas detalladas de producción indicadas en el apartado 1:	Artikulu honen 1. apartatuan aipatutako ekoizpen-arau xehaturik ez badago:
a) los operadores, respecto de los productos indicados en el apartado 1, cumplirán los principios establecidos en los artículos 5 y 6, mutatis mutandis con los principios establecidos en el artículo 7, y las normas generales de producción establecidas en los artículos 9 a 11;	a) Operadoreek, 1. apartatuan aipatutako produktuei dagokienez, 5. eta 6. artikuluetan ezarritako printzipioak beteko dituzte, <i>mutatis mutandis</i> 7. artikuluan ezarritako printzipioekin, baita 9. artikulutik 11. artikulura bitartean ezarritako ekoizpen-arau orokorrak ere.
b) los Estados miembros podrán, respecto de los productos indicados en el apartado 1, aplicar normas detalladas de producción nacionales, siempre que dichas normas sean acordes con el	b) Estatu kideek, 1. apartatuan aipatutako produktuei dagokienez, ekoizpen-arau xehatu nazionalak aplikatu ahalko dituzte, baldin eta arau nazional horiek bat badatoz erregelamendu

presente Reglamento y no prohíban, restrinjan o impidan la comercialización de productos obtenidos fuera de su territorio y que cumplan el presente Reglamento.	honekin eta ez badute debekatzen, murrizten edo eragozten beren lurraldetik kanpo ekoitzi diren eta erregelamendu hau betetzen duten produktuak merkaturatzea.
Artículo 22	22. artikulua
Adopción de normas excepcionales de producción	Salbuespenezko ekoizpen-arauak onartzea
1.	1.
La Comisión estará facultada para adoptar actos delegados con arreglo al artículo 54, que completen el presente Reglamento, por los que se establezcan:	Batzordeak ahalmena edukiko du 54. artikuluaaren arabera egintza eskuordetuak onartzeko, erregelamendu hau osatze aldera, haien bidez alderdi hauek ezarrita:
a) los criterios para determinar si en una situación concurren circunstancias catastróficas resultantes de «adversidad climática», «enfermedades animales», «incidente medioambiental», «desastre natural» o «catástrofe», tal como se definen en el artículo 2, apartado 1, letras h), i), j), k) y l), respectivamente, del Reglamento (UE) n.º 1305/2013, así como otras situaciones comparables;	a) irizpide zehatzak, argitu ahal izateko, batetik, ea egoera jakin batean inguruabar katastrofikorik dagoen «ezbehar klimatiko», «animalien gaixotasunen», «ingurumen-gorabeheren», «natura-hondamendien» edo «katastrofeen» ondorioz —oinarritzat hartuta (EB) 1305/2013 Erregelamenduaren 2.1 artikulua h), i), j), k) eta l) letretako definizioak, hurrenez hurren—, edo, bestela, ea horien pareko egoerarik dagoen;
b) normas específicas, incluidas posibles excepciones respecto del presente Reglamento, sobre el modo en que los Estados miembros deben tratar dichas circunstancias catastróficas si deciden aplicar el presente artículo; y	b) berariazko arauak —erregelamendu honetarako salbuespenak barne— estatu kideek artikulua hau aplikatzea erabakiz gero inguruabar katastrofiko horiek nola tratatu behar dituzten zehazteko; eta
c) normas específicas sobre supervisión y notificación en tales casos.	c) kasu horietako gainbegiratze- eta jakinarazte-zereginetarako berariazko arauak.
Estos criterios y normas estarán sujetos a los principios de producción ecológica establecidos en el capítulo II.	Irizpide eta arau horiek bat etorri beharko dute II. kapituluaren ekoizpen ekologikorako ezarritako printzipioekin.
2.	2.
Cuando un Estado miembro haya reconocido formalmente un hecho como desastre natural según se indica en el artículo 18, apartado 3, o en el artículo 24, apartado 3, del Reglamento (UE) n.º 1305/2013 y dicho hecho haga imposible cumplir las normas de producción establecidas en el presente Reglamento, dicho Estado miembro podrá establecer excepciones a las normas de producción durante un período limitado hasta que pueda restablecerse la producción ecológica, con sujeción a los principios establecidos en el capítulo II y a cualquier acto delegado adoptado de conformidad con el apartado 1.	Estatu kide batek gertaera bat natura-hondamenditzat formalki aintzatetsi duenean, (EB) 1305/2013 Erregelamenduaren 18.3 artikuluan edo 24.3 artikuluan aipatzen den moduan, eta gertaera horren ondorioz ezinezkoa denean erregelamendu honetan ezarritako ekoizpen-arauak betetzea, estatu kide horrek ekoizpen-arauetarako salbuespenak ezarri ahalko ditu, aldi mugatu batez, ekoizpen ekologikoa berrezartzeko moduan izan arte, berariaz jarraituz bai II. kapituluaren ezarritako printzipioei baita 1. apartatuarekin bat etorritako egintza eskuordetu orori ere.
3.	3.
Los Estados miembros podrán adoptar medidas de conformidad con el acto delegado indicado en el apartado 1 para permitir que la producción ecológica prosiga su actividad o la reanude en caso de circunstancias catastróficas.	Estatu kideek, 1. apartatuan aipatutako egintza eskuordetuarekin bat etorritik, neurriak har ditzakete ekoizpen ekologikoak jardunean jarraitu ahal izan dezan edo jarduerari berriz ekin ahal diezaion inguruabar katastrofikoetan.
Artículo 23	23. artikulua

Recogida, envasado, transporte y almacenamiento	Biltzea, ontziratzea, garraiatzea eta biltegitratzea
1.	1.
Los operadores se asegurarán de que los productos ecológicos o en conversión se recojan, envasen, transporten y almacenen de conformidad con las normas establecidas en el anexo III.	Operadoreek ziurtatuko dute III. eranskinen ezarritako araukin bat etorri biltzen, ontziratzen, garraiatzen eta biltegitratzen direla produktu ekologikoak eta bihurtze-aldiko produktuak.
2.	2.
La Comisión estará facultada para adoptar actos delegados con arreglo al artículo 54 que modifiquen:	Batzordeak ahalmena edukiko du 54. artikulua araberako egintza eskuordetuak onartzeko, atal hauek aldatze aldera:
a) la sección 2 del anexo III;	a) III. eranskinaren 2. atala;
b) las secciones 3, 4 y 6 del anexo III, añadiendo nuevas normas especiales para el transporte y la recepción de los productos de que se trate, o modificando dichas nuevas normas.	b) III. eranskinaren 3., 4. eta 6. atalak, kasu kasuko produktuak garraiatzeko eta jasotzeko arau berezi berriak gehituz edo arau berri horiek aldatuz.
Artículo 24	24. artikulua
Autorización de productos y sustancias para su uso en la producción ecológica	Produktuak eta substantziak ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimentzea
1.	1.
La Comisión podrá autorizar determinados productos y sustancias para su uso en la producción ecológica, e incluirá tales productos y sustancias autorizados en listas restringidas, con los siguientes fines:	Batzordeak produktu eta substantzia jakin batzuk baimendu ahalko ditu ekoizpen ekologikoan erabiltzeko, eta baimendutako produktu eta substantzia horiek zerrenda mugatueta jasoko ditu, xede hauekin:
a) como sustancias activas para su utilización en productos fitosanitarios;	a) produktu fitosanitarioetan erabiltzeko substantzia aktibo gisa;
b) como fertilizantes, acondicionadores del suelo y nutrientes;	b) ongarri gisa, lurzorua egokitzaile gisa eta mantenugai gisa;
c) como materias primas no ecológicas para piensos de origen vegetal, animal, de algas o levadura, o como materias primas para piensos de origen microbiano o mineral;	c) landare-, animalia-, alga- edo legamia-jatorriko pentsuetarako lehengai ez-ekologiko gisa edo mikrobio- edo mineral-jatorriko pentsuetarako lehengai gisa;
d) como aditivos para alimentación animal y coadyuvantes tecnológicos;	d) animalien elikadurarako gehigarri gisa eta laguntzaile teknologiko gisa;
e) como productos de limpieza y desinfección de estanques, jaulas, tanques, canalizaciones, locales e instalaciones utilizados en la producción animal;	e) animalia-ekoizpenean erabilitako urmaelak, kaiolak, tangak, kanalizazioak, lokalak eta instalazioak garbitzeko eta desinfektatzeko produktu gisa;
f) como productos de limpieza y desinfección de locales e instalaciones utilizadas para la producción vegetal, incluido el almacenamiento en una explotación agraria;	f) landare-ekoizpeneko jardueretarako —ekoizpena nekazaritza-ustategietan biltegitratzea barne— erabilitako lokalak eta instalazioak garbitzeko eta desinfektatzeko produktu gisa;
g) como productos para la limpieza y desinfección en instalaciones de transformación y almacenamiento.	g) eraldaketa- eta biltegitratze-instalazioak garbitzeko eta desinfektatzeko produktu gisa.
2.	2.
Además de los productos y sustancias autorizados con arreglo al apartado 1, la Comisión podrá	Artikulu honen 1. apartatuaren arabera baimendutako produktuez eta substantziez gain,

autorizar determinados productos y sustancias para su uso en la producción de alimentos ecológicos transformados y de levadura empleada como alimento o pienso, e incluirá tales productos y sustancias autorizados en listas restringidas, con los siguientes fines:	Batzordeak produktu eta substantzia jakin batzuk baimendu ahalko ditu elikagai ekologiko eraldatuen ekoizpenean eta elikagai edo pentsu gisa baliatutako legamiaren ekoizpenean erabiltzeko, eta baimendutako produktu eta substantzia horiek zerrenda mugatuetan jasoko ditu, xede hauekin:
a) como aditivos alimentarios y coadyuvantes tecnológicos;	a) elikagai-gehigarri gisa eta laguntzaile teknologiko gisa;
b) como ingredientes agrarios no ecológicos que pueden utilizarse en la producción de alimentos ecológicos transformados;	b) elikagai ekologiko eraldatuen ekoizpenean erabil daitezkeen nekazaritza-osagai ez-ekologiko gisa;
c) como coadyuvantes tecnológicos para la producción de levadura y productos de levadura.	c) legamia eta legamia-produktuak ekoizteko laguntzaile teknologiko gisa.
3.	3.
La autorización de los productos y sustancias a que se refiere el apartado 1, para su uso en la producción ecológica estará supeditada a los principios establecidos en el capítulo II y a los siguientes criterios, que se evaluarán en su conjunto:	Artikulu honen 1. apartatuan azaldutako moduan produktuak eta substantziak ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimena emateko ezinbestekoa izango da II. kapituluaren ezarritako printzipioak betetzea, baita irizpide hauek ere, zeinak osorik hartuta ebaluatuko baitira:
a) son esenciales para una producción sostenida y para el uso previsto;	a) Halako produktu eta sustantziak funtsezkoak dira ekoizpen jarraiturako eta aurreikusitako erabilerarako.
b) todos los productos y sustancias de que se trate son de origen vegetal, animal, microbiano, mineral o de algas, salvo en los casos en que no se disponga de cantidades o calidades suficientes de productos o sustancias de esas fuentes, o en los que no existan alternativas;	b) Kasuan kasuko produktu eta substantzia guztiak landare-, animalia-, mikrobio-, mineral- edo alga-jatorrikoak dira, salbu eta iturri horietako produktuen edo substantzien kantitate edo kalitate nahikorik ez dagoenean edo alternatibarik ez dagoenean.
c) en el caso de los productos mencionados en el punto 1, letra a):	c) 1. puntuko a) letran aipatutako produktuei dagokienez:
i) su empleo es esencial para el control de plagas para las que no existen otras alternativas biológicas, físicas o de selección, prácticas de cultivo u otras prácticas de gestión eficaces,	i) Halako produktu eta sustantziak erabiltzea funtsezkoa da izurriak kontrolatzeko, ez dagoelako beste aukera biologikorik, fisikorik edo hautaketakorik ezta beste labore-praktikarik edo beste kudeaketa-praktika eraginkorrik ere.
ii) si dichos productos no son de origen vegetal, animal, microbiano, mineral o de algas y no son idénticos a los que se dan en la naturaleza, sus condiciones de uso impiden todo contacto directo con las partes comestibles del cultivo;	ii) Produktu horiek ez badira landare-, animalia-, mikrobio-, mineral- edo alga-jatorrikoak eta ez badira naturan sortzen direnen berdin-berdinak, horrelako produktuak erabiltzeko baldintzek galarazi egiten dute zuzeneko kontaktua izatea laborearen zati jangarriekin.
d) en el caso de los productos mencionados en el apartado 1, letra b), su uso es esencial para lograr o mantener la fertilidad del suelo o para satisfacer necesidades nutricionales específicas de los cultivos, o para fines específicos de acondicionamiento del suelo;	d) Artikulu honen 1. apartatuko b) letran aipatutako produktuei dagokienez, horrelako produktuak erabiltzea funtsezkoa da lurzorua emankortasuna lortzeko edo mantentzeko, laboreen berariazko nutrizio-beharrak asetzeko eta lurzorua egokitze berariazko xedeak betetzeko.
e) en el caso de los productos mencionados en el apartado 1, letras c) y d):	e) Artikulu honen 1. apartatuko c) eta d) letretan aipatutako produktuei dagokienez:
i) su uso es necesario para mantener la salud, el bienestar y la vitalidad de los animales y contribuye a una alimentación adecuada que cubre las	i) Horrelako produktuak erabiltzea funtsezkoa da animalien osasuna, ongizatea eta bizitasuna mantentzeko eta lagungarria da kasuan kasuko

necesidades fisiológicas y etológicas de las especies en cuestión, o su uso es necesario para producir o conservar piensos porque la producción o conservación de piensos no es posible sin recurrir a esas sustancias,	espezieek elikadura egokia izan dezaten hartara haien behar fisiologikoak eta etologikoak betetzeko; edo horrelako produktuak erabiltzea beharrezkoa da pentsuak ekoitzi edo kontserbatzeko, substantzia horiek erabili gabe ezinezkoa delako pentsuak ekoiztea edo kontserbatzea.
ii) los piensos de origen mineral, los oligoelementos, las vitaminas o provitaminas son de origen natural, salvo en los casos en que no se disponga de cantidades o calidades suficientes de productos o sustancias de esas fuentes, o en los que no se disponga de alternativas;	ii) Mineral-jatorriko pentsuak, oligoelementuak, bitaminak edo probitaminak jatorri naturalekoak dira, salbu eta iturri horietako produktuen edo substantzien kantitate edo kalitate nahikorik ez dagoenean edo alternatibarik ez dagoenean.
iii) la utilización de materias primas para piensos no ecológicos de origen vegetal o animal es necesaria porque no se dispone de materias primas para piensos de origen vegetal o animal obtenidos con arreglo a normas de producción ecológica en cantidades suficientes;	iii) Landare- edo animalia-jatorriko pentsu ez-ekologikoetarako lehengaiak erabiltzea beharrezkoa da ez dagoelako ekoizpen ekologikoari buruzko arauekin bat etorritz ekoitzitako landare- edo animalia-jatorriko pentsuetarako lehengai nahikorik.
iv) la utilización de especias, plantas aromáticas y melazas no ecológicas es necesaria porque no se dispone de variante ecológica de dichos productos; se tienen que obtener o preparar sin disolventes químicos y su uso se limita al 1 % de la ración de pienso de una especie determinada, calculada anualmente como porcentaje de la materia seca de los piensos de origen agrario.	iv) Espezia, landare aromatiko eta melaza ez-ekologikoak erabiltzea beharrezkoa da ez dagoelako produktu horien aldaera ekologikorik; disolbatzaile kimikorik gabe ekoitzi edo prestatu behar dira, eta espezie jakin baten pentsu-anoaren % 1era mugatuta dago erabilera, anoa urtero kalkulatuta nekazaritza-jatorriko pentsuen materia lehorren ehuneko gisa.
4.	4.
La autorización de los productos y sustancias a que se refiere el apartado 2 para su uso en la producción de alimentos ecológicos transformados o en la producción de levadura utilizada como alimento o pienso estará supeditada a los principios establecidos en el capítulo II y a los siguientes criterios, que se evaluarán en su conjunto:	Artikulu honen 2. apartatuan azaldutako moduan produktuak eta substantziak elikagai ekologiko eraldatuen ekoizpenean edo elikagai edo pentsu gisa baliatutako legamiaren ekoizpenean erabiltzeko baimena emateko ezinbestekoa izango da II. kapituluaren ezarritako printzipioak betetzea, baita irizpide hauek ere, zeinak osorik hartuta ebaluatuko baitira:
a) no se dispone de productos o sustancias alternativos autorizados de acuerdo con el presente artículo ni de técnicas que cumplan el presente Reglamento;	a) Ez dago artikulu honekin bat etorritz baimendutako ordezkio produktu edo substantziarik, ezta erregelamendu hau betetzen duen teknikarik ere.
b) resulta imposible producir o conservar los alimentos o cumplir determinadas exigencias dietéticas establecidas con arreglo a la normativa de la Unión sin recurrir a esos productos y sustancias;	b) Produktu eta substantzia horiek erabili gabe ezinezkoa da elikagaiak ekoiztea edo kontserbatzea edo Batasunaren araudiarekin bat etorritz ezarritako dieta-eskakizun jakin batzuk betetzea.
c) esos productos y sustancias se encuentran en la naturaleza y solo pueden haber sufrido procesos mecánicos, físicos, biológicos, enzimáticos o microbianos, salvo en los casos en que no se disponga de cantidades o calidades suficientes de productos o sustancias procedentes de esas fuentes;	c) Produktu edo substantzia horiek naturan daude eta prozesu mekanikoak, fisikoak, biologikoak, entzimikoak edo mikrobianoak bakarrik jasan behar izan dituzte, salbu eta iturri horietatik datozen produktuen edo substantzien kantitate edo kalitate nahikorik ez dagoenean.
d) no se dispone del ingrediente ecológico de que se trate en cantidad suficiente.	d) Ez dago kasuan kasuko osagai ekologikoaren kantitate nahikorik.
5.	5.

La autorización del uso de productos o sustancias de síntesis química, de conformidad con los apartados 1 y 2 del presente artículo, se limitará exclusivamente a los casos en los que la utilización de los medios externos indicados en el artículo 5, letra g), contribuiría a efectos inaceptables en el medio ambiente.	Sintesi kimikoko produktuak edo substantziak erabiltzeko baimena, artikuluhon 1. eta 2. apartatuekin bat etorri, kasu hauetara bakarrik mugatuko da: 5. artikuluhon g) letran aipatutako kanpo-bitartekoak erabiltzeak ingurumenari efektu onartezinak ekarriko lizkiokeen kasuetara.
6.	6.
La Comisión estará facultada para adoptar actos delegados con arreglo al artículo 54 que modifiquen los apartados 3 y 4 del presente artículo añadiendo nuevos criterios para la autorización de los productos y sustancias indicados en los apartados 1 y 2 del presente artículo para su uso en la producción ecológica en general, y en la producción de alimentos ecológicos transformados en particular, así como nuevos criterios para la retirada de la autorización, o modificando dichos nuevos criterios.	Batzordeak ahalmena edukiko du 54. artikuluhon arabera egintza eskuordetuak onartzeko, artikuluhon 3. eta 4. apartatuak aldatze aldera, irizpide berriak gehituz artikuluhon 1. eta 2. apartatuetan aipatutako produktuak eta substantziak erabiltzea baimentzeko —ekoizpen ekologikoan oro har eta elikagai ekologiko eraldatuen ekoizpenean zehazki—, irizpide berriak gehituz baimena kentzeko, edo, bestela, irizpide berri horiek aldatuz.
7.	7.
Cuando un Estado miembro considere que un producto o sustancia debe añadirse a las listas de productos y sustancias autorizados indicadas en los apartados 1 y 2 o ser retirado de ellas, o que deben modificarse las especificaciones de uso indicadas en las normas de producción, velará por que se envíe oficialmente a la Comisión y a los demás Estados miembros y se haga público, con sujeción a la legislación de la Unión y nacional en materia de protección de datos, un expediente en que se expongan los motivos de la inclusión, retirada u otras modificaciones.	Estatu kide batek uste duenean produktu edo substantzia bat gehitu behar zaiela 1. eta 2. apartatuetan aipatutako produktu eta substantzia baimenduen zerrendei, zerrendetatik kendu behar dela edo ekoizpen-arauetan aipatutako erabilera-zehaztapenak aldatu behar direla, ziurtatuko du ezen Batzordeari eta gainerako estatu kideei espediente bat bidaltzen zaiela ofizialki —zeinetan zerrendetan sartzeko, zerrendetatik kentzeko edo bestelako aldaketak egiteko arrazoiak azalduko baitira—, eta espediente hori jendaurrean jartzen dela, datuen babesari buruzko Batasuneko eta nazioko legeriari jarraituz.
La Comisión publicará cualquier solicitud descrita en el presente apartado.	Apartatu honetan deskribatutako eskaera oro jendaurrean jarriko du Batzordeak.
8.	8.
La Comisión revisará regularmente las listas indicadas en el presente artículo.	Artikulu honetan aipatutako zerrendak aldizka berrikusiko ditu Batzordeak.
La lista de ingredientes no ecológicos indicada en el apartado 2, letra b), se revisará al menos una vez al año.	Artikulu honen 2. apartatuko b) letran aipatutako osagai ez-ekologikoen zerrenda urtean behin berrikusiko da gutxienez.
9.	9.
La Comisión adoptará actos de ejecución relativos a la autorización o la retirada de la autorización de los productos y sustancias de conformidad con los apartados 1 y 2 que pueden utilizarse en la producción ecológica en general y en la producción de alimentos ecológicos transformados en particular, y que establezcan los procedimientos que han de seguirse para dicha autorización y la elaboración de listas de dichos productos y sustancias y, en su caso, su descripción, requisitos de composición y condiciones de uso.	Batzordeak 1. eta 2. apartatuekin bat etorri ekoizpen ekologikoan oro har eta elikagai ekologiko eraldatuen ekoizpenean zehazki erabil daitezkeen produktuak eta substantziak baimentzeko edo horretarako baimena kentzeko buruzko betearazpen-egintzak onartuko ditu, baita baimena emateko eta produktu eta substantzia horien zerrendak egiteko jarraitu beharreko prozedurak eta, hala badagokio, produktuen eta substantzien deskribapena, osaerari buruzko betekizunak eta erabiltzeko baldintzak ezartzen dituzten betearazpen-egintzak ere.

Dichos actos de ejecución se adoptarán de conformidad con el procedimiento de examen a que se refiere el artículo 55, apartado 2.	Betearazpen-egintza horiek 55.2 artikuluan zehaztutako azterketa-prozedurari jarraituz onartuko dira.
Artículo 25	25. artikulua
Autorización por parte de los Estados miembros de ingredientes agrarios no ecológicos para la elaboración de alimentos ecológicos transformados	Estatu kideek nekazaritza-osagai ez-ekologikoak baimentzea elikagai ekologiko eraldatuak ekoizteko
1.	1.
Cuando sea necesario para garantizar el acceso a determinados ingredientes agrarios y en caso de que estos no estén disponibles en su variante ecológica en cantidad suficiente, un Estado miembro, a petición de un operador, podrá autorizar provisionalmente el uso de ingredientes agrarios no ecológicos en la producción de alimentos ecológicos transformados en su territorio por un período máximo de seis meses. Esa autorización se aplicará a todos los operadores de dicho Estado miembro.	Nekazaritza-osagai jakin batzuetarako sarbidea bermatu behar denean eta ez dagoenean osagai horien aldaera ekologikoaren kantitate nahikorik, estatu kide batek, operadore baten eskariz, behin-behinean baimendu ahalko du bere lurraldean elikagai ekologiko eraldatuak ekoizteko nekazaritza-osagai ez-ekologikoak erabiltzea, gehienez ere sei hilabetez. Baimen hori estatu kideko operadore guztiei aplikatuko zaie.
2.	2.
El Estado miembro notificará de inmediato a la Comisión y a los demás Estados miembros, a través de un sistema informático que permita el intercambio electrónico de documentos e información facilitados por la Comisión, cualquier autorización concedida para su territorio con arreglo al apartado 1.	Estatu kideak berehala jakinaraziko die Batzordeari eta gainerako estatu kideei 1. apartatuarekin bat etorritik bere lurralderako emandako baimen oro, Batzordeak emandako dokumentuak eta informazioa modu elektronikoan trukatzeko bidea ematen duen sistema informatiko baten bitartez.
3.	3.
El Estado miembro podrá prorrogar dos veces la autorización establecida en el apartado 1, durante un máximo de seis meses en cada caso, siempre que ningún otro Estado miembro se haya opuesto indicando, a través del sistema a que se refiere el apartado 2, que se dispone de suficientes cantidades de dichos ingredientes en su variante ecológica.	Estatu kideak birritan luzatu ahalko du 1. apartatuan ezarritako baimena, gehienez sei hilabetez kasu bakoitzean, baldin eta beste ezein estatu kidek ez badu horren aurka egin argudiatuz ezen, 2. apartatuan aipatutako sistemaren bitartez, badagoela osagai horien aldaera ekologikoaren kantitate nahikoa.
4.	4.
Las autoridades o los organismos de control reconocidos de conformidad con el artículo 46, apartado 1, podrán conceder autorizaciones provisionales, como se recoge en el apartado 1 del presente artículo, por un máximo de seis meses, a los operadores de terceros países que las soliciten y que estén sujetos a control por parte de dichas autoridades u organismos, siempre que se cumplan las condiciones de dicho apartado en el tercer país de que se trate. La autorización podrá prorrogarse un máximo de dos veces durante seis meses en cada caso.	Erregelamenduaren 46.1 artikulua araber aintzatetsitako kontrol-agintaritzek eta -organismoek, artikulua honen 1. apartatuan jasotzen den moduan, gehienez sei hilabetez behin-behineko baimenak eman ahalko dizkiete hirugarren herrialdeetakoak diren, hala eskatzen duten eta agintaritza edo organismo horien kontrolpean dauden operadoreei, baldin eta kasuan kasuko hirugarren herrialdean apartatu horretako baldintzak betetzen badira. Baimena birritan luzatu ahalko da gehienez, sei hilabetez kasu bakoitzean.
5.	5.
Cuando, tras dos prórrogas de una autorización provisional, un Estado miembro considere, a partir	Behin-behineko baimena birritan luzatu ostean, estatu kide batek informazio objektiboan oinarrituta

de información objetiva, que la disponibilidad de dichos ingredientes en su variante ecológica sigue siendo insuficiente para satisfacer las necesidades cuantitativas y cualitativas de los operadores, podrá presentar a la Comisión una solicitud de conformidad con el artículo 24, apartado 7.	uste badu oraindik ez dagoela osagai horien aldaera ekologikoaren kantitate nahikorik operadoreen behar kuantitatiboak eta kualitatiboak asetzeko, eskaera bat aurkeztu ahalko dio Batzordeari, 24.7 artikuluari jarraikiz.
Artículo 26	26. artikulua
Recopilación de datos relativos a la disponibilidad en el mercado de materiales de reproducción vegetal ecológicos y en conversión, animales ecológicos y juveniles de la acuicultura ecológica	Datuak biltzea, landare-ugalketako material ekologikoak, bihurtze-aldiko landare-ugalketako materialak, animalia ekologikoak eta akuikultura ekologikoko organismo gazteak merkatuan eskuragarri egoteari buruz
1.	1.
Cada Estado miembro velará por que se cree una base de datos que se actualice periódicamente en la que se enumeren los materiales de reproducción vegetal ecológicos y en conversión, a excepción de las plántulas e incluidas las patatas de siembra, disponibles en su territorio.	Estatu kide bakoitzak ziurtatuko du ezen datu-base bat sortzen dela zerrenda batean jasotzeko bere lurraldean eskuragarri dauden landare-ugalketako material ekologikoak eta bihurtze-aldiko landare-ugalketako materialak —ereite-patatak barne eta plantulak kanpo utzita—, eta zerrenda hori aldian-aldian eguneratzen dela.
2.	2.
Los Estados miembros contarán con sistemas que permitan a los operadores que comercialicen materiales de reproducción vegetal ecológicos o en conversión, o animales ecológicos o juveniles de la acuicultura ecológica, y que puedan suministrarlos en cantidades suficientes y en un período razonable, hacer pública de forma voluntaria y gratuita, junto con sus nombres y datos de contacto, la información siguiente:	Estatu kideek sistemak edukiko dituzte landare-ugalketako material ekologikoak, bihurtze-aldiko landare-ugalketako materialak, animalia ekologikoak edo akuikultura ekologikoko organismo gazteak merkaturatzen dituzten eta kantitate nahikoz arrazoizko epean hornitu dezaketen operadoreek modua izan dezaten beren izenekin eta harremanetarako datuekin batera informazio hau ezagutzera emateko, borondatez eta doan:
a) los materiales de reproducción vegetal ecológicos y en conversión, tales como los materiales de reproducción vegetal de materiales heterogéneos ecológicos o de variedades ecológicas adecuadas para la producción ecológica, a excepción de las plántulas e incluidas las patatas de siembra, de que se disponga; la cantidad en peso de dichos materiales y la época del año en que están disponibles; dichos materiales se enumerarán utilizando al menos el nombre científico en latín;	a) Landare-ugalketako zer material ekologiko eta bihurtze-aldiko zer material daukaten —hala nola material heterogeneo ekologikoetako edo ekoizpen ekologikorako barietate ekologiko egokietako landare-ugalketako materialak (ereite-patatak barne hartuta eta plantulak kanpo utzita)—; halako zenbat material daukaten (pisua), eta urteko zer sasaitan dauden eskuragarri. Material horiek zerrendatzean, latinezko izen zientifikoa erabiliko da gutxienez.
b) los animales ecológicos respecto de los cuales pueda establecerse una excepción de conformidad con el punto 1.3.4.4 de la parte II del anexo II; el número de animales disponibles categorizados por sexo; información, si procede, relativa a las distintas especies de animales en relación con las razas y estirpes disponibles; las razas de los animales; la edad de los animales y cualquier otra información pertinente;	b) II. eranskinaren II. zatiko 1.3.4.4 puntuaren arabera salbuespen bat ezar dakiekeen animalia ekologikoak; animalia eskuragarrien kopurua, sexuaren arabera sailkatuta; hala badagokio, animalia-espezieei buruzko informazioa, arraza eta leinu eskuragarriei dagokienez; animalien arrazak; animalien adina, eta egoki den beste edozein informazio.
c) los juveniles de la acuicultura ecológica disponibles en la explotación y su estado sanitario de conformidad con la Directiva 2006/88/CE del Consejo (21), así como la capacidad de producción de cada especie de acuicultura.	c) Ustiatzean eskuragarri dauden akuikultura ekologikoko organismo gazteak eta haien osasun-egoera, Kontseiluaren 2006/88/EE Zuzentarauarekin bat etorritz (21),

	baita akuikulturako espezie bakoitzaren ekoizpen-gaitasuna ere.
3.	3.
Los Estados miembros también podrán establecer sistemas que permitan a los operadores que comercialicen razas y estirpes adaptados a la producción ecológica de conformidad con el punto 1.3.3 de la parte II del anexo II, o pollitas ecológicas y que puedan suministrar esos animales en cantidades suficientes y en un período razonable, hacer pública, de forma voluntaria y gratuita, la información pertinente, junto con el nombre y los datos de contacto.	Estatu kideek, halaber, sistemak ezarri ahalko dituzte II. eranskinaren II. zatiko 1.3.3 puntuarekin bat etorritz ekoizpen ekologikora egokitutako arrazak eta leinuak edo oilanda ekologikoak merkaturatzen dituzten eta animalia horien kantitate nahikoz arrazoizko epean hornitu dezaketen operadoreek modua izan dezaten beren izenekin eta harremanetarako datuekin batera egokia den informazioa ezagutzera emateko, borondatez eta doan.
4.	4.
Los operadores que opten por incluir información sobre materiales de reproducción vegetal, animales o juveniles de la acuicultura indicados en los apartados 2 y 3 velarán por que la información se actualice regularmente y por que la información se suprima de las listas una vez que los materiales de reproducción vegetal, los animales o los juveniles de la acuicultura ya no estén disponibles.	Artikulu honen 2. eta 3. apartatuetan aipatutako landare-ugalketako materialei, animaliei edo akuikulturako organismo gazteei buruzko informazioa ematea erabakitzen duten operadoreek ziurtatuko dute informazioa aldizka eguneratzen dela eta zerrendetatik ezabatzen dela landare-ugalketako materialak, animaliak edo akuikulturako organismo gazteak jada eskuragarri ez daudenean.
5.	5.
A efectos de los apartados 1, 2 y 3, los Estados miembros podrán seguir utilizando los correspondientes sistemas de información ya existentes.	Artikulu honen 1., 2. eta 3. apartatuen ondorioetarako, estatu kideek aurrez badauden informazio-sistemak erabiltzen jarraitu ahalko dute.
6.	6.
La Comisión hará público el enlace a cada una de las bases de datos o sistemas nacionales en un sitio web específico de la Comisión, para permitir a los usuarios acceder a tales bases de datos o sistemas en toda la Unión.	Batzordearen berariazko webgune batean argitaratuko du Batzordeak datu-base edo sistema nazional bakoitzerako esteka, erabiltzaileek Batasun osoan eduki dezaten datu-base edo sistema horietarako sarbidea.
7.	7.
La Comisión podrá adoptar actos de ejecución que dispongan:	Batzordeak honako hauek xedatzen dituzten betearazpen-egintzak onartu ahalko ditu:
a) detalles técnicos para crear y mantener las bases de datos a que se refiere el apartado 1 y los sistemas a que se refiere el apartado 2;	a) 1. apartatuan zehaztutako datu-baseak eta 2. apartatuan zehaztutako sistemak sortu eta mantentzeko xehetasun teknikoak;
b) especificaciones sobre la recopilación de la información a que se refieren los apartados 1 y 2;	b) 1. eta 2. apartatuek hizpide duten informazio-bilketari buruzko zehaztapenak;
c) especificaciones en lo que respecta a los mecanismos para la participación en las bases de datos indicadas en el apartado 1 y en los sistemas indicados en los apartados 2 y 3; y	c) 1. apartatuan aipatutako datu-baseetan eta 2. eta 3. apartatuetan aipatutako sistemetan parte hartzeko mekanismoei buruzko zehaztapenak; eta
d) datos en lo que respecta a la información que deberán proporcionar los Estados miembros de conformidad con el artículo 53, apartado 6.	d) estatu kideek 53.6 artikulua araberan eman beharko duten informazioari buruzko datuak.
Dichos actos de ejecución se adoptarán de conformidad con el procedimiento de examen a que se refiere el artículo 55, apartado 2.	Betearazpen-egintza horiek 55.2 artikuluan zehaztutako azterketa-prozedurari jarraituz onartuko dira.

Artículo 27	27. artikulua
Obligaciones y medidas en caso de sospecha de incumplimiento	Ez-betetzea susmatzen denean ezarri beharreko betebeharrak eta neurriak
Cuando un operador sospeche que un producto que él mismo ha producido, preparado, importado o recibido de otro operador no cumple lo dispuesto en el presente Reglamento, dicho operador, con sujeción a lo dispuesto en el artículo 28, apartado 2:	Operadore batek susmatzen duenean berak ekoitzi, prestatu, inportatu edo beste operadore batengandik jaso duen produktu batek ez duela betetzen erregelamendu honetan xedatutakoa, operadore horrek, 28.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, honela jardungo du:
a) identificará y separará el producto de que se trate;	a) Dagokion produktua identifikatu eta bereiziko du.
b) comprobará si la sospecha puede demostrarse;	b) Susmoa froga daitekeen egiaztatuko du.
c) no comercializará el producto de que se trate como producto ecológico o en conversión ni lo utilizará en la producción ecológica, a menos que pueda descartarse la sospecha;	c) Produktua ez du merkaturatuko produktu ekologiko gisa edo bihurtze-aldiko produktu gisa, eta ez du ekoizpen ekologikoan erabiliko, salbu eta susmoa baztertu badaiteke.
d) cuando se demuestre la sospecha o cuando esta no pueda descartarse, informará de inmediato a la autoridad competente correspondiente, o, cuando proceda, a la autoridad de control u organismo de control correspondiente, y le comunicará los elementos de que disponga, en su caso;	d) Susmoa frogatzen denean edo susmoa baztertu ezin denean, berehala jakinaraziko dio dagokion agintaritzari eskudunari edo, bidezkoa denean, dagokion kontrol-agintaritzari edo kontrol-organismoari, eta dauzkan elementuen berri emango dio, hala badagokio.
e) cooperará plenamente con la autoridad competente correspondiente, o, cuando proceda, con la autoridad de control u organismo de control correspondiente, para verificar e identificar los motivos del supuesto incumplimiento.	e) Erabateko elkarlanean jardungo du dagokion agintaritzari eskudunarekin edo, bidezkoa denean, dagokion kontrol-agintaritzarekin edo kontrol-organismoarekin, ustezko ez-betetzearen arrazoiak egiaztatu eta identifikatzeko.
Artículo 28	28. artikulua
Medidas de precaución para evitar la presencia de productos y sustancias no autorizados	Baimendu gabeko produktuen eta substantzien presentzia saihesteko zuhertasun-neurriak
1.	1.
A fin de evitar la contaminación con productos o sustancias que no estén autorizados de conformidad con el artículo 9, apartado 3, párrafo primero, para su uso en la producción ecológica, los operadores adoptarán las siguientes medidas de precaución en cada etapa de producción, preparación y distribución:	Erregelamenduaren 9.3. artikuluko lehenengo paragrafoaren arabera ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimenduta ez dauden produktuekiko edo substantziekiko kutsadura saiheste aldera, operadoreek zuhertasun-neurri hauek hartuko dituzte ekoizpen-, prestaketa- eta banaketa-etapa guztietan:
a) instaurar y mantener medidas proporcionadas y adecuadas para detectar los riesgos de contaminación de la producción y los productos ecológicos con productos o sustancias no autorizados, incluida la identificación sistemática de medidas de procedimiento fundamentales;	a) Neurri proportzionalak eta egokiak ezarri eta mantentzea ekoizpen eta produktu ekologikoak baimendu gabeko produktu edo substantziekin kutsatzeko arriskuak detektatzeko, funtsezko prozedura-neurrien identifikazio sistematikoa barne.
b) instaurar y mantener medidas proporcionadas y adecuadas para evitar los riesgos de contaminación de la producción y los productos ecológicos con productos o sustancias no autorizados;	b) Neurri proportzionalak eta egokiak ezarri eta mantentzea ekoizpen eta produktu ekologikoak baimendu gabeko produktu edo substantziekin kutsatzeko arriskuak saihesteko.
c) revisar y adaptar dichas medidas regularmente; y	c) Neurri horiek aldizka berrikusi eta egokitzea.

d) cumplir otros requisitos pertinentes del presente Reglamento que garanticen la separación de los productos ecológicos, los productos en conversión y los no ecológicos.	d) Erregelamendu honetan produktu ekologikoak, bihurtze-aldiko produktuak eta produktu ez-ekologikoak bereizita daudela bermatzeko jasotako bidezko beste betekizun batzuk betetzea.
2.	2.
Cuando, debido a la presencia de un producto o sustancia no autorizado de conformidad con el artículo 9, apartado 3, párrafo primero, para su uso en la producción ecológica en un producto que vaya a utilizarse o comercializarse como producto ecológico o en conversión, un operador sospeche que dicho producto no cumple lo dispuesto en el presente Reglamento, el operador:	Operadore batek susmatzen duenean ezen, 9.3 artikuluko lehenengo paragrafoaren arabera produktu ekologiko gisa edo bihurtze-aldiko produktu gisa erabiliko edo merkaturatuko den produktu baten ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimenduta ez dagoen produktu edo substantzia baten presentziagatik produktu horrek ez duela betetzen erregelamendu honetan xedatutakoa, honela jardungo du operadoreak:
a) identificará y separará el producto de que se trate;	a) Dagokion produktua identifikatu eta bereiziko du.
b) comprobará si la sospecha puede demostrarse;	b) Susmoa froga daitekeen egiaztatuko du.
c) no comercializará el producto de que se trate como producto ecológico o en conversión ni lo utilizará en la producción ecológica, a menos que pueda descartarse la sospecha;	c) Produktua ez du merkaturatuko produktu ekologiko gisa edo bihurtze-aldiko produktu gisa, eta ez du ekoizpen ekologikoan erabiliko, salbu eta susmoa baztertu badaiteke.
d) cuando se demuestre la sospecha o cuando esta no pueda descartarse, informará de inmediato a la autoridad competente correspondiente, o, cuando proceda, a la autoridad de control u organismo de control correspondiente, y le proporcionará los elementos de que disponga, en su caso;	d) Susmoa frogatzen denean edo susmoa baztertu ezin denean, berehala jakinaraziko dio dagokion agintaritz eskudunari edo, bidezkoa denean, dagokion kontrol-agintaritzari edo kontrol-organismoari, eta dauzkan elementuen berri emango dio, hala badagokio.
e) cooperará plenamente con la autoridad competente correspondiente, o, cuando proceda, con la autoridad de control u organismo de control correspondiente, para identificar y verificar los motivos de la presencia de productos o sustancias no autorizados.	e) Erabateko elkarlanean jardungo du dagokion agintaritz eskudunarekin edo, bidezkoa denean, dagokion kontrol-agintaritzarekin edo kontrol-organismoarekin, baimendu gabeko produktuak edo substantziak egoteko arrazoiak identifikatu eta egiaztatzeko.
3.	3.
La Comisión podrá adoptar actos de ejecución que establezcan normas uniformes sobre:	Batzordeak alderdi hauei buruzko arau uniformeak ezartzen dituzten betearazpen-egintzak onartu ahalko ditu:
a) los procedimientos que deberán seguir los operadores, de conformidad con el apartado 2, letras a) a e), y la documentación pertinente que deben aportar;	a) operadoreek jarraitu beharreko prozedurak, 2. apartatuko a) letratik e) letrara bitartean xedatutakoaren arabera, eta aurkeztu behar duten bidezko dokumentazioa;
b) las medidas apropiadas y proporcionadas que deben adoptar y revisar los operadores para identificar y evitar los riesgos de contaminación de conformidad con el apartado 1, letras a), b) y c).	b) kutsadura-arriskuak identifikatu eta saiheste aldera operadoreek hartu eta berrikusi behar dituzten neurri egoki eta proportzionalak, 1. apartatuko a), b) eta c) letren arabera.
Dichos actos de ejecución se adoptarán de conformidad con el procedimiento de examen a que se refiere el artículo 55, apartado 2.	Betearazpen-egintza horiek 55.2 artikuluan zehaztutako azterketa-prozedurari jarraituz onartuko dira.
Artículo 29	29. artikulua
Medidas que deben tomarse en caso de presencia de productos o sustancias no autorizados	Baimendu gabeko produktu edo substantziarik egonez gero hartu beharreko neurriak

1.	1.
Cuando una autoridad competente o, en su caso, la autoridad de control o el organismo de control, reciba información corroborada sobre la presencia de productos o sustancias no autorizados de conformidad con el artículo 9, apartado 3, párrafo primero, para su uso en la producción ecológica o haya sido informada por un operador de conformidad con el artículo 28, apartado 2, letra d), o detecte dichos productos o sustancias en un producto ecológico o en conversión:	Agintaritzak eskudun batek edo, hala badagokio, kontrol-agintaritzak edo kontrol-organismoak informazio berretsia jasotzen duenean 9.3. artikuluko lehenengo paragrafoaren arabera ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimenduta ez dauden produktuen edo substantzien presentziari buruz, edo operadore batek informazio hori jakinarazi dionean 28.2.d) artikuluaen arabera, edo produktu edo substantzia horiek detektatzen dituenean produktu ekologiko batean edo bihurtze-aldiko produktu batean:
a) llevará a cabo de inmediato una investigación oficial de conformidad con el Reglamento (UE)2017/625 con el fin de determinar las fuentes y la causa con el fin de verificar el cumplimiento del artículo 9, apartado 3, párrafo primero, y del artículo 28, apartado 1; dicha investigación concluirá lo antes posible, en un período razonable, y tendrá en cuenta la durabilidad del producto y la complejidad del caso;	a) Ikerketa ofiziala egingo du berehala, (EB) 2017/625 Erregelamenduaren arabera, iturriak eta kausa zehazteko helburuarekin, 9.3. artikuluko lehenengo paragrafoa eta 28.1. artikulua betetzen diren egiaztatzeko; ikerketa hori ahalik eta lasterren amaituko da, arrazoizko epean, eta produktuaren iraunkortasuna eta kasuaren konplexutasuna hartuko ditu kontuan.
b) prohibirá provisionalmente la comercialización de los productos de que se trate como productos ecológicos o en conversión y su uso en la producción ecológica hasta que se disponga de los resultados de la investigación a que se refiere la letra a).	b) Behin-behinean debekatuko du kasuan kasuko produktuak produktu ekologiko gisa edo bihurtze-aldiko produktu gisa merkaturatzea eta ekoizpen ekologikoan erabiltzea, harik eta a) letran zehaztutako ikerketaren emaitzak eduki arte.
2.	2.
El producto no se comercializará como producto ecológico o en conversión ni se utilizará en la producción ecológica cuando la autoridad competente, o, en su caso, la autoridad de control u organismo de control, haya determinado que el operador de que se trate:	Produktua ez da merkaturatuko, ez produktu ekologiko gisa, ez bihurtze-aldiko produktu gisa, eta ez da ekoizpen ekologikoan erabiliko, baldin eta agintaritzak eskudunak edo, hala badagokio, kontrol-agintaritzak edo kontrol-organismoak zehaztu badu ezen kasuan kasuko operadoreak:
a) ha utilizado productos o sustancias no autorizados de conformidad con el artículo 9, apartado 3, párrafo primero, para su uso en la producción ecológica;	a) 9.3 artikuluko lehenengo paragrafoaren arabera ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimenduta ez dauden produktuak edo substantziak erabili dituela;
b) no ha adoptado las medidas de precaución a que se refiere el artículo 28, apartado 1; o	b) ez dituela hartu 28.1 artikuluan zehaztutako zuhertasun-neurriak; edo
c) no ha tomado medidas en respuesta a las correspondientes solicitudes anteriores de las autoridades competentes, las autoridades de control o los organismos de control.	c) ez duela neurririk hartu agintaritzak eskudunek, kontrol-agintaritzek edo kontrol-organismoek lehenago egindako eskaerei erantzuteko.
3.	3.
Se dará al operador afectado la oportunidad de formular sus observaciones sobre los resultados de la investigación mencionada en el apartado 1, letra a). La autoridad competente o, en su caso, la autoridad de control u organismo de control, mantendrá registros de la investigación realizada.	Ukitutako operadoreari aukera emango zaio 1. apartatuko a) letran aipatutako ikerketaren emaitzei buruzko oharra egiteko. Agintaritzak eskudunak edo, hala badagokio, kontrol-agintaritzak edo kontrol-organismoak egindako ikerketaren erregistroak edukiko ditu.
En caso necesario, el operador afectado adoptará las medidas correctoras necesarias para evitar que	Behar izanez gero, ukitutako operadoreak beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak hartuko ditu aurrerantzean kutsadurarik gerta ez dadin.

vuelva a producirse una contaminación en lo sucesivo.	
4.	4.
A más tardar el 31 de diciembre de 2025 , la Comisión presentará un informe al Parlamento Europeo y al Consejo sobre la ejecución del presente artículo, sobre la presencia de productos y sustancias no autorizados de conformidad con el artículo 9, apartado 3, párrafo primero, para su uso en la producción ecológica y sobre la evaluación de las normas nacionales a que se refiere el apartado 5 del presente artículo. Ese informe podrá acompañarse, en su caso, de una propuesta legislativa para una mayor armonización.	Beranduenez 2025eko abenduaren 31n , Batzordeak txosten bat aurkeztuko die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari; txosten horretan, gai hauek jorratuko dira: artikuluko lehenengo paragrafoaren arabera ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimenduta ez dauden produktuen eta substantzien presentzia, eta artikuluko lehenengo 5. apartatuan zehaztutako arau nazionalen ebaluazioa. Hala badagokio, harmonizazioa areagotzeko legegintza-proposamen bat aurkeztu ahalko da txosten horrekin batera.
5.	5.
Los Estados miembros que dispongan de normas que no permitan la comercialización como productos ecológicos de aquellos productos que contengan, por encima de un nivel determinado, productos o sustancias no autorizados de conformidad con el artículo 9, apartado 3, párrafo primero, para su uso en la producción ecológica, podrán seguir aplicando esas normas siempre que no prohíban, restrinjan ni impidan la comercialización de productos producidos en otros Estados miembros como productos ecológicos cuando dichos productos se hubiesen producido de conformidad con lo dispuesto en el presente Reglamento. Los Estados miembros que hagan uso del presente apartado informarán de ello sin demora a la Comisión.	Estatu kideek arauak dituztenean biderik ez emateko 9.3 artikuluko lehenengo paragrafoaren arabera ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimendu gabeko produktuak edo substantziak maila jakin batetik gora dauzkaten produktuak produktu ekologiko gisa merkaturatzeko, arau horiek aplikatzen jarraitu ahal izango dute, baldin eta arau horiek ez badute debekatzen, murrizten edo eragozten beste estatu kide batzuetan ekoiztutako produktuak produktu ekologiko gisa merkaturatzea, produktu horiek erregelamendu honetan xedatutakoaren arabera ekoiztuz gero. Apartatu hau erabiltzen duten estatu kideek atzerapenik gabe jakinaraziko diote Batzordeari.
6.	6.
Las autoridades competentes documentarán los resultados de las investigaciones a que se refiere el apartado 1, así como cualesquiera medidas que hayan adoptado con el fin de formular las mejores prácticas y otras medidas para evitar la presencia de productos y sustancias no autorizados de conformidad con el artículo 9, apartado 3, párrafo primero, para su uso en la producción ecológica.	Agintaritza eskudunek 1. apartatuan zehaztutako ikerketen emaitzak dokumentatuko dituzte, baita jardunbide egokiak formulatzeko asmoz hartu dituzten neurri guztiak eta 9.3 artikuluko lehenengo paragrafoaren arabera ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimenduta ez dauden produktuen edo substantzien presentzia saihesteko beste neurri batzuk ere.
Los Estados miembros pondrán dicha información a disposición de los demás Estados miembros y de la Comisión, a través de un sistema informático que permita el intercambio electrónico de los documentos e información puestos a su disposición por la Comisión.	Estatu kideek eskura jarriko diete informazio hori beste estatu kideei eta Batzordeari, Batzordeak emandako dokumentuak eta informazioa modu elektronikoan trukatzeko bidea ematen duen sistema informatiko baten bitartez.
7.	7.
Los Estados miembros podrán adoptar medidas adecuadas en su territorio para evitar la presencia accidental, en la agricultura ecológica, de productos y sustancias no autorizados de conformidad con el artículo 9, apartado 3, párrafo primero, para su uso en la producción ecológica. Dichas medidas no prohibirán, restringirán o impedirán la	Estatu kideek beren lurraldean neurri egokiak hartu ahalko dituzte 9.3 artikuluko lehenengo paragrafoaren arabera ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimenduta ez dauden produktuen edo substantzien ustekabeko presentzia saihesteko nekazaritza ekologikoan. Neurri horiek ez dute debekatuko, murriztuko edo eragoztiko beste estatu

comercialización como ecológicos o en conversión de productos producidos en otros Estados miembros, cuando dichos productos se hubiesen producido de conformidad con lo dispuesto en el presente Reglamento. Los Estados miembros que hagan uso del presente apartado informarán de ello sin demora a la Comisión y a los demás Estados miembros.	kide batzuetan ekoiztako produktuak produktu ekologiko gisa edo bihurtze-aldiko produktu gisa merkaturatzea, produktu horiek erregelamendu honetan xedatutakoaren arabera ekoizti badira. Apartatu hau erabiltzen duten estatu kideek atzerapenik gabe emango diete horren berri Batzordeari eta gainerako estatu kideei.
8.	8.
La Comisión adoptará actos de ejecución que establecerán normas uniformes que especifiquen:	Batzordeak alderdi hauek zehazten dituzten arau uniformeak ezartzeko betearazpen-egintzak onartu ditu:
a) la metodología que deberán aplicar las autoridades competentes o, en su caso, las autoridades de control u organismos de control, a la detección y evaluación de la presencia de productos y sustancias no autorizados de conformidad con el artículo 9, apartado 3, párrafo primero, para su uso en la producción ecológica;	a) agintaritzak eskudunek edo, hala badagokio, kontrol-agintaritzek edo kontrol-organismoek zer metodologia aplikatu behar duten 9.3 artikuluko lehenengo paragrafoaren arabera ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimenduta ez dauden produktuen eta substantzien presentzia detektatzeko eta ebaluatzeko;
b) los detalles y el formato de la información que los Estados miembros deberán poner a disposición de la Comisión y de otros Estados miembros con arreglo al apartado 6 del presente artículo.	b) artikuluko honen 6. apartatuaren arabera zer xehetasun jarri behar dizkieten estatu kideek eskura Batzordeari eta estatu kideei eta zer formatutan eman behar duten informazioa.
Dichos actos de ejecución se adoptarán de conformidad con el procedimiento de examen a que se refiere el artículo 55, apartado 2.	Betearazpen-egintza horiek 55.2 artikuluan zehaztutako azterketa-prozedurari jarraituz onartuko dira.
9.	9.
A más tardar el 31 de marzo de cada año, los Estados miembros transmitirán por vía electrónica a la Comisión la información pertinente sobre los casos de contaminación con productos o sustancias no autorizados ocurridos el año anterior, incluida la información recopilada en los puestos fronterizos, sobre la naturaleza de la contaminación detectada, y, en particular, la causa, el origen y el nivel de contaminación, así como el volumen y la naturaleza de los productos contaminados. La Comisión recopilará la información a través del sistema informático que pondrá a disposición la Comisión y esta información se utilizará para facilitar la formulación de mejores prácticas a fin de evitar la contaminación.	Urte bakoitzeko martxoaren 31n, beranduenez, aurreko urtean baimendu gabeko produktu edo substantziekin izandako kutsadura-kasuei buruzko bidezko informazioa helaraziko diete estatu kideek Batzordeari, bide elektronikoz. Informazio horren barruan, mugako postuetan bildutako informazio hau ere jasoko dute: detektatutako kutsaduraren izaera eta, bereziki, kutsaduraren arrazoa, jatorria eta maila eta kutsatutako produktuen bolumena eta izaera. Batzordeak berak eskura jarriko duen sistema informatikoaren bidez bilduko du informazioa, eta kutsadura saihesteko jardunbide egokiak errazago formulatzeko erabiliko du informazio hori.
CAPÍTULO IV	IV. KAPITULUA
ETIQUETADO	ETIKETATUA
Artículo 30	30. artikulua
Uso de términos referidos a la producción ecológica	Ekoizpen ekologikoari erreferentzia egiten dioten terminoen erabilera
1.	1.
A los efectos del presente Reglamento, se considerará que un producto incluye términos que se refieren a la producción ecológica cuando en el etiquetado, la publicidad o los documentos comerciales, el producto, sus ingredientes o las	Erregelamendu honen ondorioetarako, kasu honetan ondorioztatuko da produktu batek ekoizpen ekologikoari erreferentzia egiten dioten terminoak dauzkala: produktua, haren osagaiak edo ekoizteko erabilitako pentsuetarako lehengaiak

materias primas para piensos utilizadas en su producción se describan en términos que sugieran al comprador que el producto, los ingredientes o las materias primas para piensos han sido producidos de conformidad con el presente Reglamento. En particular, los términos enunciados en el anexo IV y sus derivados y abreviaturas, tales como «bio» y «eco», utilizados aisladamente o combinados, podrán emplearse en toda la Unión y en cualquiera de las lenguas enumeradas en dicho anexo para el etiquetado y la publicidad de productos mencionados en el artículo 2, apartado 1, que cumplan lo dispuesto en el presente Reglamento.	halako moduan deskribatzen direnean etiketatuan, publizitatean edo merkataritza-dokumentuetan, non erosleari iradokitzen baitiote produktua, osagaiak edo pentsuetarako lehengaiak erregelamendu honen arabera ekoitzi direla. Bereziki, IV. eranskinean aipatutako terminoak eta haien eratorriak eta laburtzapenak, hala nola «bio» eta «eko», bakarrik zein konbinatuta, Batasun guztian eta eranskin horretan zerrendatutako hizkuntzetako edozeinetan erabili ahalko dira 2.1 artikuluan aipatutako produktuen etiketatuan eta publizitatean, produktuek erregelamendu honetan xedatutakoa betetzen badute.
2.	2.
En el caso de los productos mencionados en el artículo 2, apartado 1, los términos mencionados en el apartado 1 del presente artículo no se utilizarán en ningún lugar de la Unión ni en ninguna de las lenguas enumeradas en el anexo IV, en el etiquetado, la publicidad o los documentos comerciales de productos que no cumplan lo dispuesto en el presente Reglamento.	Erregelamenduaren 2.1 artikuluan aipatutako produktuetan, artikuluan honen 1. apartatuan aipatutako terminoak ez dira erabiliko Batasuneko ezein lekutan eta IV. eranskinean zerrendatutako hizkuntzetako ezeinetan erregelamendu honetan xedatutakoa betetzen ez duten produktuen etiketatuan, ezta publizitatean eta merkataritza-dokumentuetan ere.
Tampoco se utilizarán en el etiquetado o la publicidad, términos, incluidos los términos utilizados en marcas registradas o en nombres de empresa, ni prácticas que puedan inducir a error al consumidor o al usuario sugiriendo que un producto o sus ingredientes cumplen lo dispuesto en el presente Reglamento.	Era berean, ez etiketatuan, ez publizitatean, ez da erabiliko inolako terminorik —marka erregistratuetan eta enpresa-izenetan erabilitako terminoak barne—, kontsumitzaileari edo erabiltzaileari okerreko ustea eragin diezaiokeenik iradokita produktu batek edo haren osagaiek erregelamendu honetan xedatutakoa betetzen dutela; orobat, ez da onartuko halako praktikarik.
3.	3.
Los productos que hayan sido obtenidos durante el período de conversión no se etiquetarán ni anunciarán como productos ecológicos o como productos en conversión.	Bihurtze-aldian jaso diren produktuak ez dira produktu ekologiko gisa edo bihurtze-aldiko produktu gisa etiketatuko edota iragarriko.
Sin embargo, los materiales de reproducción vegetal y los alimentos y piensos de origen vegetal producidos durante el período de conversión, si cumplen lo dispuesto en el artículo 10, apartado 4, podrán ser etiquetados y anunciados como productos en conversión, utilizando el término «en conversión», o un término correspondiente, junto con los términos a los que se hace referencia en el apartado 1.	Hala ere, bihurtze-aldian ekoitzi diren landare-ugalketako materialak eta landare-jatorriko elikagaiak eta pentsuak, 10.4 artikuluan xedatutakoa betetzen badute, bihurtze-aldiko produktu gisa etiketatu eta iragarri ahalko dira, «bihurtze-aldian» terminoa edo dagokion termino bat erabiliz gero, 1. apartatuan aipatzen diren terminoekin batera.
4.	4.
Los términos a que se refieren los apartados 1 y 3 no podrán emplearse para productos en cuyo etiquetado o publicidad deba indicarse, según la normativa de la Unión, que el producto contiene OMG, está compuesto de OMG o se produce a partir de OMG.	Artikulu honen 1. eta 3. apartatuetan zehaztutako terminoak ezingo dira erabili, baldin eta produktuaren etiketatuan edo publizitatean adierazi behar bada ezen, Batasunaren araudiaren arabera, produktuak GEOak dauzkala, GEOz osatuta dagoela edo GEOetatik eratorri dela.
5.	5.
En el caso de los alimentos transformados, los términos mencionados en el apartado 1 se podrán emplear:	Elikagai eraldatuei dagokienez, 1. apartatuan aipatutako terminoak leku hauetan erabili ahalko dira:

a) en la denominación de venta, y en la lista de ingredientes cuando dicha lista sea obligatoria en virtud de la legislación de la Unión, siempre que:	a) salmenta-izenean eta osagaien zerrendan, zerrenda nahitaezkoa denean Batasunaren legeriaren arabera, baldin eta:
i) los alimentos transformados cumplan las normas de producción establecidas en el anexo II, parte IV, y las normas establecidas con arreglo al artículo 16, apartado 3;	i) elikagai eraldatuek II. eranskinaren IV. zatian ezarritako ekoizpen-arauak eta 16.3 artikulua arabera ezarritako arauak betetzen badituzte;
ii) al menos el 95 % de los ingredientes agrícolas del producto en peso sean ecológicos; y	ii) produktuaren nekazaritza-osagaien % 95 gutxienez (pisua neurritzat hartuta) badira ekologikoak; eta
iii) en el caso de los aromas, únicamente para las sustancias aromatizantes naturales y preparados aromatizantes naturales etiquetados de conformidad con el artículo 16, apartados 2, 3 y 4, del Reglamento (CE) n.º 1334/2008 y siempre y cuando todos sus componentes aromatizantes y los portadores de componentes aromatizantes del aroma de que se trate sean ecológicos;	iii) aromen kasuan, (EE) 1334/2008 Erregelamenduaren 16. artikulua 2., 3. eta 4. apartatuen arabera etiketatutako aroma-substantzia naturaletarako eta aroma-prestakin naturaletarako bakarrik, ekologikoak badira haien aroma-osagai guztiak eta kasuan kasuko aromaren aroma-osagaien eroaleak;
b) únicamente en la lista de ingredientes, siempre que:	b) osagai-zerrendan bakarrik, baldin eta:
i) menos del 95 % de los ingredientes agrarios del producto en peso sean ecológicos, siempre que dichos ingredientes cumplan las normas de producción establecidas en el presente Reglamento; y	i) produktuaren nekazaritza-osagaien % 95 baino gutxiago (pisua neurritzat hartuta) badira ekologikoak, betiere osagai horiek erregelamendu honetan ezarritako ekoizpen-arauak betetzen badituzte; eta
ii) los alimentos transformados cumplan las normas de producción establecidas en los puntos 1.5, 2.1.a), 2.1.b) y 2.2.1 del anexo II, parte IV, a excepción de las normas sobre uso restringido de ingredientes agrarios no ecológicos que figuran en el punto 2.2.1 del anexo II, parte IV, y las disposiciones establecidas con arreglo al artículo 16, apartado 3;	ii) elikagai eraldatuek II. eranskinaren IV. zatiko 1.5, 2.1.a), 2.1.b) eta 2.2.1 puntuetan ezarritako ekoizpen-arauak betetzen badituzte —salbu eta II. eranskinaren IV. zatiko 2.2.1 puntuan nekazaritza-osagai ez-ekologikoen erabilera mugatuari buruz jasota dauden arauak— baita 16.3 artikulua arabera ezarritako xedapenak ere;
c) en la denominación de venta y en la lista de ingredientes siempre que:	c) salmenta-izenean eta osagai-zerrendan, baldin eta:
i) el ingrediente principal sea un producto de la caza o la pesca,	i) osagai nagusia ehizako edo arrantzako produktua bada,
ii) el término a que se refiere el apartado 1 esté claramente relacionado en la denominación de venta con otro ingrediente que es ecológico y diferente del ingrediente principal;	ii) 1. apartatuan zehaztutako terminoa salmenta-izenean argiro erlazionatuta badago ekologikoa den eta osagai nagusia ez den beste osagai batekin;
iii) todos los demás ingredientes agrarios sean ecológicos; y	iii) beste nekazaritza-osagai guztiak ekologikoak badira; eta
iv) los alimentos transformados cumplan las normas de producción establecidas en los puntos 1.5, 2.1.a), 2.1.b) y 2.2.1 del anexo II, parte IV, a excepción de las normas sobre uso restringido de ingredientes agrarios no ecológicos que figuran en el punto 2.2.1 del anexo II, parte IV, y las disposiciones establecidas con arreglo al artículo 16, apartado 3.	iv) elikagai eraldatuek II. eranskinaren IV. zatiko 1.5, 2.1.a), 2.1.b) eta 2.2.1 puntuetan ezarritako ekoizpen-arauak betetzen badituzte —salbu eta II. eranskinaren IV. zatiko 2.2.1 puntuan nekazaritza-osagai ez-ekologikoen erabilera mugatuari buruz jasota dauden arauak— eta 16.3 artikulua arabera ezarritako xedapenak ere betetzen badituzte.
La lista de ingredientes mencionada en el párrafo primero, letras a), b) y c), indicará cuáles son los	Lehenengo paragrafoko a), b) eta c) letretan aipatutako osagai-zerrendak adieraziko du zein

ingredientes ecológicos. Las referencias a la producción ecológica solo podrán aparecer en relación con los ingredientes ecológicos.	diren osagai ekologikoak. Ekoizpen ekologikoari egindako erreferentziak osagai ekologikoekin lotuta bakarrik agertu ahalko dira.
La lista de ingredientes mencionada en el párrafo primero, letras b) y c) incluirá una indicación del porcentaje total de ingredientes ecológicos en relación con la cantidad total de ingredientes agrarios.	Lehenengo paragrafoko b) eta c) letretan aipatutako osagai-zerrendan, zehatz adieraziko da nekazaritza-osagaien guztizko kopurutik zenbatekoa den guztira osagai ekologikoen ehunekoa.
Los términos mencionados en el apartado 1 utilizados en la lista de ingredientes a que se refiere el párrafo primero, letras a), b) y c), del presente apartado, así como la indicación del porcentaje a que se refiere el párrafo tercero del presente apartado, figurarán en el mismo color y con un tamaño y un estilo tipográfico idénticos al de las demás indicaciones de la lista de ingredientes.	Bai 1. apartatuan aipatutako terminoak —apartatu honen lehenengo paragrafoko a), b) eta c) letretan zehaztutako osagai-zerrendan erabiliak— bai apartatu honetako hirugarren paragrafoan zehaztutako ehunekoa, guztiak ere osagai-zerrendako gainerako argibideen kolore berarekin eta tamaina eta estilo tipografiko berdin-berdinarekin agertuko dira.
6.	6.
En el caso de los piensos transformados, los términos mencionados en el apartado 1 se podrán emplear en la denominación de venta y en la lista de ingredientes, siempre que:	Pentsu eraldatuei dagokienez, 1. apartatuan aipatutako terminoak salmenta-izenean eta osagai-zerrendan erabili ahalko dira, baldin eta:
a) los piensos transformados cumplan las normas de producción establecidas en el anexo II, partes II, III y V, y las disposiciones específicas establecidas con arreglo al artículo 17, apartado 3;	a) pentsu eraldatuek II. eranskinaren II., III. eta IV. zatietan ezarritako ekoizpen-arauak eta 17.3 artikuluaaren arabera ezarritako berariazko xedapenak betetzen badituzte;
b) todos los ingredientes de origen agrario contenidos en los piensos transformados sean ecológicos; y	b) pentsu eraldatuek dauzkaten nekazaritza-jatorriko osagai guztiak badira ekologikoak; eta
c) al menos un 95 % de la materia seca del producto sea ecológico.	c) produktuaren materia lehorren % 95 gutxienez bada ekologikoa.
7.	7.
La Comisión estará facultada para adoptar actos delegados con arreglo al artículo 54 que modifiquen:	Batzordeak ahalmena edukiko du 54. artikuluaaren arabera egintza eskuordetuak onartzeko, atal hauek aldatze aldera:
a) el presente artículo añadiendo nuevas normas sobre el etiquetado de los productos enumerados en el anexo I o modificando dichas nuevas normas; y	a) artíkulu hau, I. eranskinean zerrendatutako produktuen etiketatuari buruzko arau berriak gehituz edo arau berri horiek aldatuz; eta
b) la lista de términos establecida en el anexo IV, habida cuenta de la evolución lingüística dentro de los Estados miembros.	b) IV. eranskinean ezarritako termino-zerrenda, estatu kideen barruko hizkuntza-bilakaera kontuan hartuta.
8.	8.
La Comisión podrá adoptar actos de ejecución para establecer requisitos detallados sobre la aplicación del apartado 3 del presente artículo.	Batzordeak betearazpen-egintzak onartu ahalko ditu artíkulu honen 3. apartatuaren aplikazioari buruzko betekizun zehatzak ezartzeko.
Dichos actos de ejecución se adoptarán de conformidad con el procedimiento de examen a que se refiere el artículo 55, apartado 2.	Betearazpen-egintza horiek 55.2 artikuluan zehaztutako azterketa-prozedurari jarraituz onartuko dira.
Artículo 31	31. artikulua
Etiquetado de productos y sustancias utilizados en la producción vegetal	Landare-ekoizpenean erabilitako produktuen eta substantzien etiketatua

No obstante el ámbito de aplicación del presente Reglamento tal y como se establece en el artículo 2, apartado 1, los productos y sustancias utilizados en productos fitosanitarios o como fertilizantes, acondicionadores del suelo o nutrientes, que hayan sido autorizados de conformidad con los artículos 9 y 24 podrán llevar una referencia que indique que el producto o sustancia está autorizado para su uso en la producción ecológica de conformidad con el presente Reglamento.	Erregelamendu honen aplikazio-eremua gorabehera (2.1 artikuluan zehaztutakoa berau), produktu fitosanitarioetan edo ongarri, lurzorua eragokitzailerako edo mantenugai gisa erabiltzeko produktuek eta substantziek, 9. eta 24. artikuluekin bat etorritik baimendu badira, erreferentzia bat eraman ahalko dute produktua edo substantzia erregelamendu honen arabera ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimenduta dagoela adierazteko.
Artículo 32	32. artikulua
Indicaciones obligatorias	Nahitaezko argibideak
1.	1.
Cuando los productos lleven los términos mencionados en el artículo 30, apartado 1, incluidos los productos etiquetados como productos en conversión de conformidad con el artículo 30, apartado 3:	Produktuek 30.1 artikuluan aipatutako terminoak daramatzatenean, 30.3 artikuluekin bat etorritik bihurtze-aldiko produktu gisa etiketatutako produktuak barne:
a) figurará también en el etiquetado el código numérico de la autoridad de control u organismo de control de que dependa el operador responsable de la última operación de producción o preparación; y	a) etiketatuan jasota egongo da halaber azken ekoizpen- edo prestaketa-eragiketaren operadore arduradunaren gainetik dagoen kontrol-agintaritzaren edo kontrol-organismoaren zenbaki-kodea; eta
b) en el caso de los alimentos envasados, el logotipo de producción ecológica de la Unión Europea a que se refiere el artículo 33 figurará también en el envase, excepto en los casos mencionados en el artículo 30, apartado 3 y apartado 5, letras b) y c).	b) elikagai ontziratuetan, 33. artikuluan zehaztutako Europar Batasunaren ekoizpen ekologikoaren logotipoa bilgarrian ere egongo da jasota, 30. artikulua 3. apartatua eta 5. apartatuko b) eta c) letretan aipatutako kasuetan izan ezik.
2.	2.
Cuando se utilice el logotipo de producción ecológica de la Unión Europea, la indicación del lugar en que se hayan obtenido las materias primas agrarias de que se compone el producto deberá figurar en el mismo campo visual que el logotipo y adoptará una de las formas siguientes, según proceda:	Europar Batasunaren ekoizpen ekologikoaren logotipoa erabiltzen denean, produktua osatzen duten nekazaritza-lehengaiak non ekoitzi diren adierazteko argibideak logotipoaren ikuseremu berean egon beharko du jasota, eta forma hauetatik egokia dena hartuko du:
a) «Agricultura UE», cuando las materias primas agrarias hayan sido obtenidas en la Unión;	a) «EBko nekazaritza», nekazaritza-lehengaiak Batasunean ekoitzi direnean;
b) «Agricultura no UE», cuando las materias primas agrarias hayan sido obtenidas en terceros países;	b) «EBtik kanpoko nekazaritza», nekazaritza-lehengaiak hirugarren herrialdeetan ekoitzi direnean;
c) «Agricultura UE/no UE»: cuando una parte de las materias primas agrarias se haya obtenido en la Unión y otra parte en un tercer país.	c) «EBko/EBtik kanpoko nekazaritza»: nekazaritza-lehengaietako batzuk Batasunean eta beste batzuk hirugarren herrialde batean ekoitzi direnean.
A los efectos del párrafo primero, el término «agricultura» podrá sustituirse por «acuicultura» cuando proceda, y las indicaciones «UE» o «no UE» podrán sustituirse por el nombre de un país o por el nombre de un país y una región o completarse con dicho nombre, cuando todas las materias primas agrarias de que se compone el	Lehenengo paragrafoaren ondorioetarako, «nekazaritza» terminoaren ordeztu, «akuikultura» jarri ahal izango da, hala dagokionean, eta, «EBkoa» eta «EBtik kanpoko» argibideen ordeztu, herrialde baten izena edo herrialde baten eta eskualde baten izena jarri ahal izango dira, edo izen horiek gehitu informazioa zehazteko, betiere

producto hayan sido obtenidas en ese país y, en su caso, en esa región.	produktuaosatzen duten nekazaritza-lehengai guztiak herrialde horretan eta, kasu bada, eskualde horretan ekoitzi direnean.
En la indicación del lugar en que se hayan obtenido las materias primas agrarias de que se compone el producto, a que se refieren los párrafos primero y tercero, podrán no tenerse en cuenta las pequeñas cantidades en peso de ingredientes, siempre y cuando la cantidad total de los ingredientes que no se tengan en cuenta no supere el 5 % de la cantidad total en peso de materias primas agrarias.	Produktuaosatzen duten nekazaritza-lehengaiak non ekoitzi diren adierazten duen argibidean (lehenengo eta hirugarren paragrafoetan jasotako moduan), posible izango da ez adieraztea osagai kantitate txikiak (pisua neurritzat hartuta), baldin eta adierazi gabeko osagaien guztizko kantitatea ez bada nekazaritza-lehengaien guztizko kopuruaren % 5 baino handiagoa (pisua neurritzat hartuta).
Las indicaciones «UE» y «no UE» no figurarán en un color, tamaño ni estilo tipográfico que destaque sobre el nombre del producto.	«EBkoa» eta «EBtik kanpoko» argibideak idazteko kolorea, tamaina eta estilo tipografikoa ez dira izango produktuaren izenarena baino nabarmenagoak.
3.	3.
Las indicaciones contempladas en el presente artículo, apartados 1 y 2, y en el artículo 33, apartado 3, habrán de figurar en un lugar destacado de forma que sean fácilmente visibles, y serán claramente legibles e indelebles.	Artikulu honen 1. eta 2. apartatuetan eta 33.3 artikuluan xedatutako argibideek leku gailen batean egon beharko dute jasota, erraz ikusteko moduan, eta argiro irakurtzekoak eta ezabaezinak izango dira.
4.	4.
La Comisión estará facultada para adoptar actos delegados con arreglo al artículo 54 que modifiquen el apartado 2 del presente artículo y el artículo 33, apartado 3, añadiendo nuevas normas sobre el etiquetado o modificando dichas nuevas normas.	Batzordeak ahalmena edukiko du 54. artikulua araberako egintza eskuordetuak onartzeko artikulu honen 2. apartatua eta 33.3 artikulua aldatze aldera, bai etiketatuari buruzko arau berriak gehituta, bai arau berri horiek aldatuta.
5.	5.
La Comisión adoptará actos de ejecución en relación con:	Batzordeak alderdi hauek jorratzeko betearazpen-egintzak onartuko ditu:
a) disposiciones prácticas sobre uso, presentación, composición y tamaño de las indicaciones contempladas en el presente artículo, apartado 1, letra a), y apartado 2, y en el artículo 33, apartado 3;	a) artikulu honen 1. apartatuko a) letran eta 2. apartatuan eta 33.3 artikuluan ezarritako argibideen erabilerari, aurkezpenari, osaerari eta tamainari buruzko xedapen praktikoak;
b) asignación de códigos numéricos a las autoridades de control y a los organismos de control;	b) kontrol-agintaritzei eta kontrol-organismoiei esleitutako zenbaki-kodeak;
c) indicación del lugar en que se han obtenido las materias primas agrarias, de conformidad con el apartado 2 del presente artículo y con el artículo 33, apartado 3.	c) nekazaritza-lehengaiak non ekoitzi diren adierazten duen argibidea, artikulu honen 2. apartatuarekin eta 33.3 artikuluaekin bat etorritik.
Dichos actos de ejecución se adoptarán de conformidad con el procedimiento de examen a que se refiere el artículo 55, apartado 2.	Betearazpen-egintza horiek 55.2 artikuluan zehaztutako azterketa-prozedurari jarraituz onartuko dira.
Artículo 33	33. artikulua
Logotipo de producción ecológica de la Unión Europea	Europar Batasunaren ekoizpen ekologikoaren logotipoa
1.	1.

El logotipo de producción ecológica de la Unión Europea podrá utilizarse en el etiquetado, la presentación y la publicidad de los productos que cumplan lo dispuesto en el presente Reglamento.	Europar Batasunaren ekoizpen ekologikoaren logotipoa erabili ahalko da erregelamendu honetan xedatutakoa betetzen duten produktuen etiketatuan, aurkezpenean eta publizitatean.
El logotipo de producción ecológica de la Unión Europea podrá utilizarse también para fines informativos y educativos relacionados con la existencia y publicidad del propio logotipo, siempre que dicho uso no pueda inducir a error al consumidor en lo que respecta a la producción ecológica de productos específicos y siempre que el logotipo se reproduzca de acuerdo con las normas establecidas en el anexo V. En ese caso, no se aplicarán los requisitos del artículo 32, apartado 2, y del anexo V, punto 1.7.	Logotipoaren existentziarekin eta publizitatearekin zerikusia duten informazio- eta hezkuntza-xedeetarako ere erabili ahalko da Europar Batasunaren ekoizpen ekologikoaren logotipoa, baldin eta erabilera horrek kontsumitzaileari okerreko ustea eragiten ez badio produktu zehatzen ekoizpen ekologikoari buruz eta baldin eta logotipoa V. eranskinean ezarritako arauen arabera kopiaetzen bada. Kasu horretan, ez dira aplikatuko 32.2 artikuluko eta V. eranskineko 1.7 puntuko betekizunak.
El logotipo de producción ecológica de la Unión Europea no se utilizará para los alimentos transformados a que se refiere el artículo 30, apartado 5), letras b) y c), y para los productos en conversión a que se refiere el artículo 30, apartado 3.	Europar Batasunaren ekoizpen ekologikoaren logotipoa ez da erabiliko, ez 30.5 artikuluko b) eta c) letretan zehaztutako elikagai eraldatuetaarako, ez 30.3 artikuluan zehaztutako bihurtze-aldiko produktuetarako.
2.	2.
Excepto cuando se utilice según lo establecido en el apartado 1, párrafo segundo, el logotipo de producción ecológica de la Unión Europea es una certificación oficial de conformidad con los artículos 86 y 91 del Reglamento (UE) 2017/625.	Europar Batasunaren ekoizpen ekologikoaren logotipoa ziurtapen ofizial bat da, (EB) 2017/625 Erregelamenduaren 86. eta 91. artikuluen arabera, salbu eta 1. apartatuko bigarren paragrafoan ezarritakoaren arabera erabiltzen denean.
3.	3.
El uso del logotipo de producción ecológica de la Unión Europea será facultativo en el caso de los productos importados de terceros países. En caso de que el logotipo de dichos productos figure en el etiquetado, la indicación a que se refiere el artículo 32, apartado 2, figurará también en el etiquetado.	Europar Batasunaren ekoizpen ekologikoaren logotipoaren erabilera aukerakoa izango da hirugarren herrialdeetatik inportatutako produktuetan. Produktu horien logotipoa etiketatuan jasota badago, 32.2 artikuluan zehaztutako argibidea ere egongo da jasota etiketatuan.
4.	4.
El logotipo de producción ecológica de la Unión Europea seguirá el modelo que figura en el anexo V y se ajustará a las normas establecidas en dicho anexo.	Europar Batasunaren ekoizpen ekologikoaren logotipoak V. eranskinean jasotako ereduari jarraituko dio eta bat etorriko da eranskin horretan ezarritako arauekin.
5.	5.
Podrán utilizarse logotipos nacionales y logotipos privados en el etiquetado, en la presentación y en la publicidad de productos que cumplan lo dispuesto en el presente Reglamento.	Logotipo nazionalak eta logotipo pribatuak erabili ahalko dira erregelamendu honetan xedatutakoa betetzen duten produktuen etiketatuan, aurkezpenean eta publizitatean.
6.	6.
La Comisión estará facultada para adoptar actos delegados con arreglo al artículo 54 que modifiquen el anexo V en lo que atañe al logotipo de producción ecológica de la Unión Europea y las normas correspondientes.	Batzordeak ahalmena edukiko du 54. artikulua araberako egintza eskuordetuak onartzeko, V. eranskina aldatze aldera Europar Batasunaren ekoizpen ekologikoaren logotipoaz eta dagozkion arau bezainbatean.

CAPÍTULO V	V. KAPITULUA
CERTIFICACIÓN	ZIURTAPENA
Artículo 34	34. artikulua
Sistema de certificación	Ziurtapen-sistema
1.	1.
Antes de comercializar cualquier producto como «ecológico» o «en conversión» o antes del período de conversión, los operadores y grupos de operadores a que se refiere el artículo 36, que produzcan, preparen, distribuyan o almacenen productos ecológicos o en conversión, que importen dichos productos de un tercer país o los exporten a un tercer país, o que comercialicen dichos productos notificarán su actividad a las autoridades competentes del Estado miembro en el que se lleve a cabo la actividad y en el que su empresa se someta al sistema de control.	Edozein produktu «ekologiko» edo «bihurtze-aldiko» produktu gisa merkaturatu baino lehen edo bihurtze-aldia baino lehen, operadoreek eta 36. artikuluan zehaztutako operadore-taldeek, produktu ekologikoak edo bihurtze-aldiko produktuak ekoizten, prestatzen, banatzen edo biltegiatzen badituzte, produktu horiek hirugarren herrialde batetik inportatzen badituzte edo hirugarren herrialde batera esportatzen badituzte, beren jarduera jakinaraziko diete jarduera egiten den eta enpresa kontrol-sistemaren eraginpean dagoen estatu kideko agintaritzak eskudunei.
Cuando las autoridades competentes hayan conferido sus responsabilidades o delegado determinadas tareas de control oficial o determinadas tareas relacionadas con otras actividades oficiales a más de una autoridad de control u organismo de control, los operadores o grupos de operadores indicarán en la notificación a que se refiere el párrafo primero qué autoridad de control u organismo de control verifica si la actividad cumple lo dispuesto en el presente Reglamento y concede el certificado a que se refiere el artículo 35, apartado 1.	Agintaritzak eskudunek kontrol-agintaritzak edo kontrol-organismo bati baino gehiagori eman badizkiete beren erantzukizunak, edo kontrol ofizialeko zeregin jakin batzuk edo beste jarduera ofizial batzuekin zerikusia duten zeregin jakin batzuk eskuordetu badizkiete, operadoreek edo operadore-taldeek, lehenengo paragrafoan zehaztutako jakinarazpenean adieraziko dute zer kontrol-agintaritzak edo kontrol-organismoek egiaztatzen duen jarduerak erregelamendu honetan xedatutakoa betetzen duela eta zeinek ematen duen 35.1 artikuluan zehaztutako ziurtagiria.
2.	2.
Los operadores que vendan productos ecológicos envasados directamente al consumidor o usuario final quedarán exentos de la obligación de notificación mencionada en el apartado 1 del presente artículo y de la obligación de estar en posesión del certificado mencionado en el artículo 35, apartado 2, a condición de que no produzcan, preparen, almacenen salvo en relación con el punto de venta, ni importen dichos productos de terceros países, ni subcontraten a otro operador para efectuar tales actividades.	Produktu ekologiko ontziratuak kontsumitzaileari edo azken erabiltzaileari zuzenean saltzen dizkioten operadoreak salbuetsita egongo dira artikuluko honen 1. apartatuan aipatutako jakinarazpen-betebeharretik eta 35.2 artikuluan aipatutako ziurtagiria edukitzeko betebeharretik, ez badituzte produktu horiek ez ekoizten, ez prestatzen, ez biltegiatzen —saltokiarekin lotuta izan ezik— ezta hirugarren herrialdeetatik inportatzen ere eta ez badute beste operadoreerik azpikontratatzeko jarduera horiek egiteko.
3.	3.
Cuando los operadores o grupos de operadores subcontraten alguna de sus actividades a terceros, tanto los operadores o grupos de operadores como los terceros a los que se hayan subcontratado actividades cumplirán lo dispuesto en el apartado 1, excepto cuando el operador o grupo de operadores declare en la notificación a que se refiere el apartado 1 que sigue bajo su responsabilidad la producción ecológica y que no traslada dicha responsabilidad al subcontratista. En esos casos, la autoridad competente, o, en su caso, la autoridad de control o el organismo de control, verificará que	Operadoreek edo operadore-taldeek beren jardueretako bat hirugarrenei azpikontratatzeko dietenean, hala operadoreek edo operadore-taldeek nola jarduerak azpikontratatzeko dauzkaten hirugarrenek 1. apartatuan xedatu dena beteko dute, salbu eta operadoreak edo operadore-taldeak 1. apartatuan zehaztutako jakinarazpenean adierazten duenean ekoizpen ekologikoak bere erantzukizunpean jarraitzen duela eta ez duela erantzukizun hori azpikontratistaren esku jarri. Horrelakoetan, agintaritzak eskudunak edo, hala badagokio, kontrol-agintaritzak edo kontrol-

las actividades subcontratadas cumplen lo dispuesto en el presente Reglamento, en el marco del control que efectúa sobre los operadores o grupos de operadores que hayan subcontratado sus actividades.	organismoak egiaztatuko du azpikontrataturako jarduerak erregelamendu honetan xedatutakoa betetzen dutela, jarduerak azpikontrataturak dauzkaten operadoreen edo operadore-taldeen gainean egiten duen kontrolaren esparruan.
4.	4.
Los Estados miembros podrán designar una autoridad o autorizar a un organismo para recibir las notificaciones a que se refiere el apartado 1.	Estatu kideek agintaritza bat izendatu edo organismo bat baimendu ahalko dute 1. apartatuan zehaztutako jakinarazpenak jasotzeko.
5.	5.
Los operadores, grupos de operadores y subcontratistas llevarán registros de las diferentes actividades que realicen, de conformidad con lo dispuesto en el presente Reglamento.	Operadoreek, operadore-taldeek eta azpikontrastek egiten dituzten jarduera guztien erregistroak edukiko dituzte, erregelamendu honetan xedatutakoaren arabera.
6.	6.
Los Estados miembros mantendrán listas actualizadas con los nombres y las direcciones de los operadores y grupos de operadores que hayan notificado sus actividades de conformidad con el apartado 1 y harán pública de forma adecuada, incluido mediante enlaces a un único sitio web, una lista completa de estos datos, junto con la información relativa a los certificados proporcionados a dichos operadores y grupos de operadores con arreglo al artículo 35, apartado 1. A la hora de cumplirlo, los Estados miembros observarán los requisitos en materia de protección de datos personales de conformidad con el Reglamento (UE) n.º 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo (22).	Estatu kideek zerrenda eguneratuetan edukiko dituzte jasota 1. apartatuaren arabera beren jarduerak jakinarazi dituzten operadoreen eta operadore-taldeen izenak eta helbideak, eta modu egokian jarriko dute jendaurrean datu horien zerrenda osoa, webgune bakar baterako estekak ere erabiliz, 35.1 artikuluaaren arabera operadore eta operadore-talde horiei emandako ziurtagiriei buruzko informazioarekin batera. Zeregin hori betetzerakoan, estatu kideek kontuan hartuko dituzte datu pertsonalen babesari buruzko betekizunak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2016/679 Erregelamenduaren arabera (22).
7.	7.
Los Estados miembros garantizarán a todo operador o grupo de operadores que cumpla con el presente Reglamento y que, en caso de que se cobre una tasa o gravamen de conformidad con los artículos 78 y 80 del Reglamento (UE) 2017/625, pague una tasa o gravamen razonable que cubra el coste de los controles, el derecho a estar cubierto por el sistema de control. Los Estados miembros garantizarán que las tasas o gravámenes cobrados se hagan públicos.	Estatu kideek kontrol-sistemaren babespean egoteko eskubidea bermatuko diete operadore eta operadore-talde guztiei, erregelamendu hau betetzen duten heinean eta, (EB) 2017/625 Erregelamenduaren 78. eta 80. artikuluen arabera tasa edo kargaren bat kobratzen bada, arrazoizko tasa edo karga bat ordaintzen duten heinean kontrolen kostua estaltzeko. Estatu kideek bermatuko dute kobratutako tasak edo kargak jendaurrean jartzen direla.
8.	8.
La Comisión estará facultada para adoptar actos delegados con arreglo al artículo 54 que modifiquen el anexo II en lo relativo a los requisitos para mantener registros.	Batzordeak ahalmena edukiko du 54. artikuluaaren araberrako egintza eskuordetuak onartzeko, II. eranskina aldatze aldera erregistroak edukitzeko betekizunei dagokienez.
9.	9.
La Comisión podrá adoptar actos de ejecución que detallen y especifiquen:	Batzordeak alderdi hauek xehatzen eta zehazten dituzten betearazpen-egintzak onartu ahalko ditu:
a) el formato y los medios técnicos de la notificación mencionados en el apartado 1;	a) 1. apartatuan aipatutako jakinarazpenaren formatua eta bitarteko teknikoak;

b) las disposiciones para la publicación de las listas mencionadas en el apartado 6; y	b) 6. apartatuan aipatutako zerrendak jendaurrean jartzeko xedapenak; eta
c) los procedimientos y disposiciones para la publicación de las tasas mencionadas en el apartado 7.	c) 7. apartatuan aipatutako tasak jendaurrean jartzeko prozedurak eta xedapenak.
Dichos actos de ejecución se adoptarán de conformidad con el procedimiento de examen a que se refiere el artículo 55, apartado 2.	Betearazpen-egintza horiek 55.2 artikuluan zehaztutako azterketa-prozedurari jarraituz onartuko dira.
Artículo 35	35. artikulua
Certificado	Ziurtagiria
1.	1.
Las autoridades competentes o, en su caso, las autoridades de control u organismos de control concederán un certificado a todo operador o grupo de operadores que haya notificado su actividad de conformidad con el artículo 34, apartado 1, y cumpla el presente Reglamento. El certificado:	Agintaritza eskudunek edo, hala badagokio, kontrol-agintaritzek edo kontrol-organismoek ziurtagiri bat emango diete beren jarduera 34.1 artikuluaaren arabera jakinarazi duten eta erregelamendu hau betetzen duten operadore eta operadore-talde guztiei. Ziurtagiriak baldintza hauek beteko ditu:
a) se expedirá en formato electrónico en la medida de lo posible;	a) Ahal den neurrian, formatu elektronikoan emango da.
b) permitirá como mínimo la identificación del operador o grupo de operadores, en particular la lista de los miembros, la categoría de productos objeto del certificado y su período de validez;	b) Modua emango du gutxienez datu hauek identifikatzeko: operadorea edo operadore-taldea —bereziki kideen zerrenda—, ziurtagiria dagokien produktuen kategoría eta produktuon baliozkotasun-aldia.
c) certificará que la actividad notificada es conforme con el presente Reglamento; y	c) Ziurtatuko du jakinarazitako jarduera bat datorrela erregelamendu honekin.
d) se expedirá de conformidad con el modelo establecido en el anexo VI.	d) VI. eranskinean ezarritako ereduarekin bat etorriko da.
2.	2.
Sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado 8 del presente artículo y en el artículo 34, apartado 2, los operadores y grupos de operadores no podrán comercializar los productos mencionados en el artículo 2, apartado 1, como ecológicos o en conversión hasta que estén en posesión del certificado a que se refiere el apartado 1 del presente artículo.	Artikulu honen 8. apartatuan eta 34.2 artikuluan xedatutakoa ezertan eragotzi gabe, operadoreek eta operadore-taldeen ezingo dituzte 2.1 artikuluan aipatutako produktuak merkaturatu produktu ekologiko gisa edo bihurtze-aldiko produktu gisa harik eta artikulu honen 1. apartatuan zehaztutako ziurtagia edukitze arte.
3.	3.
El certificado a que se refiere el presente artículo constituirá un certificado oficial en la acepción del artículo 86, apartado 1, letra a), del Reglamento (UE) 2017/625.	Artikulu honetan zehaztutako ziurtagiria ziurtagiri ofiziala izango da (EB) 2017/625 Erregelamenduaren 86.1.a) artikuluko adieraren arabera.
4.	4.
Ningún operador ni grupo de operadores tendrá derecho a obtener de más de un organismo de control un certificado por las actividades llevadas a cabo en un mismo Estado miembro, en relación con la misma categoría de productos, incluso cuando el operador o grupo de operadores	Operadore edo operadore-talde bakar batek ere ez du eskubiderik edukiko kontrol-organismo batetik baino gehiagotik eskuratzeko estatu kide batean egindako jarduerengatiko ziurtagiria, produktu-kategoría berari badagokio, nahiz eta operadoreak edo operadore-taldeak ekoizpen-, prestaketa- eta

participe en diversas etapas de producción, preparación y distribución.	banaketa-etapa batean baino gehiagotan parte hartu.
5.	5.
Los miembros de un grupo de operadores no tendrán derecho a obtener un certificado individual con respecto a alguna de las actividades cubiertas por la certificación del grupo al que pertenecen los operadores.	Operadore-taldeetako kideek ez dute eskubiderik edukiko jarduera baterako ziurtapen indibiduala eskuratzeko, kide diren taldearen ziurtapenaren barruan jasota badago jarduera hori.
6.	6.
Los operadores comprobarán el certificado de aquellos operadores que sean sus proveedores.	Operadoreek hornitzailetzat dituzten operadoreen ziurtagiria egiaztatuko dute.
7.	7.
A los efectos de los apartados 1 y 4 del presente artículo, los productos se clasificarán con arreglo a las categorías siguientes:	Artikulu honen 1. eta 4. apartatuen ondorioetarako, produktuak kategoria hauen arabera sailkatuko dira:
a) vegetales y productos vegetales no transformados, incluidas las semillas y demás materiales de reproducción vegetal,	a) landareak eta eraldatu gabeko landare-produktuak, barne direla haziak eta landare-ugalketako gainerako materialak,
b) animales y productos animales no transformados,	b) animaliak eta eraldatu gabeko animalia-produktuak,
c) algas y productos de la acuicultura no transformados,	c) algak eta eraldatu gabeko akuikulturako produktuak,
d) productos agrarios transformados, incluidos los productos de la acuicultura, destinados a ser utilizados para la alimentación humana,	d) gizakien elikadurarako nekazaritza-produktu eraldatuak, akuikulturako produktuak barne,
e) piensos,	e) pentsuak,
f) vino,	f) ardoa,
g) otros productos enumerados en el anexo I del presente Reglamento o no incluidos en las categorías anteriores.	g) erregelamendu honen I. eranskinean zerrendatutako beste produktu batzuk edo aurreko kategorietan sartuta ez daudenak.
8.	8.
Los Estados miembros podrán eximir de la obligación de estar en posesión de un certificado, como dispone el apartado 2, a los operadores que vendan directamente al consumidor final productos ecológicos no envasados que no sean piensos, siempre que dichos operadores no produzcan, preparen, almacenen salvo en relación con el punto de venta, ni importen dichos productos de terceros países, ni subcontraten a un tercero para efectuar tales actividades, y siempre que:	Estatu kideek ziurtagiri bat edukitzeko betebeharretik salbuetsi ahalko dituzte, 2. apartatuak xedatzen duen moduan, pentsuak ez diren produktu ekologiko ontziratutako gabeak azken kontsumitzaileari zuzenean saltzen dizkieten operadoreak, baldin eta ez badituzte produktu horiek ekoizten, prestatzen edo biltegiatzen — saltokiarekin lotuta izan ezik —, ezta hirugarren herrialdeetatik inportatzen ere, eta baldin eta ez badute hirugarrenik azpikontratatzeko jarduerak horiek egiteko, betiere baldintza hauek beteta:
a) dichas ventas no superen 5 000 kg al año,	a) Salmenta horiek ez izatea urtean 5.000 kg baino gehiago.
b) dichas ventas no representen un volumen de negocios anual de productos ecológicos sin envasar superior a 20 000 EUR, o	b) Salmenta horiek ez ekartzea 20.000 euro baino gehiagoko urteko negozio-bolumena produktu ekologiko ontziratutako gabetan.
c) el coste potencial de certificación del operador supere el 2 % del volumen de negocios total de	c) Operadorearen ziurtatze-kostu potentziala handiagoa izatea operadoreak saldutako produktu

productos ecológicos sin envasar vendidos por el operador.	ekologiko ontziratut gabeen guztizko negozio-bolumenaren % 2 baino.
El Estado miembro que decida eximir a los operadores a que se hace referencia en el párrafo primero, podrá fijar límites más estrictos que los establecidos en el párrafo primero.	Lehenengo paragrafoan zehaztutako operadoreak salbuestea erabakitzen duten estatu kideek lehenengo paragrafoan ezarritakoak baino muga zorrotzagoak finkatu ahalko dituzte.
Los Estados miembros informarán a la Comisión y a los demás Estados miembros de las decisiones de eximir a los operadores en virtud del párrafo primero y del límite de exención para dichos operadores.	Estatu kideek Batzordeari eta gainerako estatu kideei aditzera emango dizkiete bai lehenengo paragrafoaren arabera operadoreak salbuesteko erabakiak, bai operadore horientzako salbuespen-muga.
9.	9.
La Comisión estará facultada para adoptar actos delegados con arreglo al artículo 54 que modifiquen el modelo de certificado que figura en el anexo VI.	Batzordeak ahalmena edukiko du 54. artikulua araberako egintza eskuordetuak onartzeko, haien bidez VI. eranskinean jasotako ziurtagiri-eredua aldatze aldera.
10.	10.
La Comisión adoptará actos de ejecución que proporcionen detalles y especificaciones sobre el formulario del certificado a que se refiere el apartado 1 y los medios técnicos mediante los cuales se expida.	Batzordeak betearazpen-egintzak onartuko ditu xehetasunak eta zehaztapenak emateko bai 1. apartatuan zehaztutako ziurtagiriaren inprimakiari buruz, bai ziurtagiria emateko bitarteko teknikoei buruz.
Dichos actos de ejecución se adoptarán de conformidad con el procedimiento de examen a que se refiere el artículo 55, apartado 2.	Betearazpen-egintza horiek 55.2 artikuluan zehaztutako azterketa-prozedurari jarraituz onartuko dira.
Artículo 36	36. artikulua
Grupo de operadores	Operadore-taldea
1.	1.
Cada grupo de operadores:	Operadore-talde bakoitzak ezaugarri hauek beteko ditu:
a) estará compuesto únicamente por agricultores o por operadores que produzcan algas o animales de acuicultura, y que, además, puedan dedicarse a la transformación, preparación o comercialización de alimentos o piensos;	a) Kide hauek bakarrik izango dira partaide: hala nekazariak nola operadoreak, algak edo akuikulturako animaliak ekoizten dituzten heinean eta, gainera, elikagaiak edo pentsuak eraldatu, prestatu edo merkaturatu ditzaketen heinean.
b) estará compuesto únicamente por miembros:	b) Baldintza hauek betetzen dituzten kideek bakarrik osatuko dute taldea:
i) para los que el coste de certificación individual represente más del 2 % del volumen de negocios de cada miembro o producción estándar de producción ecológica de cada miembro, y cuyo volumen de negocios de producción ecológica anual no supere los 25 000 EUR o cuya producción estándar de producción ecológica no supere los 15 000 EUR al año; o	i) ziurtapen indibidualaren kostuak kide bakoitzaren negozio-bolumenaren edo kide bakoitzaren ekoizpen ekologikoko ekoizpen estandarren % 2 baino gehiago izan behar du, eta haien urteko ekoizpen ekologikoko negozio-bolumena ezin da izan 25.000 euro baino handiagoa edo haien ekoizpen ekologikoko ekoizpen estandarra ezin da izan 15.000 euro baino handiagoa urtean, edo
ii) que tengan explotaciones de un máximo de:	ii) gehienez neurri hauekako ustategiak eduki behar dituzte:
— 5 hectáreas,	— 5 hektarea,
— 0,5 hectáreas, en el caso de invernaderos, o	— 0,5 hektarea, berotegiak badira, edo

— 15 hectáreas, exclusivamente en el caso de pastos permanentes;	— 15 hektarea, larre iraunkorrek badira bakarrik.
c) estará establecido en un Estado miembro o en un tercer país;	c) Estatu kide batean edo hirugarren herrialde batean ezarrita egon behar du.
d) estará dotado de personalidad jurídica;	d) Nortasun juridikoa izango du.
e) estará compuesto únicamente por miembros cuyas actividades de producción o posibles actividades adicionales a que se refiere la letra a) tengan lugar en puntos geográficamente próximos entre sí dentro del mismo Estado miembro o del mismo tercer país;	e) Taldea osatzen duten kideen ekoizpen-jarduerak —edo a) letran zehaztutako jarduera osagarri posibleak—, ezinbestean, estatu kide beraren barruan edo hirugarren herrialde beraren barruan geografikoki elkarrengandik hurbil dauden puntuetan egin behar dira.
f) establecerá un sistema conjunto de comercialización para los productos que produce el grupo; y	f) Baterako merkaturatze-sistema bat ezarriko du, taldeak ekoizten dituen produktueterako.
g) establecerá un sistema de controles internos que comprenda un conjunto documentado de actividades y procedimientos de control con arreglo a los cuales una persona u organismo identificados se encargue de comprobar el cumplimiento del presente Reglamento por parte de cada uno de los miembros del grupo.	g) Kontrol-jardueren eta -prozeduren multzo dokumentatu bat biltzen duen barne-kontrolen sistema bat ezarriko du, pertsona edo organismo identifikatu batek jarduera eta prozedura horiek erabil ahal izan ditzan taldeko kide bakoitzak erregelamendu hau betetzen duen egiaztatzeko.
El sistema de controles internos constará de procedimientos documentados con respecto de:	Barne-kontrolen sistemak alderdi hauei buruzko prozedura dokumentatuak edukiko ditu:
i) la inscripción de los miembros del grupo;	i) taldeko kideen inskripzioa;
ii) las inspecciones internas, entre las que figuran las inspecciones internas anuales realizadas presencialmente sobre el terreno a cada miembro del grupo, así como cualquier otra inspección basada en el riesgo, programada en cualquier caso por el gestor del sistema de controles internos y realizada por sus inspectores, cuyas funciones se definen en la letra h);	ii) barne-ikuskapenak —taldeko kide bakoitzari lekuan bertan egindako urteko barne-ikuskapenak ere aintzat hartuta— eta bestelako ikuskapenak —arriskuan oinarritutakoak, barne-kontrolen sistemaren kudeatzaileak programatutakoak eta sistemako ikuskatzaileek egindakoak [haien funtzioak h) letran definitzen dira];
iii) la aprobación de nuevos miembros de un grupo existente o, cuando proceda, de nuevas unidades de producción o nuevas actividades de los miembros existentes previo acuerdo del gestor del sistema de controles internos sobre la base del informe de la inspección interna;	iii) aurrez sortutako talde bateko kide berrien onarpena edo, hala dagokionean, aurrez dauden kideen ekoizpen-unitate berrien edo jarduera berrien onarpena, barne-kontrolen sistemaren kudeatzaileak barne-ikuskapenaren txostenean oinarrituta erabakia hartu ostean;
iv) la formación de los inspectores del sistema de controles internos, que debe tener lugar como mínimo anualmente e ir acompañada de una evaluación de los conocimientos adquiridos por los participantes;	iv) barne-kontrolen sistemako ikuskatzaileen prestakuntza, zeina gutxienez urtero egin behar den eta zeinak parte-hartzaileek lortutako ezagutzen ebaluazioa jaso behar duen;
v) la formación de miembros del grupo con relación a los procedimientos del sistema de controles internos y los requisitos del presente Reglamento;	v) taldeko kideek barne-kontrolen sistemako prozedurei buruz eta erregelamendu honetako betekizunei buruz jasotako prestakuntza;
vi) el control de documentos y registros;	vi) dokumentuen eta erregistroen kontrola;
vii) las medidas aplicables en caso de que se detecte un incumplimiento durante las inspecciones internas, incluido su seguimiento;	vii) barne-ikuskapenetan ez-betetzetik detektatuz gero aplikatu beharreko neurriak, haien jarraipena barne;
viii) la trazabilidad interna, que muestre el origen de los productos entregados en el sistema conjunto de	viii) barne-trazabilitatea, taldearen baterako merkaturatze-sisteman emandako produktuen

comercialización del grupo y permita trazar todos los productos de todos los miembros a lo largo de todas las etapas, como la producción, la transformación, la preparación o la comercialización, por ejemplo realizando una estimación de los rendimientos de cada uno de los miembros del grupo;	jatorria erakusten duena eta kide guztien produktu guztiak etapa guztietan —hala nola ekoizpenean, eraldaketan, prestaketan eta merkaturatzean— tratatzea ahalbidetzen duena, adibidez, taldeko kide bakoitzaren errendimenduak zenbatetsiz.
h) nombrará un gestor del sistema de controles internos y uno o varios inspectores del sistema de controles internos que podrán ser un miembro del grupo. Sus puestos no podrán mezclarse. El número de inspectores del sistema de controles internos será adecuado y proporcional, en particular, al tipo, la estructura, el tamaño, los productos, las actividades y los resultados de producción ecológica del grupo. Los inspectores del sistema de controles internos serán competentes con respecto a los productos y actividades del grupo.	h) Barne-kontrolen sistemaren kudeatzaile bat izendatuko du, baita barne-kontrolen sistemaren ikuskatzaile bat edo batzuk ere, zeinak taldeko kideak izan ahalko baitira. Haien postuak ezingo dira nahasi. Barne-kontrolen sistemako ikuskatzaileen kopurua egokia izango da, eta, bereziki, taldearen ekoizpen ekologiko motarekiko, egiturarekiko, tamainarekiko, produktuekiko, jardueretikiko eta emaitzekiko proportzionala izango da. Barne-kontrolen sistemako ikuskatzaileak eskudunak izango dira taldearen produktuei eta jarduerari dagokienez.
El gestor del sistema de controles internos:	Barne-kontrolen sistemaren kudeatzaileak honela jardungo du:
i) comprobará la admisibilidad de cada miembro del grupo en relación con los criterios establecidos en las letras a), b) y e);	i) Taldeko kide bakoitzaren onargarritasuna egiaztatuko du, a), b) eta e) letretan ezarritako irizpideei dagokienez.
ii) velará por que exista un acuerdo de adhesión por escrito y firmado entre cada miembro y el grupo, por el cual los miembros se comprometan a:	ii) Ziurtatuko du idatzizko atxikipen-akordio bat dagoela sinatuta kide bakoitzaren eta taldearen artean eta horren bidez kideek konpromiso hauek hartzen dituztela:
— cumplir las disposiciones del presente Reglamento;	— Erregelamendu honetako xedapenak betetzea.
— participar en el sistema de controles internos y respetar sus procedimientos, especialmente las tareas y las responsabilidades que les asigne el gestor del sistema de controles internos y la obligación de mantener registros;	— Barne-kontrolen sisteman parte hartzea eta haren prozedurak errespetatzea, bereziki barne-kontrolen sistemaren kudeatzaileak esleitzen dizkien zereginak eta erantzukizunak, baita erregistroak edukitzeko betebeharra ere.
— permitir el acceso a las unidades y los locales de producción y estar presentes durante las inspecciones internas llevadas a cabo por los inspectores del sistema de controles internos y los controles oficiales efectuados por la autoridad competente o, en su caso, la autoridad u organismo de control, poner a su disposición todos los documentos y registros y firmar los informes de inspección;	— Ekoizpen-unitate eta -lokaletarako sarbidea ematea, eta bertan egotea barne-kontrolen sistemako ikuskatzaileek egindako barne-ikuskapenetan eta agintaritza eskudunak edo, hala badagokio, kontrol-agintaritzak edo -organismoak egindako kontrol ofizialetan; dokumentu eta erregistro guztiak jartzea haientzat eskuragarri, eta ikuskapen-txostenak sinatzea.
— aceptar y ejecutar las medidas aplicables en casos de incumplimiento de conformidad con la decisión del gestor del sistema de controles internos o de la autoridad competente o, en su caso, de la autoridad u organismo de control, dentro del plazo establecido;	— Ez-betetzerik egonez gero aplikatu beharreko neurriak onartu eta betearaztea, barne-kontrolen sistemaren kudeatzailearen edo agintaritza eskudunaren edo, hala badagokio, kontrol-agintaritza edo -organismoaren erabakiarekin bat etorritik, ezarritako epean.
— informar inmediatamente al gestor del sistema de controles internos cuando se sospeche la existencia de un incumplimiento;	— Barne-kontrolen sistemaren kudeatzaileari berehala jakinaraztea, susmatzen denean ez-betetze bat dagoela.
iii) elaborará los procedimientos del sistema de controles internos, así como los documentos y registros pertinentes, los mantendrá actualizados y	iii) Barne-kontrolen sistemako prozedurak prestatuko ditu, baita bidezkoak diren dokumentuak eta erregistroak ere; eguneratuta edukiko ditu, eta

los pondrá a disposición de los inspectores del sistema de controles internos y, cuando proceda, los miembros del grupo;	eskuragarri jarriko dizkie barne-kontrolen sistemako ikuskatzaileei eta, hala dagokionean, taldeko kideei.
iv) elaborará la lista de miembros del grupo y la mantendrá actualizada;	iv) Taldeko kideen zerrenda egingo du eta eguneratuta edukiko du.
v) asignará tareas y responsabilidades a los inspectores del sistema de controles internos;	v) Zereginak eta erantzukizunak esleituko dizkie barne-kontrolen sistemako ikuskatzaileei.
vi) actuará de enlace entre los miembros del grupo y la autoridad competente o, en su caso, la autoridad u organismo de control, incluyendo con relación a las solicitudes de excepciones;	vi) Taldeko kideen eta agintaritza eskudunaren edo, hala badagokio, kontrol-agintaritza edo -organismoaren arteko lotura gisa jardungo du, besteak beste, salbuespen-eskaerei dagokienez.
vii) comprobará anualmente las declaraciones de conflicto de interés de los inspectores del sistema de controles internos;	vii) Urtero egiaztatuko ditu barne-kontrolen sistemako ikuskatzaileen interes-gatazkaren adierazpenak.
viii) programará inspecciones internas y garantizará su correcta ejecución de acuerdo con la programación del gestor del sistema de controles internos contemplada en la letra g), párrafo segundo, inciso ii);	viii) Barne-ikuskapenak programatuko ditu eta bermatuko du egokiro betearazten direla, bat etorrita barne-kontrolen sistemaren kudeatzailearen programazioarekin [g) letrako bigarren paragrafoko ii) tartekian xedatua].
ix) garantizará una formación adecuada de los inspectores del sistema de controles internos y llevará a cabo una evaluación anual de sus competencias y cualificaciones;	ix) Barne-kontrolen sistemako ikuskatzaileek prestakuntza egokia daukatela bermatuko du eta urtero ebaluatuko ditu haien gaitasunak eta kualifikazioak.
x) aprobará a los nuevos miembros o las nuevas unidades de producción o las nuevas actividades de los miembros existentes;	x) Kide berriak onartuko ditu baita aurrez dauden kideen ekoizpen-unitate berriak eta jarduera berriak ere.
xi) tomará decisiones sobre las medidas aplicables en caso de incumplimiento, de conformidad con las medidas del sistema de controles internos previstas por los procedimientos documentados de conformidad con letra g), y velará por el seguimiento de dichas medidas;	xi) Ez-betetzerik egonez gero aplikatu beharreko neurriei buruzko erabakiak hartuko ditu, g) letraren arabera prozedura dokumentatuek xedatutako barne-kontrolen sistemako neurriei bat etorritz, eta neurri horien jarraipena egiten dela ziurtatuko du.
xii) decidirá subcontratar actividades, incluida la subcontratación de las tareas de los inspectores del sistema de controles internos, y firmará los acuerdos o contratos pertinentes.	xii) Jarduerak azpikontratatzeari erabakiko du — barne-kontrolen sistemako ikuskatzaileen zereginak azpikontratatzeari barne—, eta bidezkoak diren akordioak edo kontratuak sinatuko ditu.
El inspector del sistema de controles internos:	Barne-kontrolen sistemako ikuskatzaileak honela jardungo du:
i) efectuará inspecciones internas de los miembros del grupo de acuerdo con el calendario y los procedimientos establecidos por el gestor del sistema de controles internos;	i) Taldeko kideen barne-ikuskapenak egingo ditu, barne-kontrolen sistemaren kudeatzaileak ezarritako egutegiaren eta prozeduren arabera.
ii) elaborará los informes de las inspecciones internas utilizando un modelo y se los presentará al gestor del sistema de controles internos en un plazo razonable;	ii) Barne-ikuskapenei buruzko txostenak egingo ditu, eredu bat erabiliz, eta arrazoizko epean aurkeztuko dizkio barne-kontrolen sistemaren kudeatzaileari.
iii) presentará en el momento de su nombramiento una declaración de conflicto de intereses escrita y firmada y la actualizará anualmente;	iii) Izendatzen dutenean, interes-gatazkaren adierazpen bat aurkeztuko du, idatziz eta sinatuta, eta urtero eguneratuko du.
iv) participará en formaciones.	iv) Prestakuntzetan parte hartuko du.
2.	2.

Las autoridades competentes, o, en su caso, las autoridades de control u organismos de control, retirarán a la totalidad del grupo el certificado mencionado en el artículo 35, cuando la integridad de los productos ecológicos y en conversión resulte afectada por deficiencias en la implantación o el funcionamiento del sistema de control interno mencionado en el apartado 1, especialmente cuando no se consiga detectar ni corregir casos de incumplimiento por parte de miembros del grupo de operadores.	Agintaritza eskudunek edo, hala badagokio, kontrol-agintaritzek edo kontrol-organismoek talde guztia kenduko diote 35. artikuluan aipatutako ziurtagiria, 1. apartatuan zehaztutako barne-kontrolako sistemaren ezarpen edo funtzionamenduan gertatutako gabeziek produktu ekologikoen eta bihurtze-aldiko produktuen osotasunari eragiten badiote, batez ere ez denean lortzen operadore-taldeko kideen ez-betetzeak detektatzea eta zuzentzea.
Se considerarán deficiencias del sistema de controles internos, al menos, las situaciones siguientes:	Gutxienez egoera hauek joko dira barne-kontrolen sistemaren gabeziatzat:
a) la producción, transformación, preparación o comercialización de productos procedentes de miembros o unidades de producción suspendidos o retirados;	a) Geldieran utzitako edo zerrendatik kendutako kideengandik edo ekoizpen-unitateetatik datozen produktuak ekoiztea, eraldatzea, prestatzea edo merkaturatzea.
b) la comercialización de productos con relación a los cuales el gestor del sistema de controles internos haya prohibido el uso de referencias a la producción ecológica en su etiquetado o publicidad;	b) Produktuak merkaturatzea, nahiz eta barne-kontrolen sistemaren kudeatzaileak debekarazi ekoizpen ekologikoari buruzko erreferentziak erabiltzea haien etiketatuan edo publizitatean.
c) la incorporación de nuevos miembros a la lista de miembros o la modificación de las actividades de los miembros existentes sin seguir el procedimiento interno de aprobación;	c) Kide-zerrendan kide berriak sartzea edo dauden kideen jarduerak aldatzea onarpenerako barne-prozedurari jarraitu gabe.
d) la no ejecución de la inspección física anual sobre el terreno de un miembro del grupo en un año determinado;	d) Urteren batean ez egitea taldeko kide bati lekuan bertan egin beharreko urteroko ikuskapen fisikoa.
e) la no indicación de los miembros suspendidos o retirados de la lista;	e) Ez ematea zerrendatik ateratako edo aldi baterako kendutako kideen berri.
f) las desviaciones graves en las conclusiones, entre las inspecciones internas llevadas a cabo por los inspectores del sistema de controles internos y los controles oficiales efectuados por la autoridad o, en su caso, la autoridad u organismo de control;	f) Ondorioetan desbiderapen larriak izatea. Barne-kontrolen sistemako ikuskatzaileek egindako barne-ikuskapenen eta agintaritza eskudunak edo, hala badagokio, kontrol-agintaritzak edo -organismoak egindako kontrol ofizialen artean.
g) las deficiencias graves en la imposición de medidas adecuadas o en la realización del seguimiento necesario en respuesta a los incumplimientos detectados por los inspectores del sistema de controles internos o por la autoridad competente o, en su caso, la autoridad u organismo de control;	g) Gabezia larriak izatea barne-kontrolen sistemako ikuskatzaileek edo agintaritza eskudunak edo, hala badagokio, kontrol-agintaritzak edo -organismoak detektatutako ez-betetzei erantzuteko neurri egokiak ezartzeko edo behar den jarraipena egiteko prozesuetan.
h) el número inadecuado de inspectores del sistema de controles internos o la insuficiencia de competencias por parte de estos en relación con el tipo, la estructura, el tamaño, los productos, las actividades y los resultados de producción ecológica del grupo.	h) Barne-kontrolen sistemako ikuskatzaileen kopurua desegokia izatea edo ikuskatzaileek gaitasun nahikorik ez edukitzea taldearen ekoizpen ekologikoaren motari, egiturari, tamainari, produktuei, jarduerari eta emaitzei dagokienez.
3.	3.
La Comisión estará facultada para adoptar actos delegados con arreglo al artículo 54 que modifiquen los apartados 1 y 2 del presente artículo, mediante la inclusión de disposiciones o la	Batzordeak ahalmena edukiko du 54. artikulua araberako egintza eskuordetuak onartzeko, haien bidez 1. eta 2. apartatuak aldatze aldera bai xedapenak gehituz, bai gehitutako xedapenak aldatuz, bereziki honako hauei dagokienez:

modificación de las disposiciones añadidas, en particular por lo que se refiere a:	
a) las responsabilidades individuales de los miembros de un grupo de operadores;	a) operadore-talde bateko kideen erantzukizun indibidualak;
b) los criterios para determinar la proximidad geográfica de los miembros del grupo, como el uso compartido de instalaciones o emplazamientos;	b) taldeko kideen hurbiltasun geografikoa zehazteko irizpideak, hala nola instalazioen edo kokalekuen erabilera partekatua;
c) la configuración y el funcionamiento del sistema de controles interno, incluidos el alcance, el contenido y la frecuencia de los controles que deberán llevarse a cabo y los criterios para identificar las deficiencias en la configuración o el funcionamiento del sistema de controles internos.	c) barne-kontrolen sistemaren konfigurazioa eta funtzionamendua, barnean hartuta bai egin beharko diren kontrolen norainokoa, edukia eta maiztasuna, bai barne-kontrolen sistemaren konfigurazioan edo funtzionamenduan gabeziak identifikatzeko irizpideak.
4.	4.
La Comisión podrá adoptar actos de ejecución que establezcan normas específicas sobre:	Batzordeak arlo hauei buruzko berariazko arauak ezartzen dituzten betearazpen-egintzak onartu ahalko ditu:
a) la composición y dimensión de un grupo de operadores;	a) operadore-talde baten osaera eta tamaina;
b) los documentos y los sistemas de registro, el sistema de trazabilidad interna y la lista de operadores;	b) erregistro-dokumentuak eta -sistemak, barne-trazabilitaterako sistema eta operadore-zerrenda;
c) el intercambio de información entre un grupo de operadores y la autoridad o autoridades competentes, autoridades de control u organismos de control, y entre los Estados miembros y la Comisión.	c) operadore-talde baten eta agintaritza eskudunaren edo eskudunen, kontrol-agintaritzen edo kontrol-organismoen arteko informazio-trukea eta estatu kideen eta Batzordearen artekoa.
Dichos actos de ejecución se adoptarán de conformidad con el procedimiento de examen a que se refiere el artículo 55, apartado 2.	Betearazpen-egintza horiek 55.2 artikuluan zehaztutako azterketa-prozedurari jarraituz onartuko dira.
CAPÍTULO VI	VI. KAPITULUA
CONTROLES OFICIALES Y OTRAS ACTIVIDADES OFICIALES	KONTROL OFIZIALAK ETA BESTE JARDUERA OFIZIAL BATZUK
Artículo 37	37. artikulua
Relaciones con el Reglamento (UE) 2017/625 y normas adicionales para los controles oficiales y otras actividades oficiales en relación con la producción ecológica y el etiquetado de productos ecológicos	(EB) 2017/625 Erregelamenduarekiko loturak eta kontrol ofizialetarako eta ekoizpen ekologikoarekin eta produktu ekologikoen etiketatuarekin zerikusia duten beste jarduera ofizial batzuetarako arau gehigarriak
Las normas específicas del presente capítulo se aplicarán, además de las normas establecidas en el Reglamento (UE) 2017/625, salvo disposición en contrario del artículo 40, apartado 2, del presente Reglamento, y en el artículo 29 del presente Reglamento, salvo disposición en contrario del artículo 41, apartado 1, del presente Reglamento, en lo que respecta a los controles oficiales y las demás actividades oficiales realizados con el fin de verificar, a lo largo de todo el proceso en todas las etapas de producción, preparación y distribución, que los productos a que se refiere el artículo 2, apartado 1, del presente Reglamento, han sido	Egiten diren kontrol ofizialetan eta gainerako jarduera ofizialetan kapitulu honetako berariazko arauak aplikatuko dira, (EB) 2017/625 Erregelamenduan ezarritako arauetaz gain —salbu eta kontrakorik xedatzen bada erregelamendu honen 40.2 artikuluan— eta erregelamendu honen 29. artikuluan ezarritakoez gain —salbu eta kontrakorik xedatzen bada erregelamendu honen 41.1 artikuluan—, kontrol eta jarduera horien helburua den heinean egiaztatzea erregelamendu honen 2.1 artikuluan zehaztutako produktuak erregelamendu honetan xedatutakoari jarraituz

producidos de acuerdo con lo dispuesto en el presente Reglamento.	ekoitzi direla prozesu osoan barrena, ekoizpen-, prestaketa- eta banaketa-etapa guztietan.
Artículo 38	38. artikulua
Normas adicionales sobre los controles oficiales y sobre las medidas que deben tomar las autoridades competentes	Kontrol ofizialei eta agintaritza eskudunek hartu behar dituzten neurriei buruzko arau gehigarriak
1.	1.
Los controles oficiales realizados de conformidad con el artículo 9 del Reglamento (UE) 2017/625 para la verificación del cumplimiento del presente Reglamento deberán incluir:	Erregelamendu hau betetzen den egiaztatze aldera (EB) 2017/625 Erregelamenduaren 9. artikuluaaren arabera egindako kontrol ofizialek alderdi hauek barne hartu beharko dituzte:
a) la verificación de la aplicación por parte de los operadores de medidas preventivas y precautorias, tal como se indica en el artículo 9, apartado 6, y en el artículo 28 del presente Reglamento en cada etapa de producción, preparación y distribución;	a) Operadoreek ekoizpen-, prestaketa- eta banaketa-etapa guztietan prebentzio- eta prekauzio-neurriak aplikatu dituztela egiaztatzea, erregelamendu honen 9.6 artikuluan eta 28. artikuluan azaltzen den moduan.
b) cuando la explotación incluye las unidades de producción no ecológica o en conversión, la verificación de los registros y de las medidas o procedimientos o mecanismos para garantizar la separación clara y efectiva entre unidades de producción ecológica, en conversión y no ecológica, así como entre los productos respectivos obtenidos en esas unidades y de las sustancias y productos utilizados para las unidades de producción ecológica, en conversión y no ecológica; esta verificación incluirá los controles de las parcelas para las que se reconoció retroactivamente un período anterior como parte del período de conversión y control de las unidades de producción no ecológica;	b) Ustiategiak ekoizpen ez-ekologikoko edo bihurtze-aldiko unitateak barne hartzen dituenean, egiaztatzea behar diren erregistroak eta neurriak, prozedurak edo mekanismoak daudela, hartara bermatzeko modu argi eta eraginkorrean banatuta daudela bai ekoizpen ekologiko unitateak, bihurtze-aldiko ekoizpeneko unitateak eta ekoizpen ez-ekologikoko unitateak eta unitate horietan ekoiztiko produktuak, bai ekoizpen ekologiko unitateetarako, bihurtze-aldiko ekoizpeneko unitateetarako eta ekoizpen ez-ekologikoko unitateetarako erabilitako substantziak eta produktuak. Egiaztapen horrek lurzatiaren kontrolak barne hartuko ditu, baldin eta lurzati horiei lehenagoko aldi bat aintzatetsi bazaie atzeraeraginez ekoizpen ez-ekologikoko unitateen bihurtze- eta kontrol-aldiaren zati gisa.
c) cuando los productos ecológicos, en conversión y no ecológicos sean recogidos simultáneamente por los operadores, sean preparados o almacenados en la misma unidad, zona o local de preparación, o sean transportados a otros operadores o unidades, la verificación de los registros y de las medidas, procedimientos o mecanismos existentes para garantizar que las operaciones se lleven a cabo por separado en el espacio o en el tiempo, que se tomen medidas de limpieza adecuadas y, en su caso, medidas para evitar la sustitución de los productos, que los productos ecológicos y los productos en conversión estén identificados en todo momento y que los productos ecológicos, los productos en conversión y los no ecológicos se almacenen separados unos de otros, antes y después de las operaciones de preparación, en el espacio o en el tiempo;	c) Operadoreek aldi berean biltzen dituztenean produktu ekologikoak, bihurtze-aldiko produktuak eta produktu ez-ekologikoak, produktuak prestaketa-unitate, -zona edo -lokal berean prestatzen edo biltegiatzen direnean edo beste operadore edo unitate batzuetara garraiatzen direnean, egiaztatzea behar diren erregistroak eta neurriak, prozedurak edo mekanismoak daudela bermatzeko eragiketak espazioan edo denboran bereizita egiten direla, garbiketa-neurri egokiak hartzen direla eta, hala badagokio, produktuen ordezipena saihesteko neurriak hartzen direla, produktu ekologikoak eta bihurtze-aldiko produktuak une oro identifikatuta daudela eta produktu ekologikoak, bihurtze-aldiko produktuak eta produktu ez-ekologikoak prestaketa-eragiketak egin baino lehen eta haien ostean espazioan edo denboran elkarrengandik bereizita biltegiatzen direla.
d) la verificación de la configuración y del funcionamiento del sistema de control interno de los grupos de operadores;	d) Operadore-taldearen barne-kontrolako sistemaren konfigurazioa eta funtzionamendua egiaztatzea.

e) cuando los operadores estén exentos de la obligación de notificación de conformidad con el artículo 34, apartado 2, del presente Reglamento o, de la obligación de poseer un certificado de conformidad con el artículo 35, apartado 8, del presente Reglamento, la verificación de que se cumplen los requisitos para esa exención y la verificación de los productos vendidos por dichos operadores.	e) Operadoreak salbuetsita daudenean hala jakinarazteko betebeharretik —erregelamendu honen 34.2 artikuluekin bat— nola ziurtagiri bat edukitzeko betebeharretik —erregelamendu honen 35.8 artikuluekin bat—, salbuespen horretarako betekizunak betetzen direla egiaztatzea eta operadore horiek saldutako produktuk egiaztatzea.
2.	2.
Los controles oficiales realizados de conformidad con el artículo 9 del Reglamento (UE) 2017/625 para verificar el cumplimiento del presente Reglamento se realizarán a lo largo de todo el proceso, en todas las etapas de producción, preparación y distribución, sobre la base de la probabilidad de incumplimiento que se define en el artículo 3, punto 57, del presente Reglamento, que se determinará teniendo en cuenta, además de los elementos a que se refiere el artículo 9 del Reglamento (UE) 2017/625, en particular, los siguientes elementos:	Erregelamendu hau betetzen den egiaztatze aldera, prozesu osoan —ekoizpen-, prestaketa- eta banaketa-etapa guztietan— egingo dira (EB) 2017/625 Erregelamenduaren 9. artikuluen arabera kontrol ofizialak, erregelamendu honen 3.57 artikuluan definitutako ez-betetzearen probabilitatea oinarri hartuta, eta, probabilitate hori zehazte aldera, (EB) 2017/625 Erregelamenduaren 9. artikuluan zehaztutako elementuez gain, alderdi hauek hartuko dira kontuan, bereziki:
a) el tipo, la magnitud y la estructura de los operadores y grupos de operadores;	a) operadoreen eta operadore-taldeen mota, tamaina eta egitura;
b) el período de tiempo durante el cual los operadores y grupos de operadores se hayan dedicado a la producción, preparación y distribución ecológicas;	b) operadoreak eta operadore-taldeak ekoizpen, prestaketa eta banaketa ekologikoetan aritu diren denbora-tartea;
c) los resultados de los controles realizados de conformidad con el presente artículo;	c) artikulua honen arabera egindako kontrolen emaitzak;
d) el momento pertinente para las actividades realizadas;	d) egindako jardueretarako une egokia;
e) las categorías de productos;	e) produktu-kategoriak;
f) el tipo, la cantidad y el valor de los productos y su evolución en el tiempo;	f) produktu mota, produktu kopurua eta produktuen balioa, baita produktuek denboran barrena izan duten bilakaera ere;
g) la posibilidad de mezcla de productos o de contaminación con productos o sustancias no autorizados;	g) produktuk nahasteko edo baimenduta ez dauden produktu edo substantziekin kutsatzeko posibilitatea;
h) la aplicación de exenciones o excepciones a las normas por los operadores y grupos de operadores;	h) indargabetzeen edo arauetarako salbuespenen aplikazioa operadoreen eta operadore-taldeen aldetik;
i) los puntos críticos en caso de incumplimiento y probabilidad de incumplimiento en cada etapa de producción, preparación y distribución;	i) ez-betetzeak eragin ditzaketen puntu kritikoak, batetik, eta ekoizpen-, prestaketa- eta banaketa-etapa bakoitzean dagoen ez-betetze probabilitatea, bestetik;
j) actividades de subcontratación.	j) azpikontratazio-jarduerak.
3.	3.
En cualquier caso, todos los operadores y grupos de operadores, con excepción de los mencionados en el artículo 34, apartado 2, y en el artículo 35,	Nolanahi ere, operadore eta operadore-talde guztien kasuan egiaztatu beharko da, urtean behin gutxienez, alderdiok betetzen dituztela —

apartado 8, deberán estar sujetos a una verificación del cumplimiento al menos una vez al año.	salbuespen izango dira 34.2 artikuluan eta 35.8 artikuluan aipatutakoak—.
La verificación del cumplimiento incluirá una inspección física in situ, salvo cuando se cumplan las condiciones siguientes:	Ez-betetzearen egiaztapenak bertan egindako ikuskapen bat barne hartuko du, baldintza hauek betetzen direnean izan ezik:
a) que los controles anteriores del operador o grupo de operadores afectados no hayan puesto de manifiesto ningún incumplimiento que afecte a la integridad de los productos ecológicos o en conversión durante al menos tres años consecutivos; y	a) Ukitutako operadorearen edo operadore-taldearen lehenagoko kontrolek ez dute agerian jarri produktu ekologikoen edo bihurtze-aldiko produktuen osotasunari eragiten dion ez-betetterik, elkarren segidako hiru urtez gutxienez.
b) que el operador o grupo de operadores de que se trate haya sido evaluado sobre la base de los elementos mencionados en el apartado 2 del presente artículo y en el artículo 9 del Reglamento (UE) 2017/625, con un bajo grado de probabilidad de incumplimiento.	b) Kasuan kasuko operadoreari edo operadore-taldeari ebaluazioa egin zaio artikuluko honen 2. apartatuan eta (EB) 2017/625 Erregelamenduaren 9. artikuluan aipatutako elementu guztiak oinarri hartuta, eta ez-betetzeen probabilitatea baxua da.
En tales casos, el período que media entre dos inspecciones físicas in situ no deberá superar los veinticuatro meses.	Horrelakoetan, bertan egindako bi ikuskapen fisikoren arteko aldiak ez du izan behar hogeita lau hilabete baino luzeagoa.
4.	4.
Los controles oficiales realizados de conformidad con el artículo 9 del Reglamento (UE) 2017/625 para la verificación del cumplimiento del presente Reglamento deberán:	Erregelamendu hau betetzen den egiaztatze aldera (EB) 2017/625 Erregelamenduaren 9. artikulua arabera egindako kontrol ofizialek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:
a) realizarse de conformidad con el artículo 9, apartado 4, del Reglamento (UE) 2017/625, con la garantía de que un porcentaje mínimo de los controles oficiales de los operadores o grupos de operadores se realice sin previo aviso;	a) (EB) 2017/625 Erregelamenduaren 9.4. artikulua arabera egin behar dira eta bermatu behar da operadoreen edo operadore-taldearen kontrol ofizialen gutxieneko ehuneko jakin bat aurretiazko abisurik gabe egiten dela.
b) garantizar que se realice un porcentaje mínimo de los controles adicionales a los indicados en el apartado 3 del presente artículo;	b) Artikulu honen 3. apartatuan aipatutako kontrolez gain, bermatu behar da kontrol gehigarrien gutxieneko ehuneko jakin bat egiten dela.
c) realizarse tomando un número mínimo de muestras obtenidas con arreglo a lo indicado en el artículo 14, letra h), del Reglamento (UE) 2017/625;	c) (EB) 2017/625 Erregelamenduaren 14. h) artikuluan ezarritakoaren arabera hartutako laginen gutxieneko kopuru bat hartuz egin beharko dira.
d) garantizar que un número mínimo de operadores que sean miembros de un grupo de operadores sean controlados en el marco de la verificación del cumplimiento a que se refiere el apartado 3 del presente artículo.	d) Bermatu behar da operadore-taldeko kideak diren operadoreen gutxieneko kopuru bat kontrolatuta dagoela artikuluko honen 3. apartatuan zehaztutako ez-betetzearen egiaztapenaren esparruan.
5.	5.
La entrega o la renovación del certificado a que se refiere el artículo 35 apartado 1, deberá basarse en los resultados de la verificación de la conformidad a que se refieren los apartados de 1 a 4 del presente artículo.	Erregelamendu honen 35.1 artikuluan zehaztutako ziurtagiria emateko edo berritzeko, kontuan hartu beharko dira artikuluko honen 1. apartatutik 4. apartatura bitartean aipatutako adostasunaren egiaztapenaren emaitzak.
6.	6.
El registro escrito que debe elaborarse sobre cada uno de los controles oficiales efectuados para verificar el cumplimiento del presente Reglamento,	(EB) 2017/625 Erregelamenduaren 13.1 artikulua arabera erregelamendu hau betetzen den egiaztatze kontrol ofizialetako

de conformidad con el artículo 13, apartado 1, del Reglamento (UE) 2017/625 será refrendado por el operador o grupo de operadores confirmando así la recepción de dicho registro escrito.	bakoitzari buruz egin behar den idatzizko erregistroa operadoreak edo operadore-taldeak berretsiko du, eta, horrela, idatzizko erregistroa jaso dutela baieztatuko dute.
7.	7.
El artículo 13, apartado 1, del Reglamento (UE) 2017/625 no se aplicará a las auditorías e inspecciones llevadas a cabo por las autoridades competentes en el contexto de sus actividades de supervisión de los organismos de control en los que se hayan delegado determinadas tareas de control oficial o determinadas tareas relacionadas con otras actividades oficiales.	(EB) 2017/625 Erregelamenduaren 13.1 artikulua ez zaie aplikatuko agintaritzza eskudunek kontrol-organismoiei eskuordetu dizkieten kontrol ofizialeko zeregin jakin batzuk edo beste jarduera ofizial batzuekin zerikusia duten beste zeregin jakin batzuk gainbegiratzeko jardueren testuinguruan agintaritzza eskudunek egiten dituzten auditoriei eta ikuskapenei.
8.	8.
La Comisión estará facultada para adoptar actos delegados con arreglo al artículo 54:	Batzordeak ahalmena edukiko du 54. artikulua araberako egintza eskuordetuak onartzeko, xede hauek lortzeko:
a) que completen el presente Reglamento estableciendo criterios y condiciones específicos para la realización de los controles oficiales realizados para garantizar la trazabilidad en todas las etapas de producción, preparación y distribución, así como el cumplimiento del presente Reglamento, por lo que se refiere a:	a) erregelamendu hau osa dezaten, kontrol ofizialeko berariazko irizpideak eta baldintzak ezarriz haien bidez bermatze aldera ekoizpen-, prestaketa- eta banaketa-etapa guztietako trazabilitatea egiten dela eta erregelamendu hau betetzen dela, alderdi hauei dagokienez:
i) controles de contabilidad documentada;	i) kontabilitate dokumentatuaren kontrolak;
ii) controles realizados a categorías específicas de operadores;	ii) operadore-kategoria zehatzei egindako kontrolak;
iii) cuando proceda, los plazos en que se han de realizar los controles previstos en el presente Reglamento, incluida la inspección física in situ a que se refiere el apartado 3 del presente artículo, y los locales o zonas concretos en que se han de realizar;	iii) bidezkoa denean, erregelamendu honetan xedatutako kontrolak —artikulu honen 3. apartatuan zehaztutako bertan egindako ikuskapen fisikoa barne— egiteko epeak, baita kontrol horiek egin behar diren leku edo zona zehatzak ere;
b) que modifiquen el apartado 2 del presente artículo añadiendo nuevos elementos sobre la base de la experiencia práctica o modificando dichos nuevos elementos.	b) artikulu honen 2. apartatua alda dezaten, esperientzia praktikoa oinarrituta elementu berriak gehituz edo elementu berri horiek aldatuz.
9.	9.
La Comisión podrá adoptar actos de ejecución para especificar:	Batzordeak alderdi hauek zehazteko betearazpen-egintzak onartu ahalko ditu:
a) el porcentaje mínimo de todos los controles oficiales de los operadores o grupos de operadores que hayan de llevarse a cabo sin notificación previa a que se refiere el apartado 4, letra a);	a) operadoreei edo operadore-taldee aurretiazko jakinarazpenik gabe egin behar zaizkien kontrol ofizial guztien gutxieneko ehunekoa, 4. apartatuko a) letran aipatutakoa;
b) el porcentaje mínimo de controles adicionales a que se refiere el apartado 4, letra b);	b) kontrol gehigarrien gutxieneko ehunekoa, 4. apartatuko b) letran aipatutakoa;
c) la cantidad mínima de muestras a que se refiere el apartado 4, letra c);	c) laginen gutxieneko kopurua, 4. apartatuko c) letran aipatutakoa;
d) el número mínimo de operadores que sean miembros de un grupo de operadores a que se refiere el apartado 4, letra d).	d) operadore-talde bateko kide diren operadoreen gutxieneko kopurua, 4. apartatuko d) letran aipatutakoa.

Dichos actos de ejecución se adoptarán de conformidad con el procedimiento de examen a que se refiere el artículo 55, apartado 2.	Betearazpen-egintza horiek 55.2 artikuluan zehaztutako azterketa-prozedurari jarraituz onartuko dira.
Artículo 39	39. artikulua
Normas adicionales sobre las acciones que deben adoptar los operadores y grupos de operadores	Operadoreek eta operadore-taldeek egin behar dituzten ekintzei buruzko arau gehigarriak
1.	1.
Además de las obligaciones establecidas en el artículo 15 del Reglamento (UE) 2017/625, los operadores y grupos de operadores:	(EB) 2017/625 Erregelamenduaren 15. artikuluan ezarritako betebeharez gain, operadoreek eta operadore-taldeek betebehaz hauek beteko dituzte:
a) mantendrán un registro que demuestre el cumplimiento del presente Reglamento;	a) Erregelamendu hau betetzen dutela frogatzen duen erregistro bat edukiko dute.
b) harán todas las declaraciones y otras comunicaciones que sean necesarias para los controles oficiales;	b) Kontrol ofizialetarako beharrezkoak diren adierazpen guztiak eta bestelako komunikazioak egingo dituzte.
c) adoptarán las correspondientes medidas prácticas para garantizar el cumplimiento del presente Reglamento;	c) Erregelamendu hau betetzen dutela bermatzeko egokiak diren neurri praktikoak hartuko dituzte.
d) proporcionarán, en forma de declaración que se firmaría y actualizaría cuando fuese necesario:	d) Datu hauek emango dituzte, beharrezkoa izanez gero sinatu eta eguneratuko litzatekeen adierazpen batean:
i) una descripción completa de las unidades de producción ecológica o en conversión y de las actividades que se llevarán a cabo de conformidad con el presente Reglamento;	i) deskribapen oso bat, ekoizpen ekologikoko edo bihurtze-aldiko ekoizpeneko unitateena eta erregelamendu honen arabera egingo diren jarduerena;
ii) las correspondientes medidas prácticas para garantizar el cumplimiento del presente Reglamento;	ii) erregelamendu hau betetzen dutela bermatzeko egokiak diren neurri praktikoak;
iii) el compromiso de:	iii) jarduketa hauek egiteko konpromisoa:
d) en el caso de los organismos de control, estar acreditados a efectos de su reconocimiento, de conformidad con el presente Reglamento, por un solo organismo de acreditación con arreglo a la norma armonizada pertinente de «Evaluación de la conformidad — Requisitos para organismos que certifican productos, procesos y servicios», cuya referencia se ha publicado en el Diario Oficial de la Unión Europea;	d) Kontrol-organismoak badira, erregelamendu honen arabera, egiaztapen-organismo bakarrak aintzatetsita daude, «Adostasuna ebaluatzea — Produktuak, prozesuak eta zerbitzuak ziurtatzen dituzten organismoentzako betekizunak» izeneko arau harmonizatu aplikagarriaren arabera, zeinaren erreferentzia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu den.
e) tener la experiencia y los conocimientos, los equipos y la infraestructura necesarios para llevar a cabo las tareas de control, y disponer de personal cualificado y con experiencia en número suficiente;	e) Kontrol-zereginak egiteko beharrezkoak diren esperientzia eta ezagutzak, ekipamenduak eta azpiegitura dauzkate, eta langile kualifikatu eta esperientziadun nahikoak dauzkate.
f) tener la capacidad y la competencia necesarias para llevar a cabo sus actividades de certificación y control de conformidad con los requisitos del presente Reglamento y, en particular, del Reglamento Delegado (UE) 2021/1698 de la Comisión (25), en lo que respecta a cada tipo de operador (operador único o grupo de operadores) en cada tercer país y a cada categoría de productos para los que buscan el reconocimiento;	f) Beharrezkoak diren gaitasuna eta ahalmena dauzkate beren ziurtapen- eta kontrol-jarduerak erregelamendu honetako betekizunekin eta, bereziki, Batzordearen (EB) 2021/1698 Erregelamendu Eskuordetuarekin (25) bat etorritz egiteko, operadore mota bakoitzari (operadore bakarra edo operadore-taldea), hirugarren herrialde bakoitzari eta aintzatespena eman nahi zaien produktu-kategoria bakoitzari dagokienez.
g) disponer de procedimientos y mecanismos que garanticen la imparcialidad, la calidad, la coherencia, la eficacia y la idoneidad de los controles y otras acciones que lleven a cabo;	g) Prozedura eta mekanismo egokiak dauzkate kontrolen eta egiten diren bestelako ekintzen inpartzialtasuna, kalitatea, koherentzia, eraginkortasuna eta egokitasuna bermatzeko.
h) contar con el suficiente personal cualificado y experimentado para que los controles y otras acciones puedan llevarse a cabo con eficacia y en los plazos previstos;	h) Langile kualifikatu eta esperientziadun nahikoak dauzkate kontrolak eta bestelako ekintzak eraginkortasunez eta aurreikusitako epeetan egin ahal izateko.
i) disponer de instalaciones y equipos adecuados y en el debido estado de mantenimiento para garantizar que el personal pueda llevar a cabo los controles y otras acciones con eficacia y en los plazos previstos;	i) Instalazio eta ekipamendu egokiak dauzkate, mantentze-egoera onean, bermatzeko langileek kontrolak eta bestelako ekintzak eraginkortasunez eta aurreikusitako epeetan egin dezaketela.
j) disponer de procedimientos que garanticen el acceso de su personal a los locales y a la documentación de los operadores para que aquel pueda cumplir su cometido;	j) Prozedura egokiak dauzkate bermatzeko langileek operadoreen lokaletarako eta dokumentaziorako sarbidea daukatela langileek beren egitekoa bete ahal izan dezaten.
k) poseer competencias, sistemas de formación y procedimientos internos adecuados para llevar a cabo controles efectivos, consistentes incluso en inspecciones, de los operadores y el sistema de control interno de un grupo de operadores, en su caso;	k) Konpetentzia, prestakuntza-sistema eta barne-prozedura egokiak dauzkate kontrol eraginkorrak egiteko —ikuskapenak barne— bai operadoreei, bai operadore-talde baten barne-kontrolako sistemari, halakorik bada.
l) no habérseles retirado, con arreglo al apartado 2 bis, su reconocimiento anterior para un tercer país específico o para una categoría de productos, o no	l) Ez diete kendu hirugarren herrialde jakin baterako edo produktu-kategoria baterako lehenagoko aintzatespena, 2 bis apartatuaren arabera, edo

habérseles retirado o suspendido su acreditación por un organismo de acreditación con arreglo a los procedimientos de suspensión o retirada de este, establecidos con arreglo a la norma internacional pertinente, en particular la norma 17011 de la Organización Internacional de Normalización (ISO) — Evaluación de la conformidad — Requisitos generales para los organismos de acreditación que realizan la acreditación de organismos de evaluación de la conformidad, durante los veinticuatro meses anteriores a:	egiaztapen-organismo batek ez die egiaztapena kendu edo geldieran jarri nazioarteko arau aplikagarrian geldieran jartzeko edo kentzeko ezarritako prozeduren arabera, bereziki Estandarizaziorako Nazioarteko Erakundearen (ISO) 17011 arauak («Adostasuna ebaluatzea — Adostasuna ebaluatzeko organismoak egiaztatzen dituzten egiaztapen-organismoentzako betekizun orokorrak») ezarritakoaren arabera, eskaera hauek aurkeztu aurretiko hogeita lau hilabeteetan:
i) su solicitud de reconocimiento para el mismo tercer país y/o para la misma categoría de productos, excepto cuando el reconocimiento anterior se haya retirado de conformidad con el apartado 2 bis, letra k),	i) hirugarren herrialde bererako edo produktu-kategoria bererako aintzatespen-eskaera, salbu eta aurreko aintzatespena kendu bada 2 bis apartatuko k) letraren arabera;
ii) su solicitud de ampliación del ámbito de reconocimiento a un tercer país adicional, de conformidad con el artículo 2 del Reglamento Delegado (UE) 2021/1698, excepto cuando el reconocimiento anterior se haya retirado de conformidad con el apartado 2 bis, letra k), del presente artículo,	ii) aintzatespen-eremua beste hirugarren herrialde batera hedatzeko eskaera, (EB) 2021/1698 Erregelamendu Eskuordetuaren 2. artikulua arabera, salbu eta aurreko aintzatespena kendu bada artikulua honen 2 bis apartatuaren k) letraren arabera;
iii) su solicitud de ampliación del ámbito de reconocimiento a una categoría adicional de productos, de conformidad con el artículo 2 del Reglamento Delegado (UE) 2021/1698;	iii) aintzatespen-eremua beste produktu-kategoria batera hedatzeko eskaera, (EB) 2021/1698 Erregelamendu Eskuordetuaren 2. artikulua arabera.
m) en el caso de las autoridades de control, ser organizaciones administrativas públicas del tercer país para el que solicitan el reconocimiento;	m) Kontrol-agintaritzen kasuan, aintzatespena eskatzen duten hirugarren herrialdeko administrazio-erakunde publikoak izan behar dute.
n) cumplir los requisitos procedimentales establecidos en el capítulo I del Reglamento Delegado (UE) 2021/1698, y	n) (EB) 2021/1698 Erregelamendu Eskuordetuaren I. kapituluaren ezarritako prozedura-betekizunak betetzen dituzte.
o) cumplir cualesquiera criterios adicionales que puedan establecerse en un acto delegado adoptado de conformidad con el apartado 7.	o) 7. apartatuaren arabera onartutako egintza eskuordetu batean ezartzen den irizpide gehigarri oro betetzen dute.
2 bis	2 bis
La Comisión podrá retirar a toda autoridad u organismo de control el reconocimiento para un tercer país específico o una categoría de productos si:	Batzordeak hirugarren herrialde jakin baterako edo produktu-kategoria baterako aintzatespena kendu ahalko dio kontrol-agintaritzari edo-organismo bati, egoera hauetakoren bat jazotzen bada:
a) deja de cumplirse alguno de los criterios de reconocimiento establecidos en el apartado 2;	a) 2. apartatuan ezarritako aintzatespen-irizpideetako bat betetzeaz utzi zaio.
b) la Comisión no ha recibido el informe anual a que se refiere el artículo 4 del Reglamento Delegado (UE) 2021/XXX en el plazo especificado en dicho artículo, o la información incluida en el informe anual es incompleta, inexacta o no cumple los requisitos establecidos en dicho Reglamento;	b) Batzordeak ez du jaso (EB) 2021/XXX Erregelamendu Eskuordetuaren 4. artikuluan adierazitako urteroko txostena, artikulua horretan zehaztutako epean; edo urteroko txostenean jasotako informazioa ez da osoa eta zehatza, edo ez ditu betetzen erregelamendu horretan ezarritako betekizunak.
c) la autoridad u organismo de control no facilita o no comunica toda la información relativa al expediente técnico a que se refiere el apartado 4, al sistema de control que aplica, a la lista	c) Kontrol-agintaritzak edo -organismoak ez du informazio guztia ematen edo komunikatzen 4. apartatuan zehaztutako espediente teknikoari buruz, aplikatzen duen kontrol-sistemari buruz,

actualizada de operadores o grupos de operadores o a los productos ecológicos incluidos en su ámbito de reconocimiento;	operadoreen edo operadore-taldeen zerrenda eguneratuari buruz edo bere aintzatespen-eremuko produktu ekologikoei buruz.
d) la autoridad u organismo de control no notifica a la Comisión en un plazo de treinta días naturales los cambios en el expediente técnico a que se refiere el apartado 4;	d) Kontrol-agintaritzak edo -organismoak ez dizkio Batzordeari komunikatzen 4. apartatuan adierazitako espediente teknikoan egindako aldaketak, beharrezko hogeita hamar egun naturaleko epean.
e) la autoridad u organismo de control no facilita la información solicitada por la Comisión o por un Estado miembro en el plazo fijado, o si esta información es incompleta, inexacta o no cumple los requisitos establecidos en el presente Reglamento, en el Reglamento Delegado (UE) 2021/XXX y en un acto de ejecución que se adopte de conformidad con el apartado 8, o no coopera con la Comisión, en particular durante la investigación de un incumplimiento;	e) Kontrol-agintaritzak edo -organismoak ez du dagokion epean ematen Batzordeak edo estatu kide batek eskatutako informazioa; edo informazio hori ez da osoa eta zehatza, edo ez ditu betetzen erregelamendu honetan, (EB) 2021/XXX Erregelamendu Eskuordetuan eta 8. apartatuarekin bat etorritik ematen den betearazpen-egintza batean ezarritako betekizunak; edo kontrol-agintaritzak edo -organismoak ez dihardu elkarlanean Batzordearekin, bereziki ez-betetze baten ikerketan.
f) la autoridad u organismo de control no accede a un examen o auditoría sobre el terreno a iniciativa de la Comisión;	f) Kontrol-agintaritzak- edo -organismoak ez du onartzen Batzordearen ekimenez tokian bertan azterketa edo auditoria bat egiterik.
g) el resultado del examen o la auditoría sobre el terreno indica un mal funcionamiento sistemático de las medidas de control, o la autoridad u organismo de control no es capaz de aplicar en su propuesta de plan de acción presentada a la Comisión todas las recomendaciones formuladas por esta tras el examen sobre el terreno o la auditoría;	g) Tokian bertan egindako azterketaren edo auditoriaren emaitzak adierazten du kontrol-neurrien funtzionamendu txarra sistematikoa dela; edo kontrol-agintaritza edo -organismoa, Batzordeari aurkeztutako ekintza-planaren proposamenean, ez da gai izan tokian bertan egindako azterketaren edo auditoriaren ostean Batzordeak emandako gomendio guztiak aplikatzeko.
h) la autoridad u organismo de control no adopta las medidas correctoras adecuadas en respuesta a los incumplimientos e infracciones observados dentro de un plazo fijado por la Comisión en función de la gravedad de la situación, que no podrá ser inferior a treinta días naturales;	h) Kontrol-agintaritzak edo -organismoak ez ditu hartzen ikusitako ez-betetzei eta arau-hausteei erantzuteko neurri zuzentzaile egokiak, Batzordeak egoeraren larritasunaren arabera emandako epean, zeina ezin baita izan hogeita hamar egun natural baino laburragoa.
i) en caso de que un operador cambie de autoridad u organismo de control, la autoridad u organismo de control no comunica a la nueva autoridad u organismo de control los elementos pertinentes del expediente de control del operador, incluidos los registros escritos, en un plazo máximo de treinta días naturales a partir de la recepción de la solicitud de transferencia del operador o de la nueva autoridad u organismo de control;	i) Operadore batek kontrol-agintaritza edo -organismoa aldatuz gero, kontrol-agintaritzak edo -organismoak ez dizkio kontrol-agintaritza edo -organismo berriari komunikatzen operadorearen kontrol-espedientearen bidezko elementuak — idatzizko erregistroak barne— gehienez hogeita hamar egun naturaleko epean, operadorearen edo kontrol-agintaritza edo -organismo berriaren transferentzia-eskaera jasotzen denetik zenbatuta.
j) existe el riesgo de que el consumidor se vea inducido a error sobre la verdadera naturaleza de los productos cubiertos por el reconocimiento, o si	j) Arriskua dago kontsumitzaileari okerreko ustea eragiteko, aintzatespenak barne hartutako produktuen benetako izaerari buruz.
k) la autoridad u organismo de control no ha certificado a ningún operador durante cuarenta y ocho meses consecutivos en el tercer país para el que está reconocido.	k) Kontrol-agintaritzak edo -organismoak elkarren segidako berrogeita zortzi hilabetetan ez du operadorerik ziurtatu hura aintzatetsita dagoen hirugarren herrialdean.
3.	3.

La acreditación a que se refiere el apartado 2, letra d), solo podrá ser concedida por:	Artikulu honen 2. apartatuko d) letran zehaztutako egiaztapena hauetako batek bakarrik eman ahalko du:
a) un organismo nacional de acreditación de la Unión de conformidad con el Reglamento (CE) n.o 765/2008; o	a) Batasuneko egiaztapen-organismo nazional batek, (EE) 765/2008 Erregelamenduarekin bat etorri; edo
b) un organismo de acreditación no perteneciente a la Unión que sea signatario de un acuerdo de reconocimiento multilateral auspiciado por el Foro Internacional de Acreditación.	b) Batasunekoa ez den baina Nazioarteko Egiaztapen Foroak babestutako aintzatespen-akordio multilateral bat sinatu duen egiaztapen-organismo batek.
4.	4.
Las autoridades de control y los organismos de control presentarán a la Comisión una solicitud de reconocimiento. Dicha solicitud consistirá en un expediente técnico que contenga toda la información necesaria para garantizar que se cumplen los criterios establecidos en el apartado 2.	Kontrol-agintaritzek eta kontrol-organismoek aintzatespen-eskaera bat aurkeztuko diote Batzordeari. Eskaera hori espediente tekniko bat izango da, 2. apartatuan ezarritako irizpideak bermatzen direla bermatzeko beharrezkoa den informazio guztia jasotzen duena.
Las autoridades de control presentarán el último informe de evaluación elaborado por la autoridad competente, y los organismos de control presentarán el certificado de acreditación expedido por el organismo de acreditación. En su caso, las autoridades de control o los organismos de control presentarán también los últimos informes relativos a la evaluación periódica in situ, la vigilancia y la reevaluación plurianual de sus actividades.	Kontrol-agintaritzek agintaritza eskudunak egindako azken ebaluazio-txostena aurkeztuko dute, eta kontrol-organismoek egiaztapen-organismoak emandako egiaztapen-ziurtagiria aurkeztuko dute. Hala badagokio, kontrol-agintaritzek edo kontrol-organismoek lekuan bertan egindako aldizkako ebaluazioari, zaintzari eta beren jardueren urte anitzeko berrebaluazioari buruzko azken txostenak ere aurkeztuko dituzte.
5.	5.
Sobre la base de la información mencionada en el apartado 4 y de cualquier otra información pertinente relacionada con la autoridad de control u organismo de control, la Comisión velará por la oportuna supervisión de las autoridades de control y de los organismos de control reconocidos, revisando periódicamente su actuación y reconocimiento. A los efectos de esa supervisión, la Comisión podrá solicitar información adicional a los organismos de acreditación o, en su caso, a las autoridades competentes.	Artikulu honen 4. apartatuan aipatutako informazioa eta kontrol-agintaritzarekin edo kontrol-organismoarekin zerikusia duen bidezko beste edozein informazio oinarri hartuta, Batzordeak ziurtatuko du aintzatetsitako kontrol-agintaritzak eta kontrol-organismoak egokiro gainbegiratuta daudela, eta aldizka berrikusiko ditu haien jarduketa eta aintzatespena. Gainbegiratze horren ondorioetarako, Batzordeak informazio gehigarria eskatu ahalko die egiaztapen-organismoiei edo, hala badagokio, agintaritza eskudunei.
6.	6.
La naturaleza de la supervisión mencionada en el apartado 5 se determinará sobre la base de una evaluación de la probabilidad de incumplimiento teniendo en cuenta en particular la actividad de la autoridad de control u organismo de control, el tipo de productos y operadores bajo su control y los cambios que se produzcan en las normas de producción y las medidas de control.	Artikulu honen 5. apartatuan aipatutako gainbegiratzearen izaera zehazteko, ez-betetze probabilitatearen ebaluazioa hartuko da oinarri, bereziki kontuan izanik kontrol-agintaritzaren edo kontrol-organismoaren jarduera, haren kontrolpean dauden produktu- eta operadore mota eta ekoizpen-arauetan eta kontrol-neurrietan egiten diren aldaketak.
El reconocimiento de las autoridades de control o de los organismos de control previsto en el apartado 1 será retirado sin demora, de conformidad con el procedimiento a que se refiere dicho apartado, en particular cuando se hayan observado infracciones graves o repetidas en lo que respecta a la certificación o los controles y las	Kontrol-agintaritzetarako eta kontrol-organismoetarako 1. apartatuan xedatutako aintzatespena atzerapenik gabe kenduko da, apartatu horretan zehaztutako prozeduraren arabera, bereziki arau-hauste larriak edo errepikatuak ikusi direnean ziurtapenari edo 8. apartatuaren arabera ezarritako kontrolei eta

medidas establecidas de conformidad con el apartado 8 y cuando la autoridad de control u organismo de control de que se trate no haya adoptado las medidas correctoras adecuadas y oportunas como respuesta a una solicitud de la Comisión en un plazo que la Comisión fijará. Dicho plazo se determinará en función de la gravedad del problema y como norma general no podrá ser inferior a 30 días.	neurriei dagokienez, eta kasuan kasuko kontrol-agintaritzak edo kontrol-organismoak ez dituenean hartu Batzordearen eskaera bati erantzuteko egokiak eta bidezkoak diren neurri zuzentzaileak Batzordeak ezarritako epean. Epe hori arazoaren larritasunaren arabera zehaztuko da, eta, eskuarki, ezingo da izan 30 egun baino laburragoa.
7.	7.
La Comisión estará facultada para adoptar actos delegados con arreglo al artículo 54:	Batzordeak ahalmena edukiko du 54. artikulua araberako egintza eskuordetuak onartzeko, xede hauek lortzeko:
a) que modifiquen el apartado 2 del presente artículo, añadiendo criterios adicionales a los establecidos en dicho apartado para el reconocimiento de las autoridades de control y de los organismos de control a que se refiere el apartado 1 del presente artículo y para la retirada de dicho reconocimiento, o que modifiquen dichos criterios adicionales;	a) Artikulu honen 2. apartatua aldatzea, apartatu horretan ezarritako irizpideei beste irizpide batzuk gehituz artikulu honen 1. apartatuan zehaztutako kontrol-agintaritzak edo kontrol-organismoak aintzatesteko eta aintzatespen hori kentzeko; edo irizpide gehigarri horiek aldatzea.
b) que completen el presente Reglamento por lo que respecta;	b) Erregelamendu hau osatzea eremu hauetan:
i) al ejercicio de la supervisión de las autoridades de control y de los organismos de control reconocidos por la Comisión de conformidad con el apartado 1, también mediante inspecciones in situ, y	i) Batzordeak 1. apartatuaren arabera aintzatsitako kontrol-agintaritzaren eta kontrol-organismoen gainbegiratze-lana —lekuan bertan egindako ikuskapenak ere eginez—, eta
ii) a los controles y otras acciones que han de realizar esas autoridades de control y organismos de control.	ii) kontrol-agintaritza eta kontrol-organismo horiek egin behar dituzten kontrolak eta bestelako ekintzak.
8.	8.
La Comisión podrá adoptar actos de ejecución para garantizar la aplicación de las medidas adoptadas en casos de incumplimiento supuesto o demostrado, en particular aquellos que afecten a la integridad de los productos ecológicos o en conversión importados al amparo del reconocimiento previsto en el presente artículo. Dichas medidas podrán consistir, en particular, en la verificación de la integridad de los productos ecológicos o en conversión antes de su comercialización en la Unión y, en su caso, en la suspensión de la autorización de comercialización de dichos productos en la Unión como ecológicos o en conversión.	Batzordeak betearazpen-egintzak onartu ahalko ditu ustezko edo frogatutako ez-betetzeen kasuetan hartutako neurriak aplikatzen direla bermatzeko, bereziki ez-betetzeek artikulu honetan xedatutako aintzatespenaren babesean inportatutako produktu ekologikoen edo bihurtze-aldiko produktuen osotasunari eragiten diotenean. Neurri horiek, bereziki, honako hauek izan ahalko dira: produktu ekologikoen edo bihurtze-aldiko produktuen osotasuna egiaztatzea Batasunean merkaturatu baino lehen eta, hala badagokio, produktu horiek Batasunean produktu ekologiko gisa edo bihurtze-aldiko produktu gisa merkaturatzeko baimena geldieran uztea.
Dichos actos de ejecución se adoptarán de conformidad con el procedimiento de examen a que se refiere el artículo 55, apartado 2.	Betearazpen-egintza horiek 55.2 artikuluan zehaztutako azterketa-prozedurari jarraituz onartuko dira.
9.	9.
Por razones imperiosas de urgencia debidamente justificadas relacionadas con prácticas desleales o prácticas incompatibles con los principios y normas de la producción ecológica, el mantenimiento de la	Premia biziko arrazoiak direla eta (behar bezala justifikatuta eta praktika desleialak direla-eta edo ekoizpen ekologikoaren printzipioekin eta arauekin bateraezinak diren praktikak, kontsumitzaileen

confianza de los consumidores o la protección de la competencia leal entre los operadores, la Comisión adoptará actos de ejecución inmediatamente aplicables, de conformidad con el procedimiento a que se refiere el artículo 55, apartado 3, para tomar las medidas mencionadas en el apartado 8 del presente artículo o decidir sobre la retirada del reconocimiento de las autoridades de control y de los organismos de control con arreglo al apartado 1 del presente artículo.	konfiantza mantentzea edo operadoreen arteko lehia leiala babestea dela-eta), berehala aplikagarriak izango diren betearazpen-egintzak onartuko ditu Batzordeak, 55.3 artikuluan zehaztutako prozedurarekin bat etorritik, artikulua honen 8. apartatuan aipatutako neurriak hartzeko edo artikulua honen 1. apartatuaren arabera kontrol-agintaritzei eta kontrol-organismoek emandako aintzatespena kentzeari buruzko erabakiak hartzeko.
Artículo 47	47. artikulua
Equivalencia en el marco de un acuerdo comercial	Baliokidetasuna, merkataritza-akordio baten esparruan
Un tercer país reconocido a efectos del artículo 45, apartado 1, letra b), inciso ii), es un tercer país respecto al cual la Unión ha reconocido, en el marco de un acuerdo comercial, que dicho país posee un sistema de producción que se ajusta a los mismos objetivos y principios mediante la aplicación de normas que garantizan el mismo nivel de aseguramiento de la conformidad que las de la Unión.	Hauxe da 45.1 artikulua b) letraren ii) tartekiko ondorioetarako aintzatetsitako hirugarren herrialde bat: hirugarren herrialde bat, zeinari dagokionez Batasunak aintzatetsi baitu, merkataritza-akordio baten esparruan, herrialde horrek badaukala ekoizpen-sistema bat, Batasunaren helburu eta printzipio berberekin bat datorrena adostasunaren ziurtapen-maila bera bermatzen duten arauak aplikatuz.
Artículo 48	48. artikulua
Equivalencia con arreglo al Reglamento (CE) n.º 834/2007	Baliokidetasuna, (EE) 834/2007 Erregelamenduaren arabera
1.	1.
Un tercer país reconocido a efectos del artículo 45, apartado 1, letra b), inciso iii), es un tercer país que ha sido reconocido a efectos de equivalencia de conformidad con el artículo 33, apartado 2, del Reglamento (CE) n.º 834/2007, incluidos los terceros países reconocidos en virtud de la medida transitoria establecida en el artículo 58 del presente Reglamento.	Hauxe da 45.1.b) artikuluko iii) tartekiaren ondorioetarako aintzatetsitako hirugarren herrialde bat: hirugarren herrialde bat, (EE) 834/2007 Erregelamenduaren 33.2. artikulua arabera baliokidetasun-ondorioetarako aintzatetsia izan dena, barnean hartuta erregelamendu honen 58. artikuluan ezarritako neurri iragankorren arabera aintzatetsitako hirugarren herrialdeak.
El reconocimiento expirará el 31 de diciembre de 2026.	Aintzatespena 2026ko abenduaren 31n iraungiko da.
2.	2.
Sobre la base de los informes anuales que los terceros países mencionados en el apartado 1 deberán enviar anualmente a la Comisión, a más tardar el 31 de marzo, con respecto a la aplicación y observancia de las medidas de control que hayan establecido y a la luz de cualquier otra información recibida, la Comisión velará por la oportuna supervisión de los terceros países reconocidos, revisando periódicamente su reconocimiento. A tal efecto, la Comisión podrá solicitar la ayuda de los Estados miembros. La naturaleza de la supervisión se determinará sobre la base de una evaluación de la probabilidad de incumplimiento teniendo en cuenta en particular el volumen de exportaciones a la Unión procedentes del tercer país, los resultados de las actividades de seguimiento y supervisión realizadas por la autoridad competente y los	Oinarritzat hartuta 1. apartatuan aipatutako hirugarren herrialdeek ezarritako kontrol-neurriak aplikatzeari eta betetzeari buruz Batzordeari urtero (martxoaren 31n beranduenez) bidali beharko dizkioten txostenak, eta jasotako beste edozein informazio ikusita, Batzordeak zainduko du aintzatetsitako hirugarren herrialdeak egokiro gainbegiratura daudela, eta aldizka berrikusiko du haien aintzatespena. Horretarako, Batzordeak estatu kideen laguntza eskatu ahalko du. Gainbegiratzearen izaera zehazteko oinarria ez-betetzeen probabilitatea ebaluatzea izango da, bereziki kontuan izanik hirugarren herrialdetik Batasunera egindako esportazioen bolumena, agintaritza eskudunak egindako jarraipen- eta gainbegiratze-jardueren emaitzak eta aurreko kontrolen emaitzak. Batzordeak bere berrikuspenen

resultados de los controles anteriores. La Comisión informará al Parlamento Europeo y al Consejo periódicamente de los resultados de sus revisiones.	emaitzen berri emango die aldizka Europako Parlamentuari eta Kontseiluari.
3.	3.
La Comisión establecerá mediante un acto de ejecución una lista de los terceros países mencionados en el apartado 1 y podrá modificarla por medio de actos de ejecución.	Batzordeak, betearazpen-egintza baten bidez, 1. apartatuan aipatutako hirugarren herrialdeen zerrenda bat ezarriko du eta betearazpen-egintzen bitartez aldatu ahalko du.
Dichos actos de ejecución se adoptarán de conformidad con el procedimiento de examen a que se refiere el artículo 55, apartado 2.	Betearazpen-egintza horiek 55.2 artikuluan zehaztutako azterketa-prozedurari jarraituz onartuko dira.
4.	4.
La Comisión estará facultada para adoptar actos delegados con arreglo al artículo 54 que completen el presente Reglamento en lo que se refiere a la información que deberán enviar los terceros países enumerados con arreglo a lo dispuesto en el apartado 3 del presente artículo que sea necesaria para la supervisión de su reconocimiento por parte de la Comisión, así como al ejercicio de la supervisión por parte de la Comisión, en particular a través de un examen in situ.	Batzordeak ahalmena edukiko du 54. artikulua araberako egintza eskuordetuak onartzeko, haien bidez erregelamendu hau osatze aldera, bai artikulua honen 3. apartatuan xedatutakoaren arabera zerrendatutako hirugarren herrialdeek bidali beharreko informazioari dagokionez (Batzordeak haien aintzatespena gainbegiratzeko informazio hori beharrezkoa duen heinean), bai Batzordearen gainbegiratzeko-jarduerari dagokionez (lekuan bertan egindako azterketa baten bidez bereziki).
5.	5.
La Comisión podrá adoptar actos de ejecución para garantizar la aplicación de medidas cuando se detecten casos de incumplimiento supuesto o demostrado, en particular aquellos que afecten a la integridad de los productos ecológicos o en conversión importados de terceros países a que se refiere el presente artículo. Dichas medidas podrán consistir, en particular, en la verificación de la integridad de los productos ecológicos o en conversión antes de su comercialización en la Unión y, en su caso, en la suspensión de la autorización de comercialización de dichos productos en la Unión como ecológicos o en conversión.	Batzordeak betearazpen-egintzak onartu ahalko ditu ustezko edo frogatutako ez-betetzeen kasuak detektatzen direnean neurriak aplikatzen direla bermatzeko, bereziki artikulua honetan zehaztutako hirugarren herrialdeetatik inportatutako produktu ekologikoen edo bihurtze-aldiko produktuen osotasunari eragiten diotenean. Neurri horiek, bereziki, honako hauek izan ahalko dira: produktu ekologikoen edo bihurtze-aldiko produktuen osotasuna egiaztatzea Batasunean merkaturatu baino lehen eta, hala badagokio, produktu horiek Batasunean produktu ekologiko gisa edo bihurtze-aldiko produktu gisa merkaturatzeko baimena geldieran uztea.
Dichos actos de ejecución se adoptarán de conformidad con el procedimiento de examen a que se refiere el artículo 55, apartado 2.	Betearazpen-egintza horiek 55.2 artikuluan zehaztutako azterketa-prozedurari jarraituz onartuko dira.
Artículo 49	49. artikulua
Informe de la Comisión sobre la aplicación de los artículos 47 y 48	Batzordearen txostena, 47. eta 48. artikuluen aplikazioari buruz
A más tardar el ►M3 31 de diciembre de 2022, la Comisión presentará un informe al Parlamento Europeo y al Consejo sobre la situación relativa a la aplicación de los artículos 47 y 48, en particular en lo que respecta al reconocimiento de terceros países a efectos de equivalencias.	Beranduenez ►M3 2022ko abenduaren 31n ◀, Batzordeak txosten bat aurkeztuko die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari; txosten horretan, 47. eta 48. artikuluen aplikazioaren egoera jorratuko da, bereziki baliokidetzako-ondorioetarako hirugarren herrialdeak aintzatesteari dagokionez.
CAPÍTULO VIII	VIII. KAPITULUA
DISPOSICIONES GENERALES	XEDAPEN OROKORRAK
SECCIÓN 1	1. ATALA

Libre circulación de productos ecológicos y en conversión	Produktu ekologikoen eta bihurtze-aldiko produktuen zirkulazio askea
Artículo 50	50. artikulua
No prohibición y no restricción de la comercialización de productos ecológicos y en conversión	Produktu ekologikoen eta bihurtze-aldiko produktuen merkaturatzea ez debekatzea eta ez mugatzea
Las autoridades competentes, las autoridades de control y los organismos de control no prohibirán ni restringirán, aduciendo razones relacionadas con la producción, el etiquetado o la presentación de los productos, la comercialización de productos ecológicos o en conversión sujetos al control de otra autoridad competente, autoridad de control u organismo de control situados en otro Estado miembro, si tales productos cumplen lo dispuesto en el presente Reglamento. En particular, no efectuarán controles oficiales ni otras actividades oficiales distintos de los previstos en el Reglamento (UE)2017/625 y no percibirán tasas por los controles oficiales y otras actividades oficiales distintos de los previstos en el capítulo VI de dicho Reglamento.	Agintaritzak eskudunek, kontrol-agintaritzek eta kontrol-organismoek ez dute debekurik edo murrizketarik ezarriko beste estatu kide batean kokatutako beste agintaritzak eskudun, kontrol-agintaritzak edo kontrol-organismo baten kontrolpean dauden produktu ekologikoak edo bihurtze-aldiko produktuak merkaturatzeko, argudiotzat hartuta produktuen ekoizpenarekin, etiketatuarekin edo aurkezpenarekin zerikusia duten arrazoiak; betiere produktu horiek erregelamendu honetan xedatutakoa betetzen badute. Zehazki, ez dute egingo (EB) 2017/625 Erregelamenduan xedatutakoez bestelako kontrol ofizialik edo jarduera ofizialik, eta ez dute tasarik jasoko erregelamendu horren VI. kapituluaren xedatutakoez bestelako kontrol ofizial eta jarduera ofizialengatik.
SECCIÓN 2	2. ATALA
Información, presentación de informes y correspondientes excepciones	Informazioa, txostenen aurkezpena eta dagozkien salbuespenak
Artículo 51	51. artikulua
Información sobre el sector de la producción ecológica y el comercio de productos ecológicos	Ekoizpen ekologikoaren sektoreari eta produktu ekologikoen merkataritzari buruzko informazioa
1.	1.
Los Estados miembros transmitirán a la Comisión todos los años la información necesaria para la ejecución y el seguimiento de la aplicación del presente Reglamento. En la medida de lo posible, dicha información estará basada en fuentes de datos acreditadas. La Comisión tendrá en cuenta las necesidades de datos y las sinergias entre las fuentes potenciales de datos, especialmente su utilización para fines estadísticos cuando corresponda.	Estatu kideek urtero helaraziko diote Batzordeari erregelamendu hau betearazteko eta aplikazioaren jarraipena egiteko beharrezkoa den informazioa. Ahal den neurrian, informazio hori egiaztatutako datu-iturrietan oinarrituta egongo da. Batzordeak kontuan izango ditu datu-beharrak eta datu-iturri potentzialen arteko sinergiak, bereziki xede estatistikoetarako erabilera, hala dagokionean.
2.	2.
La Comisión adoptará actos de ejecución relativos al sistema que deberá utilizarse para transmitir la información mencionada en el apartado 1, los pormenores de dicha información y la fecha en la que debe transmitirse.	Batzordeak betearazpen-egintzak onartuko ditu 1. apartatuan aipatutako informazioa helarazteko erabili beharko den sistemari buruz, informazioaren xehetasunei buruz eta informazioa helarazi behar den datari buruz.
Dichos actos de ejecución se adoptarán de conformidad con el procedimiento de examen a que se refiere el artículo 55, apartado 2.	Betearazpen-egintza horiek 55.2 artikuluan zehaztutako azterketa-prozedurari jarraituz onartuko dira.
Artículo 52	52. artikulua

Información sobre las autoridades competentes, las autoridades de control y los organismos de control	Agintaritze eskudunei, kontrol-agintaritzei eta kontrol-organismoei buruzko informazioa
1.	1.
Los Estados miembros mantendrán una lista, actualizada periódicamente de:	Estatu kideek alderdi hauei buruzko zerrenda bat edukiko dute eta aldizka eguneratuko dute:
a) nombres y direcciones de las autoridades competentes; y	a) agintaritze eskudunen izenak eta helbideak; eta
b) nombres, direcciones y códigos numéricos de las autoridades de control y de los organismos de control.	b) kontrol-agintaritzen eta kontrol-organismoen izenak, helbideak eta zenbaki-kodeak.
Los Estados miembros transmitirán dichas listas y cualquier cambio de las mismas a la Comisión y las harán públicas, excepto cuando esa transmisión y publicación se hayan efectuado ya en cumplimiento del artículo 4, apartado 4, del Reglamento (UE) 2017/625.	Estatu kideek zerrenda horiek eta zerrendetan egindako aldaketa oro helaraziko dizkiote Batzordeari, eta jendaurrean jarriko dituzte, salbu eta jada helarazi eta jendaurrean jarri dituztenean, (EB) 2017/625 Erregelamenduaren 4.4 artikulua betez.
2.	2.
Basándose en la información considerada en el apartado 1, la Comisión publicará periódicamente en Internet una lista actualizada de autoridades de control y organismos de control a que se refiere el apartado 1, letra b).	Artikulu honen 1. apartatuan aipatutako informazioa oinarri hartuta, Batzordeak aldizka argitaratuko du, Interneten, 1. apartatuaren b) letran zehaztutako kontrol-agintaritzen eta kontrol-organismoen zerrenda eguneratua.
Artículo 53	53. artikulua
Excepciones, autorizaciones y presentación de informes	Salbuespenak, baimenak eta txostenen aurkezpena
1.	1.
Las excepciones al uso de materiales de reproducción vegetal y de animales reproductores de producción ecológica, que figuran en los puntos 1.8.5 de la parte I del anexo II, y los puntos 1.3.4.3 y 1.3.4.4 de la parte II del anexo II, a excepción del punto 1.3.4.4.2 de la parte II del anexo II, terminarán el 31 de diciembre de 2036.	Ekoizpen ekologikoko landare-ugalketako materialen eta ugaltze-animaien erabilerarako albuespenak, zeinak jasota baitaude II. eranskinaren I. zatiko 1.8.5 puntuan eta II. eranskinaren II. zatiko 1.3.4.3 eta 1.3.4.4 puntuetan —kanpoan utzita II. eranskinaren II. zatiko 1.3.4.4.2 puntua—, 2036ko abenduaren 31n amaituko dira.
2.	2.
No obstante, a partir del 1 de enero de 2029, sobre la base de las conclusiones relativas a la disponibilidad de material de reproducción vegetal y de animales reproductores de producción ecológica y de piensos proteicos ecológicos para aves de corral y animales de la especie porcina que se presenten en el informe previsto en el apartado 7 del presente artículo, la Comisión estará facultada para adoptar actos delegados de conformidad con el artículo 54 que modifiquen el presente Reglamento:	Hala ere, 2029ko urtarrilaren 1etik aurrera, oinarritzat hartuta ekoizpen ekologikoko landare-ugalketako materialen eta ugaltze-animaien eskuragarritasunari eta eskortako hegaztientzako eta txerrientzako pentsu proteiko ekologikoen eskuragarritasunari buruzko ondorioak —artikulu honen 7. apartatuan xedatutako txostenean aurkeztuak—, Batzordeak ahalmena edukiko du 54. artikulua araberako egintza eskuordetuak onartzeko, haien bidez erregelamendu hau aldatze aldera xede hauetarako:
a) poniendo fin a las excepciones indicadas en el punto 1.8.5 de la parte I del anexo II y en los puntos 1.3.4.3 y 1.3.4.4 de la parte II del anexo II, a excepción del punto 1.3.4.4.2 de la parte II del	a) II. eranskinaren I. zatiko 1.8.5 puntuan eta II. eranskinaren II. zatiko 1.3.4.3 eta 1.3.4.4 puntuetan aipatutako albuespenei amaiera emateko —kanpoan utzita II. eranskinaren II. zatiko

anexo II, antes del 31 de diciembre de 2036 o prorrogándolas más allá de esa fecha, o	1.3.4.4.2 puntua—, 2036ko abenduaren 31 baino lehen, edo egun horretaz haraindi luzatzeko, edo
b) poniendo fin a la excepción indicada en el punto 1.3.4.4.2 de la parte II del anexo II.	b) II. eranskinaren II. zatiko 1.3.4.4.2 puntuan aipatutako salbuespenari amaiera emateko.
3.	3.
A partir del 1 de enero de 2027, la Comisión estará facultada para adoptar actos delegados con arreglo al artículo 54 que modifiquen el artículo 26, apartado 2, letra b), para ampliar el ámbito de aplicación del sistema de información a que se refiere el artículo 26, apartado 2, a las pollitas, y el punto 1.3.4.3 de la parte II del anexo II, para basar las excepciones relativas a las pollitas en los datos recogidos con arreglo a dicho sistema.	2027ko urtarrilaren 1etik aurrera, Batzordeak ahalmena edukiko du 54. artikulua arabera egintza eskuordetuak onartzeko, haien bidez, batetik, 26.2.b) artikulua aldatze aldera, 26.2. artikuluan zehaztutako informazio-sistemaren aplikazio-eremua oilandetara hedatzeko, eta, bestetik, II. eranskinaren II. zatiko 1.3.4.3 puntua aldatze aldera, oilandei buruzko salbuespenak sistema horren arabera bildutako datuetan oinarritzeko.
4.	4.
A partir del 1 de enero de 2026, la Comisión estará facultada para adoptar actos delegados con arreglo al artículo 54, sobre la base de la información relativa a la disponibilidad de piensos proteicos ecológicos para las aves de corral y los animales porcinos facilitada por los Estados miembros de conformidad con el apartado 6 del presente artículo, o que se presente en el informe previsto en el apartado 7 del presente artículo, por los que terminen las autorizaciones de utilización de piensos proteicos no ecológicos en la alimentación de aves de corral y animales porcinos consideradas en los puntos 1.9.3.1, letra c), y 1.9.4.2, letra c), de la parte II del anexo II antes del 31 de diciembre de 2026 o por los que se prorroguen más allá de esta fecha.	2026ko urtarrilaren 1etik aurrera, Batzordeak ahalmena edukiko du 54. artikulua arabera egintza eskuordetuak onartzeko, oinarritzat hartuta estatu kideek artikulua honen 6. apartatuarekin bat etorri eskortako hegaztientzako eta txerrientzako pentsu proteiko ekologikoen eskuragarritasunari buruz emandako informazioa edo 7. apartatuan xedatutako txostenean aurkezten dena, haien bitartez 2026ko abenduaren 31 baino lehen amaiera emateko pentsu proteiko ez-ekologikoak eskortako hegaztien eta txerrien elikaduran erabiltzeko baimenei [II. eranskinaren II. zatiko 1.9.3.1 puntuko c) letran eta 1.9.4.2 puntuko c) letran daude xedatuta] edo baimenak data horretaz haraindi luzatzeko.
5.	5.
Cuando prorrogue las excepciones o autorizaciones indicadas en los apartados 2, 3 y 4, la Comisión lo hará solo en la medida en que posea información, en particular información facilitada por Estados miembros de conformidad con el apartado 6, que confirme la no disponibilidad en el mercado de la Unión de los materiales de reproducción vegetal, animal o fitosanidad de los que se trate.	Batzordeak egoera honetan bakarrik luzatuko ditu 2., 3. eta 4. apartatuetan aipatutako salbuespenak edo baimenak: Batasuneko merkatuan kasuan kasuko landare- eta animalia-ugalketako materialak edo fitoosasun-materialak merkatuan eskuragarri ez daudela baieztatzen duen informazioa daukanean —bereziki estatu kideek 6. apartatuaren arabera emandako informazioa— .
6.	6.
A más tardar el 30 de junio de cada año, los Estados miembros facilitarán a la Comisión y a los demás Estados miembros:	Urte bakoitzeko ekainaren 30ean beranduenez, estatu kideek informazio hau emango diete Batzordeari eta gainerako estatu kideei:
a) la información suministrada en la base de datos a que se refiere el artículo 26, apartado 1, y en los sistemas a que se refiere el artículo 26, apartado 2, y, en su caso, en los sistemas a que se refiere el artículo 26, apartado 3;	a) 26.1 artikuluan zehaztutako datu-basean emandako informazioa, 26.2 artikuluan zehaztutako sistemetan emandakoa eta, hala badagokio, 26.3 artikuluan zehaztutako sistemetan emandakoa;
b) información sobre las exenciones concedidas con arreglo al punto 1.8.5 de la parte I del anexo II	b) II. eranskinaren I. zatiko 1.8.5 puntuaren arabera eta II. eranskinaren II. zatiko 1.3.4.3 eta

y los puntos 1.3.4.3 y 1.3.4.4 de la parte II del anexo II; e	1.3.4.4 puntuen arabera emandako salbuespenei buruzko informazioa; eta
c) información sobre la disponibilidad en el mercado de la Unión de piensos proteicos ecológicos para las aves de corral y los animales porcinos y sobre las autorizaciones concedidas con arreglo a lo dispuesto en el punto 1.9.3.1, letra c), y 1.9.4.2, letra c), de la parte II del anexo II.	c) Batasuneko merkatuan eskortako hegaztientzako eta txerrientzako pentsu proteiko ekologikoak eskuragarri egoteari buruzko informazioa eta II. eranskinaren II. zatiko 1.9.3.1 puntuko c) letran eta 1.9.4.2 puntuko c) letran xedatutakoaren arabera emandako baimenei buruzko informazioa.
7.	7.
A más tardar el 31 de diciembre de 2026, la Comisión presentará un informe al Parlamento Europeo y al Consejo sobre la disponibilidad en el mercado de la Unión y, en su caso, sobre las causas del acceso limitado a:	Beranduenez 2026ko abenduaren 31n, Batzordeak txosten bat aurkeztuko die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari, Batasuneko merkaturako eskuragarritasunari buruz eta, hala badagokio, produktu hauetarako sarbide mugatuari buruz:
a) materiales de reproducción vegetal ecológicos;	a) landare-ugalketako material ekologikoak;
b) los animales ecológicos amparados por las excepciones a que hacen referencia los puntos 1.3.4.3 y 1.3.4.4 de la parte II del anexo II;	b) II. eranskinaren II. zatiko 1.3.4.3 eta 1.3.4.4 puntuetan aipatutako salbuespenek babestutako animalia ekologikoak;
c) piensos proteicos ecológicos destinados a la alimentación de aves de corral y animales de la especie porcina sujetos a las autorizaciones a que hacen referencia los puntos 1.9.3.1, letra c), y 1.9.4.2, letra c), de la parte II del anexo II.	c) eskortako hegaztien eta txerrien elikadurara bideratutako pentsu proteiko ekologikoak, II. eranskinaren II. zatiko 1.9.3.1 puntuko c) letran eta 1.9.4.2 puntuko c) letran zehaztutako baimenen menpe daudenak.
En la elaboración de ese informe, la Comisión tendrá en cuenta, en particular, los datos recopilados de conformidad con el artículo 26 y la información relativa a las exenciones y autorizaciones indicadas en el apartado 6 del presente artículo.	Txosten hori egiteko, Batzordeak kontuan izango ditu, bereziki, 26. artikulua arabera bildutako datuak eta artikulua honen 6. apartatuan aipatutako salbuespenei eta baimenei buruzko informazioa.
CAPÍTULO IX	IX. KAPITULUA
DISPOSICIONES DE PROCEDIMIENTO, TRANSITORIAS Y FINALES	PROZEDURA-XEDAPENAK, XEDAPEN IRAGANKORRAK ETA AZKEN XEDAPENAK
SECCIÓN 1	1. ATALA
Disposiciones de procedimiento	Prozedura-xedapenak
Artículo 54	54. artikulua
Ejercicio de la delegación	Eskuordetza egikaritzea
1.	1.
Se otorgan a la Comisión los poderes para adoptar actos delegados en las condiciones establecidas en el presente artículo.	Batzordeari ahalak ematen zaizkio egintza eskuordetuak hartzeko, artikulua honetan ezarritako baldintzetan.
2.	2.
Los poderes para adoptar actos delegados mencionados en el artículo 2, apartado 6, el artículo 9, apartado 11, el artículo 10, apartado 5, el artículo 12, apartado 2, el artículo 13, apartado 3, el artículo 14, apartado 2, el artículo 15, apartado 2, el artículo 16, apartado 2, el artículo 17, apartado 2, el artículo 18, apartado 2, el artículo 19, apartado 2, el artículo 21, apartado 1, el artículo 22, apartado 1, el artículo 23, apartado 2, el artículo 24, apartado 6, el artículo 30, apartado 7, el artículo 32, apartado 4, el	2018ko ekainaren 17tik aurrera, bost urtez emango zaizkio Batzordeari artikulua hauetan aipatutako egintza eskuordetuak onartzeko ahalak: 2.6 artikulua, 9.11 artikulua, 10.5 artikulua, 12.2 artikulua, 13.3 artikulua, 14.2 artikulua, 15.2 artikulua, 16.2 artikulua, 17.2 artikulua, 18.2 artikulua, 19.2 artikulua, 21.1 artikulua, 22.1 artikulua, 23.2 artikulua, 24.6 artikulua, 30.7 artikulua, 32.4 artikulua, 33.6 artikulua, 34.8 artikulua, 35.9 artikulua, 36.3 artikulua,

artículo 33, apartado 6, el artículo 34, apartado 8, el artículo 35, apartado 9, el artículo 36, apartado 3, el artículo 38, apartado 8, el artículo 40, apartado 11, el artículo 44, apartado 2, el artículo 46, apartado 7, el artículo 48, apartado 4, el artículo 53, apartados 2, 3 y 4, el artículo 57, apartado 3, y el artículo 58, apartado 2, se otorgarán a la Comisión por un período de cinco años a partir del 17 de junio de 2018. La Comisión elaborará un informe sobre la delegación de poderes a más tardar nueve meses antes de que finalice el período de cinco años. La delegación de poderes se prorrogará tácitamente por períodos de idéntica duración, excepto si el Parlamento Europeo o el Consejo se oponen a dicha prórroga a más tardar tres meses antes del final de cada período.	38.8 artikulua, 40.11 artikulua, 44.2 artikulua, 46.7 artikulua, 48.4 artikulua, 53. artikuluko 2., 3. eta 4. apartatuak, 57.3 artikulua eta 58.2 artikulua. Bost urteko aldia amaitu baino bederatzi hilabete lehenago, beranduenez, Batzordeak txosten bat egingo du ahalak eskuordetzeari buruz. Ahalen eskuordetzea isilbidez luzatuko da iraupen bereko aldietan, salbu eta Europako Parlamentuak edo Kontseiluak luzapen horren aurka egiten badute aldi bakoitza amaitu baino hiru hilabete lehenago, beranduenez.
3. La delegación de poderes mencionada en el artículo 2, apartado 6, el artículo 9, apartado 11, el artículo 10, apartado 5, el artículo 12, apartado 2, el artículo 13, apartado 3, el artículo 14, apartado 2, el artículo 15, apartado 2, el artículo 16, apartado 2, el artículo 17, apartado 2, el artículo 18, apartado 2, el artículo 19, apartado 2, el artículo 21, apartado 1, el artículo 22, apartado 1, el artículo 23, apartado 2, el artículo 24, apartado 6, el artículo 30, apartado 7, el artículo 32, apartado 4, el artículo 33, apartado 6, el artículo 34, apartado 8, el artículo 35, apartado 9, el artículo 36, apartado 3, el artículo 38, apartado 8, el artículo 40, apartado 11, el artículo 44, apartado 2, el artículo 46, apartado 7, el artículo 48, apartado 4, el artículo 53, apartados 2, 3 y 4, el artículo 57, apartado 3, y el artículo 58, apartado 2, podrá ser revocada en cualquier momento por el Parlamento Europeo o por el Consejo. La decisión de revocación pondrá término a la delegación de los poderes que en ella se especifiquen. La decisión surtirá efecto el día siguiente al de su publicación en el Diario Oficial de la Unión Europea o en una fecha posterior indicada en la misma. No afectará a la validez de los actos delegados que ya estén en vigor.	3. Europako Parlamentuak edo Kontseiluak edozein unetan errebokatu ahalako du artikulua hauetan aipatutako ahalen eskuordetzea: 2.6 artikulua, 9.11 artikulua, 10.5 artikulua, 12.2 artikulua, 13.3 artikulua, 14.2 artikulua, 15.2 artikulua, 16.2 artikulua, 17.2 artikulua, 18.2 artikulua, 19.2 artikulua, 21.1 artikulua, 22.1 artikulua, 23.2 artikulua, 24.6 artikulua, 30.7 artikulua, 32.4 artikulua, 33.6 artikulua, 34.8 artikulua, 35.9 artikulua, 36.3 artikulua, 38.8 artikulua, 40.11 artikulua, 44.2 artikulua, 46.7 artikulua, 48.4 artikulua, 53. artikulua eta 2., 3. eta 4. apartatuak, 57.3 artikulua eta 58.2 artikulua. Errebokatzeko erabakiak amaiera emango dio bertan zehazten diren ahalak eskuordetzeari. Erabakia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, edo bertan adierazten den geroagoko data batean. Ez du eraginik izango jada indarrean dauden egintza eskuordetuen balioan.
4. Antes de la adopción de un acto delegado, la Comisión consultará a los expertos designados por cada Estado miembro de conformidad con los principios establecidos en el Acuerdo interinstitucional de 13 de abril de 2016 sobre la mejora de la legislación.	4. Egintza eskuordetu bat onartu aurretik, Batzordeak kontsulta egingo die estatu kide bakoitzak izendatutako adituei, legeria hobetzeari buruzko 2016ko apirilaren 13ko erakundearteko akordioan ezarritako printzipioen arabera.
5. Tan pronto como la Comisión adopte un acto delegado, lo notificará simultáneamente al Parlamento Europeo y al Consejo.	5. Batzordeak egintza eskuordetu bat hartu bezain laster, Europako Parlamentuari eta Kontseiluari jakinaraziko die, biei batera.
6. Los actos delegados adoptados en virtud del artículo 2, apartado 6, el artículo 9, apartado 11, el	6. Artikulu hauetan ezarritakoaren arabera onartutako egintza eskuordetuak indarrean jartzeko,

artículo 10, apartado 5, el artículo 12, apartado 2, el artículo 13, apartado 3, el artículo 14, apartado 2, el artículo 15, apartado 2, el artículo 16, apartado 2, el artículo 17, apartado 2, el artículo 18, apartado 2, el artículo 19, apartado 2, el artículo 21, apartado 1, el artículo 22, apartado 1, el artículo 23, apartado 2, el artículo 24, apartado 6, artículo 30, apartado 7, el artículo 32, apartado 4, el artículo 33, apartado 6, el artículo 34, apartado 8, el artículo 35, apartado 9, el artículo 36, apartado 3, el artículo 38, apartado 8, el artículo 40, apartado 11, el artículo 44, apartado 2, el artículo 46, apartado 7, el artículo 48, apartado 4, el artículo 53, apartados 2, 3 y 4, el artículo 57, apartado 3, y el artículo 58, apartado 2, entrarán en vigor únicamente si, en un plazo de dos meses desde la notificación al Parlamento Europeo y al Consejo, ninguna de estas instituciones formula objeciones o si, antes del vencimiento de dicho plazo, ambas informan a la Comisión de que no las formularán. El plazo se prorrogará dos meses a iniciativa del Parlamento Europeo o del Consejo.	ezinbestekoa izango da Europako Parlamentuari eta Kontseiluari jakinarazi eta bi hilabeteko epean erakunde horietako batek ere ez jartzea oztoporik edo epe hori amaitu baino lehen biek jakinaraztea Batzordeari ez dutela halakorik formulatuko. Hona artikulua: 2.6 artikulua, 9.11 artikulua, 10.5 artikulua, 12.2 artikulua, 13.3 artikulua, 14.2 artikulua, 15.2 artikulua, 16.2 artikulua, 17.2 artikulua, 18.2 artikulua, 19.2 artikulua, 21.1 artikulua, 22.1 artikulua, 23.2 artikulua, 24.6 artikulua, 30.7 artikulua, 32.4 artikulua, 33.6 artikulua, 34.8 artikulua, 35.9 artikulua, 36.3 artikulua, 38.8 artikulua, 40.11 artikulua, 44.2 artikulua, 46.7 artikulua, 48.4 artikulua, 53. artikuluko 2., 3. eta 4. apartatuak, 57.3 artikulua eta 58.2 artikulua. Epea bi hilabetez luzatuko da, Europako Parlamentuak edo Kontseiluak hala eskatuz gero.
Artículo 55	55. artikulua
Procedimiento de comité	Komitearen prozedura
1.	1.
La Comisión estará asistida por un comité denominado «Comité de Producción Ecológica». Dicho comité será un comité en el sentido del Reglamento (UE) n.o 182/2011.	Batzordeak «Ekoizpen Ekologikoaren Komite» izeneko komite baten laguntza edukiko du. Komite horren adiera (EB) 182/2011 Erregelamenduak biltzen duena da.
2.	2.
En los casos en que se haga referencia al presente apartado, se aplicará el artículo 5 del Reglamento (UE) n.o 182/2011.	Apartatu hau aipatzen denean, (EB) 182/2011 Erregelamenduaren 5. artikulua aplikatuko da.
3.	3.
En los casos en que se haga referencia al presente apartado, se aplicará el artículo 8 del Reglamento (UE) n.o 182/2011, en relación con su artículo 5.	Apartatu hau aipatzen denean, (EB) 182/2011 Erregelamenduaren 8. artikulua aplikatuko da, 5. artikuluari dagokionez.
4.	4.
Si el Comité no emite dictamen alguno, la Comisión no adoptará el proyecto de acto de ejecución y se aplicará el artículo 5, apartado 4, párrafo tercero, del Reglamento (UE) n.o 182/2011.	Komiteak ez badu irizpenik ematen, Batzordeak ez du emango betearazpen-egintzaren proiektua, eta (EB) 182/2011 Erregelamenduaren 5.4 artikuluko hirugarren paragrafoa aplikatuko da.
SECCIÓN 2	2. ATALA
Disposiciones derogatorias, transitorias y finales	Xedapen indargabetzaileak, xedapen iragankorrak eta azken xedapenak
Artículo 56	56. artikulua
Derogación	Indargabetzea
Queda derogado el Reglamento (CE) n.o 834/2007.	Indargabetuta geratzen da (EE) 834/2007 Erregelamendua.
No obstante, dicho Reglamento seguirá siendo de aplicación a la hora de completar el examen de las	Hala ere, erregelamendu hori oraindik ere aplikagarria izango da hirugarren herrialdeen kasuan ebazteke dauden eskaeren azterketa

solicitudes pendientes de terceros países, según lo previsto en el artículo 58 del presente Reglamento.	osatzeko, erregelamendu honen 58. artikuluan xedatutakoaren arabera.
Las referencias al Reglamento derogado se entenderán hechas al presente Reglamento.	Indargabetutako erregelamenduari egindako aipamenak erregelamendu honi egindakotzat joko dira.
Artículo 57	57. artikulua
Medidas transitorias relativas a las autoridades de control y organismos de control reconocidos de conformidad con el artículo 33, apartado 3, del Reglamento (CE) n.o 834/2007	(EE) 834/2007 Erregelamenduaren 33.3 artikuluaaren arabera aintzatetsitako kontrol-agintaritzei eta kontrol-organismoiei buruzko neurri iragankorrak
1.	1.
El reconocimiento de las autoridades de control y de los organismos de control concedido de conformidad con el artículo 33, apartado 3, del Reglamento (CE) n.o 834/2007 caducará a más tardar el 31 de diciembre de 2024.	(EE) 834/2007 Erregelamenduaren 33.3 artikuluaaren arabera kontrol-agintaritzei eta kontrol-organismoiei emandako aintzatespena, beranduenez, 2024ko abenduaren 31n iraungiko da.
2.	2.
La Comisión establecerá mediante un acto de ejecución una lista de autoridades de control y organismos de control reconocidos en virtud del artículo 33, apartado 3, del Reglamento (CE) n.o 834/2007 y podrá modificarla a través de actos de ejecución.	(EE) 834/2007 Erregelamenduaren 33.3 artikuluaaren arabera aintzatetsitako kontrol-agintaritzen eta kontrol-organismoen zerrenda bat egingo du Batzordeak, betearazpen-egintza baten bidez, eta betearazpen-egintzen bidez aldatu ahaliko du.
Dichos actos de ejecución se adoptarán de conformidad con el procedimiento de examen a que se refiere el artículo 55, apartado 2.	Betearazpen-egintza horiek 55.2 artikuluan zehaztutako azterketa-prozedurari jarraituz onartuko dira.
3.	3.
La Comisión estará facultada para adoptar actos delegados con arreglo al artículo 54 que completen el presente Reglamento en lo que respecta a la información que deberán enviar las autoridades de control y los organismos de control a que se refiere el apartado 2 del presente artículo para la supervisión de su reconocimiento por parte de la Comisión, así como al ejercicio de la supervisión por parte de la Comisión, en particular a través de un examen in situ.	Batzordeak ahalmena edukiko du 54. artikuluaaren arabera egintza eskuordetuak onartzeko, bai artikulua honen 2. apartatuan zehaztutako kontrol-agintaritzek eta kontrol-organismoek bidali beharreko informazioari dagokionez —Batzordeak haien aintzatespena gainbegiratu dezan— bai Batzordearen gainbegiratze-jarduerari dagokionez (lekuan bertan egindako azterketa baten bidez bereziki).
Artículo 58	58. artikulua
Medidas transitorias relativas a las solicitudes de terceros países presentadas de conformidad con el artículo 33, apartado 2, del Reglamento (CE) n.o 834/2007	Hirugarren herrialdeetatik (EE) 834/2007 Erregelamenduaren 33.2 artikuluaaren arabera aurkeztutako eskaerei buruzko neurri iragankorrak
1.	1.
La Comisión finalizará el examen de las solicitudes de terceros países que se hayan presentado de conformidad con el artículo 33, apartado 2, del Reglamento (CE) n.o 834/2007 y que aún estén en trámite el 17 de junio de 2018. Dicho Reglamento se aplicará al examen de esas solicitudes.	Hirugarren herrialdeetatik (EE) 834/2007 Erregelamenduaren 33.2 artikuluaaren arabera aurkeztu diren eta 2018ko ekainaren 17an oraindik izapidetzen ari diren eskaerak aztertzeke lana amaituko du Batzordeak. Erregelamendu hori eskaera horiek aztertzeke aplikatuko da.
2.	2.

La Comisión estará facultada para adoptar actos delegados con arreglo al artículo 54 que completen el presente Reglamento adoptando las normas de procedimiento necesarias para el examen de las solicitudes a que se refiere el apartado 1 del presente artículo, incluida la información que deben presentar los terceros países.	Batzordeak ahalmena edukiko du 54. artikulua araberako egintza eskuordetuak onartzeko, artikulua honen 1. apartatuan zehaztutako eskaerak aztertzeko beharrezkoak diren prozedura-arauak emate aldera, hirugarren herrialdeek aurkeztu beharreko informazioa barne.
Artículo 59	59. artikulua
Medidas transitorias relativas al primer reconocimiento de autoridades de control y organismos de control	Kontrol-agintaritzen eta kontrol-organismoen lehen aintzatespenari buruzko neurri iragankorrak
Como excepción a la fecha de aplicación a que se refiere el artículo 61, párrafo segundo, el artículo 46 se aplicará desde el 17 de junio de 2018, en la medida en que sea necesario para permitir el oportuno reconocimiento de autoridades de control y organismos de control.	61. artikulua bigarren paragrafoan zehaztutako aplikazio-datarako salbuespen gisa, 46. artikulua 2018ko ekainaren 17tik aurrera aplikatuko da, kontrol-agintaritzen eta kontrol-organismoen aintzatespen egokia ahalbidetzeko beharrezkoa den heinean.
Artículo 60	60. artikulua
Medidas transitorias aplicables a las existencias de productos ecológicos producidos de conformidad con el Reglamento (CE) n.o 834/2007	(EE) 834/2007 Erregelamenduaren arabera ekoiztutako produktu ekologikoen izakinetarako neurri iragankorrak
Los productos obtenidos de conformidad con el Reglamento (CE) n.o 834/2007 antes del ►M3 1 de enero de 2022podrán comercializarse después de esa fecha hasta que se agoten las existencias.	►M3 2022ko urtarrilaren 1abaino lehen (EE) 834/2007 Erregelamenduaren arabera ekoiztutako produktuak egun horren ostean merkaturatu ahalko dira izakinak agortu arte.
Artículo 61	61. artikulua
Entrada en vigor y aplicación	Indarrean jartzea eta aplikatzea
El presente Reglamento entrará en vigor a los tres días de su publicación en el Diario Oficial de la Unión Europea.	Erregelamendu hau Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hiru egun geroago jarriko da indarrean.
Será aplicable a partir del 1 de enero de 2022.	2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izango da aplikagarria.
El presente Reglamento será obligatorio en todos sus elementos y directamente aplicable en cada Estado miembro.	Erregelamendu hau oso-osoan bete beharko da, eta zuzenean aplikatu estatu kide bakoitzean.
ANEXO I	I. ERANSKINA
OTROS PRODUCTOS A QUE SE REFIERE EL ARTÍCULO 2, APARTADO 1	2.1 ARTIKULUA JORRAGAI DITUEN BESTE PRODUKTU BATZUK
— Levaduras destinadas al consumo humano o animal,	— Gizakiek edo animaliek kontsumitzeko legamiak,
— yerba mate, maíz dulce, hojas de vid, palmitos, brotes de lúpulo y otras partes comestibles similares de plantas y productos obtenidos de las mismas,	— matea, arto gozoa, mahatsondo-hostoak, palmondo nanoak, lupulu-kimuak eta jatekoak diren antzeko beste landare zatiak eta haietatik eratorritako produktuak,
— sal marina y otras sales para alimentación y piensos,	— itsas gatza eta elikadurarako eta pentsuetarako beste gatz batzuk,
— capullos de seda aptos para el devanado,	— harilkatzeko egokiak diren zetazko kuskua,

— gomas y resinas naturales,	— goma eta erretxina naturalak,
— cera de abejas,	— erle-argizaria,
— aceites esenciales,	— esentzia-olioak,
— tapones de corcho natural, no aglomerados y sin sustancias aglutinantes,	— artelazki naturalezko tapoiak, aglomeratu gabeak eta substantzia aglutinatzaile gabeak,
— algodón sin cardar ni peinar,	— kardatu eta orraztu gabeko kotoia,
— lana sin cardar ni peinar,	— kardatu eta orraztu gabeko artilea,
— pieles en bruto y pieles sin tratar,	— larru gordinak eta tratatu gabeko larruak,
— preparaciones vegetales tradicionales a base de plantas.	— landarez egindako prestakin begetal tradizionalak.

ANEXO II	II. ERANSKINA
NORMAS DETALLADAS DE PRODUCCIÓN A QUE SE REFIERE EL CAPÍTULO III	III. KAPITULUAK JORRAGAI DITUEN EKOIZPEN-ARAU XEHATUAK
Parte I: Normas de producción vegetal	I. zatia: Landare-ekoizpenerako arauak
Además de las normas de producción establecidas en los artículos 9 a 12, ambos inclusive, se aplicarán a la producción vegetal ecológica las normas indicadas en la presente parte.	Erregelamenduaren 9. artikulutik 12. artikulura bitartean ezarritako ekoizpen-arauez gain, zati honetan aipatutako arauak aplikatuko zaizkio landare-ekoizpen ekologikoari.
1. Requisitos generales	1. Betekizun orokorrak
1.1 Los cultivos ecológicos, excepto los que se cultivan en agua de forma natural, se producirán en suelo vivo, o en suelo vivo mezclado o fertilizado con materiales y productos permitidos en la producción ecológica, en relación con el subsuelo y la roca madre.	1.1 Labore ekologikoak, uretan modu naturalean hazten direnak izan ezik, lurzoru bizian edo lurzoruari eta ekoizpen ekologikoan baimenduta dauden materialekin eta produktuekin nahasitako edo ongarritutako lurzoruan ekoiztiko dira, arroka amari lotuta.
1.2 Queda prohibida la producción hidropónica, que es un método de cultivo de plantas que no crecen de forma natural en el agua, con las raíces introducidas únicamente en una solución de nutrientes o en un medio inerte al que se añade una solución de nutrientes.	1.2 Debekatuta dago ekoizpen hidroponikoa: alegia, uretan modu naturalean hazten ez diren landareak hazteko metodoa, sustraiak mantenugai-disoluzio batean edo mantenugai-disoluzio bat gehituta daukan ingurune geldo batean bakarrik sartuta egiten dena.
1.3 No obstante lo dispuesto en el punto 1.1, se permitirán las siguientes prácticas:	1.3 Zati honen 1.1 puntuan xedatutakoa gorabehera, praktika hauek onartuko dira:
a) la producción de semillas germinadas, que incluyen los gérmenes, los brotes y los berros, que viven solamente de las reservas nutricionales que se encuentran en las semillas, por humidificación de las semillas en agua clara, a condición de que las semillas sean ecológicas. Estará prohibido el uso de cualquier medio de cultivo, excepto el uso de un medio inerte destinado únicamente a mantener las semillas humedecidas si los componentes de dicho medio inerte están autorizados de conformidad con el artículo 24;	a) Hazietan dauden mantenugai-erreserbetatik bakarrik bizi diren hazi erneak ekoiztea —hoziak, kimuak eta berroak barne— haziak ur argitan hezetuz, betiere haziak ekologikoak badira. Debekatuta egongo da edozein labore-ingurune erabiltzea, haziak heze mantentzea bakarrik xede duen ingurune geldo bat erabiltzea izan ezik, baldin eta ingurune geldo horren osagaiak baimenduta badaude 24. artikuluaaren arabera.
b) la obtención de cogollos de endibias, también mediante inmersión en agua clara, a condición de que el material reproductivo de la planta sea ecológico. Solo se permitirá el uso de un medio de	b) Endibia-kukuluak ekoiztea —ur argitan murgilduz ekoiztea barne—, baldin eta landarearen ugalketa-materiala ekologikoa bada. Labore-ingurune bat erabiltzea onartzeko, ezinbestekoa izango da

cultivo si los componentes de dicho medio están autorizados de conformidad con el artículo 24.	ingurune horren osagaiak baimenduta egotea 24. artikuluaaren arabera.
1.4 No obstante lo dispuesto en el punto 1.1, se permitirán las siguientes prácticas:	1.4 Zati honen 1.1 puntuan xedatutakoa gorabehera, praktika hauek onartuko dira:
a) el cultivo de plantas para la producción de plantas ornamentales y aromáticas en macetas para su venta con las macetas al consumidor final;	a) landare apaingarriak eta aromatikoak ekoizteko landareak loreontzietan haztea, azken kontsumitzaileari loreontziekin batera saltzeko;
b) el cultivo de plántulas o trasplantes en contenedores a efectos de su trasplante posterior.	b) plantulak edo birlandaketak edukiontzietan haztea, geroago birlandatzeko asmoz.
1.5 No obstante lo dispuesto en el punto 1.1, el cultivo en lechos demarcados se permitirá únicamente para las superficies que hayan sido certificadas como ecológicas para dicha práctica antes del 28 de junio de 2017 en Finlandia, Suecia y Dinamarca. No se permitirá ninguna ampliación de esas superficies.	1.5 Zati honetako 1.1 puntuan xedatutakoa gorabehera, 2017ko ekainaren 28a baino lehen Finlandian, Suedian eta Danimarkan praktika horretan aritzeko ekologikotzat ziurtatuak izan diren eremuetarako bakarrik baimenduko da laboreak ohe mugatuetan haztea. Ez da baimenduko eremu horiek inola ere handitzea.
Dicha excepción terminará el 31 de diciembre de 2031.	Salbuespen hori 2031ko abenduaren 31n amaituko da.
A más tardar el 31 de diciembre de 2026, la Comisión presentará un informe al Parlamento Europeo y al Consejo sobre el uso de lechos demarcados en la agricultura ecológica. Dicho informe podrá ir acompañado, cuando proceda, de una propuesta legislativa sobre el uso de lechos demarcados en la agricultura ecológica.	Beranduenez 2026ko abenduaren 31n, Batzordeak txosten bat aurkeztuko die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari, nekazaritza ekologikoan ohe mugatuak erabiltzeari buruz. Txosten horrekin batera, hala dagokionean, nekazaritza ekologikoan ohe mugatuak erabiltzeari buruzko lege-proposamen bat aurkeztu ahalko da.
1.6 Todas las técnicas de producción vegetal utilizadas deben prevenir o minimizar cualquier contribución a la contaminación del medio ambiente.	1.6 Landare-ekoizpenerako erabilitako teknika guztiek ingurumenaren kutsadurari egindako ekarpen oro prebenitu edo minimizatu behar dute.
1.7 Conversión	1.7 Bihurtzea
1.7.1 Para que las plantas y los productos vegetales se puedan considerar productos ecológicos, las normas de producción establecidas en el presente Reglamento se habrán aplicado en las parcelas durante un período de conversión de al menos dos años antes de la siembra o, en el caso de las praderas o de los forrajes perennes, durante un período de al menos dos años antes de su uso como pienso ecológico, o, en el caso de los cultivos perennes distintos de los forrajes, durante un período de al menos tres años antes de la primera cosecha de productos ecológicos.	1.7.1 Landareak eta landare-produktuak produktu ekologikotzat jo ahal izateko, erregelamendu honetan ezarritako ekoizpen-arauak gutxienez bi urteko bihurtze-aldi batean aplikatu behar dira erein baino lehen, edo, belardietan eta bazka iraunkorretan, gutxienez bi urteko aldiaren pentsu ekologiko gisa erabili baino lehen, edo, bazkak ez diren labore iraunkorretan, gutxienez hiru urteko aldiaren produktu ekologikoen lehenengo uzta baino lehen.
1.7.2 En los casos en los que los terrenos o una o más parcelas hayan sido contaminadas con productos o sustancias no autorizados para su uso en la producción ecológica, la autoridad competente podrá decidir ampliar el período de conversión de los terrenos o parcelas de que se trate más allá del período mencionado en el punto 1.7.1.	1.7.2 Lursailak edo lurzati bat edo gehiago kutsatuta daudenean ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimenduta ez dauden produktu edo substantziekin, agintaritza eskudunak erabaki ahalko du kasuan kasuko lursailen edo lurzatien bihurtze-aldia luzatzea 1.7.1 puntuan aipatutako aldiaren haraindi.
1.7.3 En caso de tratamiento con un producto o sustancia no autorizado para su uso en la producción ecológica, la autoridad competente	1.7.3 Ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimenduta ez dagoen produktu edo substantzia batekin tratatuz gero, agintaritza eskudunak beste bihurtze-

exigirá un nuevo período de conversión, de conformidad con lo dispuesto en el punto 1.7.1.	aldi bat exijituko du, 1.7.1 puntuan xedatutakoarekin bat etorritik.
Ese período podrá acortarse en los dos casos siguientes:	Aldia bi kasu hauetan laburtu ahalko da:
a) tratamiento con un producto o sustancia no autorizado para su uso en la producción ecológica como parte de una medida obligatoria de control de plagas o malas hierbas, incluidos organismos de cuarentena o especies invasoras, impuesta por la autoridad competente del Estado miembro correspondiente;	a) Ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimenduta ez dagoen produktu edo substantzia batekin emandako tratamendua izurriak edo belar txarrak —berrogeialdiko organismoak eta espezie inbaditzaileak barne— kontrolatzeko nahitaezko neurri baten zati da, eta neurri hori dagokion estatu kideko agintaritzak eskudunak ezarri du.
b) tratamiento con un producto o sustancia no autorizado para su uso en la producción ecológica como parte de pruebas científicas aprobadas por la autoridad competente del Estado miembro correspondiente.	b) Ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimenduta ez dagoen produktu edo substantzia batekin emandako tratamendua dagokion estatu kideko agintaritzak eskudunak onartutako proba zientifikoen zati da.
1.7.4 En los casos contemplados en los puntos 1.7.2 y 1.7.3, la duración del período de conversión se determinará teniendo en cuenta los requisitos siguientes:	1.7.4 1.7.2 eta 1.7.3 puntuetan xedatutako kasuetan, bihurtze-aldiaren iraupena zehazte aldera betekizun hauek hartuko dira kontuan:
a) el proceso de degradación del producto o sustancia de que se trate tendrá que garantizar, al final del período de conversión, un nivel de residuos insignificante en la tierra y, si se trata de un cultivo perenne, en la planta;	a) Kasuan kasuko produktuaren edo substantziaren degradazio-prozesuak bermatu beharko du bihurtze-aldiaren amaieran hondakin-maila ezdeusa dela lurrian eta, labore iraunkorra bada, landarean.
b) la cosecha que siga al tratamiento no podrá comercializarse como producción ecológica o en conversión.	b) Tratamenduaren ondorengo uzta ezin izango da merkaturatu, ez ekoizpen ekologiko gisa, ez bihurtze-aldiko ekoizpen gisa.
1.7.4.1 Los Estados miembros informarán a la Comisión y a los demás Estados miembros de cualquier decisión que tomen que establezca medidas obligatorias relacionadas con el tratamiento con un producto o sustancia no autorizado para su uso en la producción ecológica;	1.7.4.1 Uzta ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimenduta ez dagoen produktu edo substantzia batekin tratatzearekin lotutako nahitaezko neurriak ezartzeko estatu kideek hartzen dituzten erabaki guztien berri emango diete Batzordeari eta gainerako estatu kideei.
1.7.4.2 En el caso de tratamiento con un producto o sustancia no autorizado para su uso en la producción ecológica, no se aplicará el punto 1.7.5, letra b).	1.7.4.2 Uzta ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimenduta ez dagoen produktu edo substantzia batekin tratatuz gero, ez da aplikatuko 1.7.5 puntuko b) letra.
1.7.5 En el caso de terrenos asociados a la producción animal ecológica:	1.7.5 Animalia-ekoizpen ekologikoari lotutako lursailak direla eta:
a) las normas de conversión serán aplicables a toda la superficie de la unidad de producción en la que se produzcan piensos para animales.	a) Animalientzako pentsuak ekoizteko erabiltzen den ekoizpen-unitatearen eremu osoari aplikatuko zaizkio bihurtze-arauak.
b) no obstante lo dispuesto en la letra a), el período de conversión podrá quedar reducido a un año para los pastos y espacios al aire libre utilizados por especies no herbívoras.	b) Bihurtze-aldia urtebetera murriztu ahalko da belarjaleak ez diren espezieek erabiltutako larreetarako eta aire zabaleko espazioetarako.
1.8 Procedencia de las plantas, incluidos los materiales de reproducción vegetal	1.8 Landareen jatorria, landare-ugalketako materialena barne
1.8.1 Para la producción de plantas y productos vegetales distintos de los materiales de reproducción vegetal, solo se utilizarán materiales de reproducción vegetal ecológicos.	1.8.1 Landare-ugalketako materialak ez diren landare-produktuak eta landareak ekoizteko, landare-ugalketako material ekologikoak bakarrik erabiliko dira.

1.8.2 Para obtener materiales de reproducción vegetal ecológicos que puedan utilizarse en la producción de productos distintos de los materiales de reproducción vegetal, la planta madre y, en su caso, otras plantas destinadas a la producción de materiales de reproducción vegetal se habrán producido de conformidad con el presente Reglamento durante al menos una generación o, en el caso de los cultivos perennes, durante al menos una generación a lo largo de dos períodos vegetativos.	1.8.2 Landare-ugalketako materialak ez diren produktuen ekoizpenean erabil daitezkeen landare-ugalketako material ekologikoak lortzeko, erregelamendu honen arabera ekoitzi behar dira bai landare ama, bai, hala badagokio, landare-ugalketako materialen ekoizpenera bideratutako beste landare batzuk, gutxienez belaunaldi batez edo, labore iraunkorretan, gutxienez belaunaldi batez bi hazkunde-garaitan.
1.8.3 A la hora de elegir los materiales de reproducción vegetal ecológicos, los operadores darán preferencia al material de reproducción vegetal ecológico idóneo para la agricultura ecológica.	1.8.3 Landare-ugalketako material ekologikoak hautatzean, operadoreek nekazaritza ekologikorako egokia den landare-ugalketako material ekologikoari emango diote lehentasuna.
1.8.4 Para la producción de variedades ecológicas idóneas para la producción ecológica, las actividades de mejora vegetal ecológica se realizarán en condiciones ecológicas y se centrarán en la mejora de la diversidad genética, la dependencia de la capacidad reproductora natural, así como los resultados agronómicos, la resistencia a las enfermedades y la adaptación a condiciones climáticas y edafológicas locales diversas.	1.8.4 Ekoizpen ekologikorako egokiak diren barietate ekologikoak ekoizteko, landare-hobekuntza ekologikoko jarduerak baldintza ekologikoetan egingo dira eta honako ezaugarri hauetan ardaztuko dira: dibertsitate genetikoaren hobekuntza, ugaltze-gaitasun naturalarekiko mendekotasuna, emaitza agronomikoak, gaixotasunekiko erresistentzia eta tokiko askotariko inguruabar klimatiko eta edafologikoetarako egokitzapena.
Todas las prácticas de multiplicación, a excepción del cultivo de meristemas, se efectuarán con arreglo a una certificación ecológica.	Ugaritze-praktika guztiak, meristemak haztea izan ezik, ziurtapen ekologiko baten arabera egingo dira.
1.8.5 Uso de material de reproducción vegetal en conversión y no ecológico	1.8.5 Landare-ugalketako material ez-ekologikoa eta bihurtze-aldikoa erabiltzea
1.8.5.1. No obstante lo dispuesto en el punto 1.8.1, en caso de que los datos recogidos en la base de datos a que se refiere el artículo 26, apartado 1, o los sistemas a que se refiere el artículo 26, apartado 2, pongan de manifiesto que no se satisfacen las necesidades cualitativas o cuantitativas del operador en relación con los materiales de reproducción vegetal ecológicos pertinentes, el operador podrá utilizar materiales de reproducción vegetal en conversión de conformidad con el artículo 10, apartado 4, párrafo segundo, letra a), o materiales de reproducción vegetal autorizados de conformidad con el punto 1.8.6.	1.8.5.1. 1.8.1 apartatuan xedatutakoa gorabehera, 26.1. artikuluan zehaztutako datu-basean edo 26.2. artikuluan zehaztutako sistemetan bildutako datuek agerian jartzen badute ez direla betetzen operadoreak landare-ugalketako material ekologiko egokia izateko behar kualitatiboak edo kuantitatiboak, 10.4. artikuluko bigarren paragrafoko a) letrarekin bat datozen bihurtze-aldiko landare-ugalketako materialak edo 1.8.6 puntuaren arabera baimendutako landare-ugalketako materialak erabili ahal izango ditu operadoreak.
Además, en caso de indisponibilidad de plántulas ecológicas, será posible utilizar «plántulas en conversión» comercializadas de conformidad con el artículo 10, apartado 4, párrafo segundo, letra a), si se cultivan:	Gainera, plantula ekologiko eskuragarriak ez badago, 10.4. artikulua bigarren paragrafoko a) letrarekin bat etorritik merkaturatutako «bihurtze-aldiko plantulak» erabili ahalko dira, baldin eta honela hazten badira:
a) en un ciclo de cultivo desde las semillas hasta la plántula final de una duración mínima de doce meses en una parcela que, durante el mismo período, haya completado un período de conversión de al menos doce meses; o	a) hazietatik azken plantulara arte gutxienez hamabi hilabete dirauen labore-ziklo batean, aldi horretan gutxienez hamabi hilabeteko bihurtze-aldia bete duen lurzati batean; edo
b) en parcelas de cultivos ecológicos o en conversión, o en contenedores, si se aplica la	b) labore ekologikoen edo bihurtze-aldi laboreen lurzatietan —edo edukiontzietan, 1.4 puntuko

excepción del punto 1.4, siempre y cuando las plántulas procedan de semillas en conversión, recolectadas de una planta cultivada en una parcela que haya completado un período de conversión de al menos doce meses.	salbuespena aplikatzen bada—, baldin eta plantulak bihurtze-aldi hazietatik badatoz eta gutxienez hamabi hilabeteko bihurtze-aldia bete duen lurzati batean hazitako landare batetik bildu badira.
Cuando no se disponga de materiales de reproducción vegetal ecológicos o en conversión o de materiales de reproducción vegetal autorizados de conformidad con el punto 1.8.6. o no se disponga de dichos materiales en cantidad suficiente para satisfacer las necesidades del operador, las autoridades competentes podrán autorizar el uso de materiales de reproducción vegetal no ecológicos con arreglo a las condiciones establecidas en los puntos 1.8.5.3 a 1.8.5.8.	Ez dagoenean ez landare-ugalketako material ekologikorik, ez bihurtze-aldikorik, ez 1.8.6 puntuaren arabera baimendutako landare-ugalketako materialik, edo ez dagoenean material horien kantitate nahikorik operadorearen beharrak betetzeko, agintaritza eskudunek landare-ugalketako material ez-ekologikoen erabilera baimendu ahalko dute, 1.8.5.3 puntutik 1.8.5.8 puntura bitartean ezarritako baldintzen arabera.
Tal autorización individual se expedirá únicamente en una de las situaciones siguientes:	Banakako baimen hori egoera hauetako batean bakarrik emango da:
a) si ninguna variedad de la especie que el operador desee obtener está inscrita en la base de datos a que se refiere el artículo 26, apartado 1, o en el sistema mencionado en el artículo 26, apartado 2;	a) Operadoreak eskuratu nahi duen espeziearen barietate bat ere ez badago jasota 26.1 artikuluan zehaztutako datu-basean edo 26.2. artikuluan aipatutako sisteman.
b) si ningún operador que comercialice materiales de reproducción vegetal puede entregar materiales de reproducción vegetal ecológicos o en conversión o materiales de reproducción vegetal autorizados de conformidad con el punto 1.8.6 a tiempo para la siembra o plantación en situaciones en las que el usuario haya encargado los materiales de reproducción vegetal en un plazo razonable para permitir la preparación y el suministro de materiales de reproducción vegetal ecológico o en conversión o de materiales de reproducción vegetal autorizados de conformidad con el punto 1.8.6;	b) Landare-ugalketako materialak merkaturatzen dituen operadore batek ere ezin baditu ereiteko edo landatzeko garaiz eman landare-ugalketarako material ekologikoak, bihurtze-aldikoak edo 1.8.6 puntuaren arabera baimendutako landare-ugalketako materialak, nahiz eta erabiltzaileak arrazoizko epean eskatu dituen landare-ugalketarako material ekologikoak, bihurtze-aldikoak edo 1.8.6 puntuaren arabera baimendutako landare-ugalketako materialak, operadoreek egokiro prestatu eta hornitu ahal izateko moduan.
c) si la variedad que el operador desee obtener no está inscrita como material de reproducción vegetal ecológico o en conversión o como material de reproducción autorizado de conformidad con el punto 1.8.6. en la base de datos a que se refiere el artículo 26, apartado 1, o en los sistemas a que se refiere el artículo 26, apartado 2, y el operador puede demostrar que ninguna de las alternativas de la misma especie inscritas resulta adecuada, en particular, a las condiciones agronómicas y edafoclimáticas y a las propiedades tecnológicas necesarias para la producción;	c) Operadoreak eskuratu nahi duen barietatea ez badago jasota landare-ugalketarako material ekologiko gisa, bihurtze-aldiko material gisa edo 1.8.6 puntuaren arabera baimendutako ugalketa-material gisa 26.1 artikuluan zehaztutako datu-basean edo 26.2 artikuluan aipatutako sistemetan, eta operadoreak frogatu badezake jasota dauden espezie bereko beste aukeretako ezein ez dela egokia, bereziki, inguruabar agronomiko eta edafoklimatikoetarako eta ekoizpenerako beharrezkoak diren propietate teknologikoetarako.
d) si está justificado por motivos de investigación, ensayos en pruebas de campo a pequeña escala, para la conservación de variedades o para la innovación de productos y con la aprobación de las autoridades competentes del Estado miembro de que se trate.	d) Ikerketarekin, eskala txikiko landa-probetan egindako saiakuntzekin, barietateak kontserbatzearekin edo produktuetan berritzearekin zerikusia duten arrazoiengatik justifikatuta badago eta kasuan kasuko estatu kideko agintaritza eskudunek onarpena eman badute.
Antes de solicitar dicha autorización, los operadores consultarán la base de datos a que se refiere el artículo 26, apartado 1, o los sistemas a que se refiere el artículo 26, apartado 2, a fin de	Baimen hori eskatu baino lehen, 26.1 artikuluan zehaztutako datu-basea edo 26.2 artikuluan zehaztutako sistemak kontsultatuko dituzte operadoreek, egiaztatzeko ea badagoen landare-

comprobar si se dispone de materiales de reproducción vegetal ecológicos o en conversión o de materiales de reproducción vegetal autorizados de conformidad con el punto 1.8.6 y, por tanto, si su solicitud está justificada.	ugalketarako material ekologikorik, bihurtze-aldiko materialik edo 1.8.6 puntuaren arabera baimendutako ugalketa-materialik eta, beraz, ea haien eskaera justifikatuta dagoen.
Cuando observen lo dispuesto en el artículo 6, letra i), los operadores podrán utilizar material de reproducción vegetal tanto ecológico como en conversión extraído de su propia explotación, con independencia de la disponibilidad cualitativa y cuantitativa de acuerdo con la base de datos a que se refiere el artículo 26, apartado 1, o el sistema mencionado en el artículo 26, apartado 2, letra a).	Erregelamenduaren 6. artikulua i) letran xedatutakoa betez gero, operadoreek beren ustiatetik ateratako landare-ugalketako material ekologikoa zein bihurtze-aldikoa erabili ahalko dute, kontuan izan gabe 26.1. artikuluan zehaztutako datu-basearen arabera edo 26.2.a) artikuluan aipatutako sistemaren arabera eskuragarritasun kualitatiboa eta kuantitatiboa.
1.8.5.2. No obstante lo dispuesto en el punto 1.8.1, los operadores de terceros países podrán utilizar materiales de reproducción vegetal en conversión de conformidad con el artículo 10, apartado 4, párrafo segundo, letra a), o materiales de reproducción vegetal autorizados de conformidad con el punto 1.8.6., siempre que se demuestre que en el territorio del tercer país donde se encuentre el operador no hay materiales de reproducción vegetal ecológicos de calidad o en cantidad suficientes.	1.8.5.2. Zati honetako 1.8.1 puntuan xedatutakoa gorabehera, 10.4. artikuluko bigarren paragrafoko a) letrarekin bat datozen bihurtze-aldiko landare-ugalketako materialak edo 1.8.6 puntuaren arabera baimendutako landare-ugalketako materialak erabili ahalko dituzte hirugarren herrialdeetako operadoreek, baldin eta frogatzen bada operadorea kokatuta dagoen hirugarren herrialdearen lurraldean ez dagoela kalitate oneko landare-ugalketako material ekologikorik edo ez, behintzat, kantitate nahikorik.
Sin perjuicio de las normas nacionales pertinentes, los operadores de terceros países podrán utilizar material de reproducción vegetal tanto ecológico como en conversión extraído de sus propias explotaciones.	Bidezkoak diren arau nazionalak ezertan eragotzi gabe, hirugarren herrialdeetako operadoreek beren ustiatetik ateratako landare-ugalketako materiala —bai ekologikoa, bai bihurtze-aldikoa— erabili ahalko dute.
Las autoridades de control o los organismos de control reconocidos de conformidad con el artículo 46, apartado 1, podrán autorizar a los operadores de terceros países el uso de materiales de reproducción vegetal no ecológicos en una unidad de producción ecológica cuando no se disponga de materiales de reproducción vegetal ecológicos o en conversión o de materiales de reproducción vegetal autorizados de conformidad con el punto 1.8.6. de calidad o en cantidad suficientes en el territorio del tercer país en el que se encuentre el operador, con arreglo a las condiciones establecidas en los puntos 1.8.5.3, 1.8.5.4, 1.8.5.5. y 1.8.5.8.	Erregelamendu honen 46.1 artikulua arabera aintzatetsitako kontrol-agintaritzek edo kontrol-organismoek baimena eman ahal izango diete hirugarren herrialdeetako operadoreei ekoizpen ekologikoko unitate batean landare-ugalketako material ez-ekologikoak erabiltzeko, baldin eta operadorea kokatuta dagoen hirugarren herrialdearen lurraldean ez bada landare-ugalketarako materialaren kantitate nahikorik (ez material ekologikoa, ez bihurtze-aldikoa, ez 1.8.6. puntuaren arabera baimendutako landare-ugalketako materiala) edo material horren kalitatea ez bada behar bestekoa, 1.8.5.3, 1.8.5.4, 1.8.5.5. eta 1.8.5.8 puntuetan ezarritako baldintzekin bat.
1.8.5.3. El material de reproducción vegetal no ecológico no se tratará tras la cosecha con productos fitosanitarios distintos de los autorizados para el tratamiento de material de reproducción vegetal de conformidad con el artículo 24, apartado 1, del presente Reglamento, a menos que las autoridades competentes del Estado miembro de que se trate hayan ordenado un tratamiento químico de conformidad con lo dispuesto en el Reglamento (UE) 2016/2031 con fines fitosanitarios para todas las variedades y materiales heterogéneos de una especie determinada en la zona en la que vaya a utilizarse el material de reproducción vegetal.	1.8.5.3. Landare-ugalketako material ez-ekologikoa ez da uztaren ostean tratatuko erregelamendu honen 24.1 artikulua arabera landare-ugalketako materiala tratatzeko baimenduta daudenez bestelako produktu fitosanitarioekin, salbu eta kasuan kasuko estatu kideko agintaritza eskudunek tratamendu kimiko bat agindu badute, (EB) 2016/2031 Erregelamenduan xedatutakoarekin bat etorritik, espezie jakin bateko bariedade eta material heterogeneo guztietarako xede fitosanitarioekin, landare-ugalketako materiala erabiliko den zonan.

En caso de que se utilice el material de reproducción vegetal no ecológico sometido al tratamiento químico ordenado al que se hace referencia en el párrafo primero, la parcela de cultivo del material de reproducción vegetal tratado estará sujeta, en su caso, a un período de conversión, tal como se contempla en los puntos 1.7.3 y 1.7.4.	Agindutako tratamendu kimikoa (lehenengo paragrafoan aipatua) jasotzen duen landare-ugalketako material ez-ekologikoa erabiltzen bada, landare-ugalketako material tratatua hazteko lurzatiak, hala badagokio, bihurtze-aldi bat bete beharko du, 1.7.3 eta 1.7.4 puntuetan xedatzen den moduan.
1.8.5.4. La autorización de usar material de reproducción vegetal no ecológico se obtendrá antes de la siembra o plantación del cultivo.	1.8.5.4. Laborea erein edo landatu baino lehen eskuratuko da landare-ugalketako material ez-ekologikoa erabiltzeko baimena.
1.8.5.5. La autorización de usar material de reproducción vegetal no ecológico se concederá a usuarios particulares durante un período vegetativo cada vez y las autoridades competentes, la autoridad de control o el organismo responsable de las autorizaciones elaborarán un listado con las cantidades del material de reproducción vegetal autorizado.	1.8.5.5. Landare-ugalketako material ez-ekologikoa erabiltzeko baimena erabiltzaile partikularrei emango zaie, aldiro-aldiro hazkunde-garai batez, eta agintaritza eskudunek, kontrol-agintaritzak edo baimenak emateko arduraduna den organismoak zerrenda bat egingo dute baimendutako landare-ugalketako materialaren kantitateekin.
1.8.5.6. Las autoridades competentes de los Estados miembros elaborarán una lista oficial de las especies, subespecies o variedades (agrupadas si procede) para las cuales se establezca que el material de reproducción vegetal ecológico o en conversión está disponible en cantidades suficientes y para las variedades adecuadas en su territorio. No se expedirán autorizaciones para las especies, subespecies o variedades incluidas en dicha lista en el territorio del Estado miembro de que se trate, de conformidad con el punto 1.8.5.1, salvo si están justificadas por alguna de las finalidades indicadas en el punto 1.8.5.1, letra d). Si la cantidad o la calidad del material de reproducción vegetal ecológico o en conversión disponible para una especie, subespecie o variedad de la lista resulta ser insuficiente o inadecuada, debido a circunstancias excepcionales, las autoridades competentes de los Estados miembros podrán retirar de la lista una especie, subespecie o variedad.	1.8.5.6. Estatu kideetako agintaritza eskudunek zerrenda ofizial bat egingo dute eta bertan jasoko dute zer espezie, subespezie edo barietatetarako (taldekatuta, hala badagokio) dagoen eskuragarri landare-ugalketarako material ekologikoen edo bihurtze-aldiko materialen kantitate nahikoa haien lurraldean egokiak diren barietateetarako. Ez da baimenik emango estatu kidearen lurraldean zerrenda horretan jasota dauden espezie, subespezie eta barietateetarako, 1.8.5.1 puntuaren arabera, salbu eta 1.8.5.1 puntuko d) letran aipatutako xedeetako batengatik justifikatuta badago. Zerrendako espezie, subespezie edo barietate baterako eskuragarri dagoen landare-ugalketarako material ekologikoaren edo bihurtze-aldiko materialaren kantitatea edo kalitatea ez bada nahikoa edo egokia, salbuespenezko inguruabarrengatik, estatu kideetako agintaritza eskudunek zerrendatik kendu ahalko dute espeziea, subespeziea edo barietatea.
Las autoridades competentes de los Estados miembros deberán actualizar su lista anualmente y publicarla.	Estatu kideetako agintaritza eskudunek urtero eguneratu eta argitaratu beharko dute beren zerrenda.
A más tardar el 30 de junio de cada año y por primera vez a más tardar el 30 de junio de 2022, las autoridades competentes de los Estados miembros transmitirán a la Comisión y a los demás Estados miembros el enlace al sitio web donde esté publicada la lista actualizada. La Comisión publicará los enlaces a las listas nacionales actualizadas en un sitio web específico.	Urte bakoitzeko ekainaren 30ean beranduenez eta, lehenengo aldiz, 2022ko ekainaren 30ean beranduenez, estatu kideetako agintaritza eskudunek zerrenda eguneratua argitaratuta dagoen webgunerako esteka helaraziko diete Batzordeari eta gainerako estatu kideei. Batzordeak berriazko webgune batean argitaratuko ditu zerrenda nazional eguneratuetaarako estekak.
1.8.5.7. No obstante lo dispuesto en el punto 1.8.5.5, las autoridades competentes de los Estados miembros podrán conceder anualmente una autorización general a todos los operadores de que se trate para la utilización de:	1.8.5.7. 1.8.5.5 puntuan xedatutakoa gorabehera, estatu kideetako agintaritza eskudunek baimen orokor bat eman ahalko diete urtero kasuan kasuko operadore guztiei honako hauek erabiltzeko:

a) una especie o subespecie concreta, siempre y cuando ninguna variedad esté inscrita en la base de datos a que se refiere el artículo 26, apartado 1, o en el sistema mencionado en el artículo 26, apartado 2, letra a);	a) espezie edo subespezie jakin bat, baldin eta inolako barietaterik ez badago jasota 26.1. puntuan zehaztutako datu-basean edo 26.2.a) artikuluan aipatutako sisteman;
b) una variedad concreta, siempre y cuando se cumplan las condiciones establecidas en el punto 1.8.5.1, letra c).	b) barietate jakin bat, baldin eta 1.8.5.1 puntuko c) letran ezarritako baldintzak betetzen badira.
Cuando utilicen una autorización general, los operadores llevarán registros de la cantidad utilizada y la autoridad competente responsable de las autorizaciones elaborará una lista con las cantidades de material de reproducción vegetal no ecológico autorizado.	Baimen orokor bat erabiltzen dutenean, operadoreek erabilitako kantitatearen erregistroak edukiko dituzte, eta baimenen arduraduna den agintaritza eskudunak zerrenda bat egingo du baimendutako landare-ugalketako material ez-ekologikoaren kantitateekin.
Las autoridades competentes de los Estados miembros actualizarán anualmente la lista de las especies, subespecies o variedades para las que se haya expedido una autorización general y la publicarán.	Estatu kideetako agintaritza eskudunek urtero eguneratuko eta argitaratuko dute baimen orokor bat emana duten espezie, subespezie edo barietateen zerrenda.
A más tardar el 30 de junio de cada año y por primera vez a más tardar el 30 de junio de 2022, las autoridades competentes de los Estados miembros transmitirán a la Comisión y a los demás Estados miembros el enlace al sitio web donde esté publicada la lista actualizada. La Comisión publicará los enlaces a las listas nacionales actualizadas en un sitio web específico.	Urte bakoitzeko ekainaren 30ean beranduenez eta, lehenengo aldiz, 2022ko ekainaren 30ean beranduenez, estatuko kideetako agintaritza eskudunek zerrenda eguneratua argitaratuta dagoen webgunerako esteka helaraziko diete Batzordeari eta gainerako estatuko kideei. Batzordeak berriazko webgune batean argitaratuko ditu zerrenda nazional eguneratueterako estekak.
1.8.5.8. Las autoridades competentes no autorizarán el uso de plántulas no ecológicas para aquellas plántulas de especies cuyo ciclo de cultivo abarque un solo período vegetativo, desde su trasplante hasta la primera cosecha de productos.	1.8.5.8. Agintaritza eskudunek ez dute plantula ez-ekologikoen erabilera baimenduko birlandaketatik produktuen lehen uztara arte hazkunde-garai bakarreko laborantza-zikloa duten espezieetako plantuletarako.
1.8.6. Las autoridades competentes o, en su caso, las autoridades u organismos de control reconocidos de conformidad con el artículo 46, apartado 1, podrán autorizar a los operadores que produzcan materiales de reproducción vegetal para su uso en la producción ecológica a utilizar materiales de reproducción vegetal no ecológicos, cuando no se disponga de plantas madre o, en su caso, de otras plantas destinadas a la producción de materiales de reproducción vegetal y producidas de conformidad con el punto 1.8.2, en cantidad o calidad suficientes, y a comercializar dichos materiales para su uso en la producción ecológica, siempre que se cumplan las condiciones siguientes:	1.8.6. Agintaritza eskudunek edo, hala badagokio, 46.1 artikuluaaren arabera aintzatsitako kontrol-agintaritzek edo -organismoek landare-ugalketako material ez-ekologikoak erabiltzeko baimena eman ahalko diete ekoizpen ekologikoan erabiltzeko landare-ugalketako materialak ekoizten dituzten operadoreei, ez dagoenean ama-landareri edo, kasua bada, ez dagoenean landare-ugalketako materialak ekoiztera bideratutako eta 1.8.2 puntuaren arabera ekoiztitako beste landareen kantitate nahikorik edo haien kalitatea behar bestekoa ez denean; era berean, material horiek ekoizpen ekologikoan erabiltze aldera merkaturatzeko baimena ere eman ahalko diete. Horretarako, baina, baldintza hauek bete beharko dira:
a) los materiales de reproducción vegetal no ecológicos utilizados no se han tratado tras la cosecha con productos fitosanitarios distintos de los autorizados de conformidad con el artículo 24, apartado 1, del presente Reglamento, a menos que las autoridades competentes del Estado miembro de que se trate hayan ordenado un tratamiento químico de conformidad con lo dispuesto en el	a) Erabilitako landare-ugalketako material ez-ekologikoak, uztaren ostean, ezin dira tratatu erregelamendu honen 24.1 artikuluaaren arabera baimenduta daudenez bestelako produktu fitosanitarioekin, salbu eta kasuan kasuko estatuko kideko agintaritza eskudunek tratamendu kimiko bat agindu badute, (EB) 2016/2031 Erregelamenduan xedatutakoarekin bat etorritik, espezie jakin bateko

Reglamento (UE) 2016/2031 con fines fitosanitarios para todas las variedades y materiales heterogéneos de una especie determinada en la zona en la que vayan a utilizarse los materiales de reproducción vegetal. En caso de que se utilicen materiales de reproducción vegetal no ecológicos sometidos a dicho tratamiento químico ordenado, la parcela de cultivo de los materiales de reproducción vegetal tratados estará sujeta, en su caso, a un período de conversión, tal como se contempla en los puntos 1.7.3 y 1.7.4;	barietate eta material heterogeneo guztietarako xede fitosanitarioekin, landare-ugalketako materialak erabiliko diren zonak. Agindutako tratamendu kimiko hori jaso duten landare-ugalketako material ez-ekologikoak erabiltzen badira, landare-ugalketako material tratatuak hazteko lurzatiak, hala badagokio, bihurtze-aldi bat bete beharko du, 1.7.3 eta 1.7.4 puntuetan xedatzen den moduan.
b) los materiales de reproducción vegetal no ecológicos utilizados no son plántulas de especies cuyo ciclo de cultivo abarque un solo período vegetativo, desde su trasplante hasta la primera cosecha de productos;	b) Erabilitako landare-ugalketako material ez-ekologikoak ezin dira izan birlandaketatik produktuen lehen uztaraino hazkunde-garai bakarreko laborantza-zikloa duten espezieetako plantulak.
c) los materiales de reproducción vegetal se cultivan respetando todos los demás requisitos pertinentes de la producción de plantas ecológicas;	c) Landare-ugalketako materialak haztean, landare ekologikoen ekoizpenari dagozkion beste betekizun guztiak errespetatu behar dira.
d) la autorización para utilizar materiales de reproducción vegetal no ecológicos deberá obtenerse antes de sembrar o plantar esos materiales;	d) Landare-ugalketako material ez-ekologikoak erabiltzeko baimena material horiek erein edo landatu baino lehen eskuratu beharko da.
e) la autoridad competente, la autoridad de control o el organismo de control que sean responsables de la autorización concederán esta únicamente a usuarios individuales y durante un período vegetativo a la vez, y enumerarán las cantidades de materiales de reproducción vegetal autorizados;	e) Baimenaren arduradunak diren agintaritzak eskudunak, kontrol-agintaritzak edo kontrol-organismoak banakako erabiltzaileei bakarrik emango diete baimena, hazkunde-garai batez aldi bakoitzean, eta landare-ugalketako material baimenduen kantitateak zerrendatuko dituzte.
f) no obstante lo dispuesto en la letra e), las autoridades competentes de los Estados miembros podrán conceder anualmente una autorización general para el uso de una especie, subespecie o variedad determinadas de material de reproducción vegetal no ecológico, hacer pública la lista de especies, subespecies o variedades, y mantenerla actualizada anualmente. En tal caso, esas autoridades competentes enumerarán las cantidades autorizadas de material de reproducción vegetal no ecológico;	f) Apartatu honetako e) letran xedatutakoa gorabehera, estatu kideetako agintaritzak eskudunek landare-ugalketako material ez-ekologikoaren espezie, subespezie edo barietate jakin bat erabiltzeko baimen orokor bat eman ahalko dute urtero, espezieen, subespezieen edo barietateen zerrenda jendaurrean jarrita eta urtero eguneratuta. Horrelakoetan, agintaritzak eskudunek landare-ugalketako material ez-ekologikoaren kantitate baimenduak zerrendatuko dituzte.
g) las autorizaciones concedidas de conformidad con el presente apartado expirarán el 31 de diciembre de 2036.	g) Apartatu honen arabera emandako baimenak 2036ko abenduaren 31n iraungiko dira.
A más tardar el 30 de junio de cada año, y por primera vez a más tardar el 30 de junio de 2023, las autoridades competentes de los Estados miembros notificarán a la Comisión y a los demás Estados miembros la información relativa a las autorizaciones concedidas de conformidad con el párrafo primero.	Urte bakoitzeko ekainaren 30ean beranduenez eta, lehenengo aldiz, 2023ko ekainaren 30ean beranduenez, estatu kideetako agintaritzak eskudunek lehenengo paragrafoaren arabera emandako baimenei buruzko informazioa jakinaraziko diete Batzordeari eta gainerako estatu kideei.
Los operadores que produzcan y comercialicen materiales de reproducción vegetal producidos de conformidad con el párrafo primero estarán autorizados a hacer pública, con carácter voluntario, la información específica pertinente sobre la disponibilidad de esos materiales en los	Lehenengo paragrafoaren arabera ekoiztiko landare-ugalketako materialak ekoizten eta merkaturatzen dituzten operadoreek baimena edukiko dute material horien eskuragarritasunari buruz bidezkoa den berariazko informazioa jendaurrean jartzeko 26.2 apartatuaren arabera

sistemas nacionales establecidos de conformidad con el artículo 26, apartado 2. Los operadores que opten por incluir dicha información velarán por que la información se actualice periódicamente y se retire de los sistemas nacionales una vez que los materiales de reproducción vegetal ya no estén disponibles. Cuando se acojan a la autorización general mencionada en la letra f), los operadores llevarán registros de la cantidad utilizada.	ezarritako sistema nazionaletan. Jarduketa hori borondatezkoa izango da. Informazio hori jasotzea erabakitzen duten operadoreek ziurtatuko dute informazioa aldizka eguneratzen dela eta sistema nazionaletatik kentzen dela landare-ugalketako materialak jada eskuragarri ez daudenean. Operadoreek, f) letran aipatutako baimen orokorrari heltzen diotenean, erabilitako kantitatearen erregistroak edukiko dituzte.
1.9 Gestión y fertilización del suelo	1.9 Lurzoruaren kudeaketa eta ongarriketa
1.9.1 En la producción vegetal ecológica se recurrirá a las prácticas de labranza y cultivo que mantengan o incrementen la materia orgánica del suelo, refuercen la estabilidad y la biodiversidad edáficas, y prevengan la compactación y la erosión del suelo.	1.9.1 Landare-ekoizpen ekologikoan, nekazaritza- eta laborantza-praktika zehatzak erabiliko dira: lurzoruaren materia organikoa mantentzekoak edo areagotzekoak, egonkortasun eta biodibertsitate edafikoak indartzekoak eta lurzoruaren trinkotzea eta higadura prebenitzekoak.
1.9.2 Se mantendrá e incrementará la fertilidad y la actividad biológica del suelo:	1.9.2 Lurzoruaren emankortasuna eta jarduera biologikoa mantendu eta areagotuko dira:
a) excepto en el caso de las praderas o los forrajes perennes, mediante la rotación plurianual de cultivos que comprenda obligatoriamente cultivos de leguminosas como cultivo principal o de cobertura para los cultivos de rotación y otros cultivos de abonos verdes;	a) Belardietan eta bazka iraunkorretan izan ezik, urte anitzeko labore-txandaketa egingo da, eta, txandaketa horren barnean, nahitaez sartuko dira lekadunen laboreak, hala labore nagusi gisa, nola txandaketa-laboreetarako eta ongarri berdeen beste labore batzuetarako babes-labore gisa.
b) en el caso de los invernaderos o en el caso de los cultivos perennes distintos de los forrajes, mediante cultivos a corto plazo de leguminosas y abonos verdes, así como el recurso a la diversidad vegetal; y	b) Berotegietan edo bazkak ez diren labore iraunkorretan, lekadunen eta ongarri berdeen epe laburreko laboreak ekoitziko dira eta landare-dibertsitatea erabiliko da.
c) en todos los casos, mediante la aplicación de estiércol animal o materia orgánica, ambos de preferencia compostados, de producción ecológica.	c) Kasu guztietan, ekoizpen ekologikoko simaurra edo materia organikoa erabiliko da, biak ala biak konpostatuak, ahal bada.
1.9.3 Cuando las necesidades nutricionales de las plantas no puedan satisfacerse mediante las medidas de los puntos 1.9.1 y 1.9.2, solo podrán utilizarse (y únicamente en la medida necesaria) los fertilizantes y acondicionadores del suelo que se hayan autorizado de conformidad con el artículo 24 para su uso en la producción ecológica. Los operadores llevarán registros de la utilización de dichos productos, que incluirán la fecha o las fechas en las que se haya utilizado cada producto, el nombre de este, la cantidad aplicada y el cultivo y las parcelas de que se trate.	1.9.3 Landareen nutrizio-beharra ezin badira bete 1.9.1 eta 1.9.2 puntuetako neurriekin, 24. artikuluaaren arabera ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimendu diren ongarriak eta lurzoruaren egokitzaileak bakarrik erabili ahaliko dira (eta behar den neurrian baino ez). Operadoreek produktu horien erabileraren erregistroak edukiko dituzte, eta, erregistro horietan, datu hauek jasoko dira: produktua zein egunetan erabili den, produktuak zer izen duen, zenbateko kantitatea aplikatu den eta zer labore eta lurzatitan aplikatu den.
1.9.4 La cantidad total de estiércol animal, según se define en la Directiva 91/676/CEE, usada en las unidades de producción ecológica o en conversión, no podrá exceder de 170 kilogramos de nitrógeno al año por hectárea de superficie agrícola empleada. Este límite se aplicará únicamente al empleo de estiércol de granja, estiércol de granja desecado y gallinaza deshidratada, mantillo de excrementos sólidos de animales, incluida la gallinaza, estiércol de granja compostado y excrementos animales líquidos.	1.9.4 Ekoizpen ekologikoko unitateetan edo bihurtze-aldiko ekoizpeneko unitateetan erabilitako simaurraren guztizko kantitatea, 91/676/EEE Zuzentarauko definizioaren arabera, ezingo da izan erabilitako nekazaritza-eremuaren hektarea bakoitzeko 170 kilogramo nitrogeno baino gehiago urtean. Muga hori produktu hauen erabilerari bakarrik aplikatuko zaio: abeletxeko simaurra, abeletxeko simaur lehortua eta oilo-simaur deshidratatua eta animalien gorotz solidozko lurrustela (oilo-simaurra, abeletxeko simaur konpostatua eta animalia-gorotz likidoak barne).

1.9.5 Los operadores de explotaciones agrarias podrán establecer acuerdos de cooperación escritos exclusivamente con otros operadores de explotaciones agrarias y empresas que cumplan las normas de producción ecológica, con el fin de extender estiércol excedentario procedente de unidades de producción ecológica. El límite máximo mencionado en el punto 1.9.4 se calculará a partir de todas las unidades de producción ecológica que participen en dicha cooperación.	1.9.5 Nekazaritza-ustiategien jabeek idatzizko lankidetzak-akordioak egin ahalko dituzte, ekoizpen ekologikoari buruzko arauak betetzen dituzten nekazaritza-ustiategiak eta enpresetako beste operadore batzuekin bakarrik, ekoizpen ekologikoko unitateetatik datorren soberazko simaurra hedatzeko. 1.9.4 puntuan aipatutako gehieneko muga kalkulatzeko, lankidetzak horretan parte hartzen duten ekoizpen ekologikoko unitate guztiak hartuko dira kontuan.
1.9.6 Podrán utilizarse preparaciones de microorganismos para mejorar las condiciones generales del suelo o para mejorar la disponibilidad de nutrientes en el suelo o en los cultivos.	1.9.6 Mikroorganismo-prestakinak erabili ahalko dira lurzorua egoera orokorra hobetzeko edo lurzoruan edo laboreetan dauden mantenugaien eskuragarritasuna hobetzeko.
1.9.7 Para la activación del compost podrán utilizarse preparados adecuados a base de plantas y preparados de microorganismos.	1.9.7 Konposta aktibatzeke, landarez eta mikroorganismo osatutako prestakin egokiak erabili ahalko dira.
1.9.8 No se utilizarán fertilizantes nitrogenados minerales.	1.9.8 Ez da erabiliko ongarri nitrogenatu mineralik.
1.9.9 Podrán utilizarse preparados biodinámicos.	1.9.9 Prestakin biodinamikoak erabili ahalko dira.
1.10 Gestión de plagas y malas hierbas	1.10 Izurrien eta belar txarren kontrola
1.10.1 La prevención de los daños causados por plagas y malas hierbas se basará fundamentalmente en la protección mediante:	1.10.1 Izurriek eta belar txarrek eragindako kalteak prebenitzeko, funtsean, babesak bilatuko da bitarteko hauen bidez:
— enemigos naturales,	— etsai naturalak,
— elección de especies, variedades y materiales heterogéneos,	— espezie, barietate eta material heterogeneoen hautaketa,
— rotación de los cultivos,	— laboreen txandaketa,
— técnicas de cultivo como la biofumigación, métodos mecánicos y físicos, y	— hazkuntza-teknikak, hala nola biofumigazioa eta metodo mekaniko eta fisikoak, eta
— procesos térmicos como la insolación y en el caso de cultivos protegidos, el tratamiento a poca profundidad del suelo con vapor (con una profundidad máxima de 10 cm).	— prozesu termikoak, hala nola intsolazioa eta, labore babestuetan, lurrun-tratamendua lurzortik sakonera txikian (gehienez 10 cm-ko sakoneran).
1.10.2 Cuando las plantas no puedan protegerse adecuadamente de las plagas mediante las medidas del punto 1.10.1, o en caso de que se haya comprobado la existencia de una amenaza para un cultivo, solo podrán utilizarse (y únicamente en la medida necesaria) los productos y sustancias autorizados de conformidad con los artículos 9 y 24 para su uso en la producción ecológica. Los operadores llevarán registros en los que se demuestre la necesidad de utilizar dichos productos, que incluirán la fecha o las fechas en las que se haya utilizado cada producto, el nombre de este, sus sustancias activas, la cantidad aplicada, el cultivo y las parcelas de que se trate, y la plaga o enfermedad que deba controlarse.	1.10.2 Landareak ezin direnean izurrietatik egokiro babestu 1.10.1 puntuko neurrien bidez, edo laborerako mehatxu bat dagoela egiaztatu denean, 9. eta 24. artikuluen arabera ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimenduta dauden produktuak eta substantziak bakarrik erabili ahalko dira (eta behar den neurrian baino ez). Operadoreek erregistroak edukiko dituzte, produktu horiek erabiltzeko beharra frogatzeko. Hala, datu hauek jasoko dituzte erregistroetan: zein egunetan erabili den produktu bakoitza, zer izen duen produktuak, zer osagai aktibo dituen, zenbateko kantitatea aplikatu den, zer labore eta lurzatitan aplikatu den eta zein den kontrolatu beharreko izurria edo gaixotasuna.
1.10.3 En relación con los productos y sustancias utilizados en trampas o dispersores de productos y sustancias que no sean feromonas, las trampas o	1.10.3 Tranpetan edo feromonak ez diren produktuen edo substantzien dispersagailuetan erabiltzeko produktuei eta substantziei dagokienez,

dispersores evitarán que los productos y sustancias se liberen al medio ambiente, así como el contacto entre los productos y sustancias y las plantas cultivadas. Todas las trampas, incluidas las trampas de feromonas, deberán recogerse una vez que se hayan utilizado y se eliminarán de modo seguro.	tranpek edo dispertsagailuek ez dituzte produktuak eta substantziak ingurumenera askatuko, eta produktuek eta substantziek ez dituzte ukituko hazten ari diren landareak. Tranpa guztiak —feromona-tranpak barne— bildu egin beharko dira erabili ostean, eta modu seguru batean kenduko dira.
1.11 Productos de limpieza y desinfección	1.11 Garbiketa- eta desinfekzio-produktuak
Solo se utilizarán en la producción vegetal los productos de limpieza y desinfección autorizados de conformidad con el artículo 24 para su uso en la producción ecológica con esos fines. Los operadores llevarán registros de la utilización de dichos productos, que incluirán la fecha o las fechas en las que se haya utilizado cada producto, el nombre de este, sus sustancias activas y el lugar de dicha utilización.	Landare-ekoizpenean, 24. artikulua arabera xede horietarako ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimenduta dauden garbiketa- eta desinfekzio-produktuak bakarrik erabiliko dira. Operadoreek produktu horien erabileraren erregistroak edukiko dituzte, eta, erregistro horietan, datu hauek jasoko dira: zein egunetan erabili den produktu bakoitza, zer izen duen produktuak, zer osagai aktibo dituen eta non erabili den.
1.12 Obligación de mantenimiento de registros	1.12 Erregistroak edukitzeko betebeharra
Los operadores mantendrán registros de las parcelas de que se trate y de la cantidad de la cosecha. En particular, los operadores llevarán registros de todo otro insumo externo utilizado en cada parcela y, cuando proceda, mantendrán disponibles documentos justificativos de toda excepción a las normas de producción obtenida de conformidad con el punto 1.8.5.	Operadoreek kasuan kasuko lurzatiek eta uzta kantitatearen erregistroak edukiko dituzte. Bereziki, operadoreek lurzati bakoitzean erabilitako kanpoko beste sargai guztien erregistroak edukiko dituzte, eta, hala dagokionean, eskuragarri edukiko dituzte 1.8.5 puntuaren arabera ekoizpen-arauetarako lortutako salbuespen ororen frogagiriak.
1.13 Preparación de productos sin transformar	1.13 Eraldatu gabeko produktuen prestaketa
Si se llevan a cabo operaciones de preparación en plantas, que no sean de transformación, se aplicarán <i>mutatis mutandis</i> los requisitos generales establecidos en la parte IV, puntos 1.2, 1.3, 1.4, 1.5 y 2.2.3 a dichas operaciones.	Landareetan eraldaketakoak ez diren prestaketa-eragiketak egiten badira, IV. zatiko 1.2, 1.3, 1.4, 1.5 eta 2.2.3 puntuetan ezarritako betekizun orokorrak aplikatuko zaizkie eragiketei, <i>mutatis mutandis</i> .
2. Normas detalladas para plantas y productos vegetales específicos	2. Landare eta landare-produktu jakinetarako arau xehatuak
2.1 Normas aplicables a la producción de setas	2.1 Perretxiko-ekoizpenari aplikatzeko arauak
Para la producción de setas se podrán utilizar sustratos a condición de que estén compuestos únicamente de las materias siguientes:	Perretxikoak ekoizteko, substratuak erabili ahalko dira, betiere materia hauetaz bakarrik osatuta badaude:
a) estiércol de granja y excremento animal:	a) abeletzeko simaurra eta animalia-gorotzak:
i) bien procedentes de unidades de producción ecológica o en conversión en su segundo año de conversión; o	i) ekoizpen ekologikoko unitateetatik edo bihurtze-prozesuaren bigarren urtean dauden bihurtze-aldiko ekoizpeneko unitateetatik datozenak; edo
ii) mencionados en el punto 1.9.3, únicamente cuando no se disponga de los productos mencionados en el inciso i), siempre que ese estiércol de granja y excremento animal no supere el 25 % en peso del total de los ingredientes del sustrato (sin incluir el material de cobertura ni el agua añadida) antes de su compostaje;	ii) 1.9.3 puntuan aipatutakoak, i) tartekian aipaturiko produktuak eskuragarri ez daudenean bakarrik, baldin eta abeletzeko simaur horrek edo animalia-gorotz horrek ez badu gaintitzen substratuaren osagaien guztizko pisuaren % 25 (kanpoan utzita estaldura-materiala eta ur erantsia) konpostatu aurretik;
b) productos de origen agrícola distintos de los considerados en la letra a), procedentes de unidades de producción ecológica;	b) nekazaritza-jatorriko produktuak —a) letran aipatutakoez bestelakoak— ekoizpen ekologikoko unitateetatik datozenak;

c) turba que no haya sido tratada con productos químicos;	c) produktu kimikoekin tratatu ez den zohikatza;
d) madera que no haya sido tratada con productos químicos tras la tala;	d) moztu ostean produktu kimikoekin tratatu ez den zura;
e) productos minerales mencionados en el punto 1.9.3, agua y suelo.	e) 1.9.3 puntuan aipatutako produktu mineralak, ura eta lurzorua.
2.2 Normas sobre la recolección de plantas silvestres	2.2 Landare basatien bilketari buruzko arauak
La recolección de plantas silvestres o partes de ellas que crecen naturalmente en áreas naturales, bosques y áreas agrícolas se considerará producción ecológica siempre que:	Eremu naturaletan, basoetan eta nekazaritza-eremuetan berez hazten diren basalandareen eta haien zatien bilketa ekoizpen ekologikotzat joko da baldin eta:
a) durante el período de al menos tres años previo a la recolección, dichas zonas no se hayan tratado con productos o sustancias distintos de los autorizados de conformidad con los artículos 9 y 24 para su uso en la producción ecológica;	a) bildu aurretik, gutxienez hiru urtean, zona horiek ez badira tratatu 9. eta 24. artikuluen arabera ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimenduta daudenez bestelako produktuekin edo substantziekin;
b) la recolección no afecte a la estabilidad del hábitat natural o al mantenimiento de las especies de la zona.	b) bilketak ez badie eragiten ez habitat naturalaren egonkortasunari, ez zonako espezieen mantentzeari.
Los operadores llevarán registros del período y el lugar de la recolección, las especies de que se trate y la cantidad de plantas silvestres recogidas.	Operadoreek erregistroetan jasoko dituzte bilketa-aldia eta -lekua, kasuan kasuko espezieak eta bildutako basalandareen kopurua.
Parte II: Normas de producción animal	II. zatia: animalia-ekoizpenerako arauak
Además de las normas de producción establecidas en los artículos 9, 10, 11 y 14, se aplicarán a la producción animal ecológica las normas establecidas en la presente parte.	9., 10., 11. eta 14. artikuluetan ezarritako ekoizpen-arauenez gain, zati honetan ezarritako arauak aplikatuko zaizkio animalia-ekoizpen ekologikoari.
1. Requisitos generales	1. Betekizun orokorrak
1.1 Salvo en el caso de la apicultura, estará prohibida la producción animal sin tierra, si el agricultor que tenga intención de criar animales ecológicos no gestiona una superficie agrícola y no tiene un acuerdo de cooperación escrito con un agricultor en lo que respecta al uso de unidades de producción ecológica o en conversión para dichos animales.	1.1 Erlezaintzan izan ezik, debekatuta egongo da lurrik gabeko animalia-ekoizpena; hau da, debekatuta egongo da animalia ekologikoak hazteko asmoa daukan nekazariak ez kudeatzea nekazaritza-eremurik eta ez edukitzea nekazari batekin sinatutako idatzizko lankidetzak-akordiorik animalia horientzat ekoizpen ekologikoko unitateak edo bihurtze-aldi ekoizpeneko unitateak erabiltzeko.
Los operadores mantendrán disponibles los documentos justificativos de toda excepción a las normas de producción ganadera obtenida de conformidad con los puntos 1.3.4.3, 1.3.4.4, 1.7.5, 1.7.8, 1.9.3.1, letra c), y 1.9.4.2, letra c).	Operadoreek, abeltzaintza-ekoizpenerako arauak betetzetik salbuetsita egonez gero bat etorrita 1.3.4.3, 1.3.4.4, 1.7.5, 1.7.8 puntuekin eta 1.9.3.1 puntuko c) letrarekin eta 1.9.4.2 puntuko c) letrarekin, eskuragarri eduki beharko dituzte salbuespenen frogagiriak.
1.2 Conversión	1.2 Bihurtzea
1.2.1 En el caso de que se inicie de forma simultánea la conversión de la unidad de producción, con inclusión de pastos o de cualquier terreno usado para la alimentación animal, y de los animales existentes en dicha unidad de producción al iniciarse el período de conversión de dicha unidad de producción a que se refieren los puntos 1.7.1 y 1.7.5., letra b), de la parte I, los animales y productos animales podrán	1.2.1 Ekoizpen-unitatearen bihurtze-aldiaren hasiera —larreak eta animalien elikadurarako erabiltako bestelako lursailak barne— bat badator ekoizpen-unitate horren bihurtze-aldia hasteko unean [I. zatiko 1.7.1 puntuan eta 1.7.5 puntuko b) letran zehaztua] han dauden animalien bihurtze-aldiarekin, animaliak eta animalia-produktuak ekologikotzat jo ahalko dira ekoizpen-unitatearen bihurtze-aldiaren amaieran, baita zati honetako

considerarse ecológicos al final del período de conversión de la unidad de producción, también en los casos en que el período de conversión establecido en el punto 1.2.2 de la presente parte para el tipo de animal de que se trate sea superior al período de conversión para la unidad de producción.	1.2.2 puntuan kasuan kasuko animalia motarentzat ezarritako bihurtze-aldia ekoizpen-unitaterako bihurtze-aldia baino luzeagoa denean ere.
Como excepción a lo dispuesto en el punto 1.4.3.1, en ese supuesto de conversión simultánea y durante el período de conversión de la unidad de producción, los animales presentes en dicha unidad de producción desde el inicio del período de conversión podrán alimentarse con pienso en conversión obtenido en la unidad de producción en conversión durante el primer año de conversión o con pienso de conformidad con el punto 1.4.3.1 o con pienso ecológico.	Zati honetako 1.4.3.1 puntuan xedatutakoaren salbuespen gisa, bihurtze-prozesua aldi berean egiten bada, ekoizpen-unitatearen bihurtze-aldian barrena, bihurtze-aldiaren hasieratik ekoizpen-unitate horretan egon diren animaliak elikatzeko, pentsu mota hauek baliatu ahal izango dira: bihurtze-prozesuko lehen urtean bihurtze-aldiko ekoizpeneko unitatean ekoiztutako bihurtze-aldiko pentsua, 1.4.3.1 puntuaren arabera pentsua edo pentsu ekologikoa.
Se podrán introducir animales no ecológicos en una unidad de producción en conversión una vez iniciado el período de conversión de conformidad con el punto 1.3.4.	Behin 1.3.4 puntuaren arabera bihurtze-aldia hasita sartu ahalko dira animalia ez-ekologikoak bihurtze-aldiko ekoizpeneko unitate batean.
1.2.2 Los períodos de conversión específicos según el tipo de producción animal quedan establecidos como sigue:	1.2.2 Honela ezartzen dira animalia-ekoizpen motaren arabera bihurtze-aldi zehatzak:
a) doce meses en el caso de animales bovinos y equinos destinados a la producción de carne y, en cualquier caso, como mínimo tres cuartas partes de su tiempo de vida;	a) Haragi-ekoizpenera bideratutako behi eta zaldietan, hamabi hilabete —betiere, haien bizi-denboraren hiru laurden gutxienez—.
b) seis meses en el caso de los animales ovinos, caprinos y porcinos y en el de los animales destinados a la producción de leche;	b) Sei hilabete, ardi, ahuntz eta txerrietan, baita esne-ekoizpenera bideratutako animalietan ere.
c) diez semanas en el caso de las aves de corral destinadas a la producción de carne, excepto los patos de Pekín, introducidas antes de los tres días de vida;	c) Hamar aste, haragi-ekoizpenera bideratutako eta hiru bizitza-egun bete baino lehen ekoizpen-unitatean sartutako eskortako hegaztietan, Pekineko ahateetan izan ezik.
d) siete semanas en el caso de los patos de Pekín, introducidos antes de los tres días de vida;	d) Zazpi aste, hiru bizitza-egun bete baino lehen ekoizpen-unitatean sartutako Pekingo ahateentzat.
e) seis semanas en el caso de las aves de corral destinadas a la producción de huevos, introducidas antes de los tres días de vida;	e) Sei aste, arrautza-ekoizpenera bideratutako eta hiru bizitza-egun bete baino lehen ekoizpen-sartutako eskortako hegaztietan.
f) doce meses en el caso de las abejas.	f) Hamabi hilabete, erleetan.
Durante el período de conversión, la cera se sustituirá por cera procedente de la apicultura ecológica.	Bihurtze-aldian, argizariaren orde, erlezaintza ekologikotik datorren argizaria erabiliko da.
No obstante, podrá utilizarse cera no ecológica:	Hala ere, argizari ez-ekologikoa erabili ahalko da baldintza hauek betez gero:
i) si en el mercado no hay disponible cera procedente de la apicultura ecológica;	i) merkatuan ez badago erlezaintza ekologikotik datorren argizaririk;
ii) si se ha demostrado que no está contaminada con productos o sustancias no autorizados para su uso en la producción ecológica; y	ii) frogatu bada argizaria ez dagoela kutsatuta ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimenduta ez dauden produktuekin edo substantziekin; eta
iii) siempre que proceda de opérculos;	iii) operkuluetatik badator.

g) tres meses en el caso de los conejos;	g) Hiru hilabete, untxietan.
h) doce meses en el caso de los cérvidos.	h) Hamabi hilabete, zerbidoetan.
1.3 Procedencia de los animales	1.3 Animalien jatorria
1.3.1 Sin perjuicio de las normas sobre conversión, los animales ecológicos deberán nacer y criarse en unidades de producción ecológica.	1.3.1 Bihurtze-prozesuari buruzko arauak ezertan eragotzi gabe, animalia ekologikoek ekoizpen ekologikoko unitateetan jaio eta hazi beharko dute.
1.3.2 En lo relativo a la reproducción de los animales ecológicos:	1.3.2 Animalia ekologikoen ugalketari dagokionez:
a) para la reproducción se utilizarán métodos naturales; sin embargo, se permitirá la inseminación artificial;	a) Ugalketarako metodo naturalak erabiliko dira; hala ere, intseminazio artifiziala onartuko da.
b) no se inducirá ni inhibirá la reproducción mediante tratamiento con hormonas u otras sustancias con efectos similares, salvo como tratamiento terapéutico veterinario en el caso de un animal concreto;	b) Ugalketa ez da ez indutuko, ez inhibituko hormonekin edo antzeko efektuak dauzkaten bestelako substantziekin, salbu eta animalia jakin bati emandako albaitaritza-tratamendu terapeutikoa bada.
c) no se utilizarán otras formas de reproducción artificial, como la clonación o la transferencia de embriones;	c) Ez da erabiliko bestelako ugalketa artifizialik, hala nola klonaziorik edo enbrioi-transferentziarik.
d) la selección de las razas será la acorde a los principios de la producción ecológica, garantizará un nivel elevado de bienestar animal y contribuirá a prevenir todo sufrimiento y a evitar la necesidad de mutilar animales.	d) Arrazak hautatzean ekoizpen ekologikoaren printzipioei jarraituko zaie, animalien ongizate-maila altua bermatuko da eta ahalegina egingo da sufrimendu oro prebenitzeko eta animaliak mutilatu beharrik ez izateko.
1.3.3 Al seleccionar las razas o las estirpes, los operadores considerarán la posibilidad de dar preferencia a aquellas razas o estirpes con un alto grado de diversidad genética, y tendrán en cuenta la capacidad de los animales para adaptarse a las condiciones locales, su valor de cría, su longevidad, su vitalidad y su resistencia a las enfermedades o a los problemas de salud, todo ello sin menoscabo de su bienestar. Además, esta selección se hará con el fin de evitar enfermedades o problemas de salud específicos asociados a determinadas razas o estirpes utilizadas en la ganadería intensiva como, por ejemplo, el síndrome de estrés porcino, que podría provocar carne pálida, blanda y exudativa (PSE, por sus siglas en inglés), la muerte súbita, los abortos espontáneos y los partos distócicos que requieran cesárea. Se dará preferencia a las razas y estirpes autóctonas.	1.3.3 Arrazak eta leinuak hautatzean, dibertsitate genetikoko maila altuko arrazei edo leinuei lehentasuna emateko aukera aztertuko dute operadoreek, eta kontuan hartuko dituzte animaliek tokiko inguruabarretara egokitzeko duten gaitasuna, haien hazkuntza-balioa, longebitatea, bizitasuna eta gaixotasunekiko edo osasun-arazoen erresistentzia, betiere haien ongizateari kalterik egin gabe. Gainera, hautaketaren asmoa izango da abeltzaintza intentsiboan erabilitako arraza edo leinu jakin batzuekin lotutako gaixotasun eta osasun-arazo zehatzak saihestea, adibidez, txerrien estresaren sindromea, zeinak askotariko eraginak izan baititzake, hala nola haragi zurbila, biguna eta exudatzailea (PSEa, ingelesezko siglengatik), bat-bateko heriotza, berezko abortuak eta zesarea eskatzen duten erditze distozikoak. Arraza eta leinu autoktonoei emango zaie lehentasuna.
Para seleccionar las razas y estirpes con arreglo a lo dispuesto en el párrafo primero, los operadores harán uso de la información que se facilita en los sistemas contemplados en el artículo 26, apartado 3.	Lehenengo paragrafoan xedatutakoaren arabera arrazak eta leinuak hautatzeko, 26.3 artikuluan xedatutako sistemetan ematen den informazioa erabiliko dute operadoreek.
1.3.4 Utilización de animales no ecológicos	1.3.4 Animalia ez-ekologikoen erabilera
1.3.4.1 Como excepción a lo dispuesto en el punto 1.3.1, con fines de cría podrán introducirse en una unidad de producción ecológica animales	1.3.4.1 Zati honetako 1.3.1 puntuan xedatutakoaren salbuespen gisa, hazkuntza-xedeetarako, hazkuntza ez-ekologikoko animaliak

de cría no ecológica cuando haya razas en peligro de extinción según lo dispuesto en el artículo 28, apartado 10, letra b), del Reglamento (UE) n.º 1305/2013 y en actos adoptados en virtud de este. En tal caso, los animales de tales razas no tendrán que ser necesariamente nulíparos.	sartu ahalko dira ekoizpen ekologikoko unitate batean, galzoriko arrazak daudenean bat etorrita (EB) 1305/2013 Erregelamenduaren 28.10.b) artikuluan eta erregelamendu horren arabera onartutako egintzetan xedatutakoarekin. Kasu horretan, arraza horietako animaliek ez dute ezinbestean nuliparoak izan behar.
1.3.4.2 Como excepción a lo dispuesto en el punto 1.3.1, para la renovación de colmenares, un 20 % anual de las abejas reina y enjambres de una unidad de producción ecológica podrá ser sustituido por abejas reina y enjambres no ecológicos, siempre que las abejas reina y los enjambres se coloquen en colmenas con panales o láminas de cera procedentes de unidades de producción ecológica. En cualquier caso, cada año podrá sustituirse un enjambre o abeja reina por un enjambre o una abeja reina no ecológica.	1.3.4.2 Erlategiak berritzeko orduan, 1.3.1 puntuan xedatutakoaren salbuespen gisa, ekoizpen ekologikoko unitate bateko erle erreginen eta erlekumeen % 20ren orde, urteko, erregina eta erlekume ez-ekologikoak jarri ahalko dira, baldin eta ekoizpen ekologikoko unitateetako abaraskak edo argizari-xaflak dauzkaten erlauntzetan jartzen badira erregina eta erlekume horiek. Dena dela, erlekume edo erregina baten orde erlekume edo erregina ez-ekologiko bat jarri ahalko da urtean.
1.3.4.3 Como excepción a lo dispuesto en el punto 1.3.1, cuando se constituya un rebaño por primera vez, se renueve o se reconstituya y no puedan satisfacerse las necesidades cuantitativas y cualitativas de los agricultores, la autoridad competente podrá decidir que puedan introducirse aves de corral criadas de manera no ecológica en una unidad de producción de aves de corral ecológicas, a condición de que las pollitas destinadas a la producción de huevos y las aves de corral para la producción de carne tengan menos de tres días. Sus productos derivados solo podrán considerarse ecológicos a condición de que se respete el período de conversión previsto en el punto 1.2.	1.3.4.3 Zati honen 1.3.1 puntuan xedatutakoaren salbuespen gisa, abere-talde bat lehenengo aldiz eratzen denean, berritzen denean edo berreratzen denean eta ezin direnean bete nekazarien behar kuantitatiboak eta kualitatiboak, agintaritza eskudunak aukera eman ahal izango du modu ez-ekologikoan hazitako eskortako hegaztiak sartzeko eskortako hegazti ekologikoen ekoizpen-unitate batean, baldin eta arrautzen ekoizpenera bideratutako oilandek eta haragi-ekoizpenerako eskortako hegaztiak hiru egun baino gutxiago badauzkate. Haietatik eratorritako produktuak ekologikotzat jo ahal izateko, ezinbestekoa izango da 1.2 puntuan xedatutako bihurtze-aldia betetzea.
1.3.4.4 Como excepción a lo dispuesto en el punto 1.3.1, cuando los datos recogidos en el sistema mencionado en el artículo 26, apartado 2, letra b), pongan de manifiesto que no se satisfacen las necesidades cualitativas o cuantitativas del agricultor por lo que se refiere a animales ecológicos, las autoridades competentes podrán autorizar la introducción de animales no ecológicos en una unidad de producción ecológica a condición de que se reúnan las condiciones establecidas en los puntos 1.3.4.4.1 a 1.3.4.4.4.	1.3.4.4 Zati honetako 1.3.1 puntuan xedatutakoaren salbuespen gisa, 26.2.b) artikuluan aipatutako sisteman bildutako datuek agerian jartzen dutenean nekazariaren behar kualitatiboak edo kuantitatiboak ez direla betetzen animalia ekologikoei dagokienez, agintaritza eskudunek baimena eman ahalko dute ekoizpen ekologikoko unitate batean animalia ez-ekologikoak sartzeko, baldin eta 1.3.4.4.1 puntutik 1.3.4.4.4 puntura bitartean ezarritako baldintzak betetzen badira.
Antes de solicitar una exención de este tipo, el agricultor consultará los datos recogidos en el sistema mencionado en el artículo 26, apartado 2, letra b), con el fin de comprobar si su solicitud está justificada.	Horrelako salbuespen bat eskatu baino lehen, nekazariak 26.2.b) artikuluan aipatutako sisteman bildutako datuak kontsultatuko ditu, bere eskaera justifikatuta dagoen egiaztatzeko.
En el caso de los operadores de terceros países, las autoridades de control y organismos de control reconocidos de conformidad con el artículo 46, apartado 1, podrán autorizar la introducción de animales no ecológicos en una unidad de producción ecológica, cuando no se disponga de animales ecológicos de calidad o en cantidad	Hirugarren herrialdeetako operadoreei dagokienez, 46.1. artikulua arabera aintzatetsitako kontrol-agintaritzek eta kontrol-organismoek baimena eman ahalko dute ekoizpen ekologikoko unitate batean animalia ez-ekologikoak sartzeko, operadorea dagoen herrialdearen lurraldean ez dagoenean kalitate nahikoko animalia ekologikorik edo animalia ekologiko nahikorik.

suficientes en el territorio del país en el que se encuentre el operador.	
1.3.4.4.1 Para fines de cría, cuando se constituya un rebaño o manada por primera vez podrán introducirse animales jóvenes no ecológicos que se criarán de conformidad con las normas de producción ecológica inmediatamente después del destete. Además, se aplicarán las siguientes restricciones en la fecha en que tales animales entren en el rebaño o manada:	1.3.4.4.1 Hazkuntza-xedeetarako, abere-talde edo animalia-saldo bat lehenengo aldiz eratzen denean, animalia gazte ez-ekologikoak sartu ahalko dira, baina ekoizpen ekologikoari buruzko arauekin bat etorritik haziko dira titia kendu eta berehala. Gainera, murrizketa hauek aplikatuko dira animalia horiek abere-taldean edo animalia-saldoan sartzen diren egunean:
a) los animales bovinos, equinos y cérvidos tendrán menos de seis meses;	a) Behiek, zaldiek eta zerbidoek sei hilabete baino gutxiago edukiko dute.
b) los animales ovinos y caprinos tendrán menos de 60 días;	b) Ardiek eta ahuntzek 60 egun baino gutxiago edukiko dute.
c) los animales porcinos pesarán menos de 35 kilos;	c) Txerriek 35 kilo baino gutxiago pisatuko dute.
d) los conejos tendrán menos de tres meses.	d) Untziek hiru hilabete baino gutxiago edukiko dute.
1.3.4.4.2 Para fines de cría, podrán introducirse animales machos adultos no ecológicos y hembras nuli-paras adultas no ecológicas, destinados a la renovación de un rebaño o una manada. Se criarán posteriormente de conformidad con las normas de producción ecológica. Además, el número de hembras estará sometido a las siguientes restricciones anuales:	1.3.4.4.2 Hazkuntza-xedeetarako, animalia ar heldu ez-ekologikoak eta eme nuliparo heldu ez-ekologikoak sartu ahalko dira abere-talde edo animalia-saldo bat berritzeko. Ondoren, ekoizpen ekologikoari buruzko arauekin bat etorritik haziko dira. Gainera, emeen kopuruak urteroko murrizketa hauek edukiko ditu:
a) se podrá introducir un máximo de un 10 % de animales adultos equinos o bovinos y de un 20 % de animales adultos porcinos, ovinos o caprinos, conejos o cérvidos;	a) Zaldi edo behi helduen % 10 eta txerri, ardi, ahuntz, untxi edo zerbidoen % 20 sartu ahalko dira gehienez.
b) en las unidades con menos de diez animales equinos, cérvidos o bovinos, o conejos, o menos de cinco animales de las especies porcina, ovina o caprina, toda renovación se limitará a un máximo de un animal por año.	b) Hamar zaldi, zerbido, behi edo untxi baino gutxiago edo bost txerri, ardi edo ahuntz baino gutxiago dauzkaten unitateetan, berritze ororen muga animalia bat izango da urtean, gehienez ere.
1.3.4.4.3 Los porcentajes fijados en el punto 1.3.4.4.2 podrán incrementarse hasta el 40 % siempre que la autoridad competente haya confirmado que se cumple alguna de las siguientes condiciones:	1.3.4.4.3 Zati honen 1.3.4.4.2 puntuan ezarritako ehunekoak % 40raino handitu ahalko dira, agintaritza eskudunak baieztatu badu baldintza hauetako bat betetzen dela:
a) se haya emprendido una importante ampliación de la explotación;	a) Ustategia asko handitzeko prozesua abiatu da.
b) se haya sustituido una raza por otra;	b) Arraza baten ordeztasun bat jarri da.
c) se haya iniciado una nueva especialización ganadera.	c) Beste abeltzaintza-espezializazio bati ekin zaio.
1.3.4.4.4 En los casos de los puntos 1.3.4.4.1, 1.3.4.4.2 y 1.3.4.4.3, únicamente podrán considerarse ecológicos los animales no ecológicos si se respeta el período de conversión previsto en el punto 1.2. El período de conversión establecido en el punto 1.2.2 comenzará, como muy pronto, una vez que se introduzca a los animales en la unidad de producción en conversión.	1.3.4.4.4 Zati honen 1.3.4.4.1, 1.3.4.4.2 eta 1.3.4.4.3 puntuetako kasuetan, animalia ez-ekologikoak ekologikotzat jotzeko, ezinbestekoa izango da 1.2 puntuan xedatutako bihurtze-aldia betetzea. Bestalde, 1.2.2 puntuan ezarritako bihurtze-aldia, goizenez, animaliak bihurtze-aldiko ekoizpeneko unitatean sartutakoan hasiko da.

1.3.4.4.5 En los casos de los puntos 1.3.4.4.1 a 1.3.4.4.4, los animales no ecológicos se mantendrán separados de otros animales o se deberán mantener identificados hasta el final del período de conversión a que se refiere el punto 1.3.4.4.4.	1.3.4.4.5 Zati honen 1.3.4.4.1 puntutik 1.3.4.4.4 puntura bitartean aipatutako kasuetan, animalia ez-ekologikoak beste animalia batzuegandik bereizita mantenduko dira edo 1.3.4.4.4 puntuan zehaztutako bihurtze-aldiaren amaierara arte mantendu beharko dira identifikatuta.
1.3.4.5 Los operadores llevarán registros o conservarán documentos justificativos del origen de los animales, identificando a estos de acuerdo con sistemas adecuados (por animal o por lote/manada/colmena), así como de los registros veterinarios de los animales introducidos en la explotación, la fecha de llegada y del período de conversión.	1.3.4.5 Operadoreek animalien jatorriaren erregistroak eduki edo frogagiriak gordeko dituzte, zeinetan animaliak sistema egokien arabera (animaliaka edo sortaka/saldoka/erlauntzaka) egongo baitira identifikatuta, baita ustategian sartutako animalien, heltze-dataren eta bihurtze-aldiaren albaitari-erregistroak ere.
1.4 Alimentación	1.4 Elikadura
1.4.1 Requisitos nutricionales generales	1.4.1 Nutrizio-betekizun orokorrak
Por lo que se refiere a la alimentación se aplicarán las normas siguientes:	Elikadurari dagokionez, arau hauek aplikatuko dira:
a) los piensos para los animales procederán básicamente de la explotación agraria en la que se encuentren los animales o de unidades de producción ecológica o en conversión pertenecientes a otras explotaciones de la misma región;	a) Animalientzako pentsuak animaliak dauden nekazaritza-ustategitik edo eskualde bereko beste ustategi batzuetakoak diren ekoizpen ekologikoko unitateetatik edo bihurtze-aldiko ekoizpeneko unitateetatik etorriko dira nagusiki.
b) los animales se alimentarán con piensos ecológicos o en conversión que cubran las necesidades nutricionales de los animales en las diversas etapas de su desarrollo; no se permitirá en la producción animal la alimentación restringida a no ser que esté justificado por razones veterinarias;	b) Animaliak pentsu ekologiko edo bihurtze-aldiko pentsu egokiekin elikatuko dira, garapen-etapa bakoitzean dituzten nutrizio-beharrak betetzeko; animalia-ekoizpenean ez da onartuko elikadura mugatua, albaitaritzarekin lotutako arrazoiengatik justifikatuta egon ezean.
c) no se someterá a los animales a unas condiciones o a una dieta que puedan favorecer la aparición de anemias;	c) Animaliei ez zaizkie ezarriko anemiak eragin ditzaketen egoerak edo dietak.
d) las prácticas de engorde respetarán siempre las pautas de alimentación normales de cada especie y el bienestar de los animales en cualquier fase del proceso de cría; queda prohibida la alimentación forzada;	d) Gizentze-praktiketan, hazkuntza-prozesuaren fase orotan errespetatuko dira bai espezie bakoitzaren elikadura-eredu normalak, bai animalien ongizatea. Elikadura bortxatua debekatuta dago.
e) los animales, con excepción de los animales porcinos, las aves de corral y las abejas, tendrán acceso permanente a pastos, siempre que las condiciones lo permitan, o a forrajes;	e) Animaliek —salbu eta txerriek, eskortako hegaztiek eta erleek— sarbide iraunkorra edukiko dute larreetara, egoerak ahalbidetzen duenean, edo bazketara, bestela.
f) no se utilizarán factores de crecimiento ni aminoácidos sintéticos;	f) Ez da erabiliko ez hazkunde-faktorerik ez aminoazido sintetikorik.
g) los animales lactantes se alimentarán preferentemente con leche materna durante un período mínimo que la Comisión determinará con arreglo al artículo 14, apartado 3, letra a); no se utilizarán durante este período sustitutivos de la leche que contengan componentes sintetizados químicamente o componentes de origen vegetal;	g) Animalia edoskitzaileak, ahal denean, ama-esnez elikatuko dira Batzordeak 14.3.a) artikuluaaren arabera zehaztuko duen gutxieneko aldi batez; aldi horretan, ez da erabiliko esne-ordezkorik, kimikoki sintetizatutako osagaiak edo landare-jatorriko osagaiak dauzkanik.

h) las materias primas para piensos que procedan de vegetales, algas, animales o levaduras serán ecológicas;	h) Landareetatik, algetatik, animalietatik edo legamietatik datozen pentsuetarako lehengaiak ekologikoak izango dira.
i) las materias primas para piensos que procedan de vegetales, algas, animales o levaduras no ecológicos, las materias primas para piensos de origen microbiano o mineral, los aditivos para alimentación animal y los coadyuvantes tecnológicos solo podrán utilizarse si han sido autorizados de conformidad con el artículo 24 para su uso en la producción ecológica.	i) Landare, alga, animalia edo legamia ez-ekologikoetatik datozen pentsuetarako lehengaiak, mikrobio- edo mineral-jatorriko pentsuetarako lehengaiak, animalien elikadurarako gehigarriak eta laguntzaile teknologikoak erabiltzeko, ezinbestekoa izango da ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimenduta egotea 24. artikuluaaren arabera.
1.4.2 Pastoreo	1.4.2 Larratzea
1.4.2.1 Pastoreo en terrenos ecológicos	1.4.2.1 Lursail ekologikoetan larratzea
Sin perjuicio de lo dispuesto en el punto 1.4.2.2, los animales ecológicos pastarán en terrenos ecológicos. No obstante, los animales no ecológicos podrán pastar en pastizales ecológicos durante un período limitado cada año, siempre que dichos animales hayan sido criados aplicando prácticas respetuosas con el medio ambiente en terrenos que reciban ayudas en virtud de los artículos 23, 25, 28, 30, 31 y 34 del Reglamento (UE) n.o 1305/2013 y que no se encuentren en el terreno ecológico al mismo tiempo que los animales ecológicos.	Atal honetako 1.4.2.2 puntuan xedatutakoa ezertan eragotzi gabe, animalia ekologikoak lursail ekologikoetan larratuko dira. Hala ere, animalia ez-ekologikoak larre ekologikoetan larratu ahalko dira urtero aldi mugatu batez, baldin eta animalia horiek haztean ingurumena errespetatzen dituzten praktikak aplikatu badira (EB) 1305/2013 Erregelamenduaren 23., 25., 28., 30., 31. eta 34. artikuluen arabera laguntzak jasotzen dituzten lursailetan eta ez badaude animalia ekologikoekin batera lursail ekologikoan.
1.4.2.2 Pastoreo en terrenos comunales y de trashumancia	1.4.2.2 Herri-lurretan eta transhumantzia-lurretan larratzea
1.4.2.2.1 Los animales ecológicos podrán pastar en terrenos comunales, siempre que:	1.4.2.2.1 Animalia ekologikoak herri-lurretan larratu ahalko dira, baldintza hauek beteta:
a) los terrenos comunales no se hayan tratado con productos o sustancias no autorizados para su uso en la producción ecológica durante al menos tres años;	a) Herri-lurrak ez tratatzea ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimenduta ez dauden produktuekin edo substantziekin gutxienez hiru urtean.
b) cualquier animal no ecológico que haga uso de terrenos comunales haya sido criado aplicando prácticas respetuosas con el medio ambiente en terrenos que reciban ayudas en virtud de los artículos 23, 25, 28, 30, 31 y 34 del Reglamento (UE) n.o 1305/2013;	b) Herri-lurrak erabiltzen dituzten animalia ez-ekologiko guztiak hazteko ingurumena errespetatzen dituzten praktikak aplikatzea (EB) 1305/2013 Erregelamenduaren 23., 25., 28., 30., 31. eta 34. artikuluen arabera laguntzak jasotzen dituzten lursailetan.
c) cualquier producto animal obtenido de animales ecológicos, producido durante el período en que esos animales pasten en terrenos comunales, no se considere producto ecológico, a menos que pueda demostrarse que dichos animales han estado correctamente segregados de los animales no ecológicos.	c) Animalia ekologikoetatik eratorritako animalia-produktuak —animalia horiek herri-lurretan larratu diren aldian ekoitziak— produktu ekologikotzat ez jotzea, salbu eta frogatu badaiteke animalia horiek animalia ez-ekologikoengandik ondo bereizita egon direla.
1.4.2.2.2 Durante el período de la trashumancia, los animales ecológicos podrán pastar en terrenos no ecológicos cuando se trasladen andando de una zona de pastoreo a otra. Durante dicho período, los animales ecológicos se mantendrán separados de otros animales. Se permitirá el consumo de piensos no ecológicos, en forma de hierba u otra vegetación que pasten los animales:	1.4.2.2.2 Transhumantzia-aldian, animalia ekologikoak lur ez-ekologikoetan larratu ahalko dira larratze-zona batetik beste batera oinez izan direnean. Aldi horretan, animalia ekologikoak beste animaliengandik bereizita egongo dira. Pentsu ez-ekologikoak kontsumitzea onartuko da, dela belar moduan, dela animaliek larratzen duten beste landaredi baten moduan:

a) durante un período máximo de 35 días, abarcando tanto el viaje de ida como el de vuelta; o	a) 35 egunez gehienez, bai joateko bidaia bai etortzekoa barne hartuta; edo
b) hasta un 10 % del suministro total de piensos anual calculado como porcentaje de la materia seca de los alimentos de origen agrícola para animales.	b) urteko guztizko pentsu-horniduraren % 10eraino, nekazaritza-jatorrikoa den animalientzako elikagaien materia lehorren ehunekoa kontuan harturik kalkulatuta.
1.4.3 Pienso en conversión	1.4.3 Bihurtze-aldiko pentsuak
1.4.3.1 En el caso de las explotaciones agrarias que producen animales ecológicos:	1.4.3.1 Animalia ekologikoak ekoizten dituzten nekazaritza-ustategietan:
a) hasta el 25 % por término medio de la fórmula alimentaria de las raciones puede incluir piensos en conversión a partir del segundo año de conversión. Podrá aumentarse este porcentaje hasta el 100 % si estos piensos en conversión proceden de la explotación en la que se mantienen los animales, y	a) Anoen elikadura-formularen % 25ek gehienez eduki ditzake batez beste bihurtze-aldiko pentsuak, bihurtze-prozesuaren bigarren urtetik aurrera. Ehuneko hori % 100eraino handitu ahalko da bihurtze-aldiko pentsuak animaliak gordetzen diren ustategitik badatoz.
b) hasta el 20 % de la cantidad media total de los piensos consumidos por los animales podrá proceder del pasto o de la cosecha de pastos permanentes, de parcelas de forrajes perennes o de cultivos proteaginosos, sembradas de conformidad con la gestión ecológica en terrenos que estén en su primer año de conversión, a condición de que dichos terrenos formen parte de la propia explotación.	b) Animaliek kontsumitzen dituzten pentsuen guztizko batezbestekoaren % 20 gehienez etorri ahalko da bihurtze-prozesuko lehen urtean dauden lurretan kudeaketa ekologikoarekin bat etorritik ereindako larre iraunkorren, bazka iraunkorren lurzatiak edo proteina-laboreen larretik edo uztatik, baldin eta lur horiek ustategikoak bertakoak badira.
Cuando se utilicen para la alimentación animal los dos tipos de piensos en conversión contemplados en las letras a) y b), el porcentaje combinado total de tales piensos no deberá rebasar los porcentajes máximos fijados en la letra a).	Aurreko a) eta b) letretan xedatutako bihurtze-aldiko pentsuen bi motak erabiltzen direnean animalien elikadurarako, horrelako pentsuen guztizko ehuneko konbinatuak ez ditu gaitu behar a) leturan ezarritako gehieneko ehunekoak.
1.4.3.2 Las cifras mencionadas en el punto 1.4.3.1 se calcularán anualmente como porcentaje de la materia seca de los piensos de origen vegetal.	1.4.3.2 Zati honetako 1.4.3.1 puntuan aipatutako kopuruak urtero kalkulatu dira, landare-jatorriko pentsuen materia lehorren ehuneko gisa.
1.4.4 Registros del régimen de alimentación	1.4.4 Elikadura-erregimenaren erregistroak
Los operadores llevarán registros del régimen de alimentación y, cuando proceda, del período de pasto. En particular, llevarán registros del nombre de los piensos, que incluirán cualquier forma de pienso utilizado, por ejemplo pienso compuesto, las proporciones de las distintas materias primas para piensos de las raciones y la proporción de piensos procedentes de su propia explotación o de la misma región y, cuando proceda, los períodos de acceso a las zonas de pastoreo, los períodos de trashumancia en los que se apliquen restricciones y los documentos justificativos de la aplicación de los puntos 1.4.2 y 1.4.3.	Operadoreek elikadura-erregimenaren erregistroak eta, hala dagokionean, larratze-aldiaren erregistroak edukiko dituzte. Bereziki, alderdi hauen erregistroak edukiko dituzte: pentsuen izena —erabilitako edozein pentsu mota barne, adibidez, pentsu konposatua—, pentsuetarako lehengai bakoitzaren anoen proportzioa eta ustategitik bertatik edo eskualde bertatik datozen pentsuen proportzioa eta, hala dagokionean, larratze-zonetan sartzeko aldiak, murrizketak aplikatzen diren transhumantzia-aldiak eta 1.4.2 eta 1.4.3 puntuen aplikazioa frogatzen duten dokumentuak.
1.5 Atención sanitaria	1.5 Osasun-arreta
1.5.1 Profilaxis	1.5.1 Profilaxia
1.5.1.1 La profilaxis se basará en la selección de razas y estirpes, las prácticas de gestión pecuaria, los piensos de alta calidad, el ejercicio, las densidades de población adecuadas y el	1.5.1.1 Jarduketa hauetan oinarrituko da profilaxia: arrazak eta leinuak hautatzea, abeltzaintza kudeatzea, kalitate handiko pentsuak bermatzea, ariketa fisikoa eginaraztea, populazio-dentsitatea

alojamiento apropiado y adecuado en buenas condiciones higiénicas.	egokia dela zaintzea eta ostatua aproposa, egokia eta egoera higieniko onekoa dela begiratzea.
1.5.1.2 Se podrán usar medicamentos veterinarios inmunológicos.	1.5.1.2 Albaitaritza-medikamentu immunologikoak erabili ahalko dira.
1.5.1.3 No se podrán usar como tratamiento preventivo medicamentos veterinarios alopáticos de síntesis química, incluidos los antibióticos y bolos compuestos de moléculas alopáticas de síntesis química.	1.5.1.3 Ezingo da prebentzio-tratamendu gisa erabili sintesi kimikoko albaitaritza-medikamentu alopatikorik, sintesi kimikoko molekula alopatiko osatutako boloak eta antibiotikoak barne.
1.5.1.4 No se podrán emplear sustancias para estimular el crecimiento o la producción (incluidos los antibióticos, los coccidiostáticos y otras sustancias artificiales que estimulan el crecimiento) ni hormonas o sustancias similares para el control de la reproducción o con otros fines (por ejemplo, la inducción o sincronización del celo).	1.5.1.4 Ezingo da erabili hazkundera edo ekoizpena estimulatzeko substantziarik (antibiotikoak, kokzidiostatikoak eta hazkundera estimulaten duten beste substantzia artifizia batzuk barne), ezta hormonarik eta antzeko substantziarik ere ugalketa kontrolatzeko edo beste xede batzuetarako (adibidez, araldia indultzeko edo sinkronizatzeko).
1.5.1.5 En caso de que los animales procedan de unidades de producción no ecológica, se aplicarán medidas especiales, tales como pruebas de detección y períodos de cuarentena, dependiendo de las circunstancias locales.	1.5.1.5 Animaliak ekoizpen ez-ekologikoko unitateetatik badatoz, neurri bereziak aplikatuko dira, hala nola detekzio-probak eta berrogeialdiak, tokiko inguruabarren arabera.
1.5.1.6 En los edificios e instalaciones de los animales solo se utilizarán los productos de limpieza y desinfección autorizados de conformidad con el artículo 24 para su uso en la producción ecológica con esos fines.	1.5.1.6 Animalien eraikinetan eta instalazioetan, 24. artikularen arabera xede horietarako ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimenduta dauden garbiketa- eta desinfekzio-produktuak bakarrik erabiliko dira.
Los operadores llevarán registros de la utilización de dichos productos, que incluirán la fecha o las fechas en las que se haya utilizado el producto, el nombre de este, sus sustancias activas y el lugar de dicha utilización.	Operadoreek produktu horien erabileraren erregistroak edukiko dituzte, eta, erregistro horietan, datu hauek jasoko dira: zein egunetan erabili den produktua, zer izen duen, zer osagai aktibo dituen eta non erabili den.
1.5.1.7 Los alojamientos, recintos, equipo y utensilios deberán limpiarse y desinfectarse convenientemente a fin de evitar las infecciones cruzadas y la aparición de organismos patógenos. Las heces, la orina y los alimentos derramados o no consumidos deberán retirarse con la frecuencia necesaria para reducir al máximo los malos olores y no atraer insectos o roedores. Podrán utilizarse rodenticidas (únicamente en trampas) y productos y sustancias autorizados de conformidad con los artículos 9 y 24 para su uso en la producción ecológica con el fin de eliminar insectos y otras plagas de los edificios y demás instalaciones en las que se mantengan los animales.	1.5.1.7 Ostatuak, esparruak, ekipamendua eta tresnak egokiro garbitu eta desinfektatu beharko dira, infekzio gurutzatuak eta organismo patogenoen agerpena saihesteko. Gorotzak, gernua eta isuri diren edo kontsumitu ez diren elikagaiak beharrezkoa den maiztasunarekin kendu beharko dira, kiratsak ahalik eta gehien murrizteko eta intsekturik eta karraskaririk ez erakartzeko. Erroditizidak erabili ahalko dira (tranpetan bakarrik), baita 9. eta 24. artikuluen arabera ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimenduta dauden produktuak eta substantziak ere, intsektuak eta beste izurri batzuk ezabatze animaliak egoten diren eraikinetatik eta bestelako instalazioetatik.
1.5.2 Tratamiento veterinario	1.5.2 Albaitaritza-tratamendua
1.5.2.1 Cuando, a pesar de las medidas preventivas para garantizar la sanidad animal, los animales enfermen o se lesionen, serán tratados inmediatamente.	1.5.2.1 Animalien osasuna bermatzeko prebentzio-neurriak gorabehera animaliak gaixotzen edo kaltetzen direnean, berehala jasoko dute tratamendua.
1.5.2.2 Las enfermedades se tratarán inmediatamente para evitar el sufrimiento de los animales. Podrán utilizarse medicamentos veterinarios alopáticos de síntesis química,	1.5.2.2 Gaixotasunak berehala tratatuko dira, animalien sufrimendua saihesteko. Sintesi kimikoko albaitaritza-medikamentu alopatikoak (antibiotikoak barne) erabili ahalko dira beharrezkoa bada,

incluidos los antibióticos, en caso necesario, en condiciones estrictas y bajo la responsabilidad de un veterinario, cuando no resulte apropiado el uso de productos fitoterapéuticos, homeopáticos y de otros tipos. En particular se establecerán restricciones respecto de los tratamientos y de los períodos de espera.	baldintza zorrotzetan eta albaitari baten erantzukizunpean, ez denean egokia produktu fitoterapeutikoak, homeopatikokoak eta bestelakoak erabiltzea. Tratamenduetarako eta itxaronaldietarako murrizketak ezarriko dira bereziki.
1.5.2.3 Se dará preferencia a la utilización de materias primas para piensos de origen mineral autorizados de conformidad con el artículo 24 para su uso en la producción ecológica, aditivos nutricionales autorizados de conformidad con el artículo 24 para su uso en la producción ecológica y productos fitoterapéuticos y homeopáticos frente a los tratamientos con medicamentos veterinarios alopáticos de síntesis química, incluidos los antibióticos, siempre que sus efectos terapéuticos resulten eficaces para la especie animal y la afección a la que vaya dirigido el tratamiento.	1.5.2.3 Produktu hauek erabiltzeari emango zaio lehentasuna sintesi kimikoko albaitaritza-medikamentu alopatikoz osatutako tratamenduen gainetik (antibiotikoak barne): 24. artikulua arabera ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimenduta dauden mineral-jatorriko pentsuetarako lehengaiak, 24. artikulua arabera ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimenduta dauden nutrizio-gehiarriak eta produktu fitoterapeutikoak eta homeopatikokoak, non eta haien efektu terapeutikoak eraginkorrak diren tratamenduaren xede den animalia-espezierako eta eritasunerako.
1.5.2.4 Con excepción de las vacunaciones, los tratamientos antiparasitarios y los programas de erradicación obligatorios, cuando un animal o un grupo de animales reciba más de tres tandas de tratamiento con medicamentos veterinarios alopáticos de síntesis química, incluidos los antibióticos, en un plazo de doce meses (o más de una tanda de tratamiento si su ciclo de vida productiva es inferior a un año), ni los animales afectados ni los productos derivados de ellos podrán venderse como productos ecológicos y los animales deberán someterse a los períodos de conversión establecidos en el punto 1.2.	1.5.2.4 Txertaketak, parasitoen kontrako tratamenduak eta nahitaezko erauzte-programak alde batera utzita, animalia batek edo animalia-talde batek hiru tratamendu-txanda baino gehiago jasotzen dituenean sintesi kimikoko albaitaritza-medikamentu alopatikoekin (antibiotikoak barne) hamabi hilabeteko epean (edo tratamendu-txanda bat baino gehiago, haren bizi produktiboaren zikloa urtebete baino laburragoa bada), animalia horiek eta haietatik eratorritako produktuak ezingo dira produktu ekologiko gisa saldu, eta animaliek 1.2 puntuan ezarritako bihurtze-aldiak bete beharko dituzte.
1.5.2.5 El tiempo de espera entre la última administración de un medicamento veterinario de síntesis química, incluidos los antibióticos, a un animal, en las condiciones normales de uso, y la obtención de productos alimenticios ecológicos que procedan de dicho animal duplicará el tiempo de espera mencionado en el artículo 11 de la Directiva 2001/82/CE y será, al menos, de 48 horas.	1.5.2.5 Animalia bati, erabilera-kondizio normaletan, sintesi kimikoko albaitaritza-medikamentu bat (antibiotikoak barne) ematen zaion azken alditik animalia horretatik datozen elikadura-produktu ekologikoak ateratzen diren arteko itxaronaldiak bikoiztu egingo du 2001/82/EE Zuzentarauaren 11. artikuluan aipatutako itxaronaldia, eta, gutxienez, 48 ordu iraungo du.
1.5.2.6 Se permitirán tratamientos relacionados con la protección de la salud humana y animal impuestos sobre la base de la legislación de la Unión.	1.5.2.6 Gizakien eta animalien osasuna babestearekin lotutako tratamenduak baimenduko dira, Batasuneko legeria oinarri hartuta ezarritakoak diren heinean.
1.5.2.7 Los operadores llevarán registros o conservarán los documentos justificativos de todo tratamiento aplicado y, en particular, la identificación de los animales tratados, la fecha del tratamiento, el diagnóstico, la posología, el nombre del producto de tratamiento y, en su caso, la prescripción veterinaria de cuidados veterinarios, y el tiempo de espera aplicado antes de que los productos animales puedan comercializarse y etiquetarse como ecológicos.	1.5.2.7 Operadoreek aplikatutako tratamendu ororen erregistroak eduki edo frogagiriak gordeko dituzte, bereziki, alderdi hauei buruzkoak: tratatutako animalien identifikazioa, tratamenduaren data, diagnostikoa, posologia, tratamendu-produktuaren izena eta, hala badagokio, albaitari-zaintzen albaitari-preskripzioa, eta animalia-produktuak ekologiko gisa merkaturatu eta etiketatu ahal izan baino lehen aplikatutako itxaronaldia.
1.6 Alojamiento y prácticas pecuarias	1.6 Ostatua eta abeltzaintza-praktikak

1.6.1 El aislamiento, la calefacción y la ventilación del edificio deberán garantizar que la circulación del aire, el nivel de polvo, la temperatura, la humedad relativa del aire y la concentración de gases se mantengan dentro de unos límites que aseguren el bienestar de los animales. El edificio deberá permitir una abundante ventilación y entrada de luz naturales.	1.6.1 Eraikinaren isolamenduak, berokuntzak eta aireztapenak bermatu beharko dute animalien ongizatea ziurtatzen duten mugen barruan mantentzen direla airearen zirkulazioa, hauts kantitatea, tenperatura, airearen hezetasun erlatiboa eta gas-kontzentrazioa. Eraikinak aireztapen handia eta argi-sarrera natural ugari eduki beharko du.
1.6.2 No será obligatorio disponer de alojamiento para los animales en zonas en que las condiciones climatológicas posibiliten la vida de los animales al aire libre. En tales casos, los animales tendrán acceso a refugios o zonas de sombra para protegerse de las condiciones climáticas adversas.	1.6.2 Ez da ezinbestekoa izango animalientzako ostatua edukitzea inguruabar klimatologikoek animaliak aire zabalean bizitzea ahalbidetzen duten zonetan. Horrelakoetan, animaliek aterpe edo itzalguneetarako sarbidea edukiko dute inguruabar klimatiko kaltegarrietatik babes hartzeko.
1.6.3 La densidad de población animal en los edificios será compatible con la comodidad y el bienestar de los animales, así como con las necesidades específicas de la especie, factores que dependerán, concretamente, de la especie, raza y edad de los animales. Tendrá en cuenta asimismo las necesidades inherentes al comportamiento de los animales, que dependen principalmente del tamaño del grupo y del sexo de dichos animales. La densidad ha de garantizar el bienestar de los animales, dándoles espacio suficiente para mantenerse erguidos de forma natural, moverse, acostarse fácilmente, girarse, asearse, estar en cualquier posición normal y hacer todos los movimientos naturales, como estirarse y agitar las alas.	1.6.3 Eraikinetako animalien populazio-dentsitatea bateragarria izango da animalien erosotasunarekin eta ongizatearekin, baita espeziearen behar zehatzekin ere; faktore horiek, zehazki, animalien espeziearen, arrazaren eta adinaren arabekoak izango dira. Era berean, animalien portaerari datxezkion beharrak hartuko dira kontuan, zeinak animalia-taldearen tamainaren eta animalien sexuaren arabekoak baitira nagusiki. Dentsitateak animalien ongizatea bermatu behar du, behar adinako lekua emanaz animaliak modu naturalean zutik egoteko, mugitzeko, erraz etzateko, biratzeko, beren burua garbitzeko, edozein jarrera normalean egoteko eta mugimendu natural guztiak egiteko (hala nola luzatzeko eta hegoak astintzeko).
1.6.4 Se respetarán las superficies mínimas de las zonas cubiertas y al aire libre, y las especificaciones técnicas relativas al alojamiento que se establezcan en los actos de ejecución a que se refiere el artículo 14, apartado 3.	1.6.4 Zona estalien eta aire zabaleko zonen gutxieneko azalerei dagokienez eta ostatuari buruzko zehaztapen teknikoei dagokienez 14.3 artikuluan zehaztutako betearazpen-egintzetan ezarritakoa beteko da.
1.6.5 Las zonas al aire libre podrán estar parcialmente cubiertas. Los porches no se considerarán zonas al aire libre.	1.6.5 Aire zabaleko zonak hein batean estalita egon ahalko dira. Portxeak ez dira joko aire zabaleko zonatzat.
1.6.6 La carga ganadera total no rebasará el límite de 170 kg de nitrógeno orgánico al año por hectárea de superficie agrícola.	1.6.6 Guztizko abere-zamak ez du muga hau gaindituko: nekazaritza-eremuko hektarea bakoitzeko 170 kg nitrogeno organiko urtean.
1.6.7 Para determinar la carga ganadera adecuada a que se hace referencia en el punto 1.6.6, la autoridad competente fijará el número de unidades de ganado equivalentes al límite contemplado en el punto 1.6.6, según las cifras establecidas en cada uno de los requisitos específicos según el tipo de producción animal.	1.6.7 Aurreko 1.6.6 puntuan aipatzen den abere-zama egokia zein den zehazte aldera, agintaritza eskudunak 1.6.6 puntuan xedatutako mugaren baliokidea den abere-unitateen kopurua ezarriko du, kontuan hartuta animalia-ekoizpen motaren arabera betekizun zehatz bakoitzean ezarritako kopuruak.
1.6.8 No se podrán utilizar para la cría de ninguna especie de animales jaulas, cajas o plataformas.	1.6.8 Ezingo da kaiolarik, kutxarik edo plataformarik erabili inolako animalia-espezietako hazkuntzan.
1.6.9 Cuando se trate a los animales de forma individual por motivos veterinarios, deberán mantenerse en espacios que dispongan de un suelo firme y se les deberá facilitar paja o zonas de	1.6.9 Albaitaritzarekin lotutako arrazoiengatik animaliei banakako tratamendua ematen zaienean, zoru sendoa daukaten espazioetan gorde beharko dira, eta lastoa edo atseden hartzeko zona egokiak

descanso apropiadas. Los animales tendrán que poder girarse sin dificultad y poder acostarse estirados con comodidad.	eman beharko zaizkie. Animaliek aukera izan beharko dute zailtasunik gabe biratzeko eta erosotasunez luzatuta etzateko.
1.6.10 No se podrá criar a animales ecológicos en recintos con suelos muy húmedos o mojados.	1.6.10 Ezingo da animalia ekologikorik hazi zoru oso hezeak edo bustiak dauzkaten esparruetan.
1.7 Bienestar de los animales	1.7 Animalien ongizatea
1.7.1 Todas las personas encargadas del mantenimiento de los animales y de la manipulación de los animales durante el transporte o el sacrificio poseerán los conocimientos y capacitación básicos necesarios en relación con los requisitos sanitarios y de bienestar de los animales y habrán recibido la formación adecuada, tal como se exige en particular en los Reglamentos (CE) n.o 1/2005 (26) y (CE) n.o 1099/2009 (27) del Consejo, para garantizar que se apliquen correctamente las normas que establece el presente Reglamento.	1.7.1 Animaliak mantentzeaz eta garraiatzeko edo hiltzeko prozesuetan animalioek manipulatzeko arduratzen diren pertsona guztiek beharrezkoak diren oinarritzko ezagutzak eta trebakuntza edukiko dituzte animalien osasunarekin eta ongizatearekin zerikusia duten betekizunei buruz, eta prestakuntza egokia jasota eduki beharko dute, (EE) 1/2005 Erregelamenduan (26) eta Kontseiluaren (EE) 1099/2009 Erregelamenduan (27) bereziki eskatzen den moduan, erregelamendu honek ezartzen dituen arauak ondo aplikatzen direla bermatzeko.
1.7.2 Las prácticas pecuarias, incluida la carga ganadera, y las condiciones de alojamiento satisfarán las necesidades fisiológicas, etológicas y de desarrollo de los animales.	1.7.2 Abeltzaintza-praktikek, abere-zama barne, eta ostatu-baldintzek animalien behar fisiologikoak, behar etologikoak eta garapen-beharrak beteko dituzte.
1.7.3 Los animales tendrán acceso permanente a zonas al aire libre que les permitan hacer ejercicio, preferiblemente pastizales, siempre que las condiciones climatológicas y estacionales y el estado de la tierra lo permitan, salvo que se hayan establecido restricciones y obligaciones relacionadas con la protección de la salud humana y animal en virtud de la legislación de la Unión.	1.7.3 Animaliek etengabe izango dute sarbidea ariketa fisikoa egiteko moduko aire zabaleko zonetara—ahal bada, larreetara—, klima- eta urtaro-inguruabarrek eta lurraren egoerak aukera hori ematen duten heinean, salbu eta murrizketak eta betebeharrak ezarri badira gizakien eta animalien osasunaren babesarekin lotuta, Batasuneko legeriarekin bat etorrita.
1.7.4 El número de animales estará limitado con objeto de minimizar el sobrepastoreo y el deterioro, la erosión y la contaminación del suelo debidos a los animales o al esparcimiento de sus excrementos.	1.7.4 Animalien kopurua mugatuta egongo da, ahal beste murrizteko bai gehiegizko larratzea, bai animaliek edo haien gorotzen barreiadurak lurzoruan eragindako narriadura, higadura eta kutsadura.
1.7.5 Quedan prohibidos el amarrado o aislamiento del ganado, salvo cuando se trate de animales determinados durante un período limitado de tiempo y en la medida en que esté justificado por razones veterinarias. El aislamiento del ganado únicamente podrá autorizarse, y solo durante un período de tiempo limitado, cuando esté en peligro la seguridad de los trabajadores o por razones de bienestar animal. Las autoridades competentes podrán autorizar que los animales de las explotaciones con un máximo de 50 animales (sin contar los animales jóvenes) se mantengan amarrados cuando no se puedan mantener en grupos adecuados para sus necesidades de comportamiento, siempre que tengan acceso a pastos durante el período de pasto y puedan salir al menos dos veces por semana a zonas al aire libre cuando no sea posible pastar.	1.7.5 Debekatuta dago abereak lotzea eta bakartzea, salbu eta animalia jakin batzuk badira eta aldi mugatu batez egiten bada, albaitaritzarekin lotutako arrazoiengatik justifikatuta dagoen neurrian. Abereak bakartzea baimentzeko ezinbestekoa izango da langileen segurtasuna arriskuan egotea edo animalien ongizatearekin lotutako arrazoiaren bat egotea, eta horrelakoetan ere aldi mugatu batez bakarrik baimenduko da. Agintaritza eskudunek baimena eman ahalko dute gehienez 50 animalia (animalia gazteak zenbatu gabe) dauzkaten ustategietako animaliak lotuta edukitzeko, ezin direnean haien portaera-beharretarako egokiak diren taldeetan eduki, baldin eta larratze-aldi guztian larreetarako sarbidea badaukate eta larratu ezin denean asteen bi aldiz gutxienez irten badaitezke aire zabaleko zonetara.
1.7.6 Se reducirá al mínimo el tiempo de transporte de los animales.	1.7.6 Animaliak garraiatzeko denbora ahalik eta gehien murriztuko da.

1.7.7 Se evitará y reducirá al mínimo el sufrimiento, el dolor y la angustia durante toda la vida de los animales, incluso en el momento del sacrificio.	1.7.7 Animalien bizitza osoan sufrimendua, mina eta larritasuna saihestu eta ahalik eta gehien murriztuko dira, baita hiltzeko unean ere.
1.7.8 Sin perjuicio de la evolución de la legislación de la Unión en materia de bienestar de los animales, prácticas como el corte del rabo de las ovejas, el recorte del pico de los pollos de no más de tres días o el descuerne solo podrán permitirse con carácter excepcional, caso por caso, y solo cuando dichas prácticas aporten mejoras de salud, bienestar o higiene a los animales o cuando, de otro modo, peligre la seguridad de los trabajadores. El desyemado, solo podrá permitirse, caso por caso, cuando mejore la salud, el bienestar o la higiene de los animales o cuando, de otro modo, peligre la seguridad de los trabajadores. La autoridad competente únicamente autorizará esas prácticas cuando el operador lo haya justificado debidamente, lo haya notificado a esa autoridad competente y las prácticas vayan a realizarse por personal cualificado.	1.7.8 Batasunean animalien ongizatearen arloan dagoen legeriaren bilakaera ezertan eragotzi gabe, salbuespenez bakarrik baimendu ahaliko dira zenbait praktika —hala nola ardiei buztana moztea, gehienez hiru eguneko oilaskoei mokoia moztea eta adarrak kentzea—; halakoetan, kasuz kasu aztertuko da egoera, eta animalien osasuna, ongizatea edo higieña hobetzen dituztenean edo halakorik egin ezean langileen segurtasuna arriskuan dagoenean bakarrik onartuko dira praktika horiek. Adar-begiak kentzea baimentzeko, kasuz kasu aztertuko da egoera, eta animalien osasuna, ongizatea edo higieña hobetzen dituztenean edo halakorik egin ezean langileen segurtasuna arriskuan dagoenean bakarrik baimenduko da. Agintaritza eskudunak praktika horiek baimendu ditzan, ezinbestekoa izango da operadoreak praktika horiek behar bezala justifikatuta izatea, agintaritza eskudun horri jakinarazita edukitzea eta praktikak langile kualifikatu batek egitea.
1.7.9 El sufrimiento de los animales se reducirá al mínimo mediante la aplicación de una anestesia o analgesia adecuada y la ejecución de cada operación únicamente a la edad más apropiada por parte de personal cualificado.	1.7.9 Animalien sufrimendua ahalik eta gehien murriztuko da, anestesia edo analgesia egokia aplikatuz eta jarduketa bakoitza adin egokienean bakarrik eginez. Langile kualifikatuek egingo dituzte jarduketok.
1.7.10 Se permitirá la castración física con objeto de mantener la calidad de los productos y las prácticas tradicionales de producción, si bien únicamente en las condiciones establecidas en el punto 1.7.9.	1.7.10 Kastrazio fisikoa baimenduko da produktuen eta ekoizpen-praktika tradizionalen kalitatea mantentzeko helburuarekin, baina 1.7.9 puntuan ezarritako baldintzetan bakarrik.
1.7.11 La carga y descarga de los animales se efectuarán sin utilizar ningún sistema de estimulación eléctrica ni de otro tipo que cause dolor para forzar a los animales. Estará prohibido el uso de tranquilizantes alopáticos antes y durante el transporte.	1.7.11 Animaliak garraiatzeko ez da erabiliko ez estimulazio elektrikoko sistemarik, ez animaliak behartzeko min egiten duen bestelako sistemarik. Debekatuta egongo da animaliak garraiatu aurretik eta garraiatu ostean lasaigarriak erabiltzea.
1.7.12 Los operadores llevarán registros o conservarán documentos justificativos de toda operación específica aplicada y de las justificaciones para la aplicación de los puntos 1.7.5, 1.7.8, 1.7.9 o 1.7.10. Por lo que se refiere a los animales que abandonen la explotación, se registrarán, cuando proceda, los datos siguientes: la edad, el número de animales, el peso de los animales de abasto, la identificación adecuada (por animal o por lote/manada/colmena), la fecha de salida y el destino.	1.7.12 Operadoreek behar diren erregistroak eduki edo frogagiriak gordeko dituzte aplikatutako eragiketa zehatz guztien gainean baita 1.7.5, 1.7.8, 1.7.9 eta 1.7.10 puntuak aplikatzeko justifikazioen gainean ere. Ustategia uzten duten animaliei dagokienez, datu hauek erregistratuko dira, bidezkoa denean: adina, animalien kopurua, hiltegiko abereen pisua, identifikazio egokia (animaliaka edo loteka/saldoka/erlauntzaka), irteera-data eta helmuga.
1.8 Preparación de productos sin transformar	1.8 Eraldatu gabeko produktuen prestaketa
Si se llevan a cabo operaciones de preparación de los animales, que no sean de transformación, se aplicarán mutatis mutandis los requisitos generales	Animalietan eraldaketakoak ez diren prestaketa-eragiketak egiten badira, IV. zatiko 1.2, 1.3, 1.4, 1.5 eta 2.2.3 puntuetan ezarritako betekizun orokorrak aplikatuko zaizkie eragiketei, <i>mutatis mutandis</i> .

establecidos en la parte IV, puntos 1.2, 1.3, 1.4, 1.5 y 2.2.3 a dichas operaciones.	
1.9 Normas generales adicionales	1.9 Arau orokor gehigarriak
1.9.1 Animales de las especies bovina, ovina, caprina y equina	1.9.1 Behiak, ardiak, ahuntzak eta zaldiak
1.9.1.1 Alimentación	1.9.1.1 Elikadura
Por lo que se refiere a la alimentación, se aplicarán las normas siguientes:	Elikadurari dagokionez, arau hauek aplikatuko dira:
a) al menos el 60 % de los piensos procederá de la propia explotación o, si no fuera posible o no se dispusiera de ellos, se producirá en colaboración con otras unidades de producción ecológica o en conversión y operadores que utilicen piensos y materias primas para piensos procedentes de la misma región. Se aumentará este porcentaje hasta el 70 % a partir del 1 de enero de 2024;	a) Pentsuen % 60 gutxienez ustategitik bertatik etorriko da, eta, ezinezkoa bada edo horrelako pentsurik ez badago, elkarlanean ekoitziko da ekoizpen ekologikoko edo bihurtze-aldiko ekoizpeneko beste unitate batzuekin eta operadoreekin, eskualde bereko pentsuak eta pentsuetarako lehengaiak erabiliz. Ehuneko hori % 70eraino handituko da 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera.
b) los animales tendrán acceso a pastizales para pastar siempre que las condiciones lo permitan;	b) Animaliek larreetarako sarbidea edukiko dute, ahal den guztietan larratu daitezen.
c) no obstante lo dispuesto en la letra b), los bovinos machos de más de un año de edad tendrán acceso a pastizales o a un espacio al aire libre;	c) Aurreko b) letran xedatutakoa gorabehera, urtebetetik gorako behi arrek larreetarako edo aire zabaleko espazio baterako sarbidea edukiko dute.
d) cuando los animales tengan acceso a pastizales durante el período de pasto y cuando el sistema de alojamiento invernal permita a los animales moverse libremente, podrá suspenderse la obligación de facilitar espacios al aire libre durante los meses de invierno;	d) Animaliek larratze-aldian larreetarako sarbidea daukatenean eta neguko ostatu-sistemak animaliei askatasunez mugitzeko aukera ematean dienean, etenda utzi ahalko da neguko hilabeteetan animaliei aire zabaleko espazioak emateko betebeharra.
e) los sistemas de cría se basarán en la utilización máxima de los pastos, en relación con la disponibilidad de los mismos en las distintas épocas del año;	e) Hazkuntza-sistemetan ahalik eta gehien erabiliko dira larreak, urteko sasoi bakoitzeko eskuragarritasunaren arabera.
f) al menos un 60 % de la materia seca que componga la ración diaria estará constituida de forrajes bastos, forrajes comunes frescos o desecados, o forrajes ensilados. Este porcentaje se puede reducir al 50 % para los animales productores de leche durante un período máximo de tres meses al principio de la lactación.	f) Eguneko anoa osatzen duen materia lehorren % 60 gutxienez bazka landugabez, bazka arrunt freskoz edo lehortuz edo siloratutako bazkaz osatuta egongo da. Ehuneko hori % 50eraino murriztu ahalko da esnea ekoizten duten animalien kasuan, gehienez ere hiru hilabetez esnealdiaren hasieran.
1.9.1.2 Alojamiento y prácticas pecuarias	1.9.1.2 Ostatua eta abeltzaintza-praktikak
Por lo que se refiere al alojamiento y las prácticas pecuarias, se aplicarán las normas siguientes:	Ostatuari eta abeltzaintza-praktikei dagokienez, arau hauek aplikatuko dira:
a) el alojamiento tendrá suelos lisos, pero no resbaladizos;	a) Ostatuak zoru leunak edukiko ditu. Ez dira irristakorrak izango.
b) el alojamiento dispondrá de una zona cómoda, limpia y seca para dormir o descansar, suficientemente grande, construida con materiales sólidos que no sean rejilla. La zona de descanso estará provista de un lecho amplio y seco con camas que contendrán paja u otros materiales naturales adecuados. Las camas podrán mejorarse	b) Ostatuak lo egiteko edo atsedean hartzeko zona eroso, garbi eta lehor bat edukiko du; eremu hori behar bezain handia izango da, eta sareta ez diren material solidoekin eraikita egongo da. Atsedean hartzeko zonak etzaleku zabal eta lehor bat izango du, eta, bertan, etzauntzak egongo dira, lastoz edo egokiak diren beste material natural batzuek

y enriquecerse con cualquier producto mineral autorizado como fertilizante o acondicionador del suelo de conformidad con el artículo 24 para su uso en la producción ecológica;	eginak. Etzauntzak hobetzeko eta aberasteko, produktu mineralak erabili ahal izango dira, betiere 24. artikulua araberako ekoizpen ekologikoan ongarri gisa edo lurzorua egokitzaila gisa erabiltzeko baimenduta dauden heinean.
c) no obstante lo dispuesto en el artículo 3, apartado 1, párrafo primero, letra a), y en el artículo 3, apartado 1, párrafo segundo, de la Directiva 2008/119/CE del Consejo (28), el alojamiento de terneros en recintos individuales estará prohibido desde que cumplan una semana de edad, salvo cuando se trate de animales concretos durante un período limitado, y en la medida en que esté justificado por razones veterinarias;	c) Kontseiluaren 2008/119/EE Zuzentarauaren (28) 3.1 artikuluko lehenengo paragrafoa a) letran eta 3.1 artikuluko bigarren paragrafoan xedatutakoa gorabehera, debekatuta egongo da txahalei banakako esparruetan ematea ostatua aste bat betetzen dutenetik aurrera, salbu eta animalia jakin batzuen kasuan eta aldi mugatu batez egiten bada, betiere albaitaritzarekin lotutako arrazoiengatik justifikatuta.
d) cuando los terneros se traten de forma individual por razones veterinarias, deberán mantenerse en espacios que dispongan de un suelo firme y se les deberán facilitar camas de paja. Los terneros tendrán que poder girarse sin dificultad y poder acostarse estirados con comodidad.	d) Albaitaritzarekin lotutako arrazoiengatik txahalei banakako tratamendua ematen zaienean, zoru sendoko espazioetan egon beharko dira eta lastozko etzauntzak eduki beharko dituzte. Txahalek aukera izan beharko dute zailtasunik gabe biratzeko eta erosotasunez luzatuta etzateko.
1.9.2 Animales cérvidos	1.9.2 Zerbidoak
1.9.2.1 Alimentación	1.9.2.1 Elikadura
Por lo que se refiere a la alimentación, se aplicarán las normas siguientes:	Elikadurari dagokionez, arau hauek aplikatuko dira:
a) al menos el 60 % de los piensos procederá de la propia explotación o, si no fuera posible o no se dispusiera de ellos, se producirá en colaboración con otras unidades de producción ecológica o en conversión y operadores que utilicen piensos y materias primas para piensos procedentes de la misma región. Se aumentará este porcentaje hasta el 70 % a partir del 1 de enero de 2024;	a) Pentsuen % 60 gutxienez ustategitik bertatik etorriko da, eta, ezinezkoa bada edo horrelako pentsurik ez badago, elkarlanean ekoiztiko da ekoizpen ekologikoko edo bihurtze-aldiko ekoizpeneko beste unitate batzuekin eta operadoreekin, eskualde bereko pentsuak eta pentsuetarako lehengaiak erabiliz. Ehuneko hori % 70eraino handituko da 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera.
b) los animales tendrán acceso a pastizales para pastar siempre que las condiciones lo permitan;	b) Animaliek larreetarako sarbidea edukiko dute, ahal den guztietan larratu daitezen.
c) cuando los animales tengan acceso a pastizales durante el período de pasto y cuando el sistema de alojamiento invernal permita a los animales moverse libremente, se podrá dispensar de la obligación de facilitar espacios al aire libre durante los meses de invierno;	c) Animaliek larratze-aldian larreetarako sarbidea daukatenean eta neguko ostatu-sistemak animaliei askatasunez mugitzeko aukera ematean dienean, etenda utzi ahal izango da neguko hilabeteetan animaliei aire zabaleko espazioak emateko betebeharra.
d) los sistemas de cría se basarán en la utilización máxima de los pastos, en relación con la disponibilidad de los mismos en las distintas épocas del año;	d) Hazkuntza-sistemetan ahalik eta gehien erabiliko dira larreak, urteko sasoi bakoitzeko eskuragarritasunaren arabera.
e) al menos un 60 % de la materia seca que componga la ración diaria de los cérvidos estará constituida de forrajes bastos, forrajes comunes frescos o desecados, o forrajes ensilados. Se podrá reducir este porcentaje al 50 % para las hembras de cérvido productoras de leche durante un período máximo de tres meses al principio de la lactación;	e) Zerbidoen eguneko anoa osatzen duen materia lehorren % 60 gutxienez bazka landugabez, bazka arrunt freskoz edo lehortuz edo siloratutako bazkaz osatuta egongo da. Ehuneko hori % 50eraino murriztu ahalko da esnea ekoizten duten zerbido emeentzat, gehienez ere hiru hilabetez esnealdiaren hasieran.

f) deberá garantizarse el pasto natural en un recinto durante el período de vegetación. Los recintos en los que durante el período de vegetación no pueda garantizarse la alimentación con pasto no estarán permitidos;	f) Hazkunde-garaian larratze naturala bermatu beharko da esparruan. Ez da baimenduko esparrurik, hazkunde-garaian larrez elikatzea bermatzeko bide ematen ez duenik.
g) se permitirá la alimentación con pienso solo en caso de falta de pasto por condiciones atmosféricas desfavorables;	g) Inguruabar atmosferiko txarreatatik larrerik ez badago bakarrik onartuko da pentsuz elikatzea.
h) los animales criados en un recinto deberán disponer de agua limpia y fresca. Si no se dispone de una fuente de agua natural de fácil acceso para los animales, deberán facilitárseles bebederos.	h) Esparruan hazitako animaliek ur garbia eta freskoa eduki beharko dute. Animaliak erraz iristeko moduko ur-iturri naturalik ez badago, edontziak eman beharko zaizkie.
1.9.2.2 Alojamiento y prácticas pecuarias	1.9.2.2 Ostatua eta abeltzaintza-praktikak
Por lo que se refiere al alojamiento y las prácticas pecuarias, se aplicarán las normas siguientes:	Ostatuari eta abeltzaintza-praktikei dagokienez, arau hauek aplikatuko dira:
a) los cérvidos deberán disponer de refugios, zonas cubiertas y vallas que no dañen a los animales;	a) Zerbidoek animaliei kalterik egiten ez dieten aterpeak, zona estaliak eta hesiak eduki beharko dituzte.
b) en los recintos para ciervos rojos, los animales deberán poder revolcarse en el barro para garantizar el cuidado de la piel y la regulación del calor;	b) Orein arruntentzako esparruetan, animaliek buztinean iraulkatzeko aukera izan beharko dute, larruaren zainketa eta beroaren erregulazioa bermatze aldera.
c) todo alojamiento tendrá los suelos lisos, pero no resbaladizos;	c) Ostatuak zoru leunak edukiko dituzte beti. Ez dira irristakorrak izango.
d) todo alojamiento dispondrá de una zona cómoda, limpia y seca para dormir o descansar, suficientemente grande, construida con materiales sólidos que no sean rejilla. La zona de descanso estará provista de un lecho amplio y seco con camas que contendrán paja u otros materiales naturales adecuados. Las camas podrán mejorarse y enriquecerse con cualquier producto mineral autorizado como fertilizante o acondicionador del suelo de conformidad con el artículo 24 para su uso en la producción ecológica;	d) Ostatuak lo egiteko edo atseden hartzeko zona eroso, garbi eta lehorra edukiko dute; eremu hori behar bezain handia izango da, eta sareta ez diren material solidoekin eraikita egongo da. Atseden hartzeko zonak etzaleku zabal eta lehor bat izango du, eta, bertan, etzauntzak egongo dira, lastoz edo egokiak diren beste material natural batzuek eginak. Etzauntzak hobetzeko eta aberasteko, produktu mineralak erabili ahal izango dira, betiere 24. artikularen arabera ekoizpen ekologikoan ongarri gisa edo lurzoruaren egokitzaile gisa erabiltzeko baimenduta dauden heinean.
e) las zonas en las que se alimentan deberán situarse en lugares protegidos de la intemperie y deberán ser accesibles tanto para los animales como para sus cuidadores. En los lugares en los que se sitúen estas zonas, el suelo deberá ser firme y los dispositivos para la alimentación deberán estar provistos de tejadillo;	e) Elikatzeko zonek egurats zabaletik babestutako lekuetan egon beharko dute, eta irisgarriak izan beharko dute, bai animalientzat, bai haien zaintzaileentzat. Zona horiek dauden lekuetan, zoruak sendoa izan beharko du, eta elikadurarako gailuek teilatutxoak eduki beharko dute.
f) si no pudiera garantizarse un acceso permanente a la alimentación, las zonas de alimentación estarán diseñadas de tal manera que todos los animales puedan alimentarse simultáneamente.	f) Elikagaietarako sarbide iraunkorra bermatu ezin bada, animalia guztiek aldi berean elikatu ahal izateko moduan egongo dira diseinatuta elikatzeko zonak.
1.9.3 Animales porcinos	1.9.3 Txerriak
1.9.3.1 Alimentación	1.9.3.1 Elikadura
Por lo que se refiere a la alimentación, se aplicarán las normas siguientes:	Elikadurari dagokionez, arau hauek aplikatuko dira:

a) al menos el 30 % de los piensos procederá de la propia explotación o, si no fuera posible o no se dispusiera de ellos, se producirá en colaboración con otras unidades de producción ecológica o en conversión y operadores que utilicen piensos y materias primas para piensos procedentes de la misma región;	a) Pentsuen % 30 gutxienez ustiategitik bertatik etorriko da, eta, ezinezkoa bada edo horrelako pentsurik ez badago, elkarlanean ekoitziko da ekoizpen ekologikoko edo bihurtze-aldiko ekoizpeneko beste unitate batzuekin eta operadoreekin, eskualde bereko pentsuak eta pentsuetarako lehengaiak erabiliz.
b) a las raciones diarias se añadirán forrajes bastos, forrajes comunes frescos o desecados, o forrajes ensilados;	b) Eguneko anoei bazka landugabeak, bazka arrunt freskoak edo lehortuak edo siloratutako bazkak gehituko zaizkie.
c) cuando los agricultores no puedan obtener pienso proteico de producción ecológica exclusivamente y la autoridad competente haya confirmado que no se dispone de pienso proteico ecológico en cantidad suficiente, podrá utilizarse pienso proteico no ecológico hasta el 31 de diciembre de 2026, siempre que se cumplan las siguientes condiciones:	c) Nekazariek ezin dutenean eskuratu ekoizpen ekologikokoa bakarrik den pentsu proteikorik eta agintaritza eskudunak baieztatu duenean ez dagoela pentsu proteiko ekologiko nahikorik, pentsu proteiko ez-ekologikoa erabili ahalko da 2026ko abenduaren 31ra arte, baldintza hauek betetzen badira:
i) su variante ecológica no esté disponible;	i) Pentsuaren aldaera ekologikoa ez dago eskuragarri.
ii) se haya producido o preparado sin disolventes químicos;	ii) Disolbatzaile kimikorik gabe ekoitzi edo prestatu da.
iii) su utilización esté limitada a la alimentación de lechones de hasta 35 kg con compuestos proteicos concretos; y	iii) Haren erabilera mugatuta dago gehienez 35 kg-ko txerrikumeak konposatu proteiko jakinekin elikatzerara.
iv) el porcentaje máximo autorizado por período de doce meses para dichos animales no supere el 5 %; se calculará el porcentaje de materia seca en los piensos de origen agrícola.	iv) Animalia horientzat hamabi hilabetez baimendutako gehieneko ehunekoa ez da % 5 baino handiagoa; nekazaritza-jatorriko pentsuetako materia lehorren ehunekoa kalkulatu da.
1.9.3.2 Alojamiento y prácticas pecuarias	1.9.3.2 Ostatua eta abeltzaintza-praktikak
Por lo que se refiere al alojamiento y las prácticas pecuarias, se aplicarán las normas siguientes:	Ostatuari eta abeltzaintza-praktikei dagokienez, arau hauek aplikatu dira:
a) el alojamiento tendrá los suelos lisos, pero no resbaladizos;	a) Ostatuak zoru leunak edukiko ditu. Ez dira irristakorrak izango.
b) el alojamiento dispondrá de una zona cómoda, limpia y seca para dormir o descansar, suficientemente grande, construida con materiales sólidos que no sean rejilla; La zona de descanso estará provista de un lecho amplio y seco con camas que contendrán paja u otros materiales naturales adecuados. Las camas podrán mejorarse y enriquecerse con cualquier producto mineral autorizado como fertilizante o acondicionador del suelo de conformidad con el artículo 24 para su uso en la producción ecológica.	b) Ostatuak lo egiteko edo atseden hartzeko zona eroso, garbi eta lehorra edukiko du; eremu hori behar bezain handia izango da, eta sareta ez diren material solidoekin eraikita egongo da; atseden hartzeko etzaleku zabal eta lehor batez hornituta egongo da, eta, bertan, etzauntzak egongo dira, lastoz eginak edo egokiak diren beste material natural batzuek, bestela. Etzauntzak hobetzeko eta aberasteko, produktu mineralak erabili ahal izango dira, betiere 24. artikulua arabera ekoizpen ekologikoan ongarri gisa edo lurzoruaren egokitzailerik gisa erabiltzeko baimenduta dauden heinean.
c) habrá siempre una cama de paja o de otro material adecuado lo suficientemente grande como para garantizar que todos los cerdos de un recinto puedan acostarse a la vez de la forma que más espacio requiera;	c) Beti egongo da lastoz edo beste material egoki batez eginda dagoen etzauntza bat, behar bezain handia dena, esparruko txerri guztiak aldi berean eta espazio gehien eskatzen duen moduan etzan ahal izateko bestekoa.

d) las cerdas adultas se mantendrán en grupos, excepto en las últimas fases de gestación y durante el período de amamantamiento, tiempo durante el cual las cerdas podrán moverse libremente en su recinto y solo se les podrá limitar el movimiento durante cortos períodos de tiempo;	d) Txerri eme helduak taldetan egongo dira, azken haurdunaldi-faseetan eta edoskitzaroan izan ezik; aldi horietan, txerri emeak askatasunez mugitu ahalko dira beren esparruan, eta denbora-tarte laburrez bakarrik mugatu ahalko zaie mugimendua.
e) sin perjuicio de cualquier requisito adicional sobre la paja, unos días antes de la fecha prevista del parto, las cerdas dispondrán de una cantidad de paja u otro material natural adecuado suficiente para construir su nido;	e) Lastoari dagokion beste edozein betekizun gehigarri ezertan eragotzi gabe, erditzeko aurreikusitako data baino egun batzuk lehenago, txerri emeek habia eratzeko behar adina material edukiko dute: izan lastoa, izan beste material natural egoki bat.
f) las zonas de ejercicio permitirán que los animales porcinos puedan defecar y hozar. A efectos del hozado pueden utilizarse diferentes substratos.	f) Ariketa fisikoa egiteko zonak egokiak izango dira txerriek kaka egiteko eta induska jarduteko. Zenbait substratu erabil daitezke induskatzeko.
1.9.4 Aves de corral	1.9.4 Eskortako hegaztiak
1.9.4.1 Procedencia de los animales	1.9.4.1 Animalien jatorria
Para evitar la utilización de métodos de cría intensivos, las aves de corral deberán criarse hasta que alcancen una edad mínima o deberán proceder de estirpes de crecimiento lento aptas para la cría al aire libre.	Hazkuntza-metodo intentsiboen erabilera saihesteko, eskortako hegaztiak gutxieneko adin jakin bat bete arte hazi beharko dira, edo aire zabalean hazteko aproposak diren hazkunde moteleko leinuetatik etorri beharko dute.
La autoridad competente definirá los criterios de las estirpes de crecimiento lento o elaborará una lista de esas estirpes y facilitará esta información a los operadores, a los demás Estados miembros y a la Comisión.	Agintaritza eskudunak hazkunde moteleko leinuetarako irizpideak zehaztuko ditu, edo leinu horien zerrenda egingo du, eta informazio hori emango die bai operadoreei, bai gainerako estatu kideei, bai Batzordeari.
Cuando el agricultor no utilice estirpes de aves de corral de crecimiento lento, la edad mínima en el momento del sacrificio será la siguiente:	Nekazariak ez duenean erabiltzen hazkunde moteleko eskortako hegaztien leinurik, honako hau izango da hegaztiaren gutxieneko adina hiltzeko unean:
a) 81 días para los pollos;	a) 81 egun, oilaskoetan;
b) 150 días para los capones;	b) 150 egun, kapoietan;
c) 49 días para los patos de Pekín;	c) 49 egun, Pekingo ahateetan;
d) 70 días para las patas de Berbería;	d) 70 egun, ahate musketadun emeetan;
e) 84 días para los patos de Berbería machos;	e) 84 egun, ahate musketadun arretan;
f) 92 días para los patos cruzados;	f) 92 egun, basahateetan;
g) 94 días para las pintadas;	g) 94 egun pintadetan;
h) 140 días para los pavos machos y las ocas para asar, y	h) 140 egun indioilar arrentzat eta erretzeko antzaretan, eta
i) 100 días para las pavas.	i) 100 egun indioilar emeetan.
1.9.4.2 Alimentación	1.9.4.2 Elikadura
Por lo que se refiere a la alimentación, se aplicarán las normas siguientes:	Elikadurari dagokionez, arau hauek aplikatuko dira:
a) al menos el 30 % de los piensos procederá de la propia explotación o, si no fuera posible o no se dispusiera de ellos, se producirá en colaboración con otras unidades de producción ecológica o en conversión y operadores que utilicen piensos y	a) Pentsuen % 30 gutxienez ustategitik bertatik etorriko da, eta, ezinezkoa bada edo horrelako pentsurik ez badago, elkarlanean ekoitziko da ekoizpen ekologikoko edo bihurtze-aldiko ekoizpeneko beste unitate batzuekin eta

materias primas para piensos procedentes de la misma región;	operadoreekin, eskualde bereko pentsuak eta pentsuetarako lehengaiak erabiliz.
b) a las raciones diarias se añadirán forrajes bastos, forrajes comunes frescos o desecados, o forrajes ensilados;	b) Eguneko anoei bazka landugabeak, bazka arrunt freskoak edo lehortuak edo siloratutako bazkak gehituko zaizkie.
c) cuando los agricultores no puedan obtener pienso proteico de producción ecológica exclusivamente para las aves de corral y la autoridad competente haya confirmado que no se dispone de pienso proteico ecológico en cantidad suficiente, podrá utilizarse pienso proteico no ecológico hasta el 31 de diciembre de 2026, siempre que se cumplan las siguientes condiciones:	c) Nekazariek ezin dutenean eskuratu ekoizpen ekologikokoa bakarrik den eskortako hegaztientzako pentsu proteikorik eta agintaritza eskudunak baieztatu duenean ez dagoela pentsu proteiko ekologiko nahikorik, pentsu proteiko ez-ekologikoa erabili ahalko da 2026ko abenduaren 31ra arte, baldintza hauek betetzen badira:
i) su variante ecológica no esté disponible;	i) Pentsuaren aldaera ekologikoa ez dago eskuragarri.
ii) se haya producido o preparado sin disolventes químicos;	ii) Disolbatzaile kimikorik gabe ekoitzi edo prestatu da.
iii) su utilización esté limitada a la alimentación de aves de corral jóvenes con compuestos proteicos concretos; y	iii) Eskortako hegazti gazteak konposatu proteiko jakinekin elikatzeke bakarrik erabiltzen da pentsua.
iv) el porcentaje máximo autorizado por período de doce meses para dichos animales no supere el 5 %; se calculará el porcentaje de materia seca en los piensos de origen agrícola.	iv) Animalia horientzat hamabi hilabetez baimendutako gehieneko ehunekoa ez da % 5 baino handiagoa; nekazaritza-jatorriko pentsuetako materia lehorraren ehunekoa kalkulatu da.
1.9.4.3 Bienestar de los animales	1.9.4.3 Animalien ongizatea
Estará prohibido el desplume de aves de corral vivas.	Debekatuta egongo da eskortako hegazti biziak lumatzea.
1.9.4.4 Alojamiento y prácticas pecuarias	1.9.4.4 Ostatua eta abeltzaintza-praktikak
Por lo que se refiere al alojamiento y las prácticas pecuarias, se aplicarán las normas siguientes:	Ostatuari eta abeltzaintza-praktikei dagokienez, arau hauek aplikatuko dira:
a) un tercio al menos del suelo será una construcción sólida, es decir, no en forma de listones o rejilla, cubierta de cama de paja, virutas de madera, arena o turba;	a) Gutxienez lurzoruaren heren bat eraikin sendo bat izango da; hau da, ez da listoi- edo sareta-modukoa izango, eta lastozko, zur-txirbilezko, hareazko edo zohikatzezko etzauntza batez estalita egongo da.
b) en los gallineros para gallinas ponedoras, una parte suficientemente grande del suelo disponible para las gallinas deberá poderse utilizar para la recogida de las deyecciones de las mismas;	b) Oilo erruleentzako oilategietan, oiloentzat eskuragarri dagoen zoruaren zati bat, behar bezain handia, oiloen gorotzak biltzeko erabiliko da.
c) los edificios deberán vaciarse de animales después de la cría de cada lote de aves de corral para limpiar y desinfectar los locales y el material que se utiliza en ellos. Además, cada vez que termine la cría de un lote de aves de corral, los corrales deberán dejarse vacíos durante un plazo que establecerán los Estados miembros para que pueda volver a crecer la vegetación. El operador llevará registros o conservará documentos justificativos de la aplicación de dicho período. Quedarán exentas de dichos requisitos las aves de corral que no se críen en lotes, no se mantengan	c) Eskortako hegaztien lote bakoitza hazi ostean, animaliak eraikinetatik atera beharko dira bai lokalak bai haietan erabiltzen den materiala garbitu eta desinfektatzeko. Gainera, eskortako hegaztien lote baten hazkuntza amaitzen den bakoitzean, eskortak hutsik utzi beharko dira estatu kideek ezarriko duten epean, landaredia berriz hazi ahal izateko. Operadoreak aldi horren aplikazioaren erregistroak eduki edo frogagiriak gordeko ditu. Eskortako hegaztiak betekizun horietatik salbuetsita egongo dira baldin eta lotetan hazten ez badira, eskortetan gordetzen ez badira eta egun osoan batetik bestera korrika egiteko aukera badute.

en corrales y que puedan correr de un lado a otro durante todo el día;	
d) las aves de corral tendrán acceso a un espacio al aire libre durante al menos un tercio de su vida. No obstante, las gallinas ponedoras y las aves de corral de engorde tendrán acceso a un espacio al aire libre durante al menos un tercio de su vida, excepto cuando se hayan impuesto restricciones temporales con arreglo a la legislación de la Unión;	d) Eskortako hegaztiek beren bizitzaren heren batean gutxienez edukiko dute aire zabaleko espazio baterako sarbidea. Hala ere, oilo erruleek eta gizentzeko eskortako hegaztiek beren bizitzaren heren batean gutxienez edukiko dute aire zabaleko espazio baterako sarbidea, salbu eta Batasuneko legeriaren arabera behin-behineko murrizketak ezarri direnean.
e) el acceso continuo durante las horas diurnas a un espacio al aire libre se facilitará a las aves a partir de la edad más corta que sea posible en la práctica, siempre que lo permitan las condiciones fisiológicas y físicas, excepto cuando se hayan impuesto restricciones temporales con arreglo a la legislación de la Unión;	e) Praktikan posible den adin laburrenetik aurrera emango zaie hegaztiei aire zabaleko espazio baterako sarbide iraunkorra egun-argiz, baldin eta egoera fisiologiko eta fisikoak horretako aukera ematen badu, salbu eta Batasuneko legeriaren arabera behin-behineko murrizketak ezarri badira.
f) como excepción a lo dispuesto en el punto 1.6.5, en el caso de las aves reproductoras y de las pollitas de menos de 18 semanas, cuando se reúnan las condiciones establecidas en el punto 1.7.3 por lo que se refiere a las restricciones y obligaciones relacionadas con la protección de la salud humana y animal impuestas por la legislación de la Unión e impidan que las aves reproductoras y las pollitas de menos de 18 semanas tengan acceso a los espacios al aire libre, los porches se considerarán espacios al aire libre y tendrán una valla de tela metálica para mantener fuera al resto de las aves;	f) Zati honetako 1.6.5 puntuan xedatutakoaren salbuespen gisa, ugaltzeko hegaztien eta 18 aste baino gutxiagoko oilanden kasuan, Batasuneko legeriak gizakien eta animalien osasunaren babesarekin zerikusia duten murrizketei eta betebeharrei dagokienez 1.7.3 puntuan ezarritako baldintzak betetzen direnean eta ugaltzeko hegaztiekin eta 18 aste baino gutxiagoko oilandek ez dutenean aire zabaleko espazioetarako sarbiderik, portxeak aire zabaleko espaziotzat joko dira eta alanbre-sarezko hesi bat edukiko dute gainerako hegaztiak kanpoan mantentzeko.
g) los espacios al aire libre para aves de corral permitirán a las aves acceder fácilmente a un número adecuado de bebederos;	g) Eskortako hegaztientzako aire zabaleko espazioetan, hegaztiekin edontzi kopuru egoki batera erraz iristeko modua izango dute.
h) los espacios al aire libre para aves de corral estarán en su mayor parte cubiertos de vegetación;	h) Eskortako hegaztientzako aire zabaleko espazioak landarediz estalita egongo dira nagusiki.
i) en condiciones en las que esté limitada la disponibilidad de comida en el espacio al aire libre, por ejemplo, debido a la presencia, durante mucho tiempo, de un manto de nieve o de condiciones climáticas de aridez, se incluirá como parte de la dieta de las aves un aporte suplementario de forrajes bastos;	i) Aire zabaleko espazioan eskuragarri dagoen janaria mugatuta dagoenean —adibidez, elur-geruza bat dagoelako aspalditik edo aridotasunezko inguruabar klimatikoak daudelako—, bazka landugabeen ekarpen gehigarri bat sartuko da hegaztien dietan.
j) cuando las aves de corral se mantengan en el interior por restricciones u obligaciones impuestas por la legislación de la Unión, tendrán acceso en todo momento a cantidades suficientes de forrajes bastos y de otros materiales adecuados para satisfacer sus necesidades etológicas;	j) Batasuneko legeriak ezarritako murrizketengatik edo betebeharrengatik eskortako hegaztiak barruan geratzen direnean, bazka landugabeen eta egokiak diren beste material batzuen kantitate nahikoa hartzeko modua edukiko dute une oro, beren behar etologikoak betetzeko.
k) cuando las condiciones meteorológicas e higiénicas lo permitan, las aves acuáticas tendrán acceso a una corriente de agua, una charca, un lago o un estanque a fin de respetar las necesidades específicas de las distintas especies y los requisitos de bienestar de los animales; cuando las condiciones meteorológicas no lo permitan, tendrán acceso al agua de forma que les permita	k) Inguruabar meteorologikoek eta higienikoek ahalbidetzen dutenean, hegazti urtarrek ur-laster, idoi, aintzira edo urmaeletarako sarbidea edukiko dute, espezie bakoitzaren behar zehatzak eta animalien ongizatearekin lotutako betekizunak betetzeko; inguruabar meteorologikoek kanporako aukerarik ematen ez badute, irisgarri izango dute

sumergir la cabeza en ella, con el fin de limpiarse el plumaje;	burua murgiltzeko besteko ur-gunea, lumak garbitze aldera.
l) la luz natural podrá complementarse con medios artificiales para obtener un máximo de 16 horas de luz al día, con un período de descanso nocturno continuo sin luz artificial de ocho horas al menos;	l) Argi naturala bitarteko artifizialez osatu ahalko da, egunean 16 ordutan gehienez eduki dezaten argia, eta argi artifizialik gabeko gaueko atsedenaldi jarraitua zortzi ordukoa izango da gutxienez.
m) la superficie útil total para el engorde de aves de corral en los gallineros de cualquier unidad de producción no excederá de 1 600 m ² ;	m) Edozein ekoizpen-unitatetako oilategietan eskortako hegaztiak gizentzeko guztizko azalera erabilgarria ez da izango 1.600 m ² baino handiagoa.
n) no se permitirá albergar en un único compartimento de un gallinero más de 3 000 gallinas ponedoras.	n) Oilategi bateko konpartimentu bakar batean ezingo da 3.000 oilo errule baino gehiago eduki.
1.9.5 Conejos	1.9.5 Untxiak
1.9.5.1 Alimentación	1.9.5.1 Elikadura
Por lo que se refiere a la alimentación se aplicarán las normas siguientes:	Elikadurari dagokionez, arau hauek aplikatuko dira:
a) al menos el 70 % de los piensos procederá de la propia explotación o, si no fuera posible o no se dispusiera de ellos, se producirá en colaboración con otras unidades de producción ecológica o en conversión y operadores que utilicen piensos y materias primas para piensos procedentes de la misma región;	a) Pentsuen % 70 gutxienez ustiatetik bertatik etorriko da, eta, ezinezkoa bada edo horrelako pentsurik ez badago, elkarlanean ekoiztiko da ekoizpen ekologikoko edo bihurtze-aldiko ekoizpeneko beste unitate batzuekin eta operadoreekin, eskualde bereko pentsuak eta pentsuetarako lehengaiak erabiliz.
b) los conejos tendrán acceso a pastizales para pastar siempre que las condiciones lo permitan;	b) Untxiek larratzeko larreetarako sarbidea edukiko dute ahal den guztietan.
c) los sistemas de cría se basarán en la utilización máxima de los pastos en relación con la disponibilidad de los mismos en las distintas épocas del año;	c) Hazkuntza-sistemetan ahalik eta gehien erabiliko dira larreak, urteko garai bakoitzeko eskuragarritasunaren arabera.
d) se suministrarán alimentos con fibra como la paja o el heno cuando la hierba no sea suficiente. El forraje constituirá, al menos, el 60 % de la dieta.	d) Belarra nahikoa ez denean, zuntza daukaten elikagaiak emango dira, hala nola lastoa edo belar ondua. Bazka dietaren % 60 izango da gutxienez.
1.9.5.2 Alojamiento y prácticas pecuarias	1.9.5.2 Ostatua eta abeltzaintza-praktikak
Por lo que se refiere al alojamiento y las prácticas pecuarias, se aplicarán las normas siguientes:	Ostatuari eta abeltzaintza-praktikei dagokienez, arau hauek aplikatuko dira:
a) el alojamiento dispondrá de una zona cómoda, limpia y seca para dormir o descansar, suficientemente grande, construida con materiales sólidos que no sean rejilla. La zona de descanso estará provista de un lecho amplio y seco con camas que contendrán paja u otros materiales naturales adecuados. Las camas podrán mejorarse y enriquecerse con cualquier producto mineral autorizado de conformidad con el artículo 24 como fertilizante o acondicionador del suelo para su uso en la producción ecológica.	a) Ostatuak lo egiteko edo atsedean hartzeko zona eroso, garbi eta lehor bat edukiko du; eremu hori behar bezain handia izango da, eta sareta ez diren material solidoekin eraikita egongo da. Atsedean hartzeko zonak etzaleku zabal eta lehor bat izango du, eta, bertan, etzauntzak egongo dira, lastoz edo egokiak diren beste material natural batzuek eginak. Etzauntzak hobetzeko eta aberasteko, produktu mineralak erabili ahal izango dira, betiere 24. artikuluaaren arabera ekoizpen ekologikoan ongarri gisa edo lurzoruaaren egokitzaile gisa erabiltzeko baimenduta dauden heinean.
b) los conejos se mantendrán en grupos;	b) Untxiak taldetan egongo dira.
c) las granjas de conejos deberán utilizar razas resistentes adaptadas a las condiciones de la vida al aire libre;	c) Untxi-abeletxeek aire zabaleko bizi-baldintzetara egokitutako arraza erresistenteak erabili beharko dituzte.

d) los conejos tendrán acceso a:	d) Untxiek gunee hauetarako sarbidea edukiko dute:
i) refugios cubiertos que incluyan lugares oscuros para esconderse;	i) aterpe estaliak, ezkutatzeko leku ilunak barne;
ii) un corral exterior con vegetación, preferiblemente pasto;	ii) kanpoko eskorta bat, landaredia —ahal bada larrea— daukana;
iii) una plataforma elevada donde puedan sentarse, tanto dentro como fuera;	iii) esertzeko moduko plataforma goratu bat, bai barruan bai kanpoan;
iv) material de nidificación para todas las hembras lactantes.	iv) habiak egiteko materiala eme eradoskitzaile guztientzat.
1.9.6 Abejas	1.9.6 Erleak
1.9.6.1 Procedencia de los animales	1.9.6.1 Animalien jatorria
En lo que se refiere a la apicultura, se dará prioridad a la utilización de <i>Apis mellifera</i> y sus ecotipos locales.	Erlezaintzari dagokionez, <i>Apis mellifera</i> espeziea eta tokiko haren ekotipoak erabiltzeari emango zaio lehentasuna.
1.9.6.2 Alimentación	1.9.6.2 Elikadura
Por lo que se refiere a la alimentación, se aplicarán las normas siguientes:	Elikadurari dagokionez, arau hauek aplikatuko dira:
a) al final de la estación productiva deberán dejarse en las colmenas reservas de miel y de polen suficientes para que las abejas puedan pasar el invierno;	a) Urtaro produktiboaren amaieran, erleek negua igaro ahal izateko adina ezti- eta polen-erreserba utzi beharko da erlauntzetan.
b) solo podrá alimentarse a las colonias de abejas cuando la supervivencia de la colonia esté en peligro debido a las condiciones climáticas. En tales casos, se alimentará a las colonias de abejas con miel ecológica, polen ecológico, jarabe de azúcar ecológico o azúcar ecológico.	b) Inguruabar klimatikoen ondorioz koloniaren biziraupena arriskuan dagoenean bakarrik baimenduko da erle-koloniak elikatzea. Horrelakoetan, ezti ekologikoa, polen ekologikoa, azukre ekologikozko jarabea edo azukre ekologikoa erabiliko dira erle-koloniak elikatzeke.
1.9.6.3 Atención sanitaria	1.9.6.3 Osasun-arreta
Por lo que se refiere a la atención sanitaria, se aplicarán las normas siguientes:	Osasun-arretari dagokionez, arau hauek aplikatuko dira:
a) para la protección de los marcos, colmenas y panales, en particular frente a las plagas, únicamente se permitirán los rodenticidas, utilizados en trampas, y productos y sustancias adecuados autorizados de conformidad con los artículos 9 y 24 para su uso en la producción ecológica;	a) Markoak, erlauntzak eta abaraskak babesteko —batez ere izurrietatik—, errodentizidak —tranpetan erabiliak— eta 9. eta 24. artikuluen arabera ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimenduta dauden produktu eta substantzia egokiak onartuko dira bakarrik.
b) se admitirán los tratamientos físicos para la desinfección de los colmenares, como la aplicación de vapor o llama directa;	b) Erlategiak desinfektatzeko tratamendu fisikoak onartuko dira, hala nola lurruna edo zuzeneko garra aplikatzea.
c) la práctica de la eliminación de las crías machos estará permitida únicamente con el fin de aislar la infestación por <i>Varroa destructor</i> ;	c) <i>Varroa destructor</i> akaroen infestazioa bakartzeko asmoz bakarrik baimenduko da kume arrak ezabatzeko praktika.
d) si, a pesar de todas las medidas preventivas, las colonias enferman o se infestan, deberán tratarse inmediatamente y, cuando sea necesario, podrán trasladarse a colmenares de aislamiento;	d) Prebentzio-neurri guztiak gorabehera koloniak gaixotzen edo infestatzen badira, berehala eman beharko zaie tratamendua, eta, beharrezkoa denean, bakartze-erlategietara eraman ahalko dira.
e) en caso de infestación por <i>Varroa destructor</i> , podrán utilizarse ácido fórmico, ácido láctico, ácido	e) <i>Varroa destructor</i> akaroen infestaziorik egonez gero, azido formikoa, azido laktikoa, azido azetiko

acético y ácido oxálico, así como mentol, timol, eucaliptol o alcanfor;	eta azido oxalikoa erabili ahalko dira, baita mentola, timola, eukaliptola eta kanforra ere.
f) si se aplica un tratamiento con productos alopáticos de síntesis química, incluidos los antibióticos, distintos de los productos y sustancias autorizados de conformidad con los artículos 9 y 24 para su uso en la producción ecológica, durante ese período de tratamiento las colonias tratadas deberán trasladarse a colmenares de aislamiento, y toda la cera deberá sustituirse por cera procedente de la apicultura ecológica. Posteriormente, a esas colonias se les aplicará el período de conversión de 12 meses establecido en el punto 1.2.2.	f) Erregelamendu honen 9. eta 24. artikuluen arabera ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimenduta dauden produktuez eta substantziez bestelako sintesi kimikoko produktu alopaticoz — antibiotikoak barne— osatutako tratamendu bat aplikatzen bada, tratamendu-aldi horretan, trataturiko kolonia guztiak bakartzte-erlategietara lekualdatu beharko dira, eta argizari guztia ordeztu beharko da erlezaintza ekologikotik datorren argizaria jarritz. Gero, 1.2.2 puntuan ezarritako 12 hilabeteko bihurtze-aldia aplikatuko zaie kolonia horiei.
1.9.6.4 Bienestar de los animales	1.9.6.4 Animalien ongizatea
Por lo que se refiere a la apicultura, se aplicarán las normas generales adicionales siguientes:	Erlezaintzari dagokionez, arau orokor gehigarri hauek aplikatuko dira:
a) estará prohibida la destrucción de abejas en los panales como método asociado a la recolección de los productos de la apicultura;	a) Debekatuta egongo da abarasketan erleak suntsitzea erlezaintzako produktuen bilketarekin lotutako metodo gisa.
b) estarán prohibidas las mutilaciones como cortar la punta de las alas de las abejas reinas.	b) Debekatuta egongo dira mutilazioak, hala nola erle erreginei hegoen punta moztea.
1.9.6.5 Alojamiento y prácticas pecuarias	1.9.6.5 Ostatua eta abeltzaintza-praktikak
Por lo que se refiere al alojamiento y las prácticas pecuarias, se aplicarán las normas siguientes:	Ostatuari eta abeltzaintza-praktikei dagokienez, arau hauek aplikatuko dira:
a) los colmenares deberán colocarse en zonas que aseguren la disponibilidad de fuentes de néctar y polen constituidas esencialmente de cultivos ecológicos o, en su caso, de vegetación silvestre, o de bosques o cultivos gestionados de forma no ecológica que solo hayan sido tratados con métodos de bajo impacto medioambiental;	a) Erlategiak nektar- eta polen-iturrien eskuragarritasuna bermatzeko moduko lekuetan jarri beharko dira: hots, labore ekologikoz edo, hala badagokio, berezko landarediz osatutako lekuetan, edo, bestela, modu ez-ekologikoan kudeatu diren baina ingurumen-inpaktu txikiko metodoekin bakarrik tratatu diren basoz edo laborez nagusiki osatutako lekuetan.
b) los colmenares deben encontrarse a suficiente distancia de fuentes que puedan contaminar los productos apícolas o dañar la salud de las abejas;	b) Erlezaintzako produktuak kutsa ditzaketen edo erleen osasunerako kaltegarriak izan daitezkeen iturrietatik behar bezain urrun egon beharko dute erlategiek.
c) la situación de los colmenares se elegirá de forma que, en un radio de 3 km desde la ubicación del colmenar, las fuentes de néctar o de polen sean fundamentalmente cultivos producidos ecológicamente, vegetación silvestre o cultivos tratados con métodos de bajo impacto medioambiental equivalentes a los regulados en los artículos 28 y 30 del Reglamento (UE) n.º 1305/2013 que no afecten a la calificación ecológica de la producción apícola. Dicho requisito no se aplicará a las zonas donde no haya floración o cuando las colmenas de abejas estén en reposo;	c) Erlategien kokapena hautatzean, berrmatuko da ezen, erlategiaren kokapenetik 3 km-ko erradioan, nektar- edo polen-iturriak hauek izatea nagusiki: modu ekologikoan ekoiztutako laboreak, basoko landaredia edo ingurumen-inpaktu txikiko metodoz landutako laboreak, (EB) 1305/2013 Erregelamenduaren 28. eta 30. artikuluetan araututakoen pareko metodoak erabilita, eraginik izan ez dezaten erlezaintzako ekoizpenaren kalifikazio ekologikoan. Betekizun hori ez da aplikatuko, ez loraketarik gabeko guneeetan, ezta erlauntzak atsedenaldira daudenean ere.
d) las colmenas y los materiales utilizados en apicultura estarán hechos fundamentalmente de materiales naturales que no comporten riesgos de contaminación para el medio ambiente ni para los productos de la apicultura;	d) Bai erlauntzak, bai erlezaintzan erabilitako materialak ingurumena eta erlezaintzako produktuak kutsatzeko arriskurik ez dakarten material naturalez eginda egongo dira nagusiki.

e) la cera para nuevos marcos procederá de unidades de producción ecológica;	e) Marko berrietarako argizaria ekoizpen ekologikoko unitateetatik etorriko da.
f) solo podrán utilizarse en las colmenas productos naturales como el propóleo, la cera y los aceites vegetales;	f) Erlauntzetan produktu naturalak bakarrik erabili ahalko dira, hala nola propolia, argizaria eta landare-olioak.
g) no podrán usarse repelentes de síntesis química durante las operaciones de recolección de la miel;	g) Ezta biltzeko eragiketetan, ezingo da sintesi kimikoko uxagarriak erabili.
h) no podrán usarse panales de cría para la recolección de miel;	h) Ezta biltzeko, ezingo da hazkuntza-abaraskarik erabili.
i) la apicultura no se considerará ecológica cuando se practique en regiones o zonas designadas por los Estados miembros como regiones o zonas donde no se pueda practicar la apicultura ecológica.	i) Erlezaintza ez da ekologikotzat joko, baldin eta estatu kideek ezarritako izendapenen arabera dena delako eskualde edo zona horretan ezin bada erlezaintza ekologikorik egin.
1.9.6.6 Obligaciones relativas al mantenimiento de registros	1.9.6.6 Erregistroak edukitzeari buruzko betebeharrak
Los operadores tendrán un mapa a una escala adecuada, o las coordenadas geográficas, de la ubicación de las colmenas, que se facilitarán a la autoridad u organismo de control, que demuestren que las zonas accesibles para las colonias cumplen los requisitos del presente Reglamento.	Operadoreek erlauntzen kokapenaren eskala egokiko mapa bat edo koordenatu geografikoak edukiko dituzte, eta kontrol-agintaritza edo -organismoari aurkeztuko dizkiote, kolonientzat irisgarriak diren zonek erregelamendu honetako betekizunak betetzen dituztela frogatzeko.
En el registro del colmenar deberá consignarse la siguiente información relativa a la alimentación: el nombre del producto utilizado, las fechas, las cantidades y las colmenas en las que se utiliza el producto.	Erlategiaren erregistroan elikadurari buruzko informazio hau jaso beharko da: zein den erabilitako produktuaren izena, zer datatan erabili den, zer kantitatetan eta zein erlauntzetan.
La zona en la que esté situado el colmenar se registrará junto con la identificación de las colmenas y el período de desplazamiento.	Erlategia zer zonatan dagoen erregistratuko da, erlauntzen identifikazioarekin eta lekualdaketa-aldiarekin batera.
Todas las medidas aplicadas se inscribirán en el registro del colmenar, incluidas las retiradas de las alzas y las operaciones de extracción de miel. También se registrarán la cantidad y las fechas de recogida de la miel.	Erabilitako neurri guztiak jasoko dira erlategiaren erregistroan, altzak kentzeko eta ezta erauzteko eragiketak barne. Era berean, bildutako ezti kantitatea eta bilketa-datak erregistratuko dira.
Parte III Normas de producción de algas y animales de la acuicultura	III. zatia: Algen eta akuikulturako animalien ekoizpenerako arauak
1. Requisitos generales	1. Betekizun orokorrak
1.1 Los centros de operaciones estarán situados en lugares que no sean objeto de contaminación con productos o sustancias no autorizados para su uso en la producción ecológica o con contaminantes que comprometan la naturaleza ecológica de los productos.	1.1 Ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimenduta ez dauden produktuekin edo substantziekin edo produktuen izaera ekoizpen ekologikoa arriskuan jartzen duten kutsatzaileekin kutsatuta ez dauden lekuetan egongo dira eragiketa-zentroak.
1.2 Las unidades de producción ecológica estarán separadas de las unidades de producción no ecológica de manera adecuada y de conformidad con las distancias mínimas de separación fijadas por los Estados miembros, en su caso. Dichas medidas de separación se basarán en la situación natural, los sistemas de distribución de agua separados, las distancias, el flujo de las mareas y	1.2 Ekoizpen ekologikoko unitateak egokiro bananduta egongo dira ekoizpen ez-ekologikoko unitateetatik, estatu kideek finkatutako gutxienezko banatze-distantziekin bat etorritik, hala badagokio. Banatze-neurri horiek ezartzeko, alderdi hauek hartuko dira kontuan: kokapen naturalean dauden, ur-banaketako sistema bereziak dituzten, zer distantziatan dauden, mareen fluxua nolakoa den

la situación de la unidad de producción ecológica en la parte superior o inferior de la corriente. La producción de algas y de la acuicultura no se considerará ecológica cuando se practique en emplazamientos o zonas designados por las autoridades de los Estados miembros como emplazamientos o zonas que no son adecuados para tales actividades.	eta ekoizpen ekologikoko unitatea lasterraren goialdean edo behealdean dagoen. Algen eta akuikulturako produktuen ekoizpena ez da ekologikotzat joko estatu kideetako agintaritzek jarduera horietarako egokia ez den kokaleku edo zona izendatu dituen kokalekuetan edo zonetan.
1.3 Será necesaria una evaluación medioambiental adecuada a la unidad de producción para cualquier nuevo operador que solicite producir ecológicamente y que vaya a producir anualmente más de 20 toneladas de productos de la acuicultura, para comprobar las condiciones de la unidad de producción y su entorno inmediato, así como los efectos probables de su actividad. El operador proporcionará la evaluación medioambiental a la autoridad de control u organismo de control. El contenido de dicha evaluación medioambiental se basará en el anexo IV de la Directiva 2011/92/UE del Parlamento Europeo y del Consejo (29). Si la unidad de producción ya ha sido objeto de una evaluación equivalente, se permitirá la utilización de dicha evaluación para este fin.	1.3 Ekoizpen-unitateari ingurumen-ebaluazio egokia egin beharko zaio modu ekologikoan ekoiztea eskatzen duen eta urtean 20 tona akuikulturako produktu baino gehiago ekoitziko dituen edozein operadore berriren kasuan, egokiro egiaztatzeko bai ekoizpen-unitatearen eta haren hurbileko ingurunearen ezaugarriak, bai jardueraren efektu gertagarriak. Operadoreak ingurumen-ebaluazioa emango dio kontrol-agintaritzari edo kontrol-organismoari. Ingurumen-ebaluazio horren edukia Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011/92/EB Zuzentarauaren (29) IV. eranskinean egongo da oinarrituta. Ekoizpen-unitateari jada egin bazaio ebaluazio baliokide bat, ebaluazio hori xede honetarako erabiltzea baimenduko da.
1.4 No se permitirá la destrucción de manglares.	1.4 Ez da baimenduko mangladirik suntsitzea.
1.5 El operador facilitará un plan de gestión sostenible proporcionada a la unidad de producción para la acuicultura y la recolección de algas.	1.5 Operadoreak ekoizpen-unitatearen neurriarekin proportzionala den kudeaketa jasangarriko plan bat aurkeztuko du akuikulturarako eta alga-bilketarako.
1.6 El plan se adaptará anualmente y detallará los efectos medioambientales de la actividad, el seguimiento medioambiental que haya de llevarse a cabo y la lista de medidas que deban tomarse para reducir al mínimo los impactos negativos sobre los entornos acuáticos y terrestres adyacentes, incluidos, cuando proceda, la descarga de nutrientes al medio ambiente por ciclo de producción o por año. El plan registrará la vigilancia y la reparación del equipamiento técnico.	1.6 Plana urtero egokituko da, eta alderdi hauek zehaztuko ditu: jardueraren ingurumen-efektuak, egin beharreko ingurumen-jarraipena eta aldameneko ingurune urtarren eta lehortarren gaineko inpaktuak ahalik eta gehien murrizteko hartu behar diren neurriak, baita ekoizpen-ziklo edo urte bakoitzean ingurumenera isuritako mantenugaiak ere, hala dagokionean. Planak ekipamendu teknikoaren zaintza eta konponketa jasoko ditu.
1.7 En el plan de gestión sostenible se registrarán las medidas defensivas y preventivas tomadas contra los depredadores de conformidad con la Directiva 92/43/CEE y las normas nacionales.	1.7 92/43/EEE Zuzentarauaren eta arau nazionalen arabera harrapakarien aurka hartutako defentsa- eta prebentzio-neurriak jasoko dira kudeaketa jasangarriko planean.
1.8 Cuando proceda, los operadores vecinos se coordinarán para la elaboración del plan de gestión.	1.8 Hala dagokionean, elkarren ondoko operadoreak elkarrekin koordinatuko dira kudeaketa-plana egiteko.
1.9 Los operadores de empresas de acuicultura y de algas elaborarán dentro del plan de gestión sostenible un calendario de reducción de residuos que se pondrá en marcha al inicio de las actividades. En la medida de lo posible, el empleo de calor residual se limitará a la energía de fuentes renovables.	1.9 Akuikultura- eta alga-enpresetako operadoreek, kudeaketa jasangarriko planaren barruan, hondakin kantitatea murrizteko egutegi bat egingo dute, eta egutegi hori jardueren hasieran jarriko da abian. Ahal den neurrian, hondar-beroaren erabilera iturri berriztagarrietatik eratorritako energiara mugatuko da.
1.10 Preparación de productos sin transformar	1.10 Eraldatu gabeko produktuen prestaketa

Si se llevan a cabo operaciones de preparación, que no sean de transformación, en algas o animales de la acuicultura, los requisitos generales establecidos en los puntos 1.2, 1.3, 1.4, 1.5 y 2.2.3 de la parte IV se aplicarán <i>mutatis mutandis</i> a dichas operaciones.	Algetan edo akuikulturako animalietan eraldaketakoak ez diren prestaketa-eragiketak egiten badira, IV. zatiko 1.2, 1.3, 1.4, 1.5 eta 2.2.3 puntuetan ezarritako betekizun orokorrak aplikatuko zaizkie eragiketei, <i>mutatis mutandis</i> .
1.11 Los operadores mantendrán disponibles los documentos justificativos de toda excepción a las normas de producción para animales de acuicultura obtenida de conformidad con el punto 3.1.2.1, letras d) y e).	1.11 Operadoreek eskuragarri edukiko dituzte 3.1.2.1 puntuko d) eta e) letren arabera akuikulturako animalientzako ekoizpen-arauetarako lortutako salbuespen ororen frogagiriak.
2. Requisitos aplicables a las algas	2. Algetarako aplikagarriak diren betekizunak
Además de las normas generales de producción establecidas en los artículos 9, 10, 11 y 15, y, cuando sea pertinente, en la sección 1 de la presente parte, se aplicarán a la recolección y a la producción ecológicas de algas las normas establecidas en la presente sección. Dichas normas se aplicarán <i>mutatis mutandis</i> a la producción de fitoplancton.	Erregelamenduaren 9., 10., 11. eta 15. artikuluetan eta, bidezkoa denean, zati honetako 1. atalean ezarritako ekoizpen-arau orokorreaz gain, atal honetan ezarritako arauak aplikatuko zaizkie algen bilketa eta ekoizpen ekologikoei. Arau horiek <i>mutatis mutandis</i> aplikatuko zaizkie fitoplankton-ekoizpenari.
2.1 Conversión	2.1 Bihurtzea
2.1.1 El período de conversión de una unidad de producción para la recolección de algas será de seis meses.	2.1.1 Algak biltzeko ekoizpen-unitate baten bihurtze-aldia sei hilabetekoa izango da.
2.1.2 El período de conversión de una unidad de producción para el cultivo de algas será de seis meses, o bien un ciclo de producción total si este período es más largo.	2.1.2 Algak hazteko ekoizpen-unitate baten bihurtze-aldia sei hilabetekoa izango da, edo ekoizpen-ziklo oso batekoa, aldi hori luzeagoa bada.
2.2 Normas de producción de algas	2.2 Alga-ekoizpenerako arauak
2.2.1 La recolección de algas silvestres o partes de ellas se considerará de producción ecológica siempre que:	2.2.1 Alga basatien edo haien zatien bilketa ekoizpen ekologikotzat jotzeko, baldintza hauek bete beharko dira:
a) las zonas de producción sean adecuadas desde el punto de vista sanitario y estén en muy buen estado ecológico según se define en la Directiva 2000/60/CE, o sean de una calidad equivalente:	a) Ekoizpen-zonak egokiak dira osasun-ikuspuntutik, eta oso egoera ekologiko onean daude 2000/60/EE Zuzentarauko definizioaren arabera, edo haien kalitatea honako hauen baliokidea da:
— a las zonas de producción clasificadas como A y B en el Reglamento (CE) n.º 854/2004 del Parlamento Europeo y del Consejo (30), hasta el 13 de diciembre de 2019, o	— Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EE) 854/2004 Erregelamenduan (30) A eta B letretan sailkatutako ekoizpen-zonak, 2019ko abenduaren 13ra arte, edo
— a las correspondientes zonas de clasificación que figuran en los actos de ejecución adoptados por la Comisión de conformidad con el artículo 18, apartado 8, del Reglamento (UE) 2017/625, a partir del 14 de diciembre de 2019;	— Batzordeak (EB) 2017/625 Erregelamenduaren 18.8 artikulua arabera onartutako betearazpen-egintzetan jasotako sailkapen-zona egokiak, 2019ko abenduaren 14tik aurrera.
b) la recolección no afecte significativamente a la estabilidad del ecosistema natural o al mantenimiento de las especies en la zona de recolección.	b) Bilketak ez die nabarmen eragiten ez ekosistema naturalaren egonkortasunari, ez bilketa-zonako espezieen mantentzeari.
2.2.2 El cultivo de algas se realizará en zonas de características medioambientales y sanitarias como	2.2.2 Algak ekologikotzat jotzeko, alga-hazkundera egiten den zonen ingurumen- eta

mínimo equivalentes a las señaladas en el punto 2.2.1.a) con objeto de que se consideren ecológicas. Asimismo, serán aplicables las siguientes normas de producción:	osasun-ezaugarriek, gutxienez, 2.2.1.a) puntuan aipatutakoen baliokideak izan beharko dute. Era berean, ekoizpen-arau hauek aplikatuko dira:
a) se utilizarán prácticas sostenibles en todas las fases de la producción, desde la recolección de algas jóvenes hasta la cosecha de algas;	a) Praktika jasangarriak erabiliko dira ekoizpen-fase guztietan, alga gazteen bilketatik hasi eta algen uzta izan arte.
b) para garantizar el mantenimiento de un amplio patrimonio genético, periódicamente se recolectarán algas jóvenes silvestres a fin de mantener y aumentar la diversidad de las poblaciones criadas en interior;	b) Gordailu genetiko zabal bat mantentzen dela bermatze aldera, aldizka alga gazte basatiak bilduko dira barrualdean hazitako populazioen dibertsitatea mantendu eta handitzeko asmoz.
c) no se utilizarán fertilizantes, excepto en instalaciones cubiertas, y solo si han sido autorizados de conformidad con el artículo 24 para su uso en la producción ecológica con ese fin.	c) Ez da ongarririk erabiliko, instalazio estalietan izan ezik, eta halakoetan ere 24. artikuluaaren arabera ekoizpen ekologikoan xede horretarako erabiltzeko baimenduta badaude bakarrik.
Los operadores llevarán registros de la utilización de dichos productos, que incluirán la fecha o las fechas en las que se haya utilizado cada producto, el nombre de este y la cantidad aplicada, junto con información sobre los lotes/depósitos/balsas de que se trate.	Operadoreek produktu horien erabileraren erregistroak edukiko dituzte, eta, erregistro horietan, datu hauek jasoko dira: produktua zein egunetan erabili den, produktuak zer izen duen eta zenbateko kantitatea aplikatu den. Horrekin batera, kasuan kasuko loteei/tangei/baltsei buruzko informazioa ere jasoko da.
2.3 Cultivo de algas	2.3 Alga-hazkuntza
2.3.1 Para el cultivo de algas en el mar se utilizarán únicamente nutrientes que se produzcan de forma natural en el entorno o procedentes de la producción ecológica de animales de la acuicultura, preferentemente realizada en la misma zona como parte de un sistema de policultivo.	2.3.1 Algak itsasoan hazteko, mantenugai hauek erabiliko dira bakarrik: ingurunean berez sortzen diren mantenugaiak edo akuikulturako animalien ekoizpen ekologikotik datozen mantenugaiak —ahal bada, polihazkuntza-sistema baten zati gisa zona berean egindako ekoizpen ekologikotik datozenak—.
2.3.2 En las instalaciones en tierra firme en las cuales se utilicen fuentes de nutrientes exteriores, debe poderse comprobar que los niveles de nutrientes de las aguas efluentes son iguales o inferiores a los de las aguas afluentes. Únicamente podrán utilizarse nutrientes de origen vegetal o mineral autorizado de conformidad con el artículo 24 para su uso en la producción ecológica.	2.3.2 Kanpoko mantenugai-iturriak erabiltzen dituzten lehorreko instalazioetan, aukera egon behar du ur-efluenteetako mantenugai-kontzentrazioa ur-afluenteetako mantenugai-kontzentrazioaren berdina edo hura baino txikiagoa dela egiaztatzeko. Erregelamenduaren 24. artikuluaaren arabera ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimenduta dauden landare- edo mineral-jatorriko mantenugaiak bakarrik erabili ahaliko dira.
Los operadores llevarán registros de la utilización de dichos productos, que incluirán la fecha o las fechas en las que se haya utilizado el producto, el nombre de este y la cantidad aplicada, junto con información sobre los lotes/depósitos/balsas de que se trate.	Operadoreek produktu horien erabileraren erregistroak edukiko dituzte, eta, erregistro horietan, datu hauek jasoko dira: produktua zein egunetan erabili den, produktuak zer izen duen eta zenbateko kantitatea aplikatu den; horrekin batera, kasuan kasuko loteei/tangei/baltsei buruzko informazioa ere jasoko da.
2.3.3 La densidad de cultivo o la intensidad de las operaciones se registrarán y mantendrán la integridad del entorno acuático, garantizando que no se rebasa la cantidad máxima de algas que dicho entorno puede acoger sin efectos negativos sobre el medio ambiente.	2.3.3 Hazkuntza-dentsitatea edo eragiketen intentsitatea erregistratu egingo dira, eta ur-ingurunearen osotasuna mantenduko dute, hartara bermatzeko ez dela gairiditzen ingurumenaren gaineko efektu negatiborik gabe ingurune horrek har ditzakeen algen gehieneko kopurua.

2.3.4 Las cuerdas y otros equipamientos utilizados para cultivar algas se reutilizarán o reciclarán en la medida de lo posible.	2.3.4 Bai sokak, bai alga-hazkuntzan erabilitako bestelako ekipamenduak, ahal den neurrian, berrerabili edo birziklatu egingo dira.
2.4 Recolección sostenible de algas silvestres	2.4 Alga basatien bilketa jasangarria
2.4.1 Se realizará una sola estimación de la biomasa al inicio de la recolección de las algas.	2.4.1 Biomasaren zenbatespen bakarra egingo da algen bilketaren hasieran.
2.4.2 En la unidad o en las instalaciones se mantendrá una contabilidad documental que permita al operador demostrar, y a la autoridad de control u organismo de control comprobar, que los recolectores solo han suministrado algas silvestres producidas de conformidad con el presente Reglamento.	2.4.2 Unitatean edo instalazioetan dokumentu-kontabilitatea edukiko da, operadoreak frogatu ahal izan dezan eta kontrol-agintaritzak edo kontrol-organismoak egiaztatu ezen biltzaileek erregelamendu honen arabera ekoiztako alga basatiak bakarrik jaso dituztela.
2.4.3 La recolección se llevará a cabo de forma que las cantidades recolectadas no tengan un impacto significativo en el estado del entorno acuático. Para garantizar que las algas puedan regenerarse y se eviten las capturas accesorias, se tomarán medidas como las relativas a técnicas de recolección, tamaños mínimos, edades, ciclos de reproducción o tamaño de las algas restantes.	2.4.3 Bildutako kopuruek ur-ingurunearen egoeran inpaktu nabarmenik ez edukitzeko moduan egingo da bilketa. Algak berriro daitezkeela eta harrapaketa erantsiak saihesten direla bermatzeko neurriak hartuko dira, hala nola bilketa-teknikak, gutxieneko tamainak, adinak, ugalketa-zikloak eta geratzen diren algen tamaina.
2.4.4 Si las algas se recolectan en una zona de recolección compartida o común, quedarán disponibles documentos justificativos emitidos por la autoridad pertinente designada por el Estado miembro de que se trate que demuestren que la totalidad de la cosecha cumple lo dispuesto en el presente Reglamento.	2.4.4 Algak bilketa partekatuko edo bilketa erkideko zona batean biltzen badira, eskuragarri egongo dira uzta guztiak erregelamendu honetan xedatutakoa betetzen duela frogatzen duten dokumentuak, kasuan kasuko estatu kideak izendatutako agintaritzak emanak.
3. Requisitos para los animales de la acuicultura	3. Akuikulturako animalientzako baldintzak
Además de las normas generales de producción establecidas en los artículos 9, 10, 11 y 15, y, en su caso, en la sección 1 de la presente parte, las normas establecidas en la presente sección se aplicarán a la producción ecológica de especies de peces, crustáceos, equinodermos y moluscos. Dichas normas se aplicarán también <i>mutatis mutandis</i> a la producción de zooplancton, microcrustáceos, rotíferos, gusanos y otros animales acuáticos para piensos.	Erregelamenduaren 9., 10., 11. eta 15. artikuluetan eta, hala badagokio, zati honetako 1. atalean ezarritako ekoizpen-arau orokorreaz gain, atal honetan ezarritako arauak aplikatuko zaizkio arrainen, krustazeoen, ekinodermatuen eta moluskuen ekoizpen ekologikoari. Arau horiek <i>mutatis mutandis</i> aplikatuko zaizkio pentsuetarako beste animalia urtar batzuen ekoizpenari ere (hor dira, besteak beste, zooplanktona, mikrokrustazeoak, erroteriferoak eta harrak).
3.1 Requisitos generales	3.1 Betekizun orokorrak
3.1.1 Conversión	3.1.1 Bihurtzea
Los siguientes períodos de conversión de las unidades de producción acuícola serán aplicables a los siguientes tipos de instalaciones acuícolas, incluidos los animales de la acuicultura existentes:	Akuikultura-ekoizpeneko unitateen bihurtze-aldi hauek aplikatuko zaizkie akuikultura-instalazioen mota hauei —horietan dauden akuikulturako animaliak ere barne hartuta—:
a) un período de conversión de 24 meses para las instalaciones que no puedan vaciarse de agua, limpiarse y desinfectarse;	a) 24 hilabeteko bihurtze-aldia, urez hustu, garbitu eta desinfektatu ezin diren instalazioetarako;
b) un período de conversión de 12 meses para las instalaciones que se hayan vaciado de agua o de animales;	b) 12 hilabeteko bihurtze-aldia, urez edo animaliaz hustu diren instalazioetarako;

c) un período de conversión de seis meses para las instalaciones que se hayan vaciado de agua, limpiado y desinfectado;	c) sei hilabeteko bihurtze-aldia, urez hustu, garbitu eta desinfektatu diren instalazioetarako;
d) para las instalaciones en aguas abiertas, incluidas las que producen moluscos bivalvos, un período de conversión de tres meses.	d) hiru hilabeteko bihurtze-aldia, ur irekietako instalazioetarako, molusku bibalbioak ekoizten dituztenak barne.
3.1.2. Procedencia de los animales de la acuicultura	3.1.2. Akuikulturako animalien jatorria
3.1.2.1 Por lo que se refiere a la procedencia de los animales de la acuicultura se aplicarán las normas siguientes:	3.1.2.1 Akuikulturako animalien jatorriari dagokionez, arau hauek aplikatuko dira:
a) la acuicultura ecológica se basará en la cría de alevines a partir de reproductores ecológicos y de unidades de producción ecológica;	a) Ugaltzaile ekologikoetatik eta ekoizpen ekologikoko unitateetatik datozen arrainkumeen hazkuntza izango da akuikultura ekologikoaren oinarria.
b) se utilizarán especies originarias locales y su reproducción aspirará a generar estirpes que estén más adaptadas a las condiciones de producción, garanticen el bienestar y la salud de los animales y permitan una buena utilización de los recursos alimentarios; se facilitarán documentos justificativos de su procedencia y tratamiento destinados a la autoridad competente, o, cuando proceda, la autoridad de control u organismo de control;	b) Tokikoak diren espezieak erabiliko dira, eta haien ugalketaren asmoa izango da leinu aproposak sortzea; hots, ekoizpen-inguruabarretara egokituago daudenak, animalien ongizatea eta osasuna bermatzen dutenak eta elikagai-baliabideak behar bezala erabiltzeko modua ematen dutenak; haien jatorriaren eta tratamenduaren frogagiriak aurkeztuko zaizkio agintaritza eskudunari edo, hala dagokionean, kontrol-agintaritzari edo kontrol-organismoari.
c) se elegirán especies que sean robustas y puedan producirse sin causar daños significativos a las poblaciones silvestres;	c) Sendoak diren eta populazio basatiei kalte handirik egin gabe ekoitz daitezkeen espezieak aukeratuko dira.
d) podrán introducirse en una explotación animales silvestres capturados o animales de la acuicultura no ecológica con fines reproductivos solo en casos debidamente justificados cuando la raza ecológica no esté disponible o se introduzca material genético nuevo a la unidad de producción con fines reproductivos después de que la autoridad competente haya concedido una autorización, con vistas a mejorar la idoneidad del patrimonio genético. Dichos animales se gestionarán ecológicamente durante al menos tres meses antes de que puedan utilizarse para la reproducción. En el caso de los animales que se encuentren en la Lista Roja de especies amenazadas de la Unión Internacional para la Conservación de la Naturaleza (UICN), la autorización del uso de especímenes capturados en estado salvaje solo podrá concederse en el marco de programas de conservación reconocidos por la autoridad pública pertinente encargada de la labor de conservación.	d) Behar bezala justifikatutako kasuetan bakarrik sartu ahalko dira harrapatutako animalia basatiak edo akuikultura ez-ekologikokoak diren animaliak ustiategi batean ugalketa-xedeekin, arraza ekologikoa eskuragarri ez dagoenean edo ugalketa-xedeekin material genetiko berria sartzen denean ekoizpen-unitatean, agintaritza eskudunak baimena eman ostean, gordailu genetikoaren egokitasuna hobetzeko asmoz. Animalia horiek gutxienez hiru hilabetez kudeatuko dira modu ekologikoan ugalketarako erabili ahal izan baino lehen. Natura Kontserbatzeko Nazioarteko Batasuna (NKNB) delakoaren espezie mehatxatuen Zerrenda Gorrian dauden animaliei dagokienez, kontserbazio-lanaz arduratzen den agintaritza publikoak aintzatetsitako kontserbazio-programen esparruan bakarrik eman ahalko da egoera basatian harrapatutako espezipimenak erabiltzeko baimena.
e) a los fines de su cría posterior, la recolección de juveniles silvestres de la acuicultura estará específicamente restringida a los siguientes casos:	e) Akuikulturako organismo gazte basatiak biltzeko baimena —ondoren hazteko xedez— kasu hauetara egongo da zehatz-mehatz mugatuta:
i) a la afluencia natural de larvas o juveniles de peces o crustáceos al rellenar los estanques, los sistemas de contención y los cercados;	i) Urmaelak, euste-sistemak eta barrutiak berriro betetzean, berez etorritako arrainen edo krustazeeen larbak edo organismo gazteak izatea.

ii) a la repoblación de alevines silvestres o larvas de crustáceos de especies que no figuran en la Lista Roja de especies amenazadas de la UICN en la acuicultura extensiva dentro de humedales, tales como estanques de agua salobre, zonas de marea y lagunas costeras, a condición de que:	ii) NKNBren espezie mehatxatuen Zerrenda Gorrian ez dauden espezieetako arrainkume basatien edo krustazeo-larben birpopulaketa izatea, hezeguneen barruko akuikultura estentsiboan, hala nola ur gazikarazko urmaeletan, marea-zonetan eta kostako urmaeletan, baldin eta:
— la repoblación esté en consonancia con las medidas de gestión aprobadas por las autoridades pertinentes a fin de garantizar la explotación sostenible de las especies afectadas, y	— birpopulaketa bat badator ukitutako espezieen ustiapen jasangarria bermatze aldera agintaritza egokiek onartutako kudeaketa-neurriekin, eta
— los animales sean alimentados exclusivamente con piensos disponibles de forma natural en el medio ambiente.	— animaliak ingurumenean berez dauden pentsuz bakarrik elikatzen badira.
Como excepción a lo dispuesto en la letra a), los Estados miembros podrán autorizar la introducción, a efectos de su cría posterior, en una unidad de producción ecológica de un máximo del 50 % de juveniles no ecológicos de especies que no se desarrollaron como ecológicas en la Unión a más tardar el 1 de enero de 2022, siempre que la gestión sea ecológica al menos durante los dos últimos tercios del ciclo de producción. Dicha exención podrá concederse por un período máximo de dos años y no será renovable.	Apartatu honen a) letran xedatutakoaren salbuespen gisa, estatu kideek baimena eman ahalko dute Batasunean ekologiko gisa garatu ez ziren espezieetako organismo gazte ez-ekologikoen % 50 gehienez ekoizpen ekologikoko unitate batean sartzeko —ondoren hazteko xedez— 2022ko urtarrilaren 1ean ◀ beranduenez, kudeaketa ekoizpen-zikloaren azken bi herenetan gutxienez bada ekologikoa. Salbuespen hori bi urtez emango ahalko da gehienez, eta ezingo da berritu.
En el caso de las explotaciones acuícolas situadas fuera de la Unión, dicha exención solo podrá ser concedida por las autoridades de control u organismos de control que hayan sido reconocidos de conformidad con el artículo 46, apartado 1, para las especies que no se hubiesen desarrollado como ecológicas ni en el territorio del país donde esté ubicada la explotación ni en la Unión. Dicha exención podrá concederse por un período máximo de dos años y no será renovable.	Batasunetik kanpo dauden akuikultura-ustiattegietan, salbuespen hori 46.1 artikuluaaren arabera aintzatetsita dauden kontrol-agintaritzek edo kontrol-organismoek bakarrik eman ahalko dute, espezieak ez direnean ekologikotzat garatu, ez ustategia dagoen herrialdearen lurraldean, ez Batasunean. Salbuespen hori bi urtez emango ahalko da gehienez, eta ezingo da berritu.
3.1.2.2 En lo relativo a la reproducción se aplicarán las normas siguientes:	3.1.2.2 Ugalketari dagokionez, arau hauek aplikatuko dira:
a) no podrán usarse hormonas ni derivados de hormonas;	a) Ezingo da hormonarik erabili, ez eta hormonen deribaturik ere.
b) no se recurrirá a la producción artificial de estirpes de un solo sexo, salvo por selección manual, ni a la inducción de poliploidia, ni a la hibridación artificial, ni a la clonación;	b) Ez da erabiliko sexu bakarreko leinuen ekoizpen artifizialik —eskuz hautatuta izan ezean—, ezta poliploidiaaren indukziorik, hibridazio artifizialik eta klonaziorik ere.
c) se elegirán estirpes adecuadas.	c) Leinu egokiak aukeratuko dira.
3.1.2.3 Producción de juveniles	3.1.2.3 Organismo gazteen ekoizpena
En la cría de larvas de especies de peces marinos, podrán utilizarse sistemas de cría (preferentemente «mesocosmos» o «cría de gran volumen»). Dichos sistemas de cría cumplirán los requisitos siguientes:	Itsas arrainen espezieetako larben hazkuntzan, hazkuntza-sistemak erabili ahalko dira (ahal bada, «mesokosmoa» edo «bolumen handiko hazkuntza»). Hazkuntza-sistema horiek betekizun hauek beteko dituzte:
a) la densidad de población inicial será inferior a 20 huevos o larvas por litro;	a) Hasierako populazio-dentsitatea litroko 20 arrautza edo larba baino gutxiago izango da.
b) el tanque para la cría de larvas tendrá un volumen mínimo de 20 m ³ ; y	b) Larbak hazteko tangaren gutxieneko bolumena 20 m ³ izango da.

c) las larvas se alimentarán del plancton natural que se desarrolle en el tanque, complementado, en su caso, con fitoplancton y zooplancton producidos externamente.	c) Tangan garatzen den plankton naturalez elikatuko dira larbak, eta, beharrezkoa bada, kanpoan ekoiztutako fitoplanktonez eta zooplanktonez osatuko da elikadura.
3.1.2.4 Los operadores llevarán registros del origen de los animales, en los que figurarán la identificación de los animales o lotes de animales, la fecha de llegada y el tipo de especie, las cantidades, la condición de ecológico o no ecológico y el período de conversión.	3.1.2.4 Operadoreek animalien jatorriaren erregistroak edukiko dituzte, eta, erregistro horietan, datu hauek jasoko dira: zein diren animalien edo animalia-loteen identifikazioa, noiz iritsi ziren, zein espezieetakoak diren, zer kopuru iritsi den, ekologikoak ala ez-ekologikoak diren eta zer bihurtze-aldikoak diren.
3.1.3 Alimentación	3.1.3 Elikadura
f) llevará a cabo operaciones con productos ecológicos o en conversión únicamente tras haber limpiado debidamente el equipo de producción.	f) Ekoizpen-ekipamendua behar bezala garbitu ostean bakarrik egingo ditu eragiketak produktu ekologikoekin edo bihurtze-aldiko produktuekin.
1.6 No se utilizarán productos, sustancias o técnicas que reconstituyan propiedades perdidas en la transformación y el almacenamiento de alimentos ecológicos, que corrijan las consecuencias de una actuación negligente al	1.6 Ez da erabiliko inolako produkturik, substantziarik edo teknikarik, elikagai ekologikoak eraldatzean eta biltegitratzean galdutako propietateak leheneratzen dituenik, edo elikagai ekologikoak eraldatzean izandako jarduketa

transformar los alimentos ecológicos, o que de alguna otra manera puedan inducir a error sobre la verdadera naturaleza de los productos destinados a comercializarse como alimentos ecológicos.	arduragabe baten ondorioak zuzentzen dituenik, edota elikagai ekologiko gisa merkaturatzekoak diren produktuen benetako izaerari buruz beste edozein modutan okerreko ustea eragin dezakeenik.
1.7 Los operadores mantendrán disponibles los documentos justificativos de las autorizaciones de utilización de ingredientes agrarios no ecológicos para la producción de alimentos ecológicos transformados de conformidad con el artículo 25 si han obtenido o aplicado dichas autorizaciones.	1.7 Operadoreek eskuragarri edukiko dituzte 25. artikuluaaren arabera elikagai ekologiko eraldatuen ekoizpenerako nekazaritza-osagai ez-ekologikoak erabiltzeko baimenen frogagiriak, halako baimenik eskuratu edo aplikatu badute.
2. Requisitos detallados para la producción de alimentos transformados	2. Elikagai eraldatuak ekoizteko betekizun zehatzak
2.1 La composición de los alimentos ecológicos transformados estará sujeta a las condiciones siguientes:	2.1 Elikagai ekologiko eraldatuen osaerak baldintza hauek beteko ditu:
a) el producto se obtendrá principalmente a partir de los ingredientes agrarios o los productos previstos para su uso en la alimentación enumerados en el anexo I; a fin de determinar si un producto se ha obtenido principalmente a partir de dichos productos, no se tendrán en cuenta el agua y la sal que se hayan añadido;	a) I. eranskinean elikaduran erabiltzeko xedatutako nekazaritza-osagaietatik edo produktuetatik nagusiki abiatuta ekoiztiko da produktua. Produktu bat produktu horietatik nagusiki abiatuta ekoizti den zehazte aldera, ez dira kontuan izango gehitutako ura eta gatza.
b) no podrá haber simultáneamente un ingrediente ecológico y el mismo ingrediente en su variante no ecológica;	b) Ezingo dira aldi berean egon osagai ekologiko bat eta osagai horren aldaera ez-ekologikoa.
c) no podrá haber simultáneamente un ingrediente en conversión y el mismo ingrediente en su variante ecológica o no ecológica.	c) Ezingo dira aldi berean egon bihurtze-aldiko osagai bat eta osagai horren aldaera ekologikoa edo ez-ekologikoa.
2.2 Uso de determinados productos y sustancias en la transformación de alimentos	2.2 Produktu eta substantzia jakin batzuen erabilera elikagaien eraldaketan
2.2.1	2.2.1
Solo los aditivos alimentarios, coadyuvantes tecnológicos e ingredientes agrarios no ecológicos autorizados de conformidad con el artículo 24 o el artículo 25 para su uso en la producción ecológica, y los productos y sustancias a que se hace referencia en el punto 2.2.2 podrán utilizarse en la transformación de alimentos, con excepción de los productos y sustancias del sector vitivinícola, a los que se aplicará el punto 2 de la parte VI, y con excepción de la levadura, a la que se aplicará el punto 1.3 de la parte VII.	Erregelamenduaren 24. artikuluaaren edo 25. artikuluaaren arabera ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimenduta dauden elikagai-gehigarriak, laguntzaile teknologikoak eta nekazaritza-osagai ez-ekologikoak eta 2.2.2 puntuan aipatutako produktuak eta substantziak bakarrik erabili ahalko dira elikagaien eraldaketan; salbuespen dira mahastizaintza- eta ardogintza-sektoreko produktu eta substantziak, zeinei VI. zatiko 2. puntua aplikatuko baitzaie, baita legamia ere, zeinari VII. zatiko 1.3 puntua aplikatuko baitzaio.
2.2.2	2.2.2
En la transformación de alimentos, se podrán usar los productos y sustancias siguientes:	Elikagaien eraldaketan, produktu eta substantzia hauek erabili ahalko dira:
a) preparados a base de microorganismos y enzimas alimentarias utilizados habitualmente en la transformación de los alimentos, siempre que las enzimas alimentarias que se vayan a utilizar como aditivos alimentarios hayan sido autorizadas de conformidad con el artículo 24 para su uso en la producción ecológica;	a) Elikagaien eraldaketan erabili ohi diren mikroorganismoak eta elikagai-entzimaz osatutako prestakinak, baldin eta elikagai-gehigarri gisa erabiliko diren elikagai-entzimak ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimenduta badaude 24. artikuluaaren arabera.

b) sustancias y productos definidos en el artículo 3, apartado 2, letra c) y letra d), inciso i), del Reglamento (CE) n.o 1334/2008 que estén etiquetados como sustancias aromatizantes naturales o preparaciones aromatizantes naturales con arreglo a lo dispuesto en el artículo 16, apartados 2, 3 y 4, de dicho Reglamento;	b) (EE) 1334/2008 Erregelamenduaren 3.2 artikulua c) letran eta d) letrako i) tartekian zehaztutako substantziak eta produktuak, aroma-substantzia natural gisa edo aroma-prestakin natural gisa etiketatuta daudenak erregelamendu horren 16. artikulua 2., 3. eta 4. apartatuetan xedatutakoaren arabera.
c) los colorantes para el marcado de carne y de cáscaras de huevo de conformidad con el artículo 17 del Reglamento (CE) n.o 1333/2008;	c) Haragia eta arrautza-oskolak markatzeko koloragarriak, (EE) 1333/2008 Erregelamenduaren 17. artikuluari jarraikiz.
d) los colorantes naturales y las sustancias naturales de recubrimiento para el coloreado decorativo tradicional de la cáscara de los huevos cocidos producidos con la intención de comercializarlos en un período concreto del año;	d) Urteko aldi jakin batean merkaturatzeko asmoz ekoiztutako arrautza egosien oskola modu tradizionalan apaintze aldera koloreztatzeo koloragarri naturalak eta estaltze-substantzia naturalak.
e) agua potable y sal ecológica y no ecológica (que tenga como componentes básicos el cloruro de sodio o el cloruro de potasio), utilizadas normalmente en la transformación de alimentos;	e) Edateko ura eta elikagaien eraldaketan eskuarki erabiltzen diren gatz ekologikoa eta ez-ekologikoa (sodio kloruroa edo potasio kloruroa dauzkatenak oinarritzko osagaitzat).
f) minerales (incluidos los oligoelementos), vitaminas, aminoácidos y micronutrientes, siempre que:	f) Mineralak (oligoelementuak barne), bitaminak, aminoazidoak eta mikromantenugaiak, baldin eta:
i) su uso en alimentos de consumo corriente venga exigido legalmente de forma directa, es decir, que aparezca de forma directa en disposiciones del Derecho de la Unión o disposiciones de Derecho nacional compatibles con el Derecho de la Unión, con la consecuencia de que los alimentos no puedan introducirse de ninguna manera en el mercado como alimentos de consumo corriente si no se añade el mineral, vitamina, aminoácido o micronutriente; o	i) kontsumo arrunteko elikagaietan erabiltzea zuzenean exijitzen bada legez; hau da, zuzenean agertzen bada Batasuneko zuzenbideko xedapenetan edo Batasuneko zuzenbidearekin bateragarriak diren zuzenbide nazionalako xedapenetan, eta horren ondorioz elikagaiak ezin badira inola ere merkatuan sartu kontsumo arrunteko elikagai gisa ez bada gehitzen kasuan kasuko minerala, bitamina, aminoazidoa edo mikromantenugaia; edo
ii) por lo que respecta a los productos alimenticios comercializados con la pretensión de poseer características particulares o efectos en relación con la salud o nutricionales, o en relación con las necesidades de los grupos específicos de consumidores:	ii) osasunarekin edo nutrizioarekin lotutako edo kontsumitzaile-talde jakinen beharrekin lotutako ezaugarri bereziak edo efektuak dauzkatala adierazita merkaturatutako elikagai-produktuei dagokienez:
— en los productos a que se refiere el artículo 1, apartado 1, letras a) y b), del Reglamento (UE) n.o 609/2013 del Parlamento Europeo y del Consejo (32), su uso esté autorizado por dicho Reglamento y por los actos adoptados en virtud del artículo 11, apartado 1, de dicho Reglamento para los productos de que se trate, o	— Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 609/2013 Erregelamenduaren 1.1 artikuluko a) eta b) letretan zehaztutako produktuetan (32), haien erabilera baimenduta badago erregelamendu horren arabera eta erregelamendu horren 11.1 artikuluaekin bat etorritik kasuan kasuko produktuetaarako onartutako egintzen arabera, edo
— en los productos regulados por la Directiva 2006/125/CE de la Comisión (33), su uso esté autorizado por la citada Directiva.	— Batzordearen 2006/125/EE Zuzentarauak araututako produktuetan (33), haien erabilera zuzentaru horren arabera baimenduta badago.
2.2.3	2.2.3
Solo se utilizarán los productos de limpieza y desinfección autorizados de conformidad con el artículo 24 para su uso en la transformación, con tales fines.	Erregelamenduaren 24. artikulua arabera eraldaketan erabiltzeko baimenduta dauden garbiketa- eta desinfekzio-produktuak bakarrik erabiliko dira xede horietarako.

Los operadores llevarán registros de la utilización de dichos productos, que incluirán la fecha o las fechas en las que se haya utilizado cada producto, el nombre de este, sus sustancias activas y el lugar de dicha utilización.	Operadoreek produktu horien erabileraren erregistroak edukiko dituzte, eta, erregistro horietan, datu hauek jasoko dira: zein egunetan erabili den produktu bakoitza, zer izen duen, zer osagai aktibo dituen eta non erabili den.
2.2.4	2.2.4
A efectos del cálculo mencionado en el artículo 30, apartado 5, serán aplicables las normas siguientes:	30.5 artikuluan aipatutako kalkulurako, arau hauek aplikatuko dira:
a) determinados aditivos alimentarios autorizados de conformidad con el artículo 24 para su uso en la producción ecológica se contabilizarán como ingredientes agrarios;	a) 24. artikuluaaren arabera ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimenduta dauden elikagai-gehigarri jakin batzuk nekazaritza-osagaitzat zenbatuko dira.
b) los preparados y sustancias mencionados en el punto 2.2.2, letras a), c), d), e) y f), no se contabilizarán como ingredientes agrarios;	b) 2.2.2 puntuko a), c), d), e) eta f) letretan aipatutako prestakinak eta substantziak ez dira nekazaritza-osagaitzat zenbatuko.
c) la levadura y los productos de la levadura se contabilizarán como ingredientes agrarios.	c) Legamia eta legamia-produktuak nekazaritza-osagaitzat zenbatuko dira.
2.3 Los operadores llevarán registros de todos los insumos utilizados en la producción de alimentos. En el caso de la producción de productos compuestos, se mantendrán a disposición de la autoridad competente o del organismo de control las recetas/fórmulas completas, en las que figurarán las cantidades de entrada y de salida.	2.3 Operadoreek elikagai-ekoizpenean erabilitako sargai guztien erregistroak edukiko dituzte. Produktu konposatuaren ekoizpenean, agintaritza eskudunaren edo kontrol-organismoaren esku jarriko dira errezeta edo formula osoak eta sarrera eta irteera kantitateak jasoko dira haietan.
Parte V: Normas de producción de piensos transformados	V. zatia: Pentsu eraldatuen ekoizpenerako arauak
Además de las normas generales de producción establecidas en los artículos 9, 11 y 17, se aplicarán a la producción ecológica de piensos transformados las normas establecidas en la presente parte.	Erregelamenduaren 9., 11. eta 17. artikuluetan ezarritako ekoizpen-arau orokorrez gain, zati honetan ezarritako arauak aplikatuko zaizkio pentsu eraldatuen ekoizpen ekologikoari.
1. Requisitos generales para la producción de piensos transformados	1. Pentsu eraldatuak ekoizteko betekizun orokorrak
1.1 Los aditivos de piensos, los coadyuvantes tecnológicos y otras sustancias e ingredientes utilizados para la transformación de piensos, y las eventuales prácticas de transformación utilizadas, tales como el ahumado, respetarán los principios de las buenas prácticas de fabricación.	1.1 Fabrikazio-jardunbide egokien printzipioak beteko dituzte bai pentsu-gehigarriek, laguntzaile teknologikoei eta pentsuen eraldaketarako erabilitako beste substantzia eta osagai batzuek, bai, halaber, erabiltzen diren eraldaketa-praktikek, hala nola ketze-prozesuek.
1.2 Los operadores que produzcan piensos transformados establecerán y actualizarán los procedimientos pertinentes a partir de una identificación sistemática de las fases de transformación críticas.	1.2 Pentsu eraldatuak ekoizten dituzten operadoreek egokiak diren prozedurak ezarri eta eguneratuko dituzte eraldaketa-fase kritikoen identifikazio sistematikoan oinarrituta.
1.3 La aplicación de los procedimientos mencionados en el punto 1.2 garantizará que los productos transformados producidos cumplen en todo momento lo establecido en el presente Reglamento.	1.3 Aurreko 1.2 puntuan aipatutako prozeduraren aplikazioak bermatuko du ekoiztutako produktu eraldatuek une oro betetzen dutela erregelamendu honetan ezarritakoa.
1.4 Los operadores cumplirán y aplicarán los procedimientos mencionados en el punto 1.2 y, sin	1.4 Operadoreek 1.2 puntuan aipatutako prozedurak bete eta aplikatuko dituzte,

perjuicio de lo dispuesto en el artículo 28, en particular:	28. artikuluan xedatutakoa ezertan eragotzi gabe, bereziki:
a) tomarán medidas de precaución y llevarán registros de dichas medidas;	a) Zuhurtasun-neurriak hartuko dituzte, eta neurri horien gaineko erregistroak edukiko dituzte.
b) aplicarán medidas de limpieza adecuadas, vigilarán su eficacia y llevarán un registro de esas operaciones;	b) Garbiketa-neurri egokiak aplikatuko dituzte, haien eraginkortasuna zainduko dute eta eragiketa horien erregistroa edukiko dute.
c) garantizarán que no se comercialicen productos no ecológicos con una indicación que haga referencia a la producción ecológica.	c) Bermatuko dute ez dela merkaturatuko produktu ez-ekologikorik, ekoizpen ekologikoaren gaineko aipamen bat duenik.
1.5 La preparación de productos ecológicos, en conversión y no ecológicos transformados se mantendrá separada entre sí en el tiempo o en el espacio. Cuando se preparen o almacenen productos ecológicos, en conversión y no ecológicos, en cualquier combinación, en la unidad de preparación de que se trate, el operador:	1.5 Eraldatutako produktu ekologikoak, bihurtze-aldiko produktuak eta ez-ekologikoak prestatzeko orduan, prestaketa-prozesuak elkarrengandik bereizita egongo dira denboran edo espazioan. Produktu ekologikoak, bihurtze-aldikoak eta ez-ekologikoak —edozein konbinaziotan— prestatzen edo biltegitratzen direnean kasuan kasuko prestaketa-unitatean, honela jardungo du operadoreak:
a) informará de ello a la autoridad de control u organismo de control;	a) Horren berri emango dio kontrol-agintaritzari edo kontrol-organismoari.
b) efectuará las operaciones de forma continua hasta que la serie de producción se haya completado, con una separación física o temporal respecto de operaciones similares que se efectúen con otro tipo de productos (ecológicos, en conversión o no ecológicos);	b) Etengabe egingo ditu eragiketak, ekoizpen-segida amaitu arte, eten fisiko eta tenporal bat ezarrita beste produktu motei lotuta egiten diren antzeko eragiketetatik (produktu ekologikoak direla, bihurtze-aldikoak direla zein ez-ekologikoak direla).
c) almacenará los productos ecológicos, en conversión y no ecológicos antes y después de las operaciones, separados entre sí en el espacio o en el tiempo;	c) Produktu ekologikoak, bihurtze-aldikoak eta ez-ekologikoak elkarrengandik espazioan edo denboran bereizita biltegitratuko ditu eragiketak egin aurretik eta egin ostean.
d) tendrá disponible un registro actualizado de todas las operaciones y cantidades transformadas;	d) Eragiketa eta eraldatutako kantitate guztien erregistro eguneratua edukiko du eskuragarri.
e) tomará las medidas necesarias para garantizar la identificación de los lotes y evitar mezclas o intercambios con productos ecológicos, en conversión o no ecológicos;	e) Beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu, loteen identifikazioa bermatzeko eta nahasterik edo trukerik ez gertatzeko produktu ekologikoekin, bihurtze-aldikoekin edo ez-ekologikoekin.
f) llevará a cabo operaciones con productos ecológicos o en conversión únicamente tras haber limpiado debidamente el equipo de producción.	f) Ekoizpen-ekipamendua behar bezala garbitu ostean bakarrik egingo ditu eragiketak produktu ekologikoekin edo bihurtze-aldiko produktuekin.
2. Requisitos detallados para la producción de piensos transformados	2. Pentsu eraldatuak ekoizteko betekizun zehatzak
2.1 En la composición de los piensos ecológicos no estarán presentes simultáneamente materias primas para los piensos procedentes de la agricultura ecológica o en conversión, con las mismas materias primas producidas por medios no ecológicos.	2.1 Pentsu ekologikoen osieran ez dira aldi berean egongo nekazaritza ekologikotik edo bihurtze-aldiko nekazaritzatik datozen pentsuetarako lehengaiak eta bitarteko ez-ekologikoen bidez ekoiztutako lehengai berberak.
2.2 Ninguna materia prima para los piensos que se utilice o transforme en la producción ecológica podrá haber sido transformada con la ayuda de disolventes de síntesis química.	2.2 Ekoizpen ekologikoan erabiltzen edo eraldatzen den pentsuetarako ezein lehengai ezingo da izan sintesi kimikoko disolbatzaileen laguntzaz eraldatutakoa.

2.3 Solo podrán utilizarse en la transformación de piensos las materias primas para piensos no ecológicas de origen vegetal, animal, de algas o de levaduras, las materias primas para piensos de origen mineral, los aditivos de piensos y los coadyuvantes tecnológicos autorizados de conformidad con el artículo 24 para su uso en la producción ecológica.	2.3 Erregelamenduaren 24. artikulua arabera ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimenduta dauden landare-, animalia-, alga- eta legamia-jatorriko pentsuetarako lehengai ez-ekologikoak, mineral-jatorriko pentsuetarako lehengaiak, pentsu-gehigarriak eta laguntzaile teknologikoak bakarrik erabili ahalko dira pentsuen eraldaketan.
2.4 Solo se utilizarán los productos de limpieza y desinfección autorizados de conformidad con el artículo 24 para su uso en la transformación, con tales fines.	2.4 Erregelamenduaren 24. artikulua arabera eraldaketan erabiltzeko baimenduta dauden garbiketa- eta desinfekzio-produktuak bakarrik erabiliko dira xede horietarako.
Los operadores llevarán registros de la utilización de dichos productos, que incluirán la fecha o las fechas en las que se haya utilizado cada producto, el nombre de este, sus sustancias activas y el lugar de dicha utilización.	Operadoreek produktu horien erabileraren erregistroak edukiko dituzte, eta, erregistro horietan, datu hauek jasoko dira: zein egunetan erabili den produktu bakoitza, zer izen duen, zer osagai aktibo dituen eta non erabili den.
2.5 Los operadores llevarán registros de todos los insumos utilizados en la producción de piensos. En el caso de la producción de productos compuestos, se mantendrán a disposición de la autoridad competente o del organismo de control las recetas/fórmulas completas, en las que figurarán las cantidades de entrada y de salida.	2.5 Operadoreek pentsu-ekoizpenean erabilitako sargai guztien erregistroak edukiko dituzte. Produktu konposatuen ekoizpenean, agintaritza eskudunaren edo kontrol-organismoaren esku jarriko dira errezeta edo formula osoak eta sarrera eta irteera kantitateak jasoko dira haietan.
Parte VI: Sector vitivinícola	VI. zatia: Mahastizaintza- eta ardogintza-sektorea
1. Ámbito de aplicación	1. Aplikazio-eremua
1.1 Además de las normas generales de producción establecidas en los artículos 9, 10, 11, 16 y 18, las normas contempladas en la presente parte serán de aplicación a la producción ecológica de los productos del sector vitivinícola a los que se hace referencia en el artículo 1, apartado 2, letra l), del Reglamento (UE) n.º 1308/2013.	1.1 Erregelamenduaren 9., 10., 11., 16. eta 18. artikuluetan ezarritako ekoizpen-arau orokorrean gain, zati honetan xedatutako arauak aplikatuko zaizkio, halaber, (EB) 1308/2013 Erregelamenduaren 1.2 artikulua (l) letran zehaztutako mahastizaintza- eta ardogintza-sektoreko produktuen ekoizpen ekologikoari.
1.2 Salvo disposición explícita en contrario de la presente parte, se aplicarán los Reglamentos Delegados (UE) 2019/934 (34) y (UE) 2019/33 (35) de la Comisión.	1.2 Zati honetan kontrako xedapen zehatzik egon ezean, Batzordearen (EB) 2019/934 Erregelamendu Eskuordetua (34) eta (EB) 2019/33 Erregelamendu Eskuordetua (35) aplikatuko dira.
2. Uso de determinados productos y sustancias	2. Produktu eta substantzia jakin batzuen erabilera
2.1 Los productos del sector vitivinícola se producirán a partir de materias primas ecológicas.	2.1 Mahastizaintza- eta ardogintza-sektoreko produktuak lehengai ekologikoetatik abiatuta ekoiztuko dira.
2.2 Solo los productos y sustancias autorizados de conformidad con el artículo 24 para su uso en la producción ecológica podrán utilizarse para la obtención de productos del sector vitivinícola, incluso durante las prácticas, procesos y tratamientos enológicos, con arreglo a las condiciones y restricciones establecidas en el Reglamento (UE) n.º 1308/2013 y en el Reglamento Delegado (UE) n.º 2019/934 y, en particular, en el anexo I, parte A, de este último.	2.2 Erregelamenduaren 24. artikulua arabera ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimenduta dauden produktuak eta substantziak bakarrik erabili ahalko dira mahastizaintza- eta ardogintza-sektoreko produktuak ekoizteko, baita praktika, prozesu eta tratamendu enologikoetan ere, bat etorrita (EB) 1308/2013 Erregelamenduan eta (EB) 2019/934 Erregelamendu Eskuordetuan eta, bereziki, azken horren I. eranskineko A zatian ezarritako baldintzekin eta murrizketekin.

2.3 Los operadores llevarán registros de la utilización de todo producto y sustancia utilizada en la producción de vino y para la limpieza y desinfección, que incluirán la fecha o las fechas en las que se haya utilizado cada producto, el nombre de este, sus sustancias activas y, cuando proceda, el lugar de dicha utilización.	2.3 Operadoreek ardogintzan eta garbiketa- eta desinfekzio-jardueretan erabilitako produktu eta substantzia guztien erregistroak edukiko dituzte, eta, erregistro horietan, datu hauek jasoko dira: produktu bakoitza zein egunetan erabili den, produktuak zer izen duen, zer osagai aktibo dituen eta, hala badagokio, non erabili den.
3. Prácticas enológicas y restricciones	3. Praktika enologikoak eta murrizketak
3.1 Sin perjuicio de lo dispuesto en las secciones 1 y 2 de la presente parte y de las prohibiciones y restricciones particulares contempladas en los puntos 3.2, 3.3 y 3.4, únicamente estarán permitidas las prácticas, procesos y tratamientos enológicos, incluidas las restricciones previstas en el artículo 80 y en el artículo 83, apartado 2, del Reglamento (UE) n.o 1308/2013, en los artículos 3, 5 a 9 y 11 a 13 del Reglamento Delegado (UE) 2019/934 y en los anexos de dichos Reglamentos, utilizados antes del 1 de agosto de 2010.	3.1 Zati honen 1. eta 2. ataletan xedatutakoa eta 3.2, 3.3 eta 3.4 puntuetan jasotako debeku eta murrizketa bereziak ezertan eragotzi gabe, 2010eko abuztuaren 1a baino lehen erabilitako praktika, prozesu eta tratamendu enologikoak bakarrik egongo dira baimenduta, barnean hartuta, halaber, (EB) 1308/2013 Erregelamenduaren 80. artikuluan eta 83.2 artikuluan, (EB) 2019/934 Erregelamendu Eskuordetuaren 3. artikuluan, 5. artikulutik 9 artikulura bitartean eta 11. artikulutik 13. artikulura bitartean eta erregelamendu horien eranskinetan xedatutako murrizketak.
3.2 Queda prohibido el uso de las siguientes prácticas, procesos y tratamientos enológicos:	3.2 Debekatuta dago praktika, prozesu eta tratamendu enologiko hauek erabiltzea:
a) concentración parcial por frío, de acuerdo con el anexo VIII, parte I, sección B.1, letra c), del Reglamento (UE) n.o 1308/2013;	a) hotzaren bidezko kontzentrazio partziala, (EB) 1308/2013 Erregelamenduaren VIII. eranskinaren I. zatiko B.1 ataleko c) letraren arabera;
b) eliminación del anhídrido sulfuroso mediante procedimientos físicos, de acuerdo con el anexo I, parte A, cuadro 1, entrada 5, del Reglamento Delegado (UE) 2019/934;	b) anhídrido sulfurosoa prozedura fisikoen bidez kentzeko prozedura, (EB) 2019/934 Erregelamendu Eskuordetuaren I. eranskinaren A. zatiko 1. taulako 5. sarreraren arabera;
c) tratamiento por electrodiálisis para garantizar la estabilización tartárica del vino, de acuerdo con el anexo I, parte A, cuadro 1, entrada 10, del Reglamento Delegado (UE) 2019/934;	c) ardoaren egonkortze tartarikoak bermatzeko elektrodialisi-tratamendua, (EB) 2019/934 Erregelamendu Eskuordetuaren I. eranskinaren A. zatiko 1. taulako 10. sarreraren arabera;
d) corrección del contenido en alcohol de los vinos, de acuerdo con el anexo I, parte A, cuadro 1, entrada 12, del Reglamento Delegado (UE) 2019/934;	d) ardoen alkohol-edukiaren doikuntza, (EB) 2019/934 Erregelamendu Eskuordetuaren I. eranskinaren A. zatiko 1. taulako 12. sarreraren arabera;
e) tratamiento con intercambiadores de cationes para la estabilización tartárica del vino, de acuerdo con el anexo I, parte A, cuadro 1, entrada 13, del Reglamento Delegado (UE) 2019/934.	e) ardoaren egonkortze tartarikorako katioi-trukagailuen bidezko tratamendua, (EB) 2019/934 Erregelamendu Eskuordetuaren I. eranskinaren A. zatiko 1. taulako 13. sarreraren arabera.
3.3 Se autoriza el uso de las siguientes prácticas, procesos y tratamientos enológicos, con las siguientes condiciones:	3.3 Baimenduta dago praktika, prozesu eta tratamendu enologiko hauek erabiltzea, baldintza hauekin:
a) los tratamientos térmicos, de acuerdo con el anexo I, parte A, cuadro 1, entrada 2, del Reglamento Delegado (UE) 2019/934, siempre que la temperatura no sea superior a 75 °C;	a) tratamendu termikoak, (EB) 2019/934 Erregelamendu Eskuordetuaren I. eranskinaren A. zatiko 1. taulako 2. sarreraren arabera, tenperatura 75 °C baino altuagoa ez bada;
b) la centrifugación y filtración, con o sin coadyuvante de filtración inerte, de acuerdo con el anexo I, parte A, cuadro 1, entrada 3, del Reglamento Delegado (UE) 2019/934, siempre que	b) zentrifugazioa eta iragazketa, iragazketa-laguntzaile geldoarekin edo halakorik gabe, (EB) 2019/934 Erregelamendu Eskuordetuaren I. eranskinaren A. zatiko 1. taulako 3. sarreraren

el tamaño de los poros no sea inferior a 0,2 micrómetros;	arabera, poroen tamaina 0,2 mikrometro baino gutxiago ez bada;
c) la evaporación parcial al vacío, de acuerdo con el anexo VIII, parte I, sección E, letra a), del Reglamento (UE) n.o 1308/2013, utilizada por separado o combinada con la destilación mencionada en la letra d) de la presente sección, siempre que la evaporación parcial al vacío se utilice únicamente para la producción de vino desalcoholizado con un grado alcohólico volumétrico no superior al 0,5 % vol., que la temperatura utilizada no sea superior a 75 °C y que el tamaño de los poros para la filtración no sea inferior a 0,2 micrómetros;	c) hutseko lurrunketa partziala, (EB) 1308/2013 Erregelamenduaren VIII. eranskinaren I. zatiko E ataleko a) letraren arabera, bakarrik zein atal honetako d) letran aipatutako destilazioarekin konbinatuta, baldin eta hutseko lurrunketa partziala gehienez % 0,5eko alkohol-gradu bolumetrikoa daukan ardo desalkoholizatua ekoizteko bakarrik erabiltzen bada, erabilitako tenperatura 75 °C baino altuagoa ez bada eta iragazketarako poroen tamaina 0,2 mikrometro baino gutxiago ez bada;
d) la destilación, de acuerdo con el anexo VIII, parte I, sección E, letra c), del Reglamento (UE) n.o 1308/2013, utilizada por separado o combinada con la evaporación parcial al vacío mencionada en la letra c) de la presente sección, siempre que la destilación se utilice únicamente para la producción de vino desalcoholizado con un grado alcohólico volumétrico no superior al 0,5 % vol., que se utilice al vacío, que la temperatura utilizada no sea superior a 75 °C y que el tamaño de los poros para la filtración no sea inferior a 0,2 micrómetros.	d) destilazioa, (EB) 1308/2013 Erregelamenduaren VIII. eranskinaren I. zatiko E ataleko c) letraren arabera, bakarrik zein atal honetako c) letran aipatutako destilazioarekin konbinatuta, baldin eta destilazioa gehienez % 0,5eko alkohol-gradu bolumetrikoa daukan ardo desalkoholizatua ekoizteko bakarrik erabiltzen bada, hutsean erabiltzen bada, erabilitako tenperatura 75 °C baino altuagoa ez bada eta iragazketarako poroen tamaina 0,2 mikrometro baino gutxiago ez bada.
3.4 Cualquier modificación introducida después del 1 de agosto de 2010 en cuanto a las prácticas, procesos y tratamientos enológicos previstos en el Reglamento (UE) n.o 1308/2013 o en el Reglamento Delegado (UE) 2019/934 podrá aplicarse en la producción ecológica de vino únicamente tras haberse incluido esas medidas como permitidas en la presente sección y, en caso necesario, tras un proceso de evaluación de acuerdo con el artículo 24 del presente Reglamento.	3.4 (EB) 1308/2013 Erregelamenduan edo (EB) 2019/934 Erregelamendu Eskuordetuan xedatutako praktika, prozesu eta tratamendu enologikoei dagokienez 2010eko abuztuaren 1aren ostean sartutako edozein aldaketa ardoaren ekoizpen ekologikoan aplikatzeko, ezinbestekoa izango da neurri horiek baimendutako neurri gisa txertatuta egotea atal honetan eta, beharrezkoa denean, erregelamendu honen 24. artikulua araberako ebaluazio-prozesu bat egina izatea.
Parte VII: Levadura destinada al consumo humano o animal	VII. zatia: Gizakiek edo animaliek kontsumitzeko legamia
Además de las normas generales de producción establecidas en los artículos 9, 11, 16, 17 y 19, se aplicarán a la producción ecológica de levadura destinada al consumo humano o animal las normas establecidas en la presente parte.	Erregelamenduaren 9., 11., 16. eta 17. eta 19. artikuluetan ezarritako ekoizpen-arau orokorrezt gain, zati honetan ezarritako arauak aplikatuko zaizkio gizakiek edo animaliek kontsumitzeko legamiaren ekoizpen ekologikoari.
1. Requisitos generales	1. Betekizun orokorrak
1.1 Para la producción de levadura ecológica solo se utilizarán sustratos producidos ecológicamente. No obstante, hasta el 31 de diciembre de 2024, se permitirá la adición al sustrato de hasta un 5 % de extracto o autolisato de levadura no ecológica (calculado en peso de materia seca) para la producción de levadura ecológica, si los agentes económicos no pueden conseguir extracto o autolisato de levadura ecológica.	1.1 Modu ekologikoan ekoiztutako substratuak bakarrik erabiliko dira legamia ekologikoa ekoizteko. Hala ere, 2024ko abenduaren 31ra arte, baimenduta egongo da substratuari legamia ez-ekologikoaren aterakin edo autolisatuaren % 5 gehitzea gehienez (materia lehorraren pisuaren arabera kalkulatuta) legamia ekologikoa ekoizteko, eragile ekonomikoek ezin badute lortu legamia ekologikoaren aterakin edo autolisaturik.
1.2 En los alimentos o piensos ecológicos no podrá haber simultáneamente levadura ecológica y levadura no ecológica.	1.2 Elikagai eta pentsu ekologikoetan, legamia ekologikoa eta legamia ez-ekologikoa ezingo dira aldi berean egon.

1.3 Para la producción, mezcla y formulación de levadura ecológica podrán utilizarse los productos y sustancias siguientes:	1.3 Legamia ekologikoa ekoizteko, nahasteko eta formulatzeko, produktu eta substantzia hauek erabili ahalko dira:
a) coadyuvantes tecnológicos autorizados de conformidad con el artículo 24 para su uso en la producción ecológica;	a) 24. artikuluaaren arabera ekoizpen ekologikoan erabiltzeko baimenduta dauden laguntzaile teknologikoak;
b) productos y sustancias a que se refiere el punto 2.2.2, letras a), b) y e), de la parte IV.	b) IV. zatiko 2.2.2 puntuko a), b) eta e) letretan zehaztutako produktuak eta substantziak.
1.4 Solo se utilizarán los productos de limpieza y desinfección autorizados de conformidad con el artículo 24 para su uso en la transformación, con tales fines.	1.4 Erregelamenduaren 24. artikuluaaren arabera eraldaketan erabiltzeko baimenduta dauden garbiketa- eta desinfekzio-produktuak bakarrik erabiliko dira xede horietarako.
1.5 Los operadores llevarán registros de todo producto y sustancia utilizada en la producción de levadura y para la limpieza y desinfección, que incluirán la fecha o las fechas en las que se haya utilizado cada producto, el nombre de este, sus sustancias activas y el lugar de dicha utilización.	1.5 Operadoreek legamia-ekoizpenean eta garbiketa eta desinfekzioan erabilitako produktu eta substantzia guztien erregistroak edukiko dituzte, eta, erregistro horietan, datu hauek jasoko dira: produktu bakoitza zein egunetan erabili den, produktuak zer izen duen, zer osagai aktibo dituen eta non erabili den.
ANEXO III	III. ERANSKINA
RECOGIDA, ENVASADO, TRANSPORTE Y ALMACENAMIENTO DE LOS PRODUCTOS	PRODUKTUAK BILTZEA, ONTZIRATZEA, GARRAIATZEA ETA BILTEGIRATZEA
1. Recogida y transporte de productos a las unidades de preparación	1. Produktuak biltzea eta prestaketa-unitateetara garraiatzea
Los operadores podrán recoger simultáneamente productos ecológicos, en conversión y no ecológicos únicamente cuando se hayan adoptado las medidas adecuadas para evitar toda posible mezcla o intercambio entre productos ecológicos, en conversión y no ecológicos y para garantizar la identificación de los productos ecológicos y en conversión. El operador conservará a disposición de la autoridad de control u organismo de control los datos relativos a los días, horas y circuito de recogida, y la fecha y hora de la recepción de los productos.	Operadoreek aldi berean bildu ahalko dituzte produktu ekologikoak, bihurtze-aldiko produktuak eta produktu ez-ekologikoak, neurri egokiak hartu badira produktu ekologikoen, bihurtze-aldiko produktuen eta produktu ez-ekologikoen arteko nahasketa eta truke posible oro saihesteko eta produktu ekologikoen eta bihurtze-aldiko produktuen identifikazioa bermatzeko. Operadoreak eskuragarri jarriko dizkie kontrol-agintaritzari edo kontrol-organismoari hainbat datu, bai bilketa-egunei, -orduei eta -zirkuituari buruzkoak, bai produktuak jasotzeko egunari eta orduari buruzkoak.
2. Envasado y transporte de productos a otros operadores o unidades	2. Produktuak ontziratzea eta beste operadore edo unitate batzuetara garraiatzea
2.1 Información que debe facilitarse	2.1 Eman beharreko informazioa
2.1.1 Los operadores velarán por que los productos ecológicos y los productos en conversión se transporten a otros operadores o unidades, incluidos mayoristas y minoristas, únicamente en envases, recipientes o vehículos adecuados y cerrados de forma tal que sea imposible la alteración, incluida la sustitución, de su contenido sin manipulación o deterioro del precinto, y que vayan provistos de una etiqueta en la que se mencionen, además de todas las demás indicaciones previstas por la legislación de la Unión, los datos siguientes:	2.1.1 Operadoreek ziurtatuko dute ezen produktu ekologikoak eta bihurtze-aldiko produktuak beste operadore edo unitate batzuetara (handizkariak zein txikizkariak) garraiatzeko erabiltzen diren bilgarri, ontzi edo ibilgailuak egokiak direla eta behar bezala itxita daudela ezinezkoa izan dadin zigilua manipulatu edo apurtu gabe edukia aldatzea —edo ordezte— eta etiketa bat daukatela Batasuneko legeriak xedatutako gainerako argibide guztiez gain honako datu hauek datu hauek ere jasotzen dituen:

a) el nombre y la dirección del operador y, si fuera diferente, del propietario o vendedor del producto;	a) operadorearen izena eta helbidea eta, desberdinak badira, produktuaren jabearenak edo saltzailearenak;
b) el nombre del producto;	b) produktuaren izena;
c) el nombre o el código numérico de la autoridad u organismo de control de quien dependa el operador, y	c) Operadorearen gainetik dagoen kontrol-agintaritza edo -organismoaren izena edo zenbaki-kodea, eta
d) si procede, la marca de identificación del lote, de acuerdo con un sistema de marcado o bien aprobado a escala nacional, o bien convenido con la autoridad de control u organismo de control y que permita vincular el lote con los registros mencionados en el artículo 34, apartado 5.	d) hala badagokio, lotearen identifikazio-marka, zeina markaketa-sistema baten arabera izango baita —eskala nazionalen onartuta edo kontrol-agintaritzarekin edo kontrol-organismoarekin adostuta dagoena eta lotea 34.5 artikuluan aipatutako erregistroekin lotzea ahalbidetzen duena—.
2.1.2 Los operadores velarán por que los piensos compuestos autorizados en la producción ecológica transportados a otros operadores o explotaciones, incluidos mayoristas y minoristas, dispongan de una etiqueta en la que figure, además de todas las demás indicaciones previstas por la legislación de la Unión:	2.1.2 Operadoreek ziurtatuko dute ezen ekoizpen ekologikoan baimendutako eta beste operadore edo ustategi batzuetara (handizkariak zein txikizkariak) garraiatutako pentsu konposatuek, Batasuneko legeriak xedatutako gainerako argibide guztiez gain, etiketa bat ere badutela, datu hauek ere jasotzen dituen:
a) la información facilitada en el punto 2.1.1;	a) 2.1.1 puntuan emandako informazioa;
b) cuando proceda, en peso de materia seca:	b) hala dagokionean, materia lehorraren pisua oinarritzat hartuta:
i) el porcentaje total de materias primas para piensos ecológicos,	i) pentsuetarako lehengai ekologikoen guztizko ehunekoa,
ii) el porcentaje total de materias primas para piensos en conversión,	ii) pentsuetarako bihurtze-aldiko lehengaien guztizko ehunekoa,
iii) el porcentaje total de materias primas no contemplado en los incisos i) y ii),	iii) aurreko i) eta ii) tartekietan jasota ez dauden lehengaien guztizko ehunekoa,
iv) el porcentaje total de piensos de origen agrícola;	iv) nekazaritza-jatorriko pentsuen guztizko ehunekoa;
c) cuando proceda, los nombres de las materias primas para piensos ecológicos;	c) hala dagokionean, pentsuetarako lehengai ekologikoen izenak;
d) cuando proceda, los nombres de las materias primas para piensos en conversión, y	d) hala dagokionean, pentsuetarako bihurtze-aldiko lehengaien izenak, eta
e) en el caso de los piensos compuestos que no puedan etiquetarse con arreglo a lo dispuesto en el artículo 30, apartado 6, la indicación de que dichos piensos pueden utilizarse en la producción ecológica de conformidad con el presente Reglamento.	e) 30.6 artikuluan xedatutakoaren arabera etiketatu ezin diren pentsu konposatuetan, pentsu horiek erregelamendu honen arabera ekoizpen ekologikoan erabil daitezkeelako argibidea.
2.1.3 Sin perjuicio de lo dispuesto en la Directiva 66/401/CEE, los operadores velarán por que en la etiqueta del envase de mezclas de semillas de plantas forrajeras que contengan semillas ecológicas y en conversión o semillas no ecológicas de determinadas especies diferentes de plantas para las que se haya expedido una autorización en las condiciones pertinentes establecidas en el anexo II, parte I, punto 1.8.5, del presente Reglamento, se facilite información sobre	2.1.3 Ezertan eragotzi gabe 66/401/EEE Zuzentarauan xedatutakoa, operadoreek ziurtatuko dute ezen, erregelamendu honen II. eranskinaren I. zatiko 1.8.5 puntuan ezarritako baldintzetan baimena jasotako landare-espezieez bestelako espezie jakinen kasuan, espezie horien hazi ekologikoak eta bihurtze-aldiko haziak edo hazi ez-ekologikoak dauzkaten bazka-landareen hazi-nahasteetan, nahastearen osagai zehatzei buruzko informazioa ematen dela nahaste horien inguruko

los componentes exactos de la mezcla, desglosados por porcentaje en peso de cada especie que la compone, y, cuando proceda, de cada variedad.	etiketan. Datuak xehakatuta emango dira, nahastea osatzen duen espezie bakoitzaren pisuaren ehunekoaren arabera eta, hala badagokio, barietate bakoitzaren pisuaren ehunekoaren arabera.
Además de los requisitos pertinentes establecidos en el anexo IV de la Directiva 66/401/CEE, dicha información incluirá asimismo las indicaciones exigidas en el párrafo primero del presente punto así como la lista de las especies que componen la mezcla que estén etiquetadas como ecológicas o en conversión. El porcentaje total mínimo, en peso, de semillas ecológicas y en conversión en la mezcla será, como mínimo, del 70 %.	66/401/EEE Zuzentarauaren IV. eranskinean ezarritako betekizunez gain, informazio horrek apartatu honen lehenengo paragrafoan eskatutako argibideak ere jasoko ditu, baita ekologiko gisa edo bihurtze-aldiko gisa etiketatuta dauden nahasteko espezieen zerrenda ere. Hazi ekologikoen eta bihurtze-aldiko hazien guztizko gutxieneko ehunekoa, nahastean, % 70 izango da gutxienez, pisuari dagokionez.
En caso de que la mezcla contenga semillas no ecológicas, en la etiqueta figurará también la declaración siguiente: «El uso de la mezcla únicamente está permitido dentro de los límites de la autorización y en el territorio del Estado miembro de la autoridad competente que autorizó el uso de la misma de conformidad con el anexo II, punto 1.8.5, del Reglamento (UE) 2018/848 sobre producción ecológica y etiquetado de los productos ecológicos.».	Nahasteak hazi ez-ekologikorik badauka, etiketan adierazpen hau ere jasoko da: «Muga hauen barruan bakarrik erabili daiteke nahastea: Ekoizpen Ekologikoari eta Produktu Ekologikoen Etiketatuari buruzko (EB) 2018/848 Erregelamenduaren II. eranskineko 1.8.5 puntuaren arabera nahastea erabiltzeko baimena eman zuen agintaritzak eskudunaren estatu kideari dagokion lurraldean eta betiere baimen horren nondik norakoen barruan».
2.1.4 La información contemplada en los puntos 2.1.1 y 2.1.2 podrá presentarse únicamente en un documento de acompañamiento, siempre y cuando dicho documento pueda relacionarse de forma que no ofrezca lugar a dudas con el envase, recipiente o vehículo de transporte del producto. Este documento de acompañamiento deberá incluir información relativa al proveedor o al transportista.	2.1.4 Posible izango da aurreko 2.1.1 eta 2.1.2 puntuetan xedatutako informazioa dokumentu osagarri batean bakarrik aurkeztea, baldin eta dokumentu hori inolako zalantzarik gabe erlazioa badaiteke produktua garraiatzeko bilgarriarekin, ontziarekin edo ibilgailuarekin. Dokumentu osagarri horrek hornitzaileari edo garraiolariari buruzko informazioa jaso beharko du.
2.2 No se requerirá el cierre de los envases, recipientes o vehículos cuando:	2.2 Kasu hauetan ez da beharrezkoa izango bilgarriak, ontziak edo ibilgailuak ixtea:
a) el transporte se efectúe directamente entre dos operadores y los dos se hallen sometidos al sistema de control ecológico;	a) garraioa bi operadoreen artean zuzenean egiten denean eta biak ala biak daudenean kontrol ekologikoko sistemaren menpe;
b) el transporte incluya solo productos ecológicos o solo productos en conversión;	b) garraioak produktu ekologikoak edo bihurtze-aldiko produktuak bakarrik barne hartzen dituenen;
c) los productos vayan acompañados de un documento que recoja toda la información exigida en el punto 2.1; y	c) produktuak 2.1 puntuan eskatutako informazio guztia biltzen duen dokumentu batekin batera doazenean; eta
d) tanto el operador remitente como el destinatario mantengan registros documentales de tales operaciones de transporte a disposición de la autoridad de control u organismo de control.	d) operadore igorleak zein hartzaileak kontrol-agintaritzarentzat edo kontrol-organismoarentzat eskuragarri uzten dituztenean garraio-eragiketa horiei buruzko dokumentu-erregistroak.
3. Normas específicas para el transporte de piensos a otras unidades de producción o preparación o locales de almacenamiento	3. Pentsuak beste ekoizpen- edo prestaketa-unitate batzuetara edo biltegiatze-lokaletara garraiatzeko berariazko arauak
Al transportar piensos a otras unidades de producción o preparación o locales de almacenamiento, los operadores velarán por que se cumplan las siguientes condiciones:	Pentsuak beste ekoizpen- edo prestaketa-unitate batzuetara edo biltegiatze-lokaletara garraiatzean, operadoreek baldintza hauek betetzen direla ziurtatuko dute:

a) durante el transporte están físicamente separados de manera efectiva los piensos producidos ecológicamente, los piensos en conversión y los piensos no ecológicos;	a) Modu ekologikoan ekoiztako pentsuak, bihurtze-aldiko pentsuak eta pentsu ez-ekologikoak elkarrengandik egokiro bereizita egotea fisikoki, garraiatzen direnean.
b) los vehículos o contenedores en los que se hayan transportado productos no ecológicos solo se utilizan para transportar productos ecológicos o en conversión si:	b) Produktu ez-ekologikoak garraiatzeko baliatu diren ibilgailuak eta edukiontziak kasu hauetan bakarrik erabiltzea produktu ekologikoak edo bihurtze-aldiko produktuak garraiatzeko:
i) antes de iniciar el transporte de productos ecológicos o en conversión se ha efectuado una limpieza apropiada cuya eficacia haya sido controlada y los operadores llevan registros de esas operaciones;	i) produktu ekologikoak edo bihurtze-aldiko produktuak garraiatzen hasi baino lehen garbiketa egokia egin bada, garbiketa eraginkorra dela kontrolatuta, eta operadoreek eragiketa horien erregistroak badauzkate;
ii) se aplican todas las medidas adecuadas en función de los riesgos evaluados de conformidad con mecanismos de control y, en su caso, los operadores garantizan que los productos no ecológicos no pueden comercializarse con una indicación que haga referencia a la producción ecológica;	ii) kontrol-mekanismoei jarraituz ebaluatutako arriskuen arabera egokiak diren neurri guztiak aplikatzen badira eta, hala badagokio, operadoreek bermatzen badute produktu ez-ekologikoak ezin direla merkaturatu ekoizpen ekologikoari erreferentzia egiten dion argibide batekin;
iii) el operador mantiene registros documentales de dichas operaciones de transporte a disposición de la autoridad de control u organismo de control;	iii) operadoreak kontrol-agintaritzarentzat edo kontrol-organismoarentzat eskuragarri uzten baditu garraio-eragiketa horiei buruzko dokumentu-erregistroak.
c) el transporte de los piensos ecológicos o en conversión acabados está separado físicamente o temporalmente del transporte de otros productos acabados;	c) Amaitutako pentsu ekologikoen eta bihurtze-aldiko pentsuen garraioa fisikoki edo tenporalki banatuta egotea amaitutako beste produktu batzuen garraiotik.
d) durante el transporte, se registran las cantidades iniciales de los productos y cada una de las cantidades entregadas a lo largo de un circuito de reparto.	d) Garraioan, egokiro erregistratzea produktuen hasierako kantitateak eta banaketa-zirkuituan barrena entregatutako kantitate bakoitza.
4. Transporte de peces vivos	4. Arrain biziak garraiatzea
4.1 Los peces vivos se transportarán en depósitos adecuados con agua limpia que responda a sus necesidades fisiológicas en términos de temperatura y oxígeno disuelto.	4.1 Arrain biziak tanga aproposetan garraiatuko dira, temperaturari eta oxigeno disolbatuari dagokienez arrainen behar fisiologikoekin bat datorren ur garbiarekin.
4.2 Antes del transporte de peces y productos de la pesca ecológicos, los depósitos deberán haber sido limpiados, desinfectados y aclarados en profundidad.	4.2 Arrantzako produktu eta arrain ekologikoak garraiatu baino lehen, tangak sakon garbitu, desinfektatu eta urberitu behar dira.
4.3 Se tomarán precauciones para reducir el estrés. Durante el transporte, la densidad no alcanzará un nivel que sea perjudicial para la especie.	4.3 Estresa murrizteko neurriak hartuko dira. Garraiatzean, dentsitatea ez da helduko espezierako kaltegarria den maila batera.
4.4 Se conservarán registros de las operaciones a que se refieren los puntos 4.1, 4.2 y 4.3.	4.4 Eragiketei buruz 4.1, 4.2 eta 4.3 puntuetan zehaztutako erregistroak edukiko dira.
5. Recepción de productos procedentes de otros operadores o unidades	5. Beste operadore edo unitate batzuetatik datozen produktuak jasotzea
Al recibir un producto ecológico o en conversión, el operador comprobará el cierre del envase, recipiente o vehículo siempre que sea necesario y	Produktu ekologiko bat edo bihurtze-aldiko produktu bat jasotzean, operadoreak bilgarrien, ontzien edo ibilgailuaren itxitura egiaztatuko du

la presencia de las indicaciones mencionadas en la sección 2.	beharrezkoa den guztietan; era berean, 2. atalean aipatutako argibideak dauden begiratu du.
El operador cotejará la información que figura en la etiqueta mencionada en la sección 2 con la información de los documentos de acompañamiento. El resultado de estas comprobaciones se mencionará explícitamente en los registros contemplados en el artículo 34, apartado 5.	Operadoreak dokumentu osagarrietako informazioarekin erkatuko du 2. atalean aipatutako etiketan dagoen informazioa. Egiaztapen horien emaitza berariaz aipatuko da 34.5 artikuluan xedatutako erregistroetan.
6. Normas específicas aplicables a la recepción de productos procedentes de un tercer país	6. Hirugarren herrialde batetik datozen produktuak jasotzean aplikatu beharreko berariazko arauak
Cuando se importen productos ecológicos o en conversión de un tercer país, se transportarán en envases o recipientes adecuados, cuyo sistema de cierre impida la sustitución de su contenido, y provistos de la identificación del exportador y de cualquier otra marca y número que sirva para identificar el lote, e irán acompañados del certificado de control para la importación de terceros países, cuando proceda.	Hirugarren herrialde batetik produktu ekologikoak edo bihurtze-aldiko produktuak inportatzen direnean, bilgarri edo ontzi egokietan garraiatuko dira. Bilgarri edo ontziek edukia ezin ordeztu ahal izateko ixte-sistema bat izango dute, eta esportatzailearen identifikazioa eramango dute baita lotea identifikatu ahal izateko beste edozein marka eta zenbaki ere. Halaber, hirugarren herrialdeetatik inportatzeko kontrol-ziurtagiria edukiko dute, hala dagokionean.
